

bat

Soziolinguistika

aldizkaria




EUSKAL
SOZIOLINGUISTIKAREN
2016KO
DATU
ESTATISTIKOAK



Soziolinguistika aldizkaria

HIZKUNTZA NORMALIZAZIOA ETA GLOTOPOLITIKA ALDIZKARIA



**EUSKAL
SOZIOLINGUISTIKAREN
2016ko DATU
ESTATISTIKOAK**

● HELBURUA

Aldizkari honen hartzaileak euskararen berreskurapen eta normalizazio lanetan diharduten euskaltzale, teknikari, irakasle edo unibertsitateko ikerlariak dira. Aldizkariaren helburu nagusia eragile hautzat bere jarduera esparruan lagungarri izango zaien informazioa bildu eta hedatzea da.

● EDUKIA

Aldizkari honek hizkuntzen egoera, normalkuntza prozesua eta glotopolitikari buruzko lanak biltzen ditu. Bi dira bere erreferentzia esparru nagusiak, Euskal Herria eta Europa. Batean nahiz bestean plazaratzen diren iritzi, esperientzia edo ikerketen agertoki izan nahi du aldizkariak. Argitaratzen diren lanen hautaketa egiterakoan argitalpen batzordeak ahalegin berezia egiten du alor honi berezkoa zaion disziplinarrekotasuna gordetzen eta honela bertan biltzen diren lanek hizkuntza normalkuntza eta glotopolitikarekin loturiko ahalik eta alderdi desberdin gehien erakus dezaten.

● ARGITARATZAILEA

Aldizkaria Soziolinguistika Klusterrak argitaratzen du

● ZUZENDARIA

Iñaki Martínez de Luna Soziologoa

● ARGITALPEN BATZORDEA
Bartzordekideak

Estibaliz Amorrotu (Deustuko Unibertsitateko irakaslea)
eamorror@fil.deusto.es

Maria-Jose Azurmendi (UPV-EHUko katedraduna)
ehu-azurmendi@telefonica.net

Jone Miren Hernández (UPV/EHUko irakaslea)
jm.hernandez@ehu.es

Lionel Joly (Euskaltzaindia)
ljolyeuskaltzaindia@gmail.com

Inma Muñoa (Euskal Herriko Ikastolen Elkartea)
inmuoa@ehi.ikastola.net

Koordinatzailea

Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra)
b.uranga@soziolinguistika.eus

● HARPIDETZA ETA SALMENTA

ARDURADUNA
Isabel Godinez
i.godinez@soziolinguistika.eus
943 592 556

● ALDIZKARIAREN

DISEINATZAILEA
Txema Gartzia Urbina
zabalur@gmail.com

● HARPIDETZAK

Aldizkariaren harpidetza urteko 40 euro dira. Harpidetza egiteko edo bertan behera uzteko jar zaitetz harpidetza eta salmenta arduradunarekin (Isabel Godinez)

● WEBGUNEA

Aldizkariariaren aurreko aleak on-line dituzu **www.soziolinguistika.eus** helbidean
Gune berean, halaber, argitaratu diren lan guztiei buruzko datu basea eta bilatzailea ere badituzu edozein kontsulta erraz eta bizkor egin ahal izateko. Aldizkariaren aurreko aleak eskuratu nahi izanez gero, halaber, gune horretan bertan egin dezakezu eskaera.

● HARREMANETARAKO

Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra)
Martin Ugalde Kultur parkea
20140 ANDOAIN

b.uranga@soziolinguistika.eus
bat.aldizkaria@soziolinguistika.eus

943 592 556

ISSN: 1130-8435 — LEGE GORDAILUA:
SS120/90

INPRIMAKETA: Leitzaran Grafikak S.L.

BAT aldizkariaren Argitalpen Batzordeak eskerrak eman nahi dizkie zenbaki hau argitaratzen lagundu duten guztiei:

Jon Aizpurua, Jaime Altuna, Olatz Altuna, Eneko Anduaga, Uxo Anduaga, Nerea Azurmendi, Beñat Garaio, Garikoitz Goikoetxea, Eneko Gorri, Jone Miren Hernandez, Xabier Isasi, Paula Kasares, Iñaki Martínez de Luna eta Robbie Felix Penman.

Aldizkari honek urtean lau zenbaki argitaratuko ditu.

BAT Soziolinguistika aldizkarian argitaratzen diren artikuluak bi artikulu-ebaluatzailek aztertzen dituzte; horietako bat, gutxienez, aldizkaritik kanpokoa da.

BAT Soziolinguistika Aldizkariaren edukiak honako sareetan daude:

— Dialnet

— EBSCO International Research Databases

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

*Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*



Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

idatzi **bat**aldizkarian



Asko gara gaur egun soziolinguistikaren esparruren bat lantzen dugunak. Batzuetan egindako lana eta horrek emandako uzta zein den erakusteko, bestetan bizi izandako erasoak ekarri duena ezagutzeko... Euskara bizi den eremu orotan bada zer ikusi eta zer ikasia.

Zure jarduera esparrua edozein dela ere, Bat aldizkariko irakurleontzat ekarpen mamitsuren bat duzula uste baldin baduzu zabalik duzu aldizkariko atea.

Dei hau euskararen soziolinguistika kezka eta arretagune duen orori zuzendurik dago, euskaltzale, tesigile, ikerlari, normalkuntza teknikari, irakasle...

Oharra: Lanak aldizkariaren egoitzara bidali behar dira. Idatzi aurretik irakurri aldizkariaren lanak argitaratzeko irizpedea.



Harremanetarako: Belen Uranga
BAT aldizkaria
Martin Ugalde KP
20140 Andoain

Telefonia: 943 592 556

Helbide elektronikoa: b.uranga@soziolinguistika.eus

Deskontu Sarea, abian!

berria



Orain,
BERRIAlagunek
deskontuak tokiko
saltokietan!

Sartu webgunean, eta baliatu deskontuak:
berria.eus/berrialaguna/deskontusarea

**Deskontu kupoi bat
baliatu nahi duzu?**

1. Sortu kontua BERRIAlagunaren webgunean
2. Inprimatu kupoi Deskontu Sarea eta deskargatu telefonoan
3. Aurkeztu dendan BERRIAlagun barietarekin batera

Zure ekarpena deskontu bidez barreskuratu, ko duzu:

- > Dendak
- > Jatetxeak
- > Museoak
- > Landetxeak
- > Ikuskizunak
- > Aisialdi guneak



Babestu BERRIA eta gozatu abantailaz!

berria
munduarekin batera

106

EUSKAL SOZIOLINGUISTIKAREN 2016ko DATU ESTATISTIKOAK

> **HITZAURRE GISA**

Belen Uranga **007**

01. Euskaldunon dentsitateak zer-nolako eragina du euskararen kale-erabileran?

Olatz Altuna Zumeta **011**

02. Euskararen erabilera eta erabileran eragiten duten faktore nagusiak

Jon Aizpurua Espin **029**

03. Euskararen biziberritzea, eleaniztasunaren garaiko erronka

Iñaki Martínez de Luna **047**

04. Kale-erabilera: Nafarroako datuen irakurketa

*Eneko Anduaga Insausti,
Paula Kasares* **065**

05. Euskararen erronkak

Eneko Gorri **079**

06. Euskara biziberritzea azaltzeko eredu estatistikoa

Xabier Isasi **091**

07. %2,7a. Euskara, generoaz mintzo?.

*Jaime Altuna Ramírez,
Jone Miren Hernández García* **115**

KRONIKA

08. Arduradun politikoek, eragile sozialek eta unibertsitateko adituek esandakoaren kronika.

UDAKO IKASTAROKO MAHAI-INGURUAK

*Nerea Azurmendi, Uxo Anduaga,
Belen Uranga, Garikoitz Goikoetxea* **147**

ERANSKINA

09. Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa. Euskal Herria, 2016. Eraitza nagusien txostena

Olatz Altuna Zumeta **177**

GUREAN ATALA

10. Euskal lankidetzaren Hego Amerikako hizkuntzen biziberritzean eragina du

Robbie Felix Penman, Beñat Garaio **197**

Aldizkarian lanak argitaratzeko bidea

Zure jarduera esparrua edozein dela ere, BAT aldizkariko irakurleontzat ekarpena izango dela uste baldin baduzu, zabalik duzu aldizkariko atea. Lanak idatzi eta aurkezteko irizpideak honakoak dira:

Luzera. Aldizkarian bi motatako testuak argitaratzen dira: artikulua akademikoak eta liburu-aipamenak. Artikuluen kasuan 30.000 karaktere inguruko luzera izango dute eta erreseinen kasuan, aldiz, 10.000 karaktere inguru.

Laburpena. Artikuluen kasuan, testuarekin batera, bere edukiaren laburpen bat erantsi behar da (gehienez 1000 karaktere, 10 lerro mekanografiatu gutxi gora-behera). Aldizkariak ingelesera itzuliko du laburpena eta bi hizkuntzotan emango du artikulua hasieran, eta baita interneten ere. Liburu-aipamenei kasuan ez da laburpenik argitaratuko.

Hitz gakoak. Artikuluen kasuan, hari lotzen zaizkion lau/sei hitz gako emango ditu egileak sailkatze eta bilaketa automatikoak errazteko asmoarekin.

Erreferentziak eta oharrak. Ahal izanez gero, erreferentzia guztiak testu barnean txertatuko dira, artikulua bukaerako bibliografiarekin lotuz. Oharrak, izatekotan, zenbaturikoak izango dira, eta zerrenda osoa artikulua amaieran emango da.

Aipamen bibliografikoak. Testuaren baitan egilearen deitura eta lanaren argitaratze urtea adieraziko da parentesi artean; demagun: "(Odriozola 1998)".

Lanaren amaieran, bibliografia erantsiko da, oinarrizko eredu honi jarraituz:

Odriozola, J. M. (1998). *Hizkuntza, kultura eta gizartea*. Bilbo, Euskaltzaindia.

Zalbide, M. (2007). "Pedagogoa Batzar Nagusietan", *Euskera*, 52: 61-157.

Zuazo, K. (2000). Mendebaldeko euskara, in Zuazo, K. (2000): *Euskararen senda belarrak*. Irun, Alberdania (63-126).

Irudiak. Lanak irudi, taula, edo grafikorik balu, artikulua txertatzeaz gain, irudi bakoitza jatorrizko formatuan atxikita bidaliko da.

Kolorea. Lan guztiak zuri-beltzean izango dira: bai taulak, grafikoak, eta baita irudiak ere.

Zuzenketa. Komenigarria da lana aldizkarira igorri aurretik behar diren zuzenketa ortografiko eta estilistikoak egitea. Arazo berezirik balego aldizkariaren koordinatzaileak horren berri emango dizu eta lanerako metodologia bat proposatuko.

Epeak: Aldizkariaren koordinatzailearen eta egilearen artean lana eskuratu eta argitaratzeko epea adostuko da.

Egilearen erreferentzia. Lana egin duenaren izen-deituraz gain bere jarduera profesionala eta helbide elektronikoa adieraziko dira.


Lanak bidaltzeko helbidea. Egileak BAT Aldizkariko Argitalpen Batzordearen esku jarriko ditu artikulua zein erreseinak, Soziolinguistika Klusterraren helbide postala zein elektronikoa erabiliz.

Hitzaurre gisa

Belen Uranga

Soziolinguistika Klusterra

b.uranga@soziolinguistika.eus



Eneko Gorrik zenbaki honetan bertan dio “erritual” modukoa bihurtzen ari dela *Inkesta Soziolinguistikoaren* eta *Kale-erabileraren neurketaren* emaitzen irakurketa; alegia, bost urtean behin, Eusko Jaurlaritzak eta Soziolinguistika Klusterrak, hurrenez hurren, egiten duten euskararen biziberritze-prozesuko bi datu-bilketa handien emaitzen irakurketa eta interpretazioa.

Guk ez dugu erritual denik esango baina bai, arreta bereziarekin egin beharreko eginkizuna dela. Horregatik, publiko egitearekin batera, datuon azterketarako EHUko ikastaroa antolatu ohi dute Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Soziolinguistika Klusterrak. Hala egin dute 2017an ere, eta bertan parte hartu dute zuzendari modura, bi ikerketa horietako arduradun tekniko nagusi diren Jon Aizpuruak eta Olatz Altunak.

Ikastaro horretan egindako aurkezpenak, mahai-inguruak -kronika modura emanda-, eta beste hainbat adituren ekarpenak bildu

ditugu, horrela, BAT 106 zenbaki monografiko honetan.

Hasteko, **Olatz Altunak** bere artikuluan 2016an egindako behaketa/ikerketaren emaitza aurkeztu du. Baina zerbait harago joan nahi izan du “**Euskaldunon dentsitateak zer-nolako eragina du euskararen kale-erabileran?**” izeneko artikuluan; Euskal Herri mailako neurketez gain, adierazgarriak diren hainbat udalerritako kale-neurketak aztertu ditu, hiru gune soziolinguistiko bereiziz. Eta esan daiteke jasotako emaitzek argi berria ekarri dutela hainbat esparrutan, esate baterako, gune soziolinguistiko desberdinetan, haurren edota helduen presentziaren araberrako portaerak bereizteko orduan. Horrela, udalaren gaitasun-mailaren eta euskararen erabileraren arteko harremana aztertuz, udal-mailako tipologia berri bat proposatzera dator Olatz Altuna bere artikuluan honetan.

“**Euskararen erabileran eragiten duten faktore nagusiak**” aztertu ditu Jon Aiz-

puruak zenbakiaren bigarren artikuluan. Euskalgintzan ari garenon artean denok partekatzen dugun kezka da ezagutzaren datuak kontuan izanda aurreikusi genezakeen erabileraren eta erabilera erreala-
ren arteko tartea. Eusko Jaurlaritzak argitaratutako VI. Inkesta Soziolinguistikoaren datuak erakutsiz, euskararen erabileraren gakoak zein diren aztertu du Jon Aizpuruak bere artikuluan.

BAT 106 zenbakiko ondorengo 4 artikulua Kale-Neurketa proiektuko Batzorde Zientifikoko kideek idatzi dituzte, hainbat esparru zehatzei atxikita. Lehenengoan, **Iñaki Martinez de Luna** soziolinguistak **“Euskararen biziberritzea, eleaniztasunaren garaiko erronka”** izenburuarekin, euskara biziberritzeko planetan paradigmaren aldaketarako ideia batzuk ematen ditu. Interesgarriak dira *eleaniztasunaren* inguruan egin dituen hausnarketak, dagoeneko ohituta gaituen bidetik, paradigma horrek euskara suspertzeko eskaintzen dituen aukerak eta arriskuak aztertuz, eta ahalik eta etekin handiena ateratzeko bideak lagungarri izan daitezkeen ideiak plazaratuz.

Multzo honetako bigarren artikulua Nafarroako ikuspegia lantzea du helburu. **Eneko Anduagak** eta **Paula Kasaresek** idatzitako **“Kale-erabilera: Nafarroako datuen irakurketa”** artikuluan 2016ko Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketako Nafarroako datuak xeheki landu dituzte, batez ere, Euskal Herriko joera orokorrari jarrai ez dieten alderdiei erreparatuta. Alegia, EAeko joeratik aldenduz, Nafarroan euskararen kale-erabilera hazi egin da. Artikuluan, hazkunde hori nola aldatzen den aztertu dute gune soziolinguistiko desber-

dinetan eta adinaren, sexuaren eta haurren presentziaren arabera. Jakina, erabilera horren hazkundera ez da horren handia izan, beraz, datua ez da behar bezalako sendoa bere horretan. Halere, oso positiboa da, eta hurrengo neurraldietan gorakadari eusten ote zaion aztertu beharko da; beraz, kontu handiarekin landu beharko dira euskararen erabilera sendotzeko proposamenak.

Euskal Herriko Iparraldeko ikuspegia ere eman nahi izan zaio euskararen lurraldeetako berezitasunen araberrako ekarpenak osatuz. Horretarako, **Eneko Gorrik**, Batzorde Zientifikoko kide den aldetik, **“Euskararen erronkak”** artikulua idatzi du, azpimarratzeko, urte erdia dela soilik Ipar Euskal Herrian hizkuntza politika publikoaren berregituraketa gertatu dela. Hasi berria den politika publikoaren zereginen banaketa teknikoa baino gehiago, badirudi garrantzia handiagoa duela egilearen iritziz, hizkuntza politikaren lidergo politikoa nor hartuko duen erabakitzea. Horrela, hego aldean gutxienez 30 urteko ibilbidea duen arren Iparraldean hizkuntza politikak 10 urte besterik ez ditu, eta ziklo berri baten atarian kokatzen da. Euskalgintzak orokorrean eta Euskal Konfederazioak zehazki, paper garrantzitsua beteko du ondorengo hamarkadetan garatuko diren hizkuntza politikak definitzeko.

Azkenik, Xabier Isasik gogoratu nahi izan du badela **“Euskara biziberritzea azaltzeko eredu estatistikoa”**. Alegia, egilearen iritzian gizarte elebidunetan, zorizko gertaera bilakatzen da hizkuntza gutxi-
tuaren erabilera, hau da, probabilitate-eredu jakinaren araberrakoa. Txillardegiren azterketa matematikoa abiapuntua dela,

euskararen erabileraren probabilitate-funtzioa zehaztu, oinarrizko ezaugarriak definitu eta eredu estatistikoaren erabilerrako azalpenak agertzen dira artikuluan. Era berean, eredu estatistikoaren bitartez, datuok interpretatzeko eta ebaluatzeko irizpideak ere ematen ditu egileak.


BAT aldizkariaren 106. Aleari jarraipena emanaz, azken denboratan interes berezia pizten ari den gai bat ekarri nahi izan dugu bertara. Lehenago ere egin izan du Jone Miren Hernándezek generoa eta euskararen erabileraren inguruko irakurketa eta azterketa, eta, oraingoan, “%2,7a Euskara, generoaz mintzo?” artikuluan Jaime Altunarekin batera ekarpen interesgarria egin dute. Izan ere, azkenengo Kale-Neurketetan agertzen ari den joera argi bat aztertu dute: alegia, emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago egiten dutela euskaraz ikusi ahal izan da, nahiz eta aldea ez den oso oso handia. Nolanahi ere, adinekoen tartean izan ezik, gainerako tarte guztietan antzeman da emakumezkoen erabilera handiago bat. Artikuluan, gertaera hori sortzen dituen arrazoen azalpena ematen dute. Horretarako kale-neurketak hainbat urtetako datuen gaineko genero irakurketa egin dute, eta datu horiek osatzeko, zenbait azterlan kualitatiboetako ondorioak ere aldatu dituzte hona.

EHUko Udako ikastaroa antolatzerakoan gure nahia izan zen ahalik eta iritzi trukateta zorrotzeta eta euskalgintzako sektore desberdinen ekarpena egitea. Helburu horrekin antolatu ziren hiru mahai-inguru eta horietan plazaratutako ideia nagusiak bildu ditugu, “Mahai-inguruen kronika!” deitu dugun artikuluan. Kronika horren idazmenean, mahai-inguruetan dinamiza-

tzaile modura aritu ziren Nerea Azurmendik eta Garikoitz Goikoetxea kazetariak parte hartu dute, eta Soziolinguistika Klusterreko Uxo Anduagak eta Belen Urangak. Kronika hori ez da, jakina, artikuluzientifiko moduan sailkatu daitekeen testua, baina bere edukiak oso interesgarriak direlakoan gaude, gaur egun, euskararen biziberritze prozesuaren perspektiba zuzena izan nahi duen ororentzat, bertan biltzen baitira Erakunde Publikoetako Hizkuntza Politikarako arduradun nagusiak, EAEko unibertsitateko irakasleak eta gizarte eragileko hainbat ordezkari.

ERANSKIN MODURA, BAT Soziolinguistika Aldizkariak argitara ematen du “**Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa. Euskal Herria, 2016. Emaitza Nagusien Txostena**”, ikerketa horren publiko egin diren datu guztien bildumarekin.

Azkenik, BAT 106 zenbakia ixteko, eta monografiatik harago, **MUNDUKO SOZIOLOGIKAREN LEIHOAN** atalean argitaratu dugu **Robbie Felix Penman** eta **Beñat Garaioaren** azterketa oso interesgarri bat: “**Euskal lankidetzaren Hego Amerikako hizkuntzen biziberritzea**”. Artikuluan, Hego Amerikako biziberritze linguistikorako euskal lankidetzaren bi kasu deskribatzen dira: alegia, maputxe komunitatearekin eta hegoaldeko ketzuerako komunitatearekin izandako proiektuen inguruko irakurketa da artikuluan erakusten dena. Bi hizkuntza horietako hainbat zertzelada eskaintzeaz gain, euskal lankidetzaren inguruko oinarri bat ere proposatzen dute egileek, komunitate horiekin euskaldunek izan duten lankidetzaren ikuspegi historiko batetik aztertuta. •



bat **dosierak**

Euskaldunon dentsitateak zer-nolako eragina du euskararen kale-erabileran?

Olatz Altuna Zumeta

Hizkuntzen Erabileraren Kale-neurketaren zuzendaria

Soziolinguistika Klusterra

o.altuna@soziolinguistika.eus

Sarrera-data: 2018-01-15 / Onartze-data: 2018-02-09

Laburpena. Herri mailan adierazgarriak diren kale-neurketak aztertu dira artikulu honetan. Kale-erabilera zertan den jakin nahi izan da hiru gune soziolinguistiko bereiziz. Emaizten analisiak hiru argazki ezberdin utzi dizkigu, bakoitza bere ezaugarri propioekin. Gune batean eta bestean, esate baterako, ez du berdin eragiten haurren edota helduen presentziak, ez eta hiztuna emakumezkoa edota gizonezkoa izateak. Are gehiago, batean eta bestean dagoen euskaldun kopurua eta kaleko erabileraren arteko erlazioa ezberdina da. Lau udal-tipo sortu dira erlazio hori sakonago aztertzeko. • **Hitz gakoak:** *kale-erabilera, hizkuntza-gaitasuna, gune soziolinguistikoak, udal-tipoak.*

Abstract. In this article, local factors present in street measurements that have been conducted are analyzed. The goal has been to find out about what constitutes street usage in three sociolinguistic areas. The analysis of the results has led to three different scenarios, each with its own characteristics. In one area or another, for example, the presence of children or adults has no effect, nor does the presence of female or male speakers. What is more, the relationship between the number of Basque speakers in each one of them and street usage is different. Four types of municipalities have been set up in order to study this relationship in greater detail. • **Key words:** *street use, language competence, sociolinguistic areas, types of municipalities.*


SARRERA

I Euskal Herriaren luze-zabalean egiten dugu bost urtean behin hizkuntzen kale-erabileraren neurketa. 2017ko uztailean eman ziren ezagutzera VII. neurketaren emaitzak, eta BAT aldizkariaren ale honetan jaso da emaitza nagusien txostena eranskin gisa. Azterketa horretarako ehunetik gora herri aukeratzen dira, eta laginketa hori irizpide metodologikoak zainduz egiten da. Herri anitz dira, eta askotarikoak neurritz eta izaeraz. Argazki plurala osatzen da, geografia osoa hartzen duena, nola hiriburuak hala herrixka txikiak. Argazki orokorra da, ez haatik herri mailako bereizmena duena. Esan nahi baita Euskal Herriko Kale-Erabileraren Neurketan jasotzen den laginaren tamaina ez dela aski herri mailako ondorio xeheak ateratzeko. Besteak beste, euskararen ezagutzaren eta erabileraren arteko erlazioa sakonago aztertu nahi izatera, elkarrizketa gehiago behatu behar dira, eta horrek ordu gehiagoko datu-bilketa eskatzen du.

Herri batzuek hala egin nahi izan dute, eta udal horien eskariz Soziolinguistika Klusterrak behaketa luzeagoak egin ditu. Ez dira gutxi izan hautu hori egin duten herriak, eta horietan oinarrituta garatu dugu lan hau. Hortaz, VII. neurketan egindako diagnosi orokorraren osagarria da hemen aurkezten duguna.

Hala bada, 104 herritako¹ kale-erabileraren datuekin egin dugun azterketa aurkeztuko dugu. Herri gehienak Gipuzkoan daude, 70. Bizkaian 25 herri ditugu, Nafarroan 5, eta Araban 4. Neurketa horiek 2014tik 2017ra bitarte egin dira.

1. grafikoa: AZTERTUTAKO HERRI KOPURUA LURRALDEKA.



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Herrietako Kale-Neurketak, 2014, 2015, 2016, 2017.

**104 herritako 1
kale-erabileraren
datuekin egin
dugun azterketa
aurkeztuko dugu.
Herri gehienak
Gipuzkoan
daude, 70.
Bizkaian 25 herri
ditugu,
Nafarroan 5, eta
Araban 4.
Neurketa horiek
2014tik 2017ra
bitarte egin dira.**

**EAEko biztanleen
banaketari
dagokionez,
2011n lehen gune
soziolinguisti-
koan bost urte
edo gehiagoko
biztanleen %8,7
bizi da, bigarren
gune
soziolinguisti-
koan %66,4,
hirugarrenean
%21,8 eta
laugarrenean
%3,1.**

Dena den, azterketa bideratzeko ez ditugu herriok lurraldeka antolatu, tipologien arabera baizik. Tipologiak diogunean Mapa Soziolinguistikoak zedarritzen dituen gune soziolinguistikoez ari gara. Hezkuntza, Hizkuntza eta Kultura Sailak argitaratzen duen Mapa Soziolinguistikoan (Eusko Jaurlaritzaren 2014. 36. orria) lau gune soziolinguistiko ezarri ziren euskaldunen ehunekoaren arabera. Honako hau da banaketa²:

— Lehen gune soziolinguistikoak: Biztanleriaren %20 baino gutxiago da euskalduna.

— Bigarren gune soziolinguistikoak: Biztanleriaren %20-50 bitartean da euskalduna.

— Hirugarren gune soziolinguistikoak: Biztanleriaren %50-80 bitartean da euskalduna.

— Laugarren gune soziolinguistikoak: Biztanleriaren %80 edo gehiago da euskalduna.³

EAEko⁴ biztanleen banaketari dagokionez, 2011n lehen gune soziolinguistikoan bost urte edo gehiagoko biztanleen %8,7 bizi da, bigarren gune soziolinguistikoan %66,4, hirugarrenean %21,8 eta laugarrenean %3,1.

1. taulan ikus daiteke multzo bakoitzeko zenbat udalerrri behatu ditugun. 104 udalerrietatik ia erdia hirugarren gune soziolinguistikoan kokatzen da (50), laugarren gunean 43 ditugu, bigarrean 11, eta lehen guneko barrak besterik ez –Nafarroa Garaiko Aranguren–. Hori horrela, ez dugu lehen gunearen azterketarik egingo.

Esandakoetatik eratorritzen denez, 104 herri hauek ez dira Euskal Herriko egoeraren isla, ez eta Autonomia Erkidegoko egoerarena ere. EAEko herrien %9 lehenengo gune soziolinguistikokoa da baina gure azterketan (laginean) ez dugu gune horretako herririk; %32 bigarrenen gunekoa da eta gure laginean gune horretarako %11 besterik ez ditugu; %35 hirugarren gunekoa da eta guk aztertutako herrien artean %48 dira gune horretakoak; azkenik, %24 laugarren gunekoak dira eta gure laginean %41 dira⁵.

Herriek beraiek eskatu dute neurketa; ez dago, beraz, hautaketa metodologiko bat lagina Euskal Herriaren adierazgarria izan dadin. Hori horrela, hemen aurkezten diren azterketek herri horientzat eta herri horien tipologia berekoentzat dira baliagarri, baina ezin daitezke besterik gabe ondorio orokorrak estrapolatu.

1. taula: KALE-NEURKETA BURUTU DUTEN HERRIAK, GUNE SOZIOINGUISTIKOEN ARABERA.

Gune soziolinguistikoak: euskaldunen portzentajea	EAE Gunekako herri kop. (%)	Lagina		Herriak
		Herri kop. (%)	Ezagutza batez beste	
1. gunea: %20tik behera	22 (%9)			--
2. gunea: %20 - %50 bitarte	80 (%32)	11 (%11)	%34	Altsasu ¹ , Durango, Erandio, Ermua, Errearteria, Muskiz, Pasaia, Urkabustaiz, Zaldibar, Zigoitia, Zuia.
3. gunea: %50 - %80 bitarte	88 (%35)	50 (%48)	%68	Alegia, Andoain, Anoeta, Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Astigarraga, Azkoitia, Belauntza, Bergara, Bermeo, Berrobi, Busturia, Deba, Ea, Eibar, Elgeta, Elgoibar, Eskoriatza, Gatika, Gernika-Lumo, Hernani, Hondarribia, Ibarra, Igorre, Ikaztegieta, Irura, Itsasondo, Larrabetzu, Legazpi, Legorreta, Lezo, Mallabia, Markina-Xemein, Mendaro, Oñati, Oiartzun, Ondarroa, Ordizia, Orrio, Otxandio, Soraluze, Tolosa, Urnieta, Urretxu-Zumarraga, Usurbil, Villabona-Amasa, Zarautz, Zizurkil, Zumaia.
4. gunea: %80tik gora	61 (%24)	43 (%41)	%87	Abaltzisketa, Aduna, Aizarnazabal, Albiztur, Alkiza, Altzo, Amezketza, Amoroto, Araitz, Arama, Aramaio, Areso, Ataun, Aulesti, Azpeitia, Baliarrain, Berastegi, Berriatua, Bidania-Goiatz, Dima, Elduain, Errezil, Ezkio-Itsaso, Gaztelu, Getaria, Gizaburuaga, Goizueta, Hernialde, Idiazabal, Larraul, Leaburu, Leitza, Lekeitio, Lizartza, Mañaria, Mutriku, Muxika, Orendain, Oresa, Zaldibia, Zerain, Zestoa, Ziortza-Bolibar.

¹ Nafarroan bost herri neurtu dira: Altsasu, Araitz, Areso, Goizueta eta Leitza.

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Herrietako Kale-Neurketak, 2014, 2015, 2016, 2017.

2. GUNEKAKO AZTERGAIK

Esanda bezala, herri guztiak hiru gunetan antolatu eta gune edo multzo horiek bereiz tratatuko ditugu, multzokatze hori portaera-ezaugarriak aztertzeke egokia delakoan. Bereizi bai, baina azterketarako eskema berdina erabiliko da hiruetan.

Eskema horrek honako hiru aztergai hauek hartzen ditu:

**2017ko uztailean
eman ziren
ezagutzera VII.
neurketaren
emaitzak.
Argazki orokorra
da, ez haatik
herri mailako
bereizmena
duena.**

1. Adina

Hiztunok eta entzuleok zer adin dugun, bada kontuan hartzeko aldagaia, nabarmen eragiten –ahal– duena elkarrizketen hizkuntza hautuan. Adinaren arabera portaera horiek hobeto ezagutzeko, behatzaileek solaskideen gutxi gorabeherako adina ere jaso dute. Lau adin-taldetan banatu dira solaskideak: haurrak (14 urte bitarte), gazteak (15-24 urte), helduak (25-64 urte) eta adinekoak (65 urtetik gora). Horrela jasotako datuetatik adinak duen eragina hobeto ezagutu nahi da; izan ere, elkarrizketetan parte hartzen dutenen adina aldagai funtsezkoa da kale-erabileraren oraina zertan den jakin, eta datorkeenaren aurreikuspenak egiteko.

Hiru azterketa mota egin dira adina oinarri hartuta, nahiz grafiko berean jasoko diren azterketa horiek. Honatx zein diren azterketa horiek:

— Solaskide guztien adin-taldeak

Elkarrizketaren hizkuntza jasotzearekin batera, behatzaileek solaskideen adinari erreparatu eta datu hori ere jasotzen dute. Hiztunen adina bezala jasotzen da entzuleen adina; hau da, elkarrizketan presente dauden guztien adina geratzen da apuntatuta. Adin desberdinetakoak ari direnean ere, nahasketa hori jasota geratzen da. Datu horien lanketa eginda jakingo dugu, adibidez, zein adin-taldek duen eragin positiboena euskaraz aritzeko, eta zeinek negatiboena. *Haurren portaerak areagotu egiten al du euskararen erabilera? Gazteek euskararen erabilera galera al dakarte? Helduek zer joera dute? Eta adinekoek?* Molde horretako galderei erantzutera dator atal hau.

Adin-taldeen nahasketari erreparatuz gero, nabarmentzekoa da haurrak maiz agertzen direla beste adin-taldeekin, izan heldu edo adineko; aldiz, esate baterako, gazteak gutxitan aritzen dira gazte ez direnekin. Behatu ditugun gazteen %80 adin berekoekin ari zen hizketan. Bada datu adierazgarria. Horrelako portaerak motibatu dute orain aurkeztuko dugu bigarren azterketa mota.

— Adin-talde berekoen artean

Jakingarria da nolako jokabidea duten adin bertsuko solaskideek elkarren artean ari direnean. Harreman horizontalak –adin berekoen artean– eta bertikalak –adin desberdinekoen artean– bereiziz aztertu nahi da hizkuntzaren erabilera zer-nolako den. Zenbait autorek, izan ere, garrantzi handia eman diote adin berekoen arteko hizkuntzaren erabilerari. Aipagarria da Paula Kasaresen lana (2015), non harreman eszentrikoak deituriko interakzioetan jartzen duen arreta. Hizkuntzaren transmisioaz ari dela, au-

toreak lagun adinkideen arteko harremanak familiako harremanen parean jartzen ditu, eta dio batera jokatzeko dutela, sozializazio prozesuan elkarreraginez. Oso desberdintzat hartu ohi diren etxea eta kalea/eskola, ez dira hain erraz bereiztekoak haurrak euskaraz hazteko prozesuan. Bere hitzetan: “Egun urtebete ere ez duten hainbat ume haur eskoletan hasten dira eta etxeko hizkuntza erdara duena hor hasten da euskaraz jabetzen” (Kasares, 2015: 23). Haur horiek txikitako lagun adinkideen artean hasten dira euskaraz egiten. Eta pentsa daiteke haurtzaroen egindako harreman horizontal horiek gerora ere pisu handia dutela, bereziki hizkuntza-erabilerari dagokionez.

— Haurren presentzia

Haurren presentziak euskararen erabileran eragina duela ukaezina da, hala erakutsi dute kale-neurketa edizio guztietako emaitzek. Baieztapen horretatik harago, gune bakoitzean hurrek zenbateraino eta nola eragiten duten aztertzea dugu xede. Hiru elkarrizketa mota sailkatu ditugu: haurrak bakarrik daudenean, nagusiak⁷ bakarrik daudenean, eta haurrak eta nagusiak talde berean daudenean

2. Sexua

Aztergai honetan hiztunaren sexuari erreparatuko diogu, eta landuko dugu zer eragin duen hiztuna emakumezkoa ala gizonezkoa izateak⁸. Emaitzen analisia adinaren arabera egingo da honakoan ere, horrela bereizi ezean, orokorrean hartuta, sexuaren araberrako aldeak ez baitira bistara agertzen. Helduen multzoak –multzo handienak– eragin berdintzailea du, multzo horretan emakumezkoen zein gizonezkoen erabilerak maila antzekoa baita, eta horrek ezkutatu egiten du haurren, gazteen eta adinekoen portaera.

3. Ezagutzaren eta erabileraren arteko korrelazioa

Azken aldi luzean gaitasunaren eta erabileraren artean dagoen arrakalak atentzia eta kezka handia piztu du. Ikerketa soziolinguistikoa eta autore askok erreparatu diote erlazio horri. Galdera bat dabil: *gero eta euskaldun gehiago bagara, zer dela-eta ez da gehiago egiten euskaraz?*

Gure herrietako egoera soziolinguistikoa ondo aztertu beharra dago, galdera horri taxuz erantzun baxaio. Alderdi eta ertz asko ditu. Ikuspegi eta ekarpen asko beharko dira diagnostiko fidagarria osatzen joateko. Testuinguru horretan, kale-erabileraren behaketa bidezko neurketak eta *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuko* ezagutza-datuak erlazioatzea argigarria izan daiteke.

**Herri batzuek
hala egin nahi
izan dute, eta
udal horien
eskariz
Soziolinguistika
Klusterak
behaketa
luzeagoak egin
ditu.**

**Herri guztiak
hiru gunetan
antolatu eta gune
edo multzo
horiek bereiz
tratatuko ditugu,
multzokatze hori
portaera-
ezaugarriak
aztertzeo egokia
delakoan.**

Datu-gurutzaketa horren interesa zalantzan jartzen ez bada ere, argi esan behar da bi datu-iturburu horiek ez direla hiztun-multzo beretik jaso. Ezagutzak herrian erroladatutako biztanleen datuak jasotzen ditu, eta kale-erabilerak kalean ari den edonor hartzen du, herri horretan erroldatuta egon ala ez.

Erabileraren eta ezagutzaren arteko aldea kuantifikatzeko, udal tipologia bat sortu dugu lau udal-tipo bereiziz, nolabait euskararen egoeraren edota aktibazio sozialaren adierazle izan daitezkeelakoan. Hona hemen:

1. **tipoa, PAREZ PARE:** Euskararen kale-erabilera bertako euskaldunen portzentajearen parekoa edota handiagoa denean.
2. **tipoa, HURBIL:** Erabilera ezagutzatik hurbil dagoenean, erabilera %10-20 txikiagoa denean.
3. **tipoa, TARTEKO:** Erabilera ezagutzatik ez hurbil, ez urrun dagoenean, erabilera %20-50 txikiagoa denean.
4. **tipoa, URRUN:** Erabilera ezagutzatik urrun dagoenean, erabilera ezagutzaren erdia edo gutxiago denean.

1.etik 4.era, tipo horiek erabileraren eta ezagutzaren arteko distantzia adierazten dute. 1. eta 2. tipoko udalerrietan, esan daiteke hiztun euskaldunek euskaraz aritzeko aukera eduki, eta hala egiten dutela. Tarte hori handiagotzen doa 3. eta 4. tipoetan: euskaraz aritzeko aukerak urrituz doaz, eta, praktikan, dakitenek ere gutxiago egiten dute.

3. BIGARREN GUNE SOZIOLOGIKOA: EUSKALDUNAK BIZTANLERIAREN %20-50

I


Gune honetan bizi da jende gehien –EAEko biztanleen herena–, eta gune honetako kale-erabileraren egoera da pisu gehien duena Euskal Herriko diagnosi orokorrean⁹.

Multzo honetan 11 herri ditugu, eta horietan egindako azterketatik nabarmentzekoak dira ondorio hauek:

- Batez besteko euskararen kale-erabilera %13,7 da, hau da, kalean entzundako elkarrizketetan hamar solaskidetatik bat ari zen euskaraz.
- Erabilera altuena haurretan jaso da; txikiena, aldiz, adinekoetan.
- Haurren eta gazteen erabileran sekulako aldea antzeman da: hamar puntukoa. Eta gazteen eta helduen artean puntu bateko aldea besterik ez dago.
- Adin berekoen arteko elkarrizketetan euskararen erabilerak behera egiten du. Lau adin-taldeetan errepikatu da portaera hori.

- Haurren arteko elkarrizketetan –nagusirik gabekoetan– erabilera asko jaisten da, eta ia gazteen arteko erabileraren parean kokatzen da.
- Erabilera mailarik altuena haurrak beste adin-taldeekin *nahastuta* ari direnean behatu dugu.
- Erabilera mailarik baxuena adinekoen arteko elkarrizketetan jaso dugu.


2. grafikoa: BIGARREN GUNE SOZIOLINGUISTIKOAN ADIN-TALDEEN ARABERAKO EUSKARAREN KALE-ERABILERA.



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Herrietako Kale-Neurketak, 2014, 2015, 2016, 2017.

Gune soziolinguistiko honetan sexuari erreparatuz gero, ondorioa da adin-talde guztietan emakumezkoek gizonezkoek baino zertxobait gehiago hitz egiten dutela euskaraz. Alde handiena haurretan eta gazteetan antzeman dugu. Hurrengo grafikoa jaso ditugu emaitzak.

3. grafikoa: BIGARREN GUNE SOZIOLINGUISTIKOAN ADINAREN ETA SEXUAREN ARABERAKO EUSKARAREN KALE-ERABILERA.



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Herrietako Kale-Neurketak, 2014, 2015, 2016, 2017.

Gune soziolinguistiko honetako 11 herrietan kale-erabileraren eta bertako euskaldun proportzioaren arteko aldea aztertzen badugu, bost herri *tar-teko* tipokoak dira (Urkabustaiz, Pasaia, Altsasu, Zaldibar eta Zigoitia), eta sei *urrunekoak* (Erandio, Errenteria, Ermua, Durango, Muskiz eta Zuia). Ez dugu *hurbileko* herririk, ez eta *parez parekorik* ere. %20-%50eko ezagutza duten herriotan, ezagutza eta erabilerarekiko aldea nabarmena da. Bada

**Udal tipologia
bat sortu dugu,
euskararen
egoeraren edota
aktibazio
sozialaren
adierazle izan
daitezkeelakoan:
1. tipoa, PAREZ
PARE; 2. tipoa,
HURBIL; 3.
tipoa, TARTEKO;
4. tipoa,
URRUN.**

hori, bere horretan, kontuan hartzeko aspektua: ezagutza altua ez denean, erabilera dezente baxuagoa da.

4. HIRUGARREN GUNE SOZIOLINGUISTIKOA: EUSKALDUNAK BIZTANLERIAREN %50-80

Behatu ditugun herri gehienak gune soziolinguistiko honetakoak dira, 50 guztira. Atera ditugun emaitza nagusiak honako hauek dira:

— Batez besteko euskararen kale-erabilera %41,4 da.

— Gune honetan ere, zenbat eta gazteago izan, orduan eta euskararen erabilera altuagoa da. Eskailera garbia da, eta gazteen eta helduen artean alde handiagoa antzeman da hemen aurreko gunean baino.


— Talde bereko elkarrizketetan, haurren arteko elkarrizketa horizontaletan euskararen erabilera txikiagoa da haurren elkarrizketa bertikaletan baino. Bi balio horien arteko aldea 6 puntukoa da orain, baina bigarren gunean alde hori handiagoa zen –12koa–. Horren arabera, esan daiteke euskaldunen proportzioa handitu ahala, haurrak beren artean edo besterekin aritu, alde txikiagoa dagoela.

— Talde bereko emaitzetan bi errealitate desberdin agertzen zaizkigu: batetik haur-haur eta gazte-gazte errealitatea; eta bestetik, heldu-heldu eta adineko-adineko errealitatea. Erabileran koxka handia dago: gazteagoek dezente gehiago egiten dute euskaraz.

— Bigarren gunean bezala, erabilera maila altuena haurrak beste adin-taldeekin batera (*nahastuta*) dauden elkarrizketetan jaso dugu, baina esan dugunez, gune honetan haurren arteko elkarrizketekiko aldea nabarmen txikiagoa da.

— Gune honetan ere erabilera mailarik baxuena adinekoen arteko elkarrizketetan jaso dugu.


4. grafikoa: HIRUGARREN GUNE SOZIOLINGUISTIKOAN ADIN-TALDEEN ARABERAKO EUSKARAREN KALE-ERABILERA.



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Herrietako Kale-Neurketak, 2014, 2015, 2016, 2017.

Gune soziolinguistiko honetan haur, gazte eta heldu emakumezkoak gizonetzkoak baino gehiago aritzen dira euskaraz; adinekoetan, aldiz, ez dago alderik hiztuna emakumezkoa ala gizonetzkoa izan. Bigarren gune soziolinguistikoan genion alde handiena haur eta gazteetan behatu dugula; hirugarren gunean haurretan ez dago halako alderik, gazteetan bai.

5. grafikoa: HIRUGARREN GUNE SOZIOLINGUISTIKOAN ADIN-TALDE ETA SEXUAREN ARABERAKO EUSKARAREN KALE-ERABILERA.



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Herrietako Kale-Neurketak, 2014, 2015, 2016, 2017.

Hirugarren gune soziolinguistikoan ditugun 50 herrietan kale-erabilera eta ezagutzaren arteko alde txikiko eta handiko herriak daude. Lau tipok aurkitu ditugu: *parez-pareko* herriak 11 dira (Alegia, Antzuola, Belauntza, Berrobi, Ikaztegieta, Irura, Itsasondo, Legorreta, Zizurkil, Markina-Xemein eta Ondarroatza), *hurbilekoak* 7 herri dira (Anoeta, Azkoitia, Deba, Mallabia, Oñati, Oiarzun eta Zumaia), *tartekoak* 25 (Aretxabaleta, Arrasate, Astigarraga, Bergara, Busturia, Ea, Elgeta, Elgoibar, Eskoriatza, Gernika-Lumo, Hernani, Ibarra, Igorre, Larrabetzu, Legazpi, Lezo, Mendaro, Ordizia, Orio, Otxandio, Soraluze, Tolosa, Usurbil, Villabona-Amasa, eta Zarautz), eta *urrunekoak* 7 (Andoain, Eibar, Hondarribia, Urnieta, Urretxu-Zumarraga, Bermeo eta Gatika).

5. LAUGARREN GUNE SOZIOLINGUISTIKOA: EUSKALDUNAK BIZTANLERIAREN %80 EDO GEHIAGO

Gune honetako 43 herri¹⁰ aztertu ditugu. Jasotako datuek honako argazkia erakutsi digute:


— Euskararen kale-erabileraren batezbestekoa %82,6 da. Datu hau deigarria da, berez. Portaera linguistiko konpaktua adierazten du portzentaje horrek. Kalean euskararen erabilera ohikoa da, edozein dela ere solaskideen adina edo sexua.

— Hortaz, lau adin-taldeen erabileretan ez dago alde handirik. Emaitzei zorrotz begiratu gero, haur eta gazteen erabilera batezbestekoen gainera dago, eta adinekoen erabilera helduenen gainera.

Bigarren gune soziolinguistikoetako 11 udalerrien artean, bost herri tarteko tipokoak dira, eta sei urrunekoak.

- Erabilera horizontalen eta bertikalen artean ez dago alde handirik.
- Haurren arteko elkarrizketetan entzun dugu euskara gehien. Gune honetan, aurrekoetan ez bezala, haurren elkarrizketa horizontalak euskaldunagoak dira elkarrizketa bertikalak baino. Haurrek inguru euskaldunean natural egiten dute euskaraz, beren-berena den hizkuntzan.
- Erabilera mailarik baxuena, aurreko bi guneetan ez bezala, helduen arteko elkarrizketetan jaso dugu.


6. grafikoa: LAUGARREN GUNE SOZIOINGUISTIKOAN ADIN-TALDEEN ARABERAKO EUSKARAREN KALE-ERABILERA.



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Herrietako Kale-Neurketak, 2014, 2015, 2016, 2017.

Hala berean, ez dago sexuen arteko alderik: adin-talde guztietan emakumezkoek zein gizonezkoek neurri bertsuan egiten dute euskaraz.

7. grafikoa: LAUGARREN GUNE SOZIOINGUISTIKOAN ADIN-TALDE ETA SEXUAREN ARABERAKO EUSKARAREN KALE-ERABILERA.




Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Herrietako Kale-Neurketak, 2014, 2015, 2016, 2017.

Herri bakoitzeko kale-erabileraren eta bertako euskaldun proportzioaren arteko aldea aztertuz gero, gehien-gehienak, 33, parez pareko herriak dira (Aizarnazabal, Albiztur, Alkiza, Altzo, Amezketza, Amoroto, Areso, Ataun, Aulesti, Azpeitia, Baliarrain, Berastegi, Berriatua, Bidania-Goiatz, Dima, Elduain, Errezil, Ezkio-Itsaso, Gaztelu, Getaria, Gizaburuaga, Goizueta, Hernialde, Leaburu, Leitza, Lekeitio, Lizartza, Mutriku, Muxika, Orexa, Zaldibia, Zestoa eta Ziortza-Bolibar), 9 dira *hurbil* tipokoak (Abaltzizketa, Aduna, Arama, Zerain, Larraul, Mutriku, Orendain, Araitz eta Mañaria), eta bi herri besterik ez ditugu *tarteko* tipoa (Aramaio eta Idiazabal).

6. GAITASUNAREN ETA ERABILERAREN ARTEKO ERLAZIOA: UDALERRRI MAILAKO AZTERKETA

8. grafikoan udalerrriak agertzen dira, euskaldunen proportzioaren eta euskararen kale-erabileraren arabera. Neurtutako 104 herriak kokatu ditugu grafikoan, eta burbuilaren tamainak biztanle kopurua adierazten du: zenbat eta biztanle gehiago, orduan eta handiagoa da burbuila.

8. grafikoa: BEHATUTAKO HERRIAK EUSKARA GAITASUNAREN ETA KALE-ERABILERAREN ARTEKO KORRELAZIOAREN ARABERA.



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Herrietako Kale-Neurketak, 2014, 2015, 2016, 2017.

XY koordinatuetan kokatu dira udalerrriak: zenbat eta eskuinago, orduan eta euskararen ezagutza handiagoa; zenbat eta gorago, orduan eta erabileraren altuagoa. Ez da harritzekoa, beraz, eskuinaldean dauden herriak go-

Hirugarren gune soziolinguistikoetako 50 herrien artean lau tipotakoak daude: parez-pareko 11 herri, 7 hurbileko, 25 tarteko eta 7 urruneko.


**Laugarren gune
soziolinguisti-
koetako
udalerrien artean
gehien-gehienak,
parez pareko
herriak dira 33;
9 dira
hurbilekoak eta 2
tarteko.**

rago egotea; ez eta ezker aldean daudenak beherago egotea ere. Logikoa denez, zenbat eta udalerrri euskaldunagoa izan, orduan eta handiagoa da euskararen kale-erabilera.

Oinarritzko kokapen horrez gain, badira xeheago azter daitezkeen puntuak ere. Hona hemen horietako batzuk:

— Euskararen gaitasunak gora egin ahala, ez da bakarrik gertatzen euskara gehiago erabiltzen dela, baizik eta gaitasunarekiko proportzioan erabilerak gora egiten duela. Hau da, gaitasunaren eta erabileraren arteko aldea txikiagotu egiten da gaitasunak gora egin ahala. Nabarmen ikusten da hori aztertutako herrietan, modu erregularrean. 9. grafikoak ere erakusten du joera hori modu laburtuan.

9. grafikoak: EUSKARAREN KALE-ERABILERA GUNE SOZIOINGUISTIKOEN ARABERA.



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Herrietako Kale-Neurketak, 2014, 2015, 2016, 2017.


— Gurea bezalako gizarte elebidunetan, hau da, hiztun euskaldun eta ez-euskaldun ez osatutako testuinguruetan, gaitasuna eta erabileraren arteko erlazioa aztertzeak lagun lezake euskal hiztunen hizkuntza-hautua neurri batean ulertzen. Erlazio horren arabera hirugarren atalean lau udal-tipo aurkeztu ditugu, eta guneak azterketan azaldu dugu zenbat diren tipo bakoitzeko herriak. Orain, 10. grafikoan herri guztiak tipoen arabera kolore intentsitatearen arabera bereizi, eta gaitasuna/erabilera ardatzetan kokatu ditugu.

104 herrietatik 44tan euskararen kale-erabilera eta ezagutzaren artean ez dago alderik, *parez-pareko* udal-tipokoak dira. 15 herri *hurbil* udal-tipokoak dira, 32 herri *tarteko* udal-tipokoak, eta azkenik, 13 herri

urrun udal-tipokoak. Beste ondorio hauek ere atera daitezke: a) eza-gutzaren eta erabileraren arteko arrakala –tarteko eta urrun– ezagutza maila ez altuko herrietan gertatzen da batez ere; b) oro har, herri txikiagoak dira parez pare eta hurbil; c) kurba etzanagoa da ezker aldean, pikoagoa eskuinaldean, eta kurbaren malda bizitu egiten da %50-60ko ezagutzaren atalasea igarotzean.

— “Egoera anisotropikoa” ere agertu da 19 herritan. *Anisotropiko* deitzen zien Txillardegik erabilera ezagutza baino portzentaje handiagoan gertatzen deneko egoerei (Alvarez, 2001). Egoera anisotropikoa gertatuko bada, euskarak oso aldeko habitata behar du, faktore objektiboen nahiz subjektiboen konfluentziatik eratortzen den habitat eroso. Herri horiek guztiak *parez-pareko* tipokoak dira, jakina.

10. grafikoa: EUSKARA GAITASUNA ETA KALE-ERABILERAREN ARTEKO KORRELAZIOA, HERRI-TIPOAK.



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Herrietako Kale-Neurketak, 2014, 2015, 2016, 2017.

Herri-tipokoak lagungarriak izan daitezke herri mailako kale-erabileraren bizitasuna ebaluatzeko. Dena den, sarreran esan duguna gogoratu, bi aldagaiek ez dute unibertso bera ordezkatzen; izan ere, *erabilera* kaleko hiztunen jardunetik etortzen den emaitza da, eta *gaitasuna*, berriz, herriko zentsutik datorkigu. Ez gara ari bete-betean unibertso berberaz, baina neurri batean bai, batez ere herri txiki eta ertainetan pentsatzekoa baita kalean behatu ditugun lagun asko bertan errolatuta daudela.

Euskararen gaitasunak gora egin ahala, euskara gehiago erabiltzeaz gain, proportzioan ere gora egiten du.

**"Euskaldunon
dentsitateak
zer-nolako
eragina du
euskararen kale-
erabileran?"
galderarekin hasi
dugu artikulua.
Azaldu dugunez,
garbi dago
baduela.**

7. ONDORIOAK

I
Ehunetik gora herrik euskararen erabilera beren-beregi neurtu nahi izan dute. Herri horietan jasotako datuetatik ondorio orokorrak ateratzen saiatu gara, guneka eta tipoka sailkatuz antzekotasuna duten eremu soziolinguistikoak. Saiakera horrek honako ondorioak ekarri dizkigu:

— "*Euskaldunon dentsitateak zer-nolako eragina du euskararen kale-erabileran?*" galderarekin hasi dugu artikulua. Azaldu dugunez, garbi dago baduela. Eragin hori zer-nolakoa den azaltzeko, hiru guneko soziolinguistikotan banatu ditugu herriak –lehenengo guneko herririk ez dugu gure laginean–, eta horien arabera argazki bana jaso dugu. Hiru argazki horiek ezaugarri desberdinak dituzte. Hurrengo hiru puntuetan aurkeztuko ditugu bakoitzaren ezaugarri nagusiak.

— Hamar biztanletik euskaldunak bost edo gutxiago diren herrietan –bigarren gunean–, euskararen erabilera maila altuena haurra nagusiekin dagoenean gertatzen da. Harreman horizontaletan, haurren arteko edo gazteen arteko erabilera antzekoa da, aldiz, nabarmen gutxiago hitz egiten da helduen artean edo adinekoen artean. Adin-talde guztietan emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago aritzen dira euskaraz, eta alde hori nabarmena da haurretan eta gazteetan.

— Hamar biztanletik bost/zortzi euskaldunak diren herrietan –hirugarren gunean–, harreman bertikalen eta horizontalen arteko aldea aurreko gunean baino txikiagoa da. Adin-taldean arteko erabileran aldea dago: gazteagoek dezente gehiago egiten dute euskaraz bai talde bereko elkarrizketetan bai talde nahasietan. Adinekoen multzoan, emakumezko zein gizonezkoa izan, erabileran ez dago alderik. Gazteen multzoan nabarmenezkoa da emakumezkoen eta gizonezkoen artean dagoen aldea: neskek dezente gehiago hitz egiten dute euskaraz.

— Hamar biztanletik zortzi edo gehiago euskaldunak diren herrietan –laugarren gunean–, euskararen erabilera altua eta orokortua da. Erabilia izateko baldintza egokienak topatzen ditu euskarak guneko honetan. Hori dela eta, *euskararen arnagunetzat* hartzen da, eta hala deitu ohi zaio. Ez da alde handirik detektatu, ez adin-taldeetan, ez harremanen izaera horizontal edo bertikalean, ez sexuen artean.

— Bigarren eta hirugarren guneeetan, adin bereko kideen arteko elkarrizketetan euskararen erabilera baxuagoa da, adin desberdinetako kideen arteko elkarrizketetan baino. Horrela gertatzen da nabarmen haurren artean, eta modu apalagoan helduen eta adinekoen artean. Gazteen multzoan ezin dugu garbi esan hori hala denik, behatutako

gazteak ia beti adinkideekin ari baitira. Beraz, oro har, harreman bertikaletan euskararen kale-erabilerak gora egiten du. Alderik nabar-menena hurrek parte hartzen duten interakzioetan gertatzen da. Haurren presentziak helduek euskaraz gehiago egin dezaten eragiten du. Eta, aldi berean, helduen presentziak hurrek euskaraz gehiago egitea ere ekartzen du. Laugarren gunean, aldiz, helduen presentziak ez du halako eraginik haurren artean.

— Hiztunen sexuak eragin handiagoa du gune erdaldunagoetako erabileran; gune euskaldunetan, ordea, ez du ia eraginik.

— Zenbat eta gune euskaldunago izan, orduan eta alde txikiagoa dago euskaldunen portzentajearen eta kale-erabileraren artean, edo, beste —eta euskaraz hitz egiteko aukera— handiagoa da. Esan daiteke euskaldunen portzentajea handitu ahala euskaraz hitz egiteko aukerak are gehiago handitzen direla, hau da, eragin biderkatzailea duela. Datuen argitan, eta hurbilpen gisa baizik hartu behar ez bada ere, euskaldunen %50-60ko atalasea gainditzeak erabileraren bizkortzea ekartzen du.

— Aurreko puntuaren ifrentzua: gune erdaldunetan tarte handiagoa dago euskaldunen portzentajearen eta kale-erabileraren artean. Eta gune horiek dira, hain zuzen ere, populatuenak.

Gune soziolinguistikoen erabilera datuak zertan diren deskribatzea izan da gure helburua, aurrera begirako ekinbideak diseinatzeko lagungarri izango delakoan. Hortik harago, (Iñarra, M. & Altuna, O., 2017) artikuluan kontsulta daitezke euskararen erabilera indartzeko ildoetaz buruz egin ditugun hausnarketak. ●

OHARRAK

1. Kanpoan utzi ditugu hiriburuetak kale-neurketak, hiriburuetak errealtate herrieta-koen oso bestelakoa baita.
2. Gune soziolinguistiko hauen izendapenak badu, gure ustez, konnotazio desegokia: lehenengo da eremu erdaldunena, eta laugarrena —azkena— euskaldunena. Gune soziolinguistikoak alderantziz zenbatu eta izendatzea egokiagoa dirudi, euskaldunen proportzio handienari lehen posizioa emanez hurrenkera horretan.
3. Gune soziolinguistikoen sailkapena Mapa Soziolinguistikoa erreferentzia gisa hartuta egin dugu. Mapa Soziolinguistikoak egiten duen banaketa gure laginean aplikatzea egokia den jakiteko K-Means algoritmoa aplikatu dugu. Algoritmoaren arabera, hiru multzo hauek dira egokiak: 1) Euskara gaitasuna %24-%52; 2) %52-%75, eta 3) %75etik gora. Ia bat datoz gure banaketarekin. Horrenbestez, esan dezakegu Mapa Soziolinguistikotik hartutako multzokatzea egokia dela gure laginerako ere.
4. Nafarroako 5.000 biztanletik beherako herrien daturik ez dugu 2011n, eta udalerriz guztiak kontuan hartzen dituen gune soziolinguistikoen banaketa 2001eko da. Horregatik eta gure laginean Nafarroako 6 herri besterik ez ditugulako, lagina EA Erekin alderatu dugu.
5. 2017an Soziolinguistika Klusterrak UEMArekin elkarlanean udalerriz euskaldun guztiatan egin zituen kale-neurketak, horregatik ditugu hainbeste behaketa laugarren gune soziolinguistikotan.
6. Nafarroan bost herri neurtu dira: Altsasu, Araitz, Areso, Goizueta eta Leitza.

Zenbat eta gune euskaldunago izan, orduan eta alde txikiagoa dago euskaldunen portzentajearen eta kale-erabileraren artean; gune euskaldunagoetan trinkotasuna — eta euskaraz hitz egiteko aukera— handiagoa da.

Hurbilpen gisa esanda, euskaldunen %50-60ko atalasea gainditzeak erabileraren bizkortzea ekartzen du.

7. Nagusiztat hartzen ditugu haurrak ez diren beste hiru adin-taldeetako solaskideak: gazteak, helduak eta adinekoak, alegia.
8. Jakitun gara sexu sistema bitarraz gaindi askotariko identitateak daudela. Hala ere, behaketa bidezko metodologiarekin ez dugunez bestelako kategoriarik jasotzen asmatu, "emakume" eta "gizon" izendapenak erabili ditugu.
9. BAT aldizkariko ale honetan argitaratutako "Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketaren (Euskal Herria, 2016) - Emaiza nagusien txostenean egiten da diagnosi orokor hori.
10. Gehienak Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko —UEMAko— kide dira.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Altuna, O. & Basurto, A., 2013. *Hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko gida metodologikoa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. <http://www.soziolinguistika.eus/Gida>. [Azken kontsulta: 2017.03.02]
- Altuna, O., 2002. "Erabileraren IV. Kale-neurketa. Emaizen azterketa". *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*. Issue 43, 37-48.
- Alvarez Enparantza, J.L., Txillardeggi, Isasi X., 2001. *Hacia una Socio-Lingüística Matemática*. Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen.
- Eusko Jaurlaritza, 2014. *V. Mapa Soziolinguistikoa, 2011*. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Eusko Jaurlaritza.
- Iñarra, M. & Altuna, O., 2016. "Euskararen ahozko kale-erabilera: erronkak". *Euskera Aldizkaria*. Issue 61,2, 407-438.
- Kasares, P., 2015. "Euskararen belaunez belauneko jarraipena aztergai eta jomuga" *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*. Issue 94, 13-45.
- Soziolinguistika Klusterra, 2017. *Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa*. Euskal Herria, 2016. http://www.soziolinguistika.eus/files/hekn2016-_eu_1.pdf [Azken kontsulta: 2017 07 28].

uztaro

giza eta teknika-zientzien aldizkaria

2018 - 104

UZTARO aldizkaria jaso nahi dut.

Izena-abizenak:

Helbidea:

Kodea eta herria:

Telefonoak:

Helbide elektronikoa:

N.A./I.F.K.:

Ordainketa:

Banketxea:

Zenbakia (20 digitu):

Sinadura

2018. urterako harpidetza (4 zenbaki): 25,00

Jakinarazi nahi dizugu Datu Pertsonalen Babeserako 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera, zure datuak "Harpidetzak" izeneko fitxategian sartuko direla. Datu pertsonalak biltzearen xedea soil-soilik da UEUrekin duzun *harremana kudeatzea eta gure jardueren berri eman ahal izatea edozein bitarteko erabiliz, posta elektronikoa edo antzeko bideak barne*. Eskubidea daukazu datuok ikusi, zuzendu, ezabatu edo aurka egiteko, honako helbide honetara idatziz: UEU, Erribera kalea 14, 1.D, 48005 Bilbo.

Jakinarazpenik jaso nahi ez baduzu, laukitxoa markatu edo idatzi helbide elektroniko honetara: argitalpenak@ueu.eus



Harpidetza-txartela:
UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA
Erribera 14, a. D 48005 Bilbo

Telefonoa: 946790546
Helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.eus
www.uztaro.eus

Euskararen erabilera eta erabileran eragiten duten faktore nagusiak

Jon Aizpurua Espin

HPS-ko plangintza eta azterlanetako arduraduna. Eusko Jaurlaritza

j-aizpurua@euskadi.eus

Sarrera-data: 2018-01-15 / Onartze-data: 2018-02-09

Laburpena. Artikulu honek euskararen erabilerak 1991-2016 epealdian jorratu duen bilakaera ulertzeko gakoak aurkeztu eta azaltzen ditu. Bertan, harreman-sareak eta hitz egiteko erraztasunak hizkuntzaren erabileran duten eragina azpimarratzen da. Horrekin batera, egileak defendatzen du familia bidezko transmisioa dela euskara biziberritzeko funtsezko tresna. • **Hitz gakoak:** *Inkesta soziolinguistikoa, erabileraren tipologia, bilakaera, jarrera linguistikoa, hizkuntza-transmisioa.*

Abstract. This article introduces and explains the keys to understanding how usage of Basque during the period 1991-2016 has evolved in which the influence that relationship networks and the ease of speaking it have had on language use is highlighted. At the same time, the author defends family transmission as the key tool for revitalizing Basque. • **Key words:** *Sociolinguistic survey, usage typology, evolution, linguistic attitude, language transmission.*

SARRERA

I Kezka dago euskalgintzan euskararen erabilera denaren eta ustez izan beharko lukeenaren artean dagoen aldeagatik. Behin baino gehiagotan entzun dugu euskararen ezagutzak gora egin duela, asko aurreratu dela, baina erabilera ez dela neurri berean hazi. Eta hala da.

Artikuluari gertakari hori zergatik ematen den azaltzeko ahalegina egingo da. Lehenik eta behin, baina, euskararen erabilera zenbatekoa den eta azken hogeita bost urteotan izan duen bilakaera azalduko da. Erabilera orokorraren irakurketa ez ezik, lurraldearen, adinaren, gune soziolinguistikoaren eta erabilera-eremu desberdinen arabera ere egingo da.

Ondoren, euskararen erabileran eragiten duten faktore nagusiak aztertuko dira, eta faktore horien arabera euskaldunaren ezaugarriak nola aldatu diren azalduko da.

Jarraian, artikulua egilearen ustez euskara biziberritzeko gakoetako bat jorratuko da: familia bidezko transmisioa.

Azkenik, artikuluan zehar azalduko den ideia nagusiak laburbilduko dira.

Azterketa honen abiapuntua ez da, inondik inora, kezka, erabileraren gakoak datuetan oinarrituta ulertzeko ahalegina baizik.

METODOLOGIA

Artikuluari erabiliko den informazio-iturria **Inkesta Soziolinguistikoa**¹ da. Inkesta Soziolinguistikoa estatistika ofiziala da, eta 020703 kodearekin dago jasota Euskal Estatistika Planean. Inkesta Soziolinguistikoa 16 urte edo gehiagoko Euskal Herriko biztanleak ditu aztergai. Beraz, artikuluan emango diren datuak aipatutako unibertso horri buruzkoak izango dira, salbuespen batekin. Familia bidezko transmisioaren atalean, 3 eta 15 urte bitarteko seme-alabei buruzko lehen hizkuntzari buruzko datuak azalduko dira. Datua eskuratzeko, adin horretako seme-alabak dituzten inkestatuei galdetu zaie.

Lehenengo inkesta soziolinguistikoa 1991n egin zen, eta azkena 2016koa da. Inkesta Soziolinguistikoa 5 urterik behin egiten da. Inkestatuaren erantzunak jasotzeko, galdetegi egituratua eta itxia erabiltzen da. Lehenengo hiru inkestak aurrez aurreko elkarrizketa bidez egin ziren, azken hirurak, aldiz, telefono bidez. Inkestari erantzuteko batez besteko denbora 11 minutukoa izan da.

Euskararen erabilera zein den neurtzeko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak tipologia bat definitu du: etxeko erabilera, lagunartekoa eta eremu formal; azken honetan, erabilera pribatua (dendak eta banketxeak) eta erabilera publikoa (osasun-zerbitzuak eta udal zerbitzuak).

Azken 25 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilera ia 3 puntu egin du gora Euskal Herrian.


VI. Inkesta Soziolinguistikoaren fitxa teknikoak

- Aztertutako unibertsoa euskararen eremu osoko 16 urte edo gehiagoko biztanleria izan da.
- Landa-lana SIADeco Koop EM enpresak egin du EAEn eta Iparraldean, eta IKERTALDE enpresak Nafarroan.
- Datu-bilketa 2016ko apiril eta maiatz bitartean egin da EAEn eta Nafarroan eta azaro eta abendu bitartean Iparraldean.
- Guztira 8.200 inkesta: EAEn 4.200, Nafarroan 2.000 eta Iparraldean 2.000.
- Euskararen eremu osoko lagin osoaren akats-tartea $\pm\%1,4$ koa da $\%95,5$ eko konfiantza mailarako eta $p=q=\%50$. Konfiantza maila bererako erkidegoka laginketa-errorea honakoa da: EAEn $\pm\%1,9$ koa, Nafarroan $\pm\%2,9$ koa eta Iparraldean $\pm\%2,3$ koa.


EUSKARAREN ERABILERA

VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 16 urte edo gehiagoko euskal herritarren $\%16,5$ ek euskararen erabilera trinkoa egiten dute, hau da, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dute eguneroko jardunean. Aldi berean, $\%9,2$ ek euskara darabilte, baina erdara baino gutxiago. Gainerako guztiek ($\%74,3$) erdara erabiltzen dute beti edo ia beti.

1. grafikoa. Euskararen erabilera tipologia. Euskal Herria, 2016 (%).



Euskararen erabilera zein den neurtzeko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak tipologia bat definitu du. Tipologia hori eratzeko kontuan hartu diren erabilera-eremuak honakoak dira: etxeko erabilera, lagunartekoa eta eremu formala. Azken hau erabilera pribatua (dendak eta banketxeak) eta erabilera publikoa (osasun-zerbitzuak eta udal zerbitzuak) gurutzatuz lortzen da.




Etxeko erabilera oro har ia bere horretan mantendu da azken 25 urteotan.

Erabilerari buruzko emaitzetan alde handiak daude lurralde batetik bestera, adin-talde batetik bestera edota erabilera-eremu batetik bestera, jarraian ikusiko denez.

Lurraldeei dagokienez, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak, hau da, euskararen erabilera trinkoa egiten dutenak %20,5 dira EAEn, %6,6 Nafarroan eta %8,1 Iparraldean. Horietaz gain, euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago, %10,1 dira EAEn, %5,6 Nafarroan eta %10,2 Iparraldean.

2. grafikoa. Euskararen erabilera lurraldearen arabera. Euskal Herria, 2016 (%).




Azken 25 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilerak ia 3 puntu egin du gora Euskal Herrian. Gaur egun 1991n baino 112.000 pertsona gehiago daude Euskal Herrian euskara erdara beste edo

Azken 25 urteotan, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak gora egin du 50 urtetik beherakoan artean. Igoera hori, baina, ez da Euskal Herri osoan modu berean gertatu.


gehiago erabiltzen dutenak. Bilakaera, baina, ez da bera izan lurralde batean eta bestean. EAEn euskararen erabilera ia 5 puntu egin du gora (+111.000 pertsona). Nafarroan ere gora egin du, baina gutxiago (0,5 puntu; +9.800 pertsona). Iparraldean, aldiz, behera egin du (4,9 puntu; -9.000 pertsona).

3. grafikoa. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera, erkidegoaren arabera. Euskal Herria, 1991-2016.




Erabilera eremuei dagokienez, etxeko erabilera gorabehera txikiak izan ditu azken 25 urteotan. Hala ere, esan behar da erabilera seme-alabekin eta neba-arreben artean gora egin duela (3 puntu eta 2,5 puntu, hurrenez hurren).

4. grafikoa. Etxean eta etxeko kideekin euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. Euskal Herria, 1991-2016 (%).




Euskararen erabilerak etxetik kanpo, eta bereziki eremu formalean, egin du gora gehienbat. Erabilera-eremu formalen artean, herritarrek udal-zerbitzuekin eta osasun-zerbitzuekin egiten duten erabilerak izan du azken 25 urteotako hazkunderik esanguratsuena, nahiz eta, osasun-zerbitzuen kasuan, ehunekoia oraindik beste erabilera-eremu batzuen azpitik egon.

5. grafikoa. Etxetik kanpo, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. Euskal Herria, 1991-2016 (%).



Azken 25 urteotan, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak gora egin du 50 urtetik beherakoen artean. Igoera hori, baina, ez da Euskal Herri osoan modu berean gertatu. Izan ere, bere horretan EAEn baino ez da gertatu. Nafarroan 35 urtetik beherakoen artean gertatu da, eta Iparraldean 25 urtetik beherakoen artean.

6. grafikoa. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera adinaren arabera. Euskal Herria, 1991-2016 (%).




Esan daiteke euskararen erabilera pixkanaka hazten ari dela. Ez da hazkunde homoginoa izaten ari. Alde handiak ez ezik, joera desberdinak ere izaten ari dira lurralde, adin-talde edota erabilera-eremuaren arabera.

Euskaldunak bakarrik kontuan hartuta emanaz gero, azken 25 urteotan euskara erabiltzen duten euskaldunen ehunekoak 3 puntu egin du behera, kopurua handiago bada ere.


hazten ari dela. Ez da hazkunde homoginoa izaten ari. Alde handiak ez ezik, joera desberdinak ere izaten ari dira lurralde, adin-talde edota erabilera-eremuaren arabera. Baina, gaur egun duela 25 urte baino euskal herritar gehiagok erabiltzen du euskara. Bilakaera hori euskaldunen hazkundeari esker gertatu da nagusiki. Hau da, erabilera gora egin du euskaraz ondo hitz egiteko gaitasuna dutenak gero eta gehiago direlako. Kontua da bata eta bestea ez direla neurri berean hazten ari.

7. grafikoa. Ezagutzaren eta erabilera bilakaera. Euskal Herria, 1991-2016 (%).



Erabilera-datuak, orain arte bezala, gizarte osoarekiko eman ordez, euskaldunak bakarrik kontuan hartuta emanaz gero, azken 25 urteotan euskara erabiltzen duten euskaldunen ehunekoak 3 puntu egin du behera, kopurua handiago bada ere. Hau da, euskararen erabiltzaile potentzialen artean, txikiagoa da euskara erabiltzen dutenen portzentajea gaur egun.

8. grafikoa. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten EUSKALDUNEN bilakaera. Euskal Herria, 1991-2016 (%).



Gertakari hori ulertzeko, ezinbestekoa da euskararen erabileran eragiten duten faktoreak ezagutzea.

EUSKARAREN ERABILERAN ERAGITEN FAKTORE NAGUSIAK: HARREMAN-SAREA ETA HIZKUNTZA ERABILTZEKO ERRAZTASUNA

Erabileran eragiten duten faktoreak ezagutzeko, Inkesta Soziolinguistikoak korrelazioen analisisia egin du. Hiru erabilera-eremuren arabera korrelazioak egin dira: etxeko erabilera, lagunartekoa eta lankideen artekoa. Erabilera horietako bakoitzarekin Inkesta Soziolinguistikoak jasotzen dituen 28 aldagai² gurutzatu dira, eta hiru lurraldeak bereizi dira: EAE, Nafarroa eta Iparraldea.

Korrelazioek ematen duten baloreak desberdinak izan arren³ eta erabilera-eremu batean eta bestean hurrenkera zerbait aldatu arren, hiru aldagaiek erakusten dute erabilerarekiko korrelaziorik handiena: erabilera-eremuan (etxean, lagunartean, lankideen artean) zenbatek dakite euskaraz, gune soziolinguistikoa eta erraztasuna. Lehenengo biek harreman-sarea osatuko lukete. Gainerako aldagaiek, lehen hizkuntza izan ezik⁴, korrelazio txikiagoa erakusten dute.

1. taula. Euskaldunen erabilerarekiko korrelazioak. EAE, 2016.

		Zein hizkuntzatan hitz egiten dute etxean	Zenbatak daki euskaraz etxean	Gune soziolinguistikoa	Zein hizkuntzatan hitz egiten du errazago	Lehen hizkuntza	Adina	Jatorria	Euskalduntzat dauka bere burua	Euskarari buruzko interesa	G20 tipologia	G21 tipologia
Zein hizkuntzatan hitz egiten dute etxean	Correlación de Pearson	1	,758	-,575	,695	,658	-,294	,306	,323	,347	,392	,487
		Zein hizkuntzatan hitz egiten du lagunekin	Lagunetatik zenbatak dakite euskaraz	Gune soziolinguistikoa	Zein hizkuntzatan hitz egiten du errazago	Lehen hizkuntza	Adina	Jatorria	Euskalduntzat dauka bere burua	Euskarari buruzko interesa	G20 tipologia	G21 tipologia
Zein hizkuntzatan hitz egiten du lagunekin	Correlación de Pearson	1	,539	-,591	,683	,579	-,199	,285	,337	,376	,382	,453
		Zein hizkuntzatan hitz egiten du lankideekin	Lankideetatik zenbatak dakite euskaraz	Gune soziolinguistikoa	Zein hizkuntzatan hitz egiten du errazago	Lehen hizkuntza	Adina	Jatorria	Euskalduntzat dauka bere burua	Euskarari buruzko interesa	G20 tipologia	G21 tipologia
Zein hizkuntzatan hitz egiten du lankideekin	Correlación de Pearson	1	,777	-,297	,438	,298	-,103	,135	,209	-,301	,299	,342

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Beraz, esan daiteke euskararen erabileran eragiten duten faktore nagusiak harreman-sarea eta erraztasuna direla.

2016an, Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren %28,4 euskalduna da, %16,4 euskaldun hartzailea eta %55,2 erdalduna.

Ahozko euskarak gizartean duen presentziak gora egin du lehenengo (+1,8 puntu), bigarren (+4,6) eta hirugarren gune soziolinguistikoetan (+8,5).

HARREMAN-SAREA

I

2016an, Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren %28,4 euskalduna da, %16,4 euskaldun hartzailea eta %55,2 erdalduna. Euskararen ezagutzan, alde handiak daude lurralde batetik bestera: EAEn euskaldunak hirutik bat baino gehiago dira (%33,9), Nafarroan zortitik bat (%12,9) eta Iparraldean bostetik bat (%20,5). Azken 25 urteotako bila-kaerari dagokionez, gaur egun 1991n baino 223.000 euskaldun gehiago daude Euskal Herrian, hau da, 6 puntuko hazkundera izan da (%22,3 *versus* %28,4). Euskaldunek gora egin dute EAEn (+9,8 puntu) eta Nafarroan (+3,4 puntu), eta behera Iparraldean (-12,6 puntu).

Adinari dagokionez, gazteen artean izan da euskaldunen hazkunderik handiena, eta gaur egun 35 urtetik beherako adin-taldeetan dago euskaldunen ehunekorik handiena: 25 eta 34 urtekoen artean %39,7 eta 16 eta 24 urtekoen artean %55,4. Hortaz, euskaldunen hazkundera gazteenetik ari da zabaltzen.

Euskaldunak bizitokiaren arabera aztertuko ditugu jarraian. Horretarako, gune soziolinguistikoaren arabera banatuko ditugu, eta banaketa hori nola aldatu den ikusiko dugu. Azterketa honetarako, gune soziolinguistikoak honela definitu dira:

- lehenengo gune soziolinguistikoa euskaldunen ehunekoa %29 baino txikoagoa duten Euskal Herriko udalerriek osatzen dute.
- bigarren gune soziolinguistikoa euskaldunen ehunekoa %29 eta %49 bitartekoa duten Euskal Herriko udalerriek osatzen dute.
- hirugarren gune soziolinguistikoa euskaldunen ehunekoa %50 eta %79 bitartekoa duten Euskal Herriko udalerriek osatzen dute.
- laugarren gune soziolinguistikoa euskaldunen ehunekoa %79 baino handiagoa duten Euskal Herriko udalerriek osatzen dute.

Kontuan izan Inkesta soziolinguistikoak aztertzen duen unibertsoa Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko biztanleena dela.


2. taula. 16 urte edo gehiagoko biztanleen eta euskaldunen bilakaera, gune soziolinguistikoaren arabera. Euskal Herria, 1991-2016.

Urtea		Guztira	1. Gunea (<%29)	2.Gunea (%29-49)	3.Gunea (%50-79)	4. Gunea (>%79)
1991	Biztanleak	2.371.079	1.515.928	383.198	344.681	127.273
	Euskaldunak	528.521	101.002	109.702	203558	114.259
1996	Biztanleak	2.428.095	1.547.327	402.456	339.789	138.523
	Euskaldunak	591.423	127.686	124.316	215.677	123.743
2001	Biztanleak	2.497.016	1.439.457	531.062	377.895	148.602
	Euskaldunak	633.934	132.392	146.615	226.006	128.921
2006	Biztanleak	2.589.629	1.514.246	562.941	393.584	118.858
	Euskaldunak	665.750	158.173	165.872	238.670	103.035
2016	Biztanleak	2.647.422	1.674.577	444.357	394.716	133.772
	Euskaldunak	751.527	247.245	157.277	237.394	109.611

Duela 25 urte euskaldunen %60,1 hirugarren eta laugarren gune soziolinguistikoetan bizi ziren. Bigarren gunean euskaldun guztien %20,8 bizi ziren, eta euskaldunen %19,1 lehenengo gunean. Gaur egun, egoera alderantzizkoa da. Euskaldunen %32,9 lehenengo gune soziolinguistikoan bizi dira eta, duela 25 urte bezala, %20,9 bigarrenean. Hau da, euskaldunen erdia baino gehiago (%53,8) eremu erdaldunean edo nahikoa erdaldunean bizi dira. Hirugarren gune soziolinguistikoan ere euskaldunen ehuneko handia bizi da: %31,6 (1. gunean baino 9.800 euskaldun gutxiago). Eta laugarren gune soziolinguistikoan, euskaldunen %14,6 baino ez da bizi gaur egun.

50 urtetik gorako euskaldun gehienek etxean ikasi dute euskara. 25 urtetik beherako gazteen erdiek baino gehiagok, aldiz, etxetik kanpo (% 54,3).


9. grafikoa. Euskaldunen bilakaera gune soziolinguistikoaren arabera. Euskal Herria, 1991-2016 (%).



Lehenengo eta bigarren guneetan bizi diren euskaldunak bi gune horietako biztanleen %19,1 baino ez dira (1. gunearen %14,8 eta 2. gunearen %35,4). Hau da, euskaldun gehienek ez dute harreman-sare nahikoa euskara normaltasunez erabiltzeko. Gainera, 4. gunean bizi diren euskaldunek pisua galdu dute gunearen biztanleekiko: 1991n %89,8 ziren, eta 2016an %81,9 dira).

Hala ere, euskararen erabilerak, hau da, ahozko euskarak gizartearen duen presentziak gora egin du lehenengo (+1,8 puntu), bigarren (+4,6) eta hirugarren gune soziolinguistikoetan (+8,5). Laugarrenean, esan bezala, euskaldunek pisua galdu dute, eta horrek eragina izan du euskararen erabileran: euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak 7,3 puntu egin du behera azken 25 urteotan.


10. grafikoa. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera gune soziolinguistikoaren arabera. Euskal Herria, 1991-2016 (%).



EUSKARAZ HITZ EGITEKO ERRAZTASUNA

Euskararen normalizazio-prozesuak ekarri duen aldaketa handienetako bat euskaldunaren ezaugarriena da. Duela 30-40 urtera arte, euskaldunen artean nagusi zen tipologia etxean gurasoengandik euskara ikasi eta eremu euskaldunetan bizi zen herritarrarena zen. Gaur egun, aldiz, nagusitzen ari den tipologia bestelakoa da: guraso erdaldunak izan, eremu erdaldunetan bizi eta euskara eskolan edota euskaltegian ikasi duen herritar gehienbat gaztea. Euskaldun berri⁵ gehienek ezaugarri horiek dituzte. Aldaketa hori oso agerikoa da euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera aztertuz gero. 50 urtetik gorako euskaldun gehienek etxean ikasi dute euskara. 25 urtetik beherako gazteen erdiek baino gehiagok, aldiz, etxetik kanpo (%54,3).

11. grafikoa. Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera. Euskal Herria, 2016 (%).



Gaur egun nagusitzen ari den euskaldunen tipologia honakoa da: guraso erdaldunak izan, eremu erdaldunetan bizi eta euskara eskolan edota euskaltegian ikasi duen herritarrarena.


Hiztun berri horietako askok euskara erabiltzeko aukera gutxi dute. Gaztenentzat eskola eta eskolako lagunartea izan daiteke aukera bakanenetakoa. Eta horrek zuzenean eragiten du euskara erabiltzeko erraztasunean, beste edozein hizkuntzarekin gertatzen den bezala.

1991n euskaldunen herenak (%34,6) erraztasun handiagoa zuen euskaraz hitz egiteko. 2016an, euskaraz erraztasun handiagoa duten euskaldunak laurdena dira (%26). Hizkuntza bietan erraztasun bera duten euskaldunen ehunekoak aldaketa txikia izan du azken 25 urteotan (%27,7 vs %29,5). Beraz, erdaraz hitz egiteko erraztasun handiagoa duten ehunekoak gora egin du (%37,8 vs %44,5).

1991n euskaldunen herenak (% 34,6) erraztasun handiagoa zuen euskaraz hitz egiteko. 2016an, euskaraz erraztasun handiagoa duten euskaldunak laurdena dira (% 26).

Erraztasunean izan den bilakaera oso argi ikusten da adinaren arabera. 65 urtetik gorakoen artean nagusi dira (%42,2) euskaraz erraztasun handiagoa dutenak. Baina gainerako adin-talde guztietan gehiago dira erdal elebidunak, eta zenbat eta gazteago, orduan eta handiagoa da ehunekoa (16 eta 24 urte bitartekoaren artean %56,7).

12. grafikoa. Euskaldunen erraztasuna adinaren arabera. Euskal Herria, 2016 (%).



Beraz, argi dago euskara biziberritzeko ardura duten erakunde publikoek eta gizarte-eragileek harreman-sareak trinkotzeko neurriak sustatzen jarraitu beharko dutela, euskaldunok gure eguneroko bizimoduan euskara normaltasunez erabiltzeko gero eta aukera gehiago izan ditza-gun eta, horrela, euskaraz hitz egiteko erraztasuna hobetu dezagun. Asmo horrekin, indartu beharreko oinarri-oinarrizko bideetako bat euskararen familia bidezko transmisioarena da.

Familia bidezko transmisioa

Familia bidezko transmisioaren bidez, hiztunak modu naturalean jasotzen du hizkuntza, horrek erraztasunean dituen onura guztiekin. Aldi berean, hizkuntza horren erabilera indartzen du hiztun batek duen erabilera-eremu gertukoenean, familian hain zuzen.

Familia bidezko transmisioaz dihardugunean, seme-alabek gurasoen-gandik bizitzaren lehenengo 3 urteetan jaso duten hizkuntzari (edo hizkuntzei) buruz ari gara. Hizkuntza hori lehen hizkuntza da, eta gorde edo galdu egin daiteke, baina pertsona baten bizitza osorako ezaugarria

da. Egia da azken urteotan gero eta familia-eredu gehiago ditugula, eta horren ondorioz, familiako kideen arteko harreman-motak ere ugaldtu egin direla. Gainera, umeak gero eta lehenago eskolatzen dira. Gero eta handiagoa da 2 eta 3 urterekin eskolatuta dauden umeen kopurua. Horrek guztiak lehen hizkuntzaren definizioa berrikustea ekar lezake agian.

Ikus dezagun jarraian nola gauzatzen den gaur egun familia bidezko transmisioa Euskal Herrian. Horretarako, 3 eta 15 urte bitarteko seme-alabak dituzten inkestatuek euskara nola transmititu dieten aztertu du VI. Inkesta Soziolinguistikoa, eta emaitzak inkestatu horien eta haien bikotekideen lehen hizkuntzaren eta hizkuntza-gaitasunaren arabera gurutzatu dira.

Guraso biek euskaldunak direnean eta bien lehen hizkuntza euskara denean euskararen transmisioa erabatekoa da, gehienbat euskararena bakarrik (%93). Gurasoak euskaldunak direnean, baina bietako baten lehen hizkuntza erdara denean, euskararen transmisioa, bakarrik edo erdararekin batera, oso handia da (%94), baina %6ko galera dago euskararen belaunez belauneko transmisioan (%6). Azkenik, gurasoak euskaldunak direnean, baina bien lehen hizkuntza erdara denean, bost seme-alabetatik batek (%19) ez du euskara jaso, baina gainerako guztiak (%76) euskara jaso dute, bakarrik edo erdararekin batera.

Gurasoak euskaldunak direnean, baina bien lehen hizkuntza erdara denean, bost seme-alabetatik batek (%19) ez du euskara jaso, baina gainerako guztiak (%76) euskara jaso dute, bakarrik edo erdararekin batera.

13. grafikoa. 3-15 urte bitarteko seme-alabei transmititutako hizkuntza, gurasoen lehen hizkuntzaren arabera. Euskal Herria, 2016 (%).




Gurasoetako bat euskalduna denean eta haren lehen hizkuntza euskara denean, euskara (erdararekin batera) jaso duten seme-alabak %83 dira. Eta guraso euskaldunaren lehen hizkuntza erdara denean, seme-alaben erdiak (%49) jaso du euskara (erdararekin batera).

Familia bidezko transmisioaren bidez, hiztunak modu naturalean jasotzen du hizkuntza, horrek erraztasunean dituen onura guztiekin.

Guraso biak euskaldunak direnean eta bien lehen hizkuntza euskara denean euskararen transmisioa erabatekoa da, gehienbat euskararena bakarrik (% 93).


14. grafikoa. 3-15 urte bitarteko seme-alabei transmititutako hizkuntza, gurasoen lehen hizkuntzaren arabera. Euskal Herria, 2016 (%).



Azken urteotako bilakaeraren arabera, familia bidezko transmisioak hobera egin du eten gabe, bai guraso biak euskaldunak direnean bai bietako batek bakarrik dakienean euskara. Hala ere, Euskal Herria nagusiki erdalduna da oraindik, eta familia bidezko transmisioaren bidez lor daitezkeen irabaziak txikiak dira gaur gaurkoz.

Horretaz hobeto jabetzeko, ikus dezagun guraso gai direnen edo seme-alaba gazteak dituztenen ezaugarriak. 25 eta 49 urte bitarteko unibertsioaz ari gara. Hizkuntza-gaitasunari dagokionez, herena baino zertxobait gutxiago dira euskaldunak (%31,2), eta horien artean %44k erdara izan dute lehen hizkuntza. Hortaz, zer landu asko dago, bai gaitasun nahikoa duten gurasoek erraztasunean hobetu dezaten, baita oraindik gaitasun nahikoa izan ez arren (euskaldun hartzaileak), euskaldun izateko bidea egin dezaten. Familia bidezko transmisioa da etorkizuna ziurtatzeko hizkuntza normalizatu batek duen tresnarik garrantzitsuena, eta biziberritze-prozesuan ari den hizkuntzaren tresnarik eraginkorrena baldintzak egokiak direnean.

15. grafikoa. 25-49 urte bitarteko euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera. Euskal Herria, 2016 (%).



IDEIA NAGUSIAK LABURBILDUZ

I Euskara ezagutzen duten herritarren kopuruak nabarmen egin du gora azken 25-30 urteotan. Euskara erabiltzen dutenena ere hazi egin da, baina maila apalagoan. Eta euskaldunak euskara erabil dezan oinarritzkoak diren baldintzak modu esanguratsuan hobetzen ez diren bitartean, hala izango da datozen urteotan ere.

Hainbat faktorearen artean, bi dira euskararen erabileran bereziki eragiten dutenak: harreman-sarea eta erraztasuna. Bi baldintza horiek ez dute euskararen erabilera ehuneko ehunean ziurtatzen, baina bi baldintza horiek gabe nekez erabiliko du euskaldun batek euskara.

Euskararen ezagutzak izan duen hazkundera hezkuntza-sistemari eta helduen euskalduntzeari esker gertatu da batik bat. Horrek beste ezau-garri batzuk dituen euskaldun-multzoaren hazkundera eta, adin-talde gazteenenetan, nagusitasuna ekarri du: euskaldun berrien multzoa. Euskaldun berriek euskaraz ondo hitz egiteko gaitasuna dute eta euskara ez den edo ez diren hizkuntzak dituzte lehen hizkuntza. Gaur egun, euskaldun berrien artean nagusi dira eremu erdaldunetan bizi direnak eta erdaraz erraztasun handiagoa dutenak. Hau da, ez dute harreman-sare nahikoa eguneroko jardunean euskara normaltasunez erabiltzeko eta errazago moldatzen dira erdaraz euskaraz baino.

Euskara erabiltzen dutenen herritarren kopuruak hazi egin da azken 25-30 urteotan, baina ezagutzarena baino maila apalagoan.

Eta euskaldunak euskara erabil dezan oinarritzkoak diren baldintzak modu esanguratsuan hobetzen ez diren bitartean, hala izango da datozen urteotan ere.

Ezinbesteko da harreman-sareak trinkotzeko neurriak sustatzen jarraitzea. Euskaraz erabiltzeko aukerak areagotuz gora egiten du euskararen erabilerak, eta euskara erabiltzeak handitu egiten du euskaraz hitz egiteko erraztasunak.

Harreman-sare nahikoaren eta erraztasunaren falta ez dira euskaldun berriaren ezaugarri eskusiboak. Badira, zorionez, hainbat euskaldun berri bestelako hizkuntza-baldintzetan bizi direnak, eta badira, aldi berean, euskaldun berriak ez diren hainbat bi gabezia horiek bizi dituztenak. Beraz, ezinbesteko da harreman-sareak trinkotzeko neurriak sustatzen jarraitzea. Euskaraz erabiltzeko aukerak areagotuz gora egiten du euskararen erabilerak, eta euskara erabiltzeak handitu egiten du euskaraz hitz egiteko erraztasunak.

Bide horretan bada, artikulu honen egilearen ustez, gako garrantzitsua: familia bidezko transmisioa. Euskara transmititzeko baldintzak egokiak direnean euskararen transmisioa ziurtatuta dagoela esan daiteke. Baldintzak hain egokiak ez direnean, asko aurreratu da zalantzarik gabe, baina zer hobetu asko dago oraindik. Eta gai honetan arreta berezia jarri beharko da seme-alaba gazteak dituzten gurasoengan eta guraso izateko adinean dauden herritarrengan. ●

OHARRAK

1. <http://www.euskadi.eus/informazioa/ikerketa-soziolinguistikoak/web01-a2lingu/eu/>
2. Aldagaiak honakok izan dira: gune soziolinguistikoak, udalerrien elebidunen %, zein hizkuntzatan hitz egiten du errazago, lehen hizkuntza, zein hizkuntzatan egin ditu oinarriko ikasketak, zein hizkuntzatan egin ditu bigarren mailako ikasketak, eskolaz kanpo euskara ikasi edo hobetu du, adina, bukatutako ikasketak, jatorria, euskalduntzat dauka bere burua, euskarari buruzko interesa, zein hizkuntzatan nahi luke ikas dezaten seme-alabek, G20 tipologia, guztiz bertakoa izateko euskaraz jakin behar da, hobe da jendeak ingelesa ikastea euskara ikastea baino, Administrazioan sartzeko euskara jakitea beharrezkoa litzateke, ezinbestekoa da haur guztiek euskara ikastea, irratit/telebistek programa gehiago behar lukete euskaraz, euskara galtzeko arriskuan dago, G21 tipologia, euskara beharrezkoa da jendearekin komunikatzeko, euskaraz ez du sekula izango gaztelaniak duen garrantzia, nahiago dut euskaraz egiten duten dendetara joatea, oro har hurbilagoak sentitzen ditut euskaldunak, euskaldunek ezezagunei lehen hitza euskaraz, euskaldunok beti euskaraz nahiz eta guztiek ez jakin.
3. Erabilera-eremu bakoitzeko sareak (zenbatak dakite euskaraz), esaterako, korrelazio handiagoa ematen du lankideekin (.777) eta etxean (.758), lagunekin baino (.539)
4. Erraztasunaren eta lehen hizkuntzaren arteko korrelazioa oso handia da.
5. Euskaldun berria lehen hizkuntza euskara ez duen euskalduna da. BILA izeneko tipologiaren balioetako bat da. BILA tipologia aldagai sintetikoa da, eta hizkuntza-gaitasuna eta lehen hizkuntza aldagaien arteko gurutzaketatik eratzen da.

Gozatu

elhuyar

aldizkari berritua

Zientzia eta teknologiaren arloan gertatzen den guztia, eskura:
gaurkotasuna, iritzia, analisisa, istorioak, irudiak, hemengo ikerketa...

Urtean 16 euroren truke



Hiru hilez berin jasoko duzu etxean
eta noiznahi eduki gehiago izango duzu webgunean

Harpidetu zaitzez edo oparitu ezazu harpidetza, hemen:

<http://aldizkaria.elhuyar.eus/harpidetza>

3

Euskararen biziberritzea, eleaniztasunaren garaiko erronka

Iñaki Martínez de Luna

Soziolinguista

i.martinezdeluna@outlook.com

Sarrera-data: 2018-01-15 / Onartze-data: 2018-02-09

Laburpena. Euskara biziberritzeko bidean, iragan hurbileko paradigmatik gaudituta daude. Horregatik, sarri entzuten den galdera da, hemendik aurrera norantz abiatu behar den; zein bide hartu. Lerro hauekin aletxo bat jarri nahi da gogoeta horretan sakontzeko. Zehatz esanda, gurean begi bistakoa den eleaniztasunaren zergatiak azaltzen dira, lehenbizi. Ondoren, paradigma horrek euskara suspertzeko eskaintzen dituen aukerak eta arriskuak aztertzen dira, ahalegin berrietarako hurbilpen hori egokia izan daitekeelakoan. Azkenik, prozesua emankorra gerta dadin, zenbait gomendio ere luzatzen dira. • **Hitz gakoak:** *eleaniztasuna, globalizazioa, immigrazio-hizkuntzak, hizkuntza-aniztasunaren kudeaketa.*

Abstract. As Basque has been placed on the track towards revitalization, Basque, paradigms from the past no longer fit. That is why it is often asked where do we go from here?, What road should be taken? The goal is to make a little contribution towards a deeper contemplation of the matter. To be precise, the reason for multilingualism is, in the first place, all too clear to us. Next, the opportunities and risks offered by the paradigm to revitalize Basque are analyzed in the hope that this approach to new efforts might prove to be suitable. Finally, for the process to be bear fruit, there are also some recommendations.

• **Key words:** *multilingualism, globalization, immigration languages, linguistic diversity management.*

1. SARRERA: NORANTZ ABIATU?

I Euskara biziberritzeko bidea uste baino luzeagoa da; nahi baino ktramilatsua. Ahaleginetan gabiltza eta jarraitu beharko dugu; lehenik eta behin, Txerra Rodriguezek idatzi duen bezala, irtenbidea elkarrekin bilatuz: “hala gabiltza azken aldion ere euskalgintzetan, etorkizuna asmatu guran edo, agian zehatzago, iraganetik eta orainetik ikasten etorkizun hobe marrazteko denon artean, kolektiboki.” (Rodriguezek (2017: 133))

Egoera honetan eta ikasten ari garenetik abiatuz, erantzun beharreko galdera da *norantz* abiatu. Alegia, iparra ongi zehaztu, ondoren horri eutsiko dion estrategia diseinatu ahal izateko. Bidegurutze horretan bi norabide nagusi eta kontrajarriak antzematen ditugu: iraganeko elebakartasunerantz ala gaur egun hedatzen ari den eleaniztasunerantz abiatu.

2. IRAGAN HURBILEKO PARADIGMA

I Elebakartasunaren funtsa zenbait hizkuntzari (edo dialektori) rol garrantzitsua ematean datza, hautu horrekin aldi berean gainerako hizkuntzak edota dialektoak baztertuz edo debekatuz. (Ruiz Bikandi, 2012: 66-67) *Hizkuntza-ideologiatzat* jotzen ditu egile horrek elebakartasunaren alde egiten duten ikuspegi edo interpretazioak:

... las ideologías lingüísticas, basadas en principios de orden económico o político, potencian el aprendizaje masivo de algunas lenguas, mientras que relegan a usos “inferiores” o prohíben la enseñanza de otras, bautizan como lenguas distintas lo que era considerada una sola, o niegan la variedad interna privilegiando una variante sobre todas las demás. (Ruiz Bikandi, 2012: 67)

Esan genezake elebakartasunaren paradigmak bi oinarri nagusi dituela: *darwinismo linguistiko*arena eta *nazionalismo linguistiko*arena. Darwinismo linguistikoarena arabera, soilik hizkuntza egokienek egiten dute aurrera eta gainerakoak baztertuta geratzen dira berne-izaera (*corpus*) mugatuen ondorioz. Alegia, hizkuntza batzuen izaera mugatua edo eskasa da beraiek baztertuak gelditu izanaren arrazoia. Azalpen horren bitartez ezkututzen dira hizkuntza bazterketaren benetako zergati sozialak, politikoak eta kulturalak. (Moreno Cabrera, 2008: 19-20, 22, 28)

Moreno Cabrerak jasotzen duen bezala, estandartzat hautatuak izateko aukera duten hizkuntza bakarrak, politikoki eta ekonomikoki boteretsuak diren gizataldeenak dira. Baldintza horiek, askotan, bat egiten dute Estatuak dauden hizkuntzetako bat nagusitzat edota bakartzat hautatzeko ezartzen duen soslaiarekin:

Bi norabide nagusi eta kontrajarriak antzematen ditugu: iraganeko elebakartasunerantz ala gaur egun hedatzen ari den eleaniztasunerantz abiatu.

**Horra hor
nazionalismo
linguistikoaren
oinarri
diskurtsibo
indartsua bere
trilogia osa
dadin: “Nazio
bat/ Estatu bat/
Hizkuntza bat”.**

... las ideologías lingüísticas atribuyen a ciertas lenguas o a ciertas variedades de ellas papeles de preponderancia o de minoría; el Estado refuerza o legitima a unas frente a otras al utilizarlas en exclusiva o al autorizar su uso en la enseñanza. (Ruiz Bikandi, 2012: 66-67)

XIX. mendeko hizkuntza-nazionalismoaren arabera, eleaniztasuna kaltegarria da norbanakoarentzat zein nazioarentzat. Ideologia horrek azpimarratzen du hiritarren ongizatea bermatzeko kultura bakarraren premia dagoela (Ngügi, 1987, in Laakso *et al.*, 2016: 2).

Horra hor, nazionalismo linguistikoaren oinarri diskurtsibo indartsua nazionalismo linguistikoak bere trilogia osa dadin: “*Nazio bat/ Estatu bat/ Hizkuntza bat*”. (Moreno Cabrera, 2008: 66-68) Esanenez, horrela elikatu dela *elebakartasunaren paradigma*, mendebaldeko sistema soziokulturaletan bederen. Hainbat egilek dioten bezala, hizkuntza-nazionalismoaren diskurtsuaren muina Europan hedatu zen Munduko Lehen Gerraren garaian eta iraun du XX. mendean zehar (Laakso *et al.*, 2016: 2).

Halako egoeretan, baztertuak izan diren hizkuntza-komunitateentzat bi aukera daude: a) asimilatuak izateko patuaren aurrean amore eman; b) egoerari aurre egin eta asimilazio prozesua iraultzen saiatu. Azken aukera horren bidetik, litekeena da nazionalismo linguistikoaren elebakartasunaren paradigma baztertzaila bera *-Nazio bat/ Estatu bat/ Hizkuntza bat-* hizkuntza-komunitate horiek errepikatzea, baina hizkuntzen rola irauliz: ordura arte baztertua izan den hizkuntza orain nagusizat eta bakartzat joz, eta nagusi izan dena orain baztertuz.

Hortaz, elkarren baztertzailak diren Estatuaren eta komunitate periferikoen *hizkuntza bakarraren* aldarriek, egoera gatazkatsua sortzen dute. Euskararena ez da salbuespena:

... hemen abertzaleak eta espainolistak daude. Euskaltasunak, euskaltzaletasunak, euskara suspertzen lagun dezake, baina dagoen jauzi etnikoa-rekin euskara batik bat abertzaleena baino ez dela kontsideratuko da. (Aierdi, 2014: 533)

3. ELEANIZTASUNAREN AZALERATZEA

I
Hizkuntza-nazionalismoaren diskurtsuak diosku elebakartasuna dela hizkuntza-izaera ohikoena, baina azken hamarkadetan aldarrikatzen dena *eleaniztasunaren paradigma* da, hori omen delako norbanakoei zein Estatuari gehienbat dagokien hizkuntza-egoera:

... multilingualism is the norm rather than an exception; it has been estimated that the average person grows up using three languages (García, 2009; García & Schiffman, 2006). There are not monolingual states in the world, and most people do need multiple languages in order to manage their everyday lives. (Laakso et al., 2016: 1)

3.1 Europa ezbaian

Europar egun nagusitzen ari den ideia eleaniztasunarena den arren, praktikan ikuspegi hori batez ere hizkuntza nagusien mesedetan da oraindik: *“At the level of languages policies, multilingualism is understood as the knowledge of major European languages...”* (Laakso et al., 2016: 3). Hizkuntza gutxituak eta etorkinen hizkuntzak *zamatzat* hartzen dira askotan, eta aginte maila gorenetan ez da ardurarik hartzen horiek suspertzeko:

The multilingualism of minorities and migrants (...) is, in contrast, implicitly regarded as a burden. (...): costs for the society and extra workload for language learners belonging to a minority... (...) Minority languages are often dealt with as if they were of no interest to anybody outside the speech community, and the practices and policies pertaining to them may belong to completely different -and often regional- language-political frameworks. (Laakso et al., 2016: 2-3).

Azken urteotan, Europako arduradun politikoak eta ikertzaileak hasi badira eleaniztasuna gertakizun positibo gisa ikusten, ez da oraindik aho batez onartzen eleaniztasun mota guztiak onuragarriak direnik eta denenek garrantzi maila bera dutenik. Horrez gain, Europako helburu politikoaren eta hizkuntza gutxituetako hiztunek dituzten bizi baldintzen artean badira, tira-birak ez ezik, arrakala sakonak ere bai. Ahaleginak ahalegin, elebakartasunaren itzal ezkutua antzeman daiteke hizkuntza-politiketan. (Laakso et al., 2016: 8)

3.2 Europako gidalerroak

Kostata bada ere, aniztasunaren inguruko joera eta politika berriak ari dira hedatzen Europako politikagintzan. Horren arrazoia bikoitza da: a) gizatalde gutxituen hizkuntza-eskubideak gero eta onartuagoak dira, *paper gainean* gutxienez; b) herritarrak zenbait hizkuntzatan gaituak izateak gero eta garrantzi praktikoa eta ekonomiko handiagoa du, hala nola mugikortasun eta komunikaziorako, Europako lankidetzaren hazkunderako edo hezkuntza sistemen garapenerako:

According to the official EU website, EU language policies aim to protect linguistic diversity and promote knowledge of languages –for reasons of cultural

Baztertuak izan diren hizkuntza-komunitateentzat bi aukera daude: a) asimilatuak izateko patuaren aurrean amore eman; b) egoerari aurre egin eta asimilazio prozesua iraultzen saiatu.

**Multilinguismoa
gizartearen gaineko
kalifikatzailea
da;
Plurilinguismoak
pertsonengan
jartzen du arreta:
hizkuntza bat
baino gehiago
hitz egiten duten
gizakien
ahalmena.**

identity and social integration, but also because multilingual citizens are better placed to take advantage of the educational, professional and economic opportunities created by an integrated Europe. (Laakso et al., 2016: 7-8)

Azaldu dezagun eleaniztasunaz zer dioskun Europak, Ruiz Bikandiri (2012: 66-68) jarraituz. Hasteko esan, Europako Kontseiluaren lanetan bi kontzeptu bereizten direla: *multilinguismo* eta *plurilinguismo*.

Multilinguismoa gizartearen gaineko kalifikatzailea da eta, oro har, lurralde berean zenbait hizkuntza edota hizkuntza-komunitate agertzean datza. Horren adibide garbia da Europa bera. *Plurilinguismoa*, bestalde, pertsonengan jartzen da: hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten duten gizakien ahalmena.

Europarentzat eleaniztasuna erronka handia da, arrazoi bikoitzagatik: lehenik eta behin, bere multilinguismoa aberastasun kultural aparta da; baina, aldi berean, hizkuntza aberastasun hori elkar ulertu eta komunikatzeko oztopoa ere bada. Horregatik, Europako erakundearen helburua da, hiritar europarrak plurilingue izan daitezen. Plurilinguismoak komunikazio oztopoa gainditzea ahalbidetzen du, bide batez Europako ondare kulturala bermatuz. Horrela, multilinguismoa Europako identitate-ikur bat litzateke eta, plurilinguismoak barne kohesioa bultzatuko luke.

Beharrezkoa da arestian aipatu dugun Europako herritarrak *plurilingue* izatearen asmoa zertan datzan zehaztea:

El objetivo clave de la educación plurilingüe es la competencia plurilingüe, definida como “la capacidad de adquirir sucesivamente y de utilizar diversas competencias en varias lenguas, en distintos grados de dominio, para cumplir diferentes funciones” (Beacco eta Byram, 2007, p. 128; in Ruiz Bikandiri, 2012: 68).

Alegia, Ruiz Bikandiri (2012: 68) azaltzen duen bezala, helburua ez litzateke europarren zenbait hizkuntzatan gaitasun osoa, maila bertsua eta jatorrizko hiztunen parekoa lortzea. Aldiz, zenbait eduki mota eskuratzea hizkuntza bakoitzean eta, horrela, ingurune kultural ezberdinetan jarduteko trebezia egokiak gureganatzea.

3.3 Eleaniztasuna versus Elebakartasuna

Aipatu ditugu bi hizkuntza-paradigma kontrajarri aurki ditzakegula: *elebakartasuna* eta *eleaniztasuna*, azken horren baitan eta Europako gidalerroen arabera bi azpi-kontzeptu bereizita: *multilinguismoa* eta *plurilinguismoa*.

Une egokia da elebakartasunaren eta elebitasunaren arteko aldeak, modu laburtuan bada ere, sistematikoki aipatzeko. Ahalegina, inongo oinarri

edo aurrekari akademikorik gabe osatua izanik, lehenbiziko pauso arakatzaile gisa proposatzen da:

1. taula: Elebakartasunaren eta Eleaniztasunaren ikuspegitik Europako multilinguismoa eta plurilinguismoaren kontzeptuak.

OINARRIZKO BALIOAK ETA OSAGAIK	ELEBAKARTASUNAREN IKUSPEGIA	ELEANIZTASUNAREN IKUSPEGIA
HIZKUNTZA-IDEOLOGIA	- Darwinismo linguistikoa - Nazionalismo linguistikoa	- Glocalismoa - Hizkuntzen ekologia
GIZA-IDENTITATEA	- Elebakarra	- Plurilinguea
GIZARTE-IDENTITATEA	- Hegemonikoa	- Askotarikoa
BALIO FILOSOFIKOA	- Berdintasun "homogeneoa"	- Ezberdinen arteko eskubide berdina
BALIO KULTURALA	- Norberaren /gizataldearen ondarea	- Norberaren/ gizataldearen / gizateria osoaren ondarea
BALIO PRAGMATIKOA	- Sinpletasuna	- Harreman-aukerak
ESTRATEGIA-KUDEAKETA	- Lehentasuna eta esklusioa	- Negoziazioa eta inklusioa
AZKEN HELBURUA	- Hizkuntza-komunitate bakarra	- Hizkuntza-komunitate ezberdinen elkarbizitza

Horrela, multilinguismoa Europako identitate-ikur bat litzateke eta, plurilinguismoak barne kohesioa bultzatuko luke.

Taulan ikus daitekeenez, ugariak -eta, noski, eztabaidagarriak- dira elebakartasunaren eta eleaniztasunaren artean bildu ditugun ezberdintasunak. Aldeak nabariak dira eta hizkuntza-paradigma ezberdinak ez ezik, elkarren artean lekutan dauden kultura-ikuspegiak eta mundua ulertzeko moduak ere islatzen dituzte.

Horren oinarri ezberdineko ikuspegiak izanik, bata iragan hurbilekoa eta bestea etorkizuna iragartzen diguna, geure buruari egin behar diogun galdera da ea zein den euskara biziberritzeko aplikatu beharko genukeena. Hots, zein den baliotsuena edo egokiena gure hizkuntza aurrera ateratzeko. Xabier Aierdik argi du euskara modernitatetik joratu behar dela, ez iraganetik. Hirietako giroa da Euskal Herriko bazterretan nagusitzen dena eta, hortaz, modernotasunari dagozkion gakoetatik euskara ulertu eta bultzatu behar da:

Aspalditik, euskarak ez du erreferentzia nagusia iraganean; (...). Beraz, herritartu beharrean, euskara hiritartu egin da azken 50 urteotan, kulturaren ulerkeraren integratzearen: ohitura sinpleenetatik arte bikainenetara. (...)

Gizarte multilingueen eta hiztun plurilingueen arrazoi nagusiak:
1) historikoki ukipen egoeran bi edo hizkuntza gehiago egotea;
2) Globalizazioaren komunikazio premiak; 3) Gizatalde migratzaileen harrera-gizarteari hizkuntzak eramatea.

Egiturak, errelatoak eta babesa behar ditu euskarak hirian. (Aierdi, 2014: 534-535, 536)

Argi dago, eleaniztasunaren paradigmatic abiatuz eraiki litekeen *errelatoa* hurbilago legokeela Aierdiren ideia horietatik elebakartasunetik eraiki litekeena baino.

4. ELEANIZTASUNA EUSKAL HERRIAN

I

Egungo gizarteak multilingue eta hainbat hiztun plurilingue izatearen arrazoi nagusizat, ondoko hiru jo daitezke: 1) Lurralde berean, historikoki ukipen egoeran egon diren eta dauden bi edo hizkuntza gehiago egotea; 2) Globalizazioak ezarritako komunikazio premiei aurre egitea; 3) Gizatalde migratzaile batzuk harrera-gizarteari kanpoko hizkuntzak eramatea. Euskal Herrian, hiru baldintza horiek betetzen dira.

Bertan ditugun hizkuntza guztiak, jakina denez, ez daude egoera berean, ez juridikoki ezta sozialki ere. Hizkuntzak eta haien komunitateak era egokian sailkatzea zaila baino zailagoa da, horretarako baliatu ohi diren irizpideak zalantzarakoak eta eztabaidagarriak izaten baitira. Hemen Laakso eta bere lankideen hizkuntzen sailkapenari jarraiki, horrela laburbildu daitezke Euskal Herrian aurki daitezkeen motak: a) *Estatuetako hizkuntzak (state language)*, frantsesa Iparraldean eta gaztelania Hegoaldean; b) Hizkuntza gutxituak (*minority language, community language...*), zeinak bi azpi-multzotan sailkatu ohi diren: b1) *Autoktonoak (autochthonous minority, heritage language, old, traditional, regional, indigenous...)*, gurean euskara, hain zuzen; b2) *Alofonoak (allochthonous minority, new, migrant language...)*, gure bizilagun berriek atzeritik ekarritako hizkuntzak. c) *Lingua franca (vehicular, of interethnic communication...)*, gurean bereziki ingelesa, baina ez bakarrik. (Laakso *et al.*, 2014: 11-17)

Hizkuntza-multzo eta azpi-multzo horien presentzia begi-bistakoa da egungo Euskal Herrian eta, hortaz, elebakartasunaren paradigma dagoeneko ez da egokitzen gure errealitateari. Are gehiago, Hegoaldeko lurralde batzuetan indarrean dagoen elebitasun ofizialak ere ez du ongi islatzen gure errealitatearen aniztasuna eta, ondorioz, ez die erantzunik ematen egunerokoan agertzen diren premiei.

4.1. Ukipen egoeraren emaitza gazi-gozaok

Euskararen lurralde edo eremu politiko-administratibo guztietan abian da hizkuntza hori biziberritzeko politikak eta plangintzak, euskarak baikoitzean duen estatus juridikoaren arabera.

Horien guztien emaitzak eta ondorioak sakonki aztertuak izan dira beste artikulu batzuetan (zenbaki honetan bertan), eta, horrexegatik, hemen Euskal Herri osoaren gaineko balantze orokor bat egitera mugatuko gara.

2. taula: Euskara biziberritzeko plangintzen balantze laburtua.

	POSITIBOA	NEGATIBOA
INKESTA SOZIOINGUISTIKOKO ERABILERA TRINKO OROKORRA	<ul style="list-style-type: none"> - Oro har, gorantz, eremu funtzional guztietan. - Haur/gazteek altuagoa. - Neba-arrebekin eta seme-alabekin altuagoa. 	<ul style="list-style-type: none"> - Zenbait zerbitzu publikotan mugatuagoa. - Bikotekidearekin beste familia kideekin baino apalago. - Arnasguneetan atzeraka.
KALE ERABILERA	<ul style="list-style-type: none"> - Eremu erdaldunetan burua altxatzen. 	<ul style="list-style-type: none"> - Kalean, oro har, atzeraka. - Arnasguneetan atzeraka.
GIZARTE SAREETAN	<ul style="list-style-type: none"> - Kalekoa baino zertxobait handiagoa. 	<ul style="list-style-type: none"> - Orokorra baino apalagoa.
BALANTZE GAZI-GOZOA	Arian-arian aurrerantz, oro har, baina egoera batzuetan atzerantz	

Eleaniztasunak gurean duen hanketako bat euskararen eta gaztelaniaren arteko ukipen egoera da; euskararen alde burutu diren ahaleginen emaitzek zapore gazi-gozoa utzi digite.

Eleaniztasunak gurean duen hanketako bat, esan bezala, euskararen eta gaztelaniaren arteko ukipen egoera da. Egoera horretan euskararen alde burutu diren ahaleginen emaitzek zapore gazi-gozoa utzi digute. Aurre-rapausoak ukaezinak diren arren, erabileraren garapena oso motela da eta bilakaera positiboa ez da egoera guzti-guztietan islatzen. Hots, euskararentzat arnagune diren zenbait herrietan eta kaleko erabileran -orokorrean zein haur eta gazteengan- atzerapausoak gertatu dira. Egia da lurraldez lurralde hartuta emaitzak oso ezberdinak direla, baina hemen ezin gara zehaztasun horietan murgildu.

Frantsesak Iparraldean eta gaztelaniak Hegoaldean duten erabateko nagusitasunak euskararen biziraupena arriskuan jartzen duela jakina da. Gainera, elebakartasunean eraikitako ideologia eta nazionalismo linguistikoak ez dira erabat desagertu gure gizartearen. Hortaz, euskara kolokan egon liteke euskara/erdaren arteko oreka bermatu ezean eta egungo ukipen egoera desorekatuak bere horretan luze iraunez gero.

Hori horrela, euskararen erabileran eragiten duten osagai nagusien (Ikus: Martínez de Luna, Suberbiola, eta Basurto, 2009) artean hemen bereziki interesatzen zaizkigunak ondoko hiru hauek dira: *norbanako motibazioa* eta gizartearen dimentsio makroari dagozkion *gizarte babes*, *batetik*, eta *hizkuntza-politika*, *bestetik*. Hiru horietatik, *gizarte babes* areagotzeko erronkari egin behar diogu aurre bereziki, horretarako euskararen inguruko diskurtsoa egokitu eta garatuz (ikus Martínez de Luna, 2013).

**Frantsesak
Iparraldean eta
gaztelaniak
Hegoaldean
duten erabateko
nagusitasunak
euskararen
biziraupena
arriskuan jartzen
du.**

Euskal gizarteak, oro har, atxikimendua dio euskarari eta hizkuntza horren biziraupen duina ziurtatzearekin ados dago. Hori erakusten du, besteak beste, VI. Inkesta Soziolinguistikoak:

Euskara sustatzearen aldeko jarrerak gora egin du azken 25 urteotan. 1991ko eta 2016ko datuak alderatuz, euskara sustatzearen alde daudenen ehunekoak 8 puntuko igoera izan du (%47,5 versus %55,8). (...)

Euskararen eremu osoko 16 urte edo gehiagoko biztanleen %85,8k uste du euskaraz eta erdaraz hitz egin beharko litzatekeela etorkizunean. (Eusko Jaur-larritza, Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoa, 2017: 31, 32)

Norabide beretik doaz EGOD egitasmoaren emaitzak, EAEko gizarteaz diotena aintzat hartuz:

Burutu diren analisiek erakutsi digute euskararen inguruan egun dauden ardatz diskurtsibo nagusiek zoru partekatu bat ehunten dutela; baita zoru horrek gizarte oinarri zabala bezain sendoa baduela ere. (...)

... osatu diren maila diskurtsiboko faktoreek erakusten dute hiru direla gizartearen gehiengo zabal-zabalak babesten dituen printzipio edo funts filosofikoak: elkarren arteko errespetua, euskararen balio pragmatikoa eta euskararen aldeko jarrerak.

(...) Gizartean nagusitzen den zoru partekatuan zoko-moko ugari dago, gora-behera anitz, eta, nola ez, desadostasun eta eztabaidagai suertatzen diren hainbat puntu ere. Ahaztu gabe, bestalde, zoru partekatu horretatik —pixka bat edo nahikoa— aldentzen diren diskurtsoak ere badaudela. (Martínez de Luna, Erize, Akizu, Etxaniz eta Elizagarate, 2016: 134)

4.2 Globalizazioaren eragina

Harreman globalizatuetan *lingua franca* funtzioa betetzen duten hizkuntzek leku garrantzitsua dute egungo gizartean, eta horren eraginez eleaniztasunaren paradigma erabat indartu eta zabaldu da.

Horren adibide ugari aurki daiteke nonahi eta horietako bat Karin van der Worp, Jasone Cenoz eta Durk Gorter-ren eskutik iritsi zaigu, *From bilingualism to multilingualism in the workplace: the case of the Basque Autonomous Community* izeneko artikulua bitartez. Lan hori ikerlan horretan aztertu da nolako rola betetzen duen eleaniztasunak nazioarte mailan diharduten euskal enpresetako profesionalen kasuan, hemen bi hizkuntza ofizialak daudela aintzat hartuz: “*What is the role of multilingualism for*

professionals working in internationally operating companies in a bilingual region?" (van der Worp and at., 2016: 10-11). Jardun ekonomikorako hizkuntzek duten garrantzia Europako erakundeek ozenki aldarrikatzen dutela dokumentatu ondoren, euskal enpresetako lagin baten egoera aztertzen da. Ondorioetan, euskarari zein ingelesari dagokienez, hizkuntza-egoera egokira iristeko dauden mugak azpimarratzen dira; urruti gaude bertako bi hizkuntza ofizialen arteko oreka lortzetik zein *lingua franca* funtzioaren premia ongi asebetetzetik.

Gizartea ere jabetu da, egoera globalizatuan *lingua franca* funtzioa betetzen duten hizkuntzen ezagutzaren beharraz. Horren erakusle da Prospekzio Soziologikoen Kabineteak (2017: 1) egindako inkestan jaso diren emaitzak. Galdera, hauxe zen: *Zure iritziz, gaur egun, atzerriko hizkuntzak ezagutzeak zer garrantzi du: handia, nahikoa, txikia edo batere ez? kontuan izan atzerriko hizkuntzak aipatzean euskara edo gaztelania ez direnez ari garela. Jasotako erantzunak hauek dira: Garrantzia handia duela %73k erantzun dute eta garrantzia nahikoa %22k; alegia, guztira %95k berresten du atzerriko hizkuntzen beharra.*

Arestian aipatu den EGOD egitasmoak, EAEko umeek atzerriko hizkuntzak ez ezik euskara eta gaztelania ere jakitearen garrantzia agerian jartzen digu: *Haurrek euskara/ gaztelania/ ingelesa jakitearen garrantziak biltzen dituzten adostasunak (guztiz ados gehi nahikoa ados) %93, %95 eta %96 dira hiru hizkuntza horientzat, hurrenez hurren.* ((Martínez de Luna, Erize, Akizu, Etxaniz eta Elizagarate, 2016: 395 [eranskina]).

Datuek argi uzten dute gizarteak bere egiten duela eleaniztasunaren eredu, idealki behinik behin, non bertako hizkuntza ofizialen zein atzerrikoen ezagutza bermatu beharko litzatekeen.

4.3 Immigrazioaren hizkuntza-ekarpena

EUSTATen arabera, EAEn, *gaztelania hutsa ez diren beste etxeko hizkuntza-erabileraren* proportzioa %23,3koa zen 2011n. (EUSTAT). Proportzio hori horrela banatzen zen: %13,7 *euskara hutsez*; %7,5 *euskara eta gaztelania, bata zein bestea*; %2,1 beste hizkuntzaren bat. Azken datu hori, halako lau hazi da azken 20 urtean, 1991n %0,5ekoa zen eta.

Euskara eta gaztelania ez diren *beste hizkuntza* horien zenbatekoa apala izanagatik, kualitatiboki oso aberatsa da. Adibidez, *Ikuspegi Behatokiak* eta *Unesco Etxeak*, 2007an, burutu zuten ikerketan 100 bat hizkuntza ezberdin aurkitu zituzten Hego Euskal Herrian, 66 nazionalitatetako etorkinen lehen-hizkuntza gisa. Gainera, kopuru horretan ez ziren sartu Eu-

**Harreman
globalizatueta
lingua franca
funtzioko
hizkuntzek leku
garrantzitsua
dute, eta horren
eraginez
eleaniztasunaren
paradigma erabat
indartu eta
zabaldu da.**

Euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntza horien zenbatekoa apala izanagatik, kualitatiboki oso aberatsa da. Adibidez, Ikuspegi Behatokiak eta Unesco Etxeak, 2007an, burutu zuten ikerketan 100 bat hizkuntza ezberdin aurkitu zituzten Hego Euskal Herrian.

ropakoak ere diren hizkuntzak (gaztelania, portuguesa, frantsesa eta ingelesa). (Uranga, Aierdi, Idiazabal, Amorrortu, Barreña eta Ortega, 2008: 16). Immigrazioak ekarritako aberastasun linguistikoa ez da ahuntzaren gauerdiko eztula.

Nolakoa da hizkuntza-ekarpen horri ematen diogun erantzuna? Joseba Sarrionandiak diosku lau direla immigranteek izan ditzaketen jokabideak harrera-gizartearekiko: *asimilazioa, integrazioa, bereizketa* eta *marjinazioa*:

Asimilazioa, sorterriko kultura baztertu eta harrera egiten dion gizartean bete betean sartu. Integrazioa, datorreneko kulturari eutsi eta berrian ere parte hartu, bikulturalismoa. Bereizketa, harrerako gizartearekin harremanik sortu nahi ez izatea, sorterrikoekin jarraituz. Marjinazioa, bai harrera gizarteko bai sorterriko kultura identitatearekiko arbuioa eta distantzia.

Integrazioarena juzgatzen da bidezkoen elkarbizitzaren eta kultura-aniztasunaren balioak aintzat harturik. Baina integrazioa, bikulturalismoa den aldetik, ez da immigranteen arazoa bakarrik.

Euskal Herrian bizi den arrifi batek, Khlid Amzirrek, integrazioa esaten denean asimilazioa disimulatu nahi izaten dela ohartarazten zuen... (Sarrionandia, 2010: 486-487).

Etorkinek gurera ekarritako hizkuntzen kasuan, *benetako integratzaile* ala *ezkutuko asimilazio* jotzen ari ote garen argitu beharko dugu. Desiragarriena omen den integrazioak nolabaiteko kultura-artekotasuna eskatzen badu, pausoak eman beharko ditugu etorkinen kulturen eta hizkuntzen balioa aitortze aldera. Hasteko, zenbait galderari erantzun beharko diegu.

Lehenengo galdera: Gurera iritsi berri direnen hizkuntzen aitormenak ez lioke euskal gizarteari inolako onurarik ekarriko? Alegia, guretzat nahi duguna, ez da denontzat ona? Harrotasunez ikusten badugu Ameriketara joandako euskaldun batzuen ondorengoek euskara bizirik gordetzen dutela, guregana iritsi berri direnek beren hizkuntzekin beste horrenbeste egin dezatela gogo onez onartu beharko dugu. Areago, onartu ez ezik horrela egiten lagundu -aukerak eman- beharko genieke. Koherentzia hutsa.

Bigarren galdera: Bizirauteko aukera beren hizkuntzei emanez, ezberdinen arteko elkarbizitza ez litzateke erraztuko? Peter A. Kraus-ek dioen bezala, hizkuntzek funtzio instrumentala (komunikazioa) ez ezik, funtzio espresiboa ere bete ohi dute: norbanakoa, bere kultura, talde-loturak zein identitatea agerian jartzea (Kraus, 2007: 64). Gure bizilagun berrien hizkuntzen

aitortzak ezberdinen arteko enpatia areagotuko luke eta euskal gizarte integratuago bat ekarriko luke.

Hirugarren galdera: Aniztasuna balio unibertsal gisa ulertuz gero, ez al da eleaniztasuna ere mota bereko balioa? Bertako hizkuntza-aniztasuna babestuz, gizateria osoarena den kultura-ondarea bermatzen lagunduko genuke.

Laugarren eta azken galdera: Lurralde jakinetako hizkuntzak -eta kulturak- ondo menderatzen dituzten euskal herritar berriak ez liriateke mesedegarriak izango euskal ekonomiarentzat, nazio arteko harremanetan eta lehian? Hizkuntza atzerritarrek menderatzen dituzten horiek *enbaxadore* ezin egokiagoak liriateke gure enpresen ordezkari/teknikari gisa, hizkuntza horiek hitz egiten diren lurraldeetan. Lehiatzeko balio erantsia litzateke gure enpresentzat lekuan lekuko hizkuntzak eta kulturak menperatzea.

Aurrekoak ikusita, bat egiten dugu Xabier Aierdik dioenarekin: “*Programa integrala eskatzen du immigrazio eta euskararen arteko harremanak, mugimendu batean bi helburu betetzeko: gizarte-inklusioa eta hizkuntzarena ere.*” (Aierdi, 2014: 530). Ikuspegi integral horrek eleaniztasunetik abiatu behar duela-koan gaude.

5. ONDORIOAK ETA HAUSNARKETAK

I

5.1 Gure egoera eleaniztasunetik ulertu beharra

Mota bateko eta besteko arrazoiek erakusten digute Euskal Herriko hizkuntzen arlora hurbiltzeko, *eleaniztasunaren* ikuspegia egokiagoa dela *elebakartasunaren* baino. Garai berriak planteamendu berritua eskatzen du, eta *elebakartasunaren* paradigma gáinditzea helburu zuen *elebitasun ofiziale*tik harago joan beharra dago, gaur egun. Garaian garaiko ikuspegia, ezinbestean. Zergatik? Zertarako? Besteak beste, euskararen aldeko estrategia egokia diseinatu ahal izateko.

Duela hamarkada bat Urranga eta enparauek (2008: 36) zioten bezala, gurean bat egiten dute hainbat hizkuntza-komunitatek: hizkuntza-gehiengo batek (gaztelaniak Hegoaldean eta frantsesak Iparraldean), gutxiengo nazional batek (euskararenak) eta immigranteen hizkuntza-komunitatek (ehun hizkuntza ezberdin baino gehiagokoek). Guk beste multzo bat gehituko dugu, Laakso eta bere lankideek (2014: 11-17) aipatzen duten bezala: globalizazioak bultzatzen duen *lingua franca* funtzioari erantzuten dioten hizkuntzena. Azken multzo horretako hizkuntzei -batez ere inge-

Etorkinek gurera ekarritako hizkuntzen kasuan, benetako integratzaileentzat ala ezkutuko asimilazioentzat jotzen ari ote garen argitu beharko dugu.

**Lehiatzeko balio
erantsia litzateke
gure enpresentzat
lekuan lekuko
hizkuntzak eta
kulturak
menperatzea.**

lesari-, nazioarteko komunikaziorako duten balio pragmatikoa ez ezik, *cool* izaera ere atxikitzen die gure gizarteak, horrek -gazteengan bereziki- pizten dituen lilura zein eta erakargarritasunarekin.

Lingua franca funtzioa betetzen duen multzo horren premia partekatzen dute aurreko hiru multzoetako kide ugarik -euskaltzale asko barne-, eta teorian *neutroa* litzateke euskararekiko. Baina, praktikan, egoera gutxiagotutik irteteko euskarak behar dituen ahalegin, denbora eta baliabide gehigarriak, osorik edo partzialki, *lingua franca*ren batetan trebatzerantz bidera litezke euskararen kaltetan. Hala ere, *lingua franca* baten (edo gehiagoren) premiari ezin diogu muzin egin, eta giro euskaltzaleetan ere lehentasuna eta pisu handiagoa (denbora, baliabideak...) zeini eman behar zaion izan liteke -edo dagoeneko bada- arazo: euskarari ala *lingua franca* delakoari?

“Basque faces new challenges due to the increasing contact with different languages, and this new situation is often felt as threatening for Basque.” (Leonet eta al., 2017: 218)

Baina, euskara ez da Europan mehatxu horren pean dagoen hizkuntza bakarra, eta egoera gutxituan dauden gainerakoekin partekatzen du arazo bera:

When it comes to resources and the motivation for and legitimation of language learning, minority languages can suddenly find themselves competing with international, useful vehicular languages in a very uneven match... (Laakso eta al., 2016: 21)

Horrezaz gain, arestian Laakso eta bere kideen (2016: 3) eskutik Europarako jaso bezala, hemen ere *eleaniztasunaren* onarpena hizkuntza nagusiak ezagutzera muga liteke; alegia, *eleaniztasunaz* hitz egitean batzuek soilik Estatu-hizkuntza eta *lingua franca* delakoa izango lukete buruan, beste bi multzoetakoez ahaztuta.

Bestalde, *elebakartasunaren* paradigmatik *eleaniztasunera* igaro izan arren, lehenbizikoaren eragina nabaria izan daiteke oraindik. Adibidez, Europako *eleaniztasuna* onartua izaten den testuinguruetan ere, praxian *elebakartasunaren* itzala agerikoa omen da: “*Purportedly multilingual policies often remain at the level of parallel monolingualisms, implicitly confirming the monolingual bias.*” (Laakso, 2016: 205). Ildo beretik, Ofelia García (2009: 157) diosku hezkuntza *eleaniztasunaren* inguruko gogoetak ere ilunduta daudela, *elebakartasunaren* ikuspegi mendebaldarrak hezkuntza *elebidu*-nean duen eraginagatik. Egile horrek dioenez, heziketa *eleanitzak* bera-

riazko bideak garatu behar ditu: hizkuntzen irakaskuntzarako eta alfabetizaziorako, baita osagarritasun funtzionala hizkuntza jardunean gauzatzeko ere.

Mehatxu mota berri horiek ez dira eskola-eremura mugatzen, gizarte osora zabaltzen baitira. Hortaz, eleaniztasunaren onarpena orokortuko balitz ere, oraindik oso posible litzateke -arrazoi ezberdinak direla medio-euskarak gizarte gehiengoarengandik behar besteko babesik ez jasotzea. Horrela gertatuz gero, zaila baino zailagoa izango luke euskarak gure gizartean hizkuntza erreferentziala izatera iristea.

Hortaz, batetik, ez dago egungo *hizkuntza-egoera eleanitza elebakartasunaren* paradigmatik kudeatzerik, ezta modu egokian indarrean dugun eskema elebidunetik ere. Bestetik, *eleaniztasuna* gizarteak onartua izan arren, euskara maila gutxiagotuan gelditzeko arriskuak bertan bere horretan dirau. Badago muga horiek guztiak ekiditeko aukerarik?

5.2 Eleaniztasuna kudeatzeko estrategia

Hizkuntza-komunitate askotako egoerak ongi kudeatu ezean gatazkatsuak izan daitezke, elkarren arteko mesfidantzaren sorburua direlako. Konfrontazioak hizkuntza-komunitateak elkarrengandik urrunduko litzuzke, eta gizartearen gehiengoa euskarara biltzeko aukera lurrunduko litzateke. Arrisku hori ekiditeko, batetik, oreka sozial eta politikoa behar direla gogorarazten digute Urangak eta bere kideek eta, bestetik, kudeaketa kultural jantzia eta orekatua baliatzea proposatzen dute (Uringa *et al.*, 2008: 36). Nolako kudeaketa, baina? Hasteko esan, errealitatea aldatu ahal izateko gorabehera guztien irakurketa eta interpretazio zuzena egitea ezinbesteko baldintza dela.

Ez dugu aurrera egingo euskara eta hizkuntza hegemonikoa (gaztelania edo frantsesa) elkarren kontra jarritz, gehiengo erdaldunak bere hizkuntzaren aldeko hautua eginez euskara baztertuko lukeelako:

Sektore aurkariak erakartzeko logika etniko hau [abertzaletasuna vs. espainol-tasuna] apurtu eta ordezkotzat asmatu behar da, bestela ezagutzaren hazkundearen sabaia nabarmenagoa izango da... (Aierdi, 2014: 533, 534)

Ez ditugu beste komunitateetako hiztunak -etorkin berriak- euskararantz erakarriko, beraien hizkuntzak baztertuz. Ezberdinen arteko integrazioak, asimilazio eskema gaindituz, aldebiko egokitzapena eskatzen du: etorkinen zein harrera-gizartearen aldetik. Norabide horretan euskal gizarteak ahalegin bat egin ezean, gogo gutxi piztuko zaie etorkinei ere gure hiz-

Europako eleaniztasuna onartua den testuinguruetan ere, praxian elebakartasunaren itzala agerikoa omen da.

Eguno hizkuntza-aniztasuna ezin da elebakartasunaren paradigmatik kudeatzerik, ezta modu egokian indarrean dugun eskema elebidunetik ere... Euskara maila gutxiagotuan gelditzeko arriskuak bertan bere horretan dirau.

Gure aukera da hizkuntza guztiek balioak dituztela aldarrikatuz, hizkuntza-premiak eta planteamendak dinamika bakarrera biltzea. Eleaniztasunaren paradigma baliatu dezakegu euskaltasun berri baten heldulekuak sortzeko.

kuntzarekin bat egiteko. Elkarrekiko enpatia pizteko, guk eman behar dugu lehenengo pausoa.

Ez ditugu *lingua franca* bat -ingelese edo- lehentasun gisa ikusten dutenak euskarara bilduko, zilegi duten interes hori gure hizkuntzaren kontra doala argudiatzen badugu. *Lingua franca* funtzioa betetzen duten hizkuntzak beharrezkoak zaizkigu, gure hizkuntza-komunitatea edozein delarik ere. Dimentsio pragmatiko hutsetik harago ere, ingelesaren irudi *cool* edo erakargarri hedatuak euskararekiko lehentasuna eta atxikimendua ahuldu litzakeen arren, ezin zaio uko egin ebidentzia horri. Euskara hizkuntza arrotz horien aurkari gisa aurkeztuz gero, gure hizkuntzaz kontrako erreakzioa piztu liteke beste horiei atxikimendu handia dieten sektore batzuegan.

Gure aukera hau da: hizkuntza guztiek mota bateko edo besteko balioak dituztela aldarrikatuz, hizkuntza-premiak eta -planteamendu guztiak dinamika bakarrera biltzea. Tirabirak tirabira, horrela eginez eta bizikidetzaren harmoniatsua bilatuz, euskararen ardua ere denok partekatu beharreko zerbait litzateke. *Eleaniztasunaren paradigma baliatu dezakegu euskaltasun berri baten heldulekuak sortzeko.* Alegia, modu egokian kudeatutako *eleaniztasunak* berak euskararen alde joka lezake.

Hala ere, argi eduki behar da *eleaniztasunaren* aldeko apustua ez dela soilik euskara aurrera ateratzeko planteamendu estrategikoa, askoz gehiago baizik. Beste bi helduleku diskurtsibo garrantzitsuak ere baditu, gutxienez. Alde batetik, balio filosofiko gisa, (*ele*)*aniztasuna* zaindu beharreko gizateriaren ondare kulturala da. Beste aldetik, *multilinguismoa* eta *plurilinguismoa* bete-betean sartzen direla Europako diseinuaren baitan. Laburbilduz, *eleaniztasunak* badu oinarri etikoa ere, batetik, eta Europako bulkada (formala), bestetik. Bi-biak, hain zuzen, lagungarri gerta daitezke euskarari buruzko planteamendu estrategikoa indartzeko.

5.3 Euskalgintza eleaniztasunaren aitzindari

Eleaniztasuna ulertzeko eta kudeatzeko modua euskararen aldekoa izan dadin, euskaltzetasunak gidatua izan beharko du. Paradoxikoa lirudike, dudarik gabe, baina heterodoxiatik eraiki beharko dugu euskararen funtsa. Arnasguneak guztiz garrantzitsuak izanagatik, batez ere giro urbanoan dago aurrera egiteko erronka:

Euskarak hiria irabazteko anbibalentzia ugariko prozesuetan aritu beharko du eta gorabehera askorekin sortzen ari zaio berreskurapenaren prozesua gidatu eta lideratu dezakeen subjektu sozial indartsu bat. (Aierdi, 2014: 538)

Ohiko eskemekin apurtu beharra zenbait arlotatik azpimarratu da; adibidez, hezkuntza mundutik. Horrela, Euskal Herriko hezkuntza jomuga duten zenbait ikertzailek azaldu dute euskararen inguruan dagoen kezka, eta hori *translanguaging* kontzeptuaren eskutik bideratzea proposatu dute:

Basque-medium education has been traditionally based on an ideology of isolation and language separation to protect the minority language. (...)

...the traditional ideologies of language separation at school have been questioned, and translanguaging provides new opportunities for multilinguals. (...) (translanguaging) is based on focus on multilingualism, an approach that goes against the “two solitudes” and is based on three dimensions: the multilingual speaker, the whole linguistic repertoire, and the social context (see Cenoz & Gorter, 2011, 2014).

They intend to offer guidance for future educational projects and research that seek to break with pre-established monolingual ideologies and that at the same time face the challenge of revitalizing and promoting a minority language in a multilingual context. (Leonet eta al., 2017: 218, 219, 225)

Horregatik guztiagatik, *eleaniztasunaren* bidea euskalgintzak modu egokian diseinatu eta kudeatuz gero, euskararen biziraupen duina eskuratzea erraztu liteke zertxobait. Hau da, jardun inklusiboa baliatuz, beste hizkuntzez interesa edota kezka duten sektore sozialei bidea markatu behar die euskara ardatz izan nahi duen munduak. Hasteko, beste horien ikuspegiaren balioa eta legitimotasuna onartuz, Sarrionandiak dioten bezala:

Ez da elkar errekonozitu gabe egiten elkarrekiko bizimodurik. Ezagutu egin behar da errespetatu ahal izateko. (...) Elkartasunaz, munduan kultura asko daudela eta denak norberarenak bezain errespetagarriak direla ere ikasi behar da. Norberaren kultura eta beste batzuen ezagutzen duenak hobeto baloratu ahal izango ditu giza kondizioaren aniztasuna eta segurantzaren eza. Libreagoa ere izango da, aukeratzeko bide gehiago izango dituelako.” (Sarrionandia, 2010: 486-487)

Hurrengo pausoa litzateke estrategia egoki baten funtsa euskalgintzatik pentsatzea, *eleaniztasunaren* baliotik abiatuz. Izan ere, hizkuntzen ikuspegi jasangarriak euskararen mesedetan joka dezake, Albert Bastardas-ek horretarako proposatu dituen bost gako-ideiei jarraituz gero: (Bastardas, 2015: 16-17):

1. Estatuko eta nazioarte mailako hizkuntzen gehiegizko erabilera murgatzea, hizkuntzen berdintasuna bilatze aldera.

***Eleaniztasuna
ulertzeko eta
kudeatzeko
modua
euskararen
aldekoa izan
dadin,
euskaltzaletasun
ak gidatua izan
beharko du...
Heterodoxiatik
eraiki beharko
dugu euskararen
funtsa.
Arnasguneak
guztiz
garrantzitsuak
izanagatik, batez
ere giro
urbanoan dago
aurrera egiteko
erronka.***

**Hurrengo pausoa
litzateke
estrategia egoki
baten funtsa
euskalgintzatik
pentsatzea,
eleaniztasunaren
baliotik
abiatuz...
Hizkuntzen
ikuspegi
jasangarriak
euskararen
mesedetan joka
dezake.**

2. Hizkuntza-komunitate menderatuen auto-irudia eta duintasun maila igotzea.
3. Talde menderatuak ahalduntzea laguntzea, beren komunikazio eremuak zein erabilera publikoak kudeatu ditzaten.
4. Komunikazio-funtzioak banatu, meneko egoeran dauden hizkuntzei funtzio eskusibo eta lehentasun batzuk esleitzea.
5. Hizkuntza jasangarritasunaren garrantziaz gobernuak, enpresak, eta gizarteak kontzientziatzea, beraien erabaketan eragin soziolinguistikoa ere aintzat har dezaten.

Gainera, ezin da ahaztu euskal gizartetik jasotako datuek argi erakutsi dutela *eleaniztasuna*, onarpen zabaletik harago, premia ere badela. Bide horretatik jarraitzekotan, beste galdera bat egin beharko genuke: *Euskararen biziberritzea zein biziraupen duina eleaniztasunaren paradigmaren baitan ulertuz gero, Euskal Herriko hizkuntza-politikek eta -plangintzek ez lukete jomuga, euskara soilaren ordeztu, eleaniztasuna eduki beharko?* ●

BIBLIOGRAFIA ETA ERREFERENTZIAK

- Aierdi, X. (2014). Hizkuntza praktikak hiri mundu eta mundu hirietan: Anbibalentziaren presentzia. *Euskera* 59-2 (503-544).
- Bastardas, A. (2015). Diversidade, contato e ecologia linguística: uma aproximação a partir da complexidade sociocognitiva. *Ecolinguística: revista brasileira de ecologia e linguagem*. V. 01, n.02, 2015. (eco-rebel). (03-18).
- Eusko Jaurlaritza (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza), Nafarroako Gobernua (Euskarabidea) eta Euskararen Erakunde Publikoa (2017). *VI. Inkesta Soziolinguistikoa. Euskararen eremu osoa*. (argitaratze bidean).
- García, O. (2009). *Bilingual education in the 21st century. A global perspective*. Malden, MA. Blackwell.
- Kraus, A. P. (2007). Intercultural recognition and linguistic diversity in Europe. In D. Castiglione eta C. Longman (Arg.): *The language question in Europa and diverse societies*. Oxford (61-80).
- Laakso, J., Sarhimaa, A., Spiliopoulou, S., Toivanen, R. (2016). *Towards openly multilingual policies and practices: Assessing minority language maintenance across Europe*. Bristol/ Buffalo. Multilingual Matters.
- Leonet, O., Cenoz, J. eta Gorter, D. (2017). Challenging Minority Language Isolation: Translanguaging in a Trilingual School in the Basque Country, *Journal of Language, Identity & Education* 16: 4 (216-227), DOI: 10.1080/15348458.2017.1328281
- Martínez de Luna, I., Erize, X., Akizu, B., Etxaniz, J. eta Elizagarate, A. (2016). Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoen lanketa: EGOD egitasmoa. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritza.

- Martínez de Luna, I. (2013). Euskarak duen Framing Berri baten premia asetzeko proposamena. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 86 (13-83).
- Martínez de Luna, I., Suberbiola, P., eta Basurto, A. (2009). *Ikasleen eskola giroko hizkuntza erabileraren azterketa*. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritzia.
- Moreno Cabrera, J. C. (2008). *El nacionalismo lingüístico. Una ideología destructiva*. Barcelona. Península.
- Ruiz Bikandi, U. (2012). El plurilingüismo visto desde los documentos europeos. Una mirada crítica. *Textos de Didáctica de la Lengua y de la Literatura* 60: 65-76.
- Rodriguez, T. (2017). Ziklo bat amaitu al da?. *Jakin* 218: 133-138.
- Sarrionandia, J. (2010). *Moroak gara behelaino artean?*. Iruñea. Pamiela.
- Uranga, B., Aierdi, X., Idiazabal, I., Amorrortu, E., Barreña, A. eta Ortega, A. (2008). *Hizkuntzak eta immigrazioa / Lenguas e Inmigración*. Bilbo. Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokia/ Unesco Etxea.
- van der Worp, K., Cenoz, J. eta Gorter, D. (2016). From bilingualism to multilingualism in the workplace: the case of the Basque Autonomous Community. In: Sinfree B. Makoni (Ed.): *Language Policy*. Springer.

4

Kale-erabilera: Nafarroako datuen irakurketa

Eneko Anduaga Insausti
enekoanduagai@gmail.com

Paula Kasares
paula.kasares@unavarra.es

Hizkuntzen Erabileraren VII. Kale-neurketaren batzorde zientifikoko kideak

Sarrera-data: 2018-01-15 / Onartze-data: 2018-02-09

Laburpena. Artikulu honek 2016ko Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketek Nafarroan emandako datuak xeheki lantzea du xede, batik bat, datuok Euskal Herriko joera orokorrari jarraiki ez dieten alderdiei erreparatuta. Nafarroan euskararen kale-erabilera handitu da eta haziera hori adinaren, gune soziolinguistikoaren, sexuaren eta haurren presentziaren arabera aztertuko da. Euskararen kale-erabilera gora egite hori positiboki baloratzekoa da, halere hurrengo neurraldietan gorakadari eusten ote zaion ikusi beharko da. Azkenik, Nafarroan euskararen erabilera sendotzeko proposamen batzuk eman dira.

• **Hitz gakoak:** *Kale-neurketa, erabilera, Nafarroa, euskararen berreskuratzea, euskararen indarberritzea.*

Abstract. This article focuses on the data from the 2016 Measurement of Street Use of Languages in Navarre, focusing on aspects that do not follow the general trend of the Basque Country. In Navarre, usage of the Basque language has increased and this growth will be analyzed according to the factors of age, sociolinguistic areas, gender and children. The increase in street use in Basque is positively assessed, but it remains to be seen whether this increase will hold up in future street usage measurements. Finally, some proposals have been given for consolidating usage of Basque in Navarre. • **Key words:** *Street measurement, usage, Navarre, recuperation of Basque, strengthening of Basque.*

1. SARRERA

I 2016ko Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketaren lehen emaitzak uztailean aurkeztu ziren eta datuek kezka eragin zuten duela hamar urtetik hona Euskal Herrian kale-erabilera apaldu delako. Dena dela, jaitsiera ez da lurralde guztietan gertatu, Araban eta, batez ere, Nafarroan igoera izan baita. Artikulu honetan Nafarroako datuak xehakaturik emanen ditugu eta, batik bat, gure bilakaerak Euskal Herriko joera orokorrari jarraiki ez dion alderdian sakonduko dugu, horien arrazoiak bilatze aldera. Nafarroako datu hauek esperantzaz ikusten ditugu, baina hurrengo neurraldian goranzko joera hau berresten ote den ikusi beharko dugu.

2016ko kale-neurketan Nafarroan 32 udalerrri neurtu dira (2011n baino 11 udalerrri gehiago), 25.000 inguru elkarrizketa behatu eta 68.917 solaskideren hizkuntza erabilera aztertu (kale-neurketek Nafarroan inoiz izan duten laginik handiena).

Beraz, ikerketa zabala da, lagin handi batean oinarritua. Horrek datuei sendotasuna eta fidagarritasuna bermatzen die. Lagin akatsa, % 95eko konfiantza-maila duela, $\pm 0,3$ da.

Neurtutako udalerrriak euskararen ezagutzaren arabera sortutako lau kategoriatan sartzen dira, kategoria hauei gune soziolinguistiko deitzen diegu.

1. taula. Neurtutako udalerrriak gune soziolinguistikoaren arabera. NAFARROA, 2016.

Euskaldunen portzentajea ¹	Neurtutako 32 udalerrriak
% 0 - 25	Agoitz, Altsasu, Aranguren, Barañain, Berriozar, Burlata, Erro, Esteribar, Irunberri, Iruñea, Irurtzun, Lizarra, Olatzagutia, Otsagabia, Tafalla, Tuter, Uharte Arakil, Zizur Nagusia
% 25 - 50	Iturmendi
% 50 - 75	Bera, Doneztebe, Etxarri Aranatz, Lakuntza, Urdiain
% 75 - 100	Arantza, Arbizu, Areso, Baztan, Etxalar, Igantzi, Leitza, Lesaka

Nafarroako biztanleen % 93,5 euskararen ezagutza % 25en azpikoa duten udalerrietan bizi da. Hala berean, ezin dugu ahaztu 2011ko zentsuaren arabera, euskaldun gehienak ere hiztun elebidunen dentsitate txikia duten udalerrri horietan bizi direla. Euskararen ezagutza % 75etik gorakoa den udalerrietan, aldiz, Nafarroako biztanleen % 4,53 baizik ez da bizi.

**Artikulu honetan
Nafarroako
datuak
xehakaturik
emanen ditugu
eta, batik bat,
gure bilakaerak
Euskal Herriko
joera orokorrari
jarraiki ez dion
alderdian
sakonduko dugu,
horien arrazoiak
bilatze aldera.**

Ohar metodologiko bat egin beharrea gaude. Artikulu honetan euskararen erabilera datuak gune soziolinguistikoen arabera aztertzea da gure asmoa. Halaz guztiz, euskararen ezagutza tasa % 25-50 eta % 50-75 den guneeetan 2016ko datua baino ez dugu erabiliko honako arrazoi hauengatik:

- Euskararen ezagutza % 25-50 portzentajeen artean dagoen gunearen kasuan akats tartea % 6koa da, akats tarte handiegia batzorde zientifikoaren irizpideen arabera. Gune soziolinguistiko honetako datuak modu orientagarrian emanen ditugu.
- Euskararen ezagutza % 50-75 bitarteko gune soziolinguistikoan udalerrri bat (Bera) lehen aldiz neurtu da 2016an. Horrek gune soziolinguistiko horretako datuen bilakaera nolabait desitxuratu du. Lagina handitze horrek zenbait daturen bilakaeraren konparagarritasuna ahuldu du, baina era berean, neurketari sendotasun handiagoa eman dio. Beraz, 2016ko neurraldiko lagin honek gune horretako karriketan gertatzen dena hobeki islatzen du.

Hau da, euskararen ezagutza % 25-50 eta % 50-75 portzentajeen artean duten gune soziolinguistikoetako datuen bilakaera ez dugu aztertuko. Halere, nafar gehien-gehienak bizi diren udalerrien bilakaerari helduko diogu (% 0-25 eta % 75-100 ezagutza portzentajeak dituzten gune soziolinguistikoak hartuta nafarren % 98 bizi diren herriak hartuko baititugu).

2. NAFARROAKO DATU OROKORRAK

Nafarroa osorik hartuz gero, % 6,7koa da euskararen kale-erabilera. Nafarroan euskararen kale-erabilerak joera egonkorra izan du 1997tik, baina 2016ko neurraldian goranzko joera hartu du. Ikus dezagun bilakaera:

2. taula. Euskararen kale-erabileraren bilakaera. NAFARROA, 2016 (%).

	1989	1993	1997	2001	2006	2011	2016
Kale-erabilera	6,5	7,5	6,8	6,0	5,9	5,7	6,7

Gainera, esan dezakegu, goranzko joera hori sendoa dela, aurrerago ikusiko dugunez, adin talde guztietan eta gune soziolinguistiko guztietan gertatu baita.

Halere, erkidego osoko datuak aztertzea ez da nahikoa euskararen erabileraren gertakaria Nafarroan behar bezala ulertzeko. Beraz, kale-erabilera adin-taldeka, sexuaren arabera bai eta ezagutzari lotutako gune soziolinguistikoen arabera ere aztertuko dugu.

3. EUSKARAREN ERABILERA NAFARROAN, ADIN-TALDEEN ARABERA

I

2016ko neurketan euskararen erabilerak goranzko bidea hartu du adin-talde guztietan. Horretaz gain, Nafarroako kaleetan euskaraz gehien hitz egiten duen adin-taldea haurrena da (hala gertatu da orain arteko neurraldi guztietan), jarraian gazteak eta helduak daude; eta azkenik, adineko pertsonak. Adinaren arabera emaitza hauek, oro har, euskararen berreskuratze sozialaren adierazletzat har ditzakegu.

3. taula. Euskararen erabilera behatuaren bilakaera, adinaren arabera. NAFARROA, 1989-2016 (%).

	Guztira	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
1989	6,5	9,8	5,3	5,3	5,8
1993	7,5	10,6	7,1	5,8	6,5
1997	6,8	8,8	6,4	6,0	6,1
2001	6,0	7,6	6,4	5,1	5,2
2006	5,9	7,7	6,1	5,1	5,1
2011	5,7	7,5	5,6	5,4	3,3
2016	6,7	8,6	6,6	6,6	3,9

Nafarroa osorik hartuz gero, % 6,7koa da euskararen kale-erabilera. Nafarroan euskararen kale-erabilerak joera egonkorra izan du 1997tik, baina 2016ko neurraldian goranzko joera hartu du.

Berreskuratzearen ideiaz gain, adinaren arabera datu horietan arakaturik, bi ondorio gehiago nabarmendu nahi ditugu:

- Nafarroan gazteak eta helduek euskararen erabilera bera eman dute (aurreko neurraldietan gazteen euskararen erabilera helduena bezainbestekoa edo altuagoa izan da beti, inoiz ez txikiagoa). Euskal Herriko neurketetan, ordea, baita Araban eta Gipuzkoan egindakoetan ere, gazteak helduek baino gehiago erabiltzen dute euskara kaleetan. Nafarroako salbuespen honen arrazoiak hurrengo atalean ikertuko ditugu sakonago.
- Helduen artean inoizko erabilerarik handiena izan da. Kontuan hartzekoa iruditzen zaigu; izan ere, helduena da adin-talderik jendetsuena eta helduek dute jendarte honetan itzal-eraginik handiena: soziala, politikoa, familiartekoa...

4. EUSKARAREN ERABILERA GUNE SOZIOLINGUISTIKOEN ARABERA

I

Gune soziolinguistikoetako erabilera datuei oharturik, honako hau ageri da: 2016an Nafarroako udalerrietan euskararen ezagutza gero eta handiagoa izan, orduan eta gehiago erabiltzen da euskara.

4. taula. Euskararen erabilera behatua gune soziolinguistikoaren arabera. NAFARROA, 2016 (%).

	Guztira	% 0 - 25	% 25 - 50	% 50 - 75	% 75 -100
2016	6,7	3,4	27,7	40,9	63,9
2011ko neurketarekiko hazkundera	+ 1	+ 0,7			+ 12,8

Lau gune soziolinguistikoetan izan du euskararen erabilerak igoera. Jorratuko ditugun gune soziolinguistikoetako bilakaerak ikusirik, euskararen ezagutza portzentajea % 75-100 tartean duen gunean izan da euskararen kale-erabileraren hazkundera hori bereziki aipatzekoa (+ 12,8) eta gainera, neurketak egiten direnetik inoizko erabilera indizirik altuena egon da gune horretan. Ipar Euskal Herrian ere ezagutza gehien dagoen gunean erabilera igo da.

Oso aztergai interesgarria iruditzen zaigu Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian gertatu fenomeno hau. Izan ere, Euskal Herriko emaitza orokorrak bestelakoak izan dira. Euskal Herria osorik harturik, euskararen ezagutzarik handiena duen gune soziolinguistikoan erabilerak behera egin du.

Gune soziolinguistikoetako kale-erabilera adinaren arabera ere aztertuko dugu:

5. taula. Euskararen erabilera behatuaren bilakaera gune soziolinguistikoaren eta adin-taldearen arabera. NAFARROA, 1993-2016 (%).

		Guztira	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
% 0 - 25	1993	2,6	4,2	2,3	2,2	0,4
	1997	2,7	4,1	2,3	2,4	1,6
	2001	2,5	3,8	2,6	2,3	0,5
	2006	3,2	4,7	2,6	3,1	1,8
	2011	2,7	4,1	2,0	3,0	0,4
	2016	3,4	4,7	3,3	3,7	0,9
% 25-50	2016	27,7	34,8	13,3	24,7	15,0
% 50-75	2016	40,9	51,3	47,3	37,1	21,7
% 75 -100	1993	44,5	63,4	37,3	35,9	49,9
	1997	44,8	66,9	33,5	32,8	77,1
	2001	53,9	60,0	69,1	40,7	77,9
	2006	45,5	55,4	60,5	35,8	48,7
	2011	51,1	65,4	62,1	42,9	42,7
	2016	63,9	79,5	71,5	55,9	49,6

Adinaren arabera, gune guztietan haurrak dira euskara gehien erabiltzen dutenak eta adinekoak gutxien egiten dutenak. Dena dela, gune soziolinguistiko bakoitzean adin-taldearen erabilera hurrenkerari erreparatzea merezi duelakoan gaude:

- % 0-25: haurrak > helduak > **gazteak** > adinekoak
- % 25-50: haurrak > helduak > **gazteak** > adinekoak
- % 50-75: haurrak > **gazteak** > helduak > adinekoak
- % 75-100: haurrak > **gazteak** > helduak > adinekoak

Erabilera hurrenkeran ikus daiteke % 50eko ezagutza baino baxuagoa den udalerrietan gazteak helduek baino gutxiago erabiltzen dutela euskara kalean. Gertaera hau 2006ko neurralditik aurrera agertu da. 2006 baino

**Helduen artean
inoizko
erabilerarik
handiena izan
da. Kontuan
hartzekoa
iruditzen zaigu;
izan ere,
helduena da
adin-talderik
jendetsuena eta
helduek dute
jendarte honetan
itzal-eraginik
handiena:
soziala,
politikoa,
familiar-tekoa.**


lehenagoko neurraldietan gazteen eta helduen kale-erabilerak indize bertsa eman du.

Aurreko urteetako kale-neurketa guztietan erabilera indizerik altuena haurrek izan dutela kontuan harturik ez da bilakaera logikoa helduek gazteek baino erabilera tasa handiagoa izatea. Gure ustez, haur izatetik gazte izatera pasatzean erabileran jaitsiera atzematen da, horrek haur-tzarotik gaztarorako hizkuntza portaeren aldaketa salatzen du.

Ezin ahantz daiteke Nafarroan azken hamarraldietan euskaldunen eta elebidun hartzailen kopurua handitu dela, batik bat, irakaskuntza arautuari eta helduen euskalduntzeari esker. Esaterako, 2011ko zentsuaren arabera (Nafarroako Gobernua, 2015), 1991tik 2011ra doan hamarkadan 32.000 euskaldun irabazi ziren (1991n 49.484 eta 2011n 82.101) eta elebidun hartzailen kopuruak ia hirukoiztu zen (1991n 23.414 eta 2011n 62.881). 2016ko Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, soilik 16 urteko edo urte gehiagoko nafarrak harturik, 1991n baino 29.000 euskaldun gehiago daude (Eusko Jaurlaritz, Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoa, 2017).

Esan bezala, euskaraz hitz egiteko gaitasuna duten nafarren kopurua handitu da, baina 2016ko Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 16 urteko edo urte gehiagoko nafar euskaldun gehienak (% 51,1) erdal elebidunak dira; hau da, gaztelaniaz euskaraz baino errazago aritzen dira. Gainera, adinean behera egin ahala, erdal elebidunen portzentajea handitu egiten da ondoko grafikoak erakutsi bezala.

6. taula. Elebidunen tipologia euskaraz mintzatzeko erraztasunaren arabera. NAFARROA, 2016 (%).



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016. Nafarroako Foru Komunitatea.

Gazte elebidunen hizkuntza gaitasun erlatiboaren gaineko datu horrek agerian uzten duenez, euskaraz eskolaturik egonda ere, anitz haur eta gazte euskaldunen behar komunikatiboak gaztelaniak asetzen ditu hobeki. Zenbait gazteren euskararen erabilera tasaren atzean euskaraz aritzeko erosotasun falta egon daiteke. Hiztun elebidunen dentsitate sozial (eta beraz, aukera sozial) txikiko udalerrietan euskararen eskola bidezko ikaste hutsak ez du hizkuntzaren kale-erabileraren espero litekeen islarik izan. Irakaskuntzaren bidez euskaraz jabetu diren haurrek euskaraz aritzeko eta hizkuntza beretakotzeko aukera sozialak behar dituzte (ikerketa kualitatibo honek ere halaxe darakutsa: Kasares, 2014).

Gertakari horrek jarraipena merezi du Nafarroako populazio gehiena, % 90etik gora, gazteek helduek baino euskararen kale-erabilera apalagoa duten gune soziolinguistikoetan bizi baita; eta adinean behera egin ahala erdal elebidunen ehunekoak handitzera jotzen baitu. Hurrengo urteetan gertaera hori indartzea da litekeena; beraz, haurrei eta gazteei bitartekoak eskaini beharko litzaizkieke euskaraz gaztelaniaz bezain eroso solasta daitezen.

5. IRUÑERRIA ETA IRUÑEA

Iruñerriak eta Iruñeak atal berezia behar dutela uste dugu. Izan ere, Nafarroako biztanleen erdia baino gehiago Iruñerrian bizi da eta Iruñerriko biztanle gehienak hiriburuan berean, Iruñean. Hala bada, argi dago Iruñean eta Iruñerrian gertatzen denak Nafarroa osoari eragiten diola.

Iruñerrian euskararen kale-erabilera oso egonkorra da, 1997tik % 2,5 eta % 3 bitartean mugitu da. 2011n Iruñerriko erabilerak 1993tik inoizko emaitzarik txikiena izan zuen. 2016ko neurraldian goranzko joera hartu du, doi-doia bada ere. 2016ko neurketan Iruñearen pareko indizea eman du, % 3.

Iruñeari dagokionez, Iruñerriko kale-erabileraren antzekoa da, % 2,9koa. Iruñeko euskararen kale-erabilera 1997tik geldirik dago, % 2,5en eta % 3ren artean, Iruñerriko tarte berean.

Iruñean eta Iruñerrian haurrak dira euskara gehien erabiltzen dutenak, baina euskararen ezagutzarik apalena duten gunetan bezala, helduek gazteek baino gehiago erabiltzen dute euskara, hurren taulan ikus daitekeenez:

**Hiztun
elebidunen
dentsitate sozial
(eta beraz,
aukera sozial)
txikiko
udalerrietan
euskararen
eskola bidezko
ikaste hutsak ez
du hizkuntzaren
kale-erabileraren
espero litekeen
islarik izan.**

7. taula. Euskararen erabilera behatuaren bilakaera adinaren arabera. IRUÑEA, 1989-2016 (%).

	Guztira	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
1989	1,3	2,1	0,9	1,4	0,6
1993	1,8	2,6	1,6	1,9	0,6
1997	2,9	4,1	2,5	2,7	2,4
2001	2,5	4,4	2,5	2,3	0,2
2006	2,8	4,3	1,8	2,6	1,9
2011	2,7	4,2	2,2	3,2	0,2
2016	2,9	4,4	2,7	3,1	0,7

6. EUSKARAREN ERABILERA SEXUAREN ARABERA

I

Nafarroan parez pare zegoen emakumezkoen eta gizonezkoen euskararen erabilera adin-talde guztietan, baina 2016an joera berri bat sumatu da. Belaunaldi gazteen artean emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago aritzen dira euskaraz kalean, ondoko taulan ikusi bezala:

8. taula. Euskararen erabilera behatua adinaren eta sexuaren arabera. NAFARROA, 2016 (%).

	Guztira	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
Emakumezkoak	6,6	9	7,3	6,5	3,4
Gizonezkoak	6,9	8,2	5,8	6,6	4,4

Nesken eta mutilen (hau da, gazte gizonezkoen eta gazte emakumezkoen) arteko aldea 1,5 puntukoa da, inoizko altuena. Hala bada, gaztaroan euskararen erabilerearen nolabaiteko *feminizazioa* atzematen da. Horrek neskatikoen eta mutikoen sozializazio molde ezberdinei oihartzera behartzen gaitu: aisialdian, kirolean, kultura kontsumoan, erreferenteetan... Aurreantzean joera berri horri arretaz jarraitu beharrekotzat deritzogu, belau-

naldi gazteen artean gertatzen delako eta, arestian aipatu dugun bezala, Nafarroan lehen aldiz gertatu delako.

7. KALE-ERABILERA HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA

Nafarroa Euskal Herriko joera orokorrarekin bat dator: haurren presentzia eragin handiko aldagaia da euskararen erabilerarako eta erabilera indizirik handienak haurrak eta nagusiak elkarrekin daudenean ikusten dira.²

Nafarroako hizkuntza erabilera datuetan alde esanguratsurik ez dago haurrak bakarrik eta nagusiak bakarrik daudenean, baina euskararen kale-erabilera bikoizten da haurrak eta nagusiak elkarrekin daudenean.

9. taula Euskararen erabilera behatua haurren presentziaren arabera. NAFARROA, 2016 (%).

	Haurrak bakarrik	Nagusiak bakarrik	Haurrak eta nagusiak elkarrekin
Kale-erabilera	5,1	5,0	10,5

Dena dela, interesgarria da datu hori gunee soziolinguistikoen arabera aztertzea:

10. taula. Haurren arteko erabilera eta haien eragina nagusien erabileran gunee soziolinguistikoen arabera. NAFARROA, 2016 (%).

	Guztira	Haurrak	Helduak	Haurrak bakarrik	Helduak bakarrik	Haurrak eta nagusiak
% 0 - 25	3,4	4,7	3,7	1,0	2,2	6,4
% 25 - 50	27,7	34,8	24,7	23,8	13,0	42,4
% 50 - 75	40,9	51,3	37,1	42,8	29,2	59,8
% 75 - 100	63,9	79,5	55,9	79,1	52,9	79,0

Gune soziolinguistikoen arabera aztertutik, udalerriko euskaldunen dentsitatea zenbat eta handiagoa izan, orduan eta nabarmenagoa da haurren arteko erabileraren nagusitasuna. Euskaldunak % 50-75 diren udalerrietan beren artean ari direlarik haurren euskarazko erabilera tasa % 42,8 da eta euskaldunak % 75-100 diren udalerrietan, % 79,1. Haur-gaztetxoek euskarazko sozializazioaren ikuspegitik, *harreman eszentrikoak* (hau da, adinkideen

Nesken eta mutilen (hau da, gazte gizonezkoen eta gazte emakumezkoen) arteko aldea 1,5 puntukoa da, inoizko altuena.


Hala bada, gaztaroan euskararen erabileraren nolabaiteko feminizazioa atzematen da.

artekoak: anaia-arreben, lehengusu-lehengusinen, ikaskideen, lagunen eta halakoen artekoak) bereziki ohartzekoak dira (Kasares, 2010, 2014). Belaunkideen arteko euskararako joera horri gako biziki garrantzitsu deritzogu.³

Izan ere, haur-gaztetxoek hizkuntza portaera euskarara erakartzeko eta euskarazko sozializazioa sendotzeko belaunkideen arteko hizkuntza elkarrekintzak belaunaldien artekoak baino eraginkorragoa dirudi. Ildo horretatik, haurren arteko euskararen erabilera belaunaldi berrien euskarazko sozializazioa indartzeko ahaleginen xede bihurtzea proposatu izan da (Kasares, 2015).⁴

Bestalde, honako gertakari hau ere islatzen da datuetan: udalerrietan euskararen ezagutzak gora egin ahala, alde gutxiago dago haurrak bakarrik egotearen eta nagusiekin egotearen artean. Euskaldunak % 75-100 bitartean dauden udalerritan haurren ezagutzak (% 79,5ek), haurren arteko erabilerak (% 79,1ek) nahiz nagusien eta haurren artekoak (% 79,0k) bat egiten dute. Ez da gauza bera gertatzen nagusiekin, ezagutza handieneko eremuan egonda ere, alde handia dago nagusiak bakarrik egotearen eta hurrekin egotearen artean.

11. taula. Euskararen erabilera behatua haurren presentziaren eta eremu soziolinguistikoaren arabera. NAFARROA, 2016 (%).



Beraz, haurren eta nagusien arteko hizkuntza elkarrekintzek, batik bat, nagusien euskararen erabilera aktibatzen du eta euskararen dentsitate soziala zenbat eta handiagoa izan, orduan eta nabarmenagoa da gertakari hori. Hala bada, euskararen ezagutza handiko udalerrietan nabaria da nagusiek haurren euskarazko joerara egiten duten egokitze linguistikoa. *Behetik gorako hizkuntza sozializazioa* dei geniezaioke hizkuntza eragin horri (Kasares, 2014).⁵

8. ERABILERA HANDITZEKO PROPOSAMENAK

I Nafarroako datuak eta bilakaera aztertu eta gero, esku-hartzeetarako lan-ildoak proposatu nahi ditugu 2016an Nafarroan atzeman den euskararen erabileraren igoerari hurrengo neurraldian eusteko.

Azken urteotan Nafarroan euskaldunen eta elebidun hartzaileen kopurua handitu bada ere, hiztun berriak irabazten segitu ez ezik, elebidunen zein elebidun hartzaileen euskararen gaitasuna osatu eta sendotu beharra dago.

Ezin dugu ahaztu Nafarroan elebidun hartzaile asko daudela eta, euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituzten arren, ulertzeko gai direla. Elebidun hartzaileen hizkuntza-gaitasuna hobetzeko eta kale-erabilera handitzeko bi hizkuntzetan egiten diren elkarrizketak ere bultza litezke; hau da, euskaraz aritzeko gai den pertsona euskaraz eta ulertzeko gai dena gaztelaniaz aritzen diren elkarrizketak. Hizkuntza ohitura horiek aldatzeko saiakerak egin dira Euskal Herriko hainbat auzo eta herritan (Donostiako Egian, Lasarte-Orian...) eta 2018an zehar ere beste hainbatetan eginen dituzte⁶.

Euskararen ezagutza % 0-25 duen guneko soziolinguistikoan, belaunaldi gazteen kale-erabilerari dagokionez, haur izatetik gazte izatera pasatzean euskararen erabileraren *galera* —erdarara jotzeko hizkuntza portaera— sumatzen da. Aintzat harturik guneko horretan euskarazko hiztun berri asko daudela eta Nafarroako euskaldunek adinean behera egin ahala euskaraz aritzeko gaztelaniaz aritzeko baino zailtasun handiagoak dituztela, haur-gazteen ahozko erabilera sustatzea eta *elikatzea* lehentasuneko agertzen da, hezkuntza arautuan ez ezik aisialdiaren eskaintzan ere (eskolaz kanpoko jardueretan, kirolean...); bai eta neska-mutikoei euskaraz iristen zaizkien aukera eta eduki orotan ere (IKTetan, telebista kateetan [ETB3...], kultura eskaintza askotarikoan...

Euskararen ezagutza % 75-100 duen guneko soziolinguistikoan kale-erabileraren igoera adierazten dute datuek eta, horretan, Nafarroa (eta Ipar Euskal Herria) ez doa EAEko joerarekin bat. Euskararen erabileraren bi bilakaera horien eragingarri eta faktoreetan arakatzea interesgarria izanzen litzateke, aurrerantzean ere Nafarroaren joera hori sendotzen lagundu nahi badugu.

9. ONDORIOAK

I Euskararen kaleko erabilera ez omen da ezagutzaren ondorio zuzena. Dirudienez, ezagutza orok ez du kaleko erabilera emendatzen. Kale-erabilera ez da kontu kuantitatibo hutsa eta hiztunen tipologiari nolabait lo-

**Nafarroako
hizkuntza
erabilera
datuetan alde
esanguratsurik ez
dago haurrak
bakarrik eta
nagusiak
bakarrik
daudenean, baina
euskararen kale-
erabilera
bikoizten da
haurrak eta
nagusiak
elkarrekin
daudenean.**

**Haur eta
gaztetxoek
hizkuntza
portaera
euskarara
erakartzeko
belaunkideen
arteko hizkuntza
elkarrekintzak
belaunaldien
artekoak baino
eraginkorragoa
dirudi.**

tzen zaio. Euskararen erabilerari eragiten dion beste faktore gehiago daude, jakina denez: inguruko pertsonen hizkuntza gaitasuna eta portaera, motibazioa nahiz gizartearen babesa, batik bat.

Nafarroan euskaldunen hazkundea nabarmena izan den adin-taldeetan eta gune soziolinguistikoetan erdal elebidunen ehunekoa handitu da. Euskararen erabilerak goranzko joerari jarraitzeko —hiztun berriak irabazten segitzearekin batera— hiztunei testuinguru linguistikoa egokia, erabilera ahalbidetu eta piztuko duena, eskaini behar zaie. Hiztun euskaldunen hizkuntza portaerak aldatzea eta erabilera aktibatzea ekarriko duten prozesu eta dinamika iraunkor eta eraginkorrak asmatzean dugu erronka.

Buruenik, datuei erreparaturik, euskararen ezagutza soziala gutxieneko maila kritiko batera iritsi ezean, nekez espero daiteke ezagutza horrek erabileran isla positiborik izatea. ●

OHARRAK

1. 2001eko zentsuko datuen arabera multzokaturik
2. Nagusitzat gazteen, helduen eta adinekoen multzoak batera hartzen ditugu.
3. Ikerketa kualitatibo batek Nafarroako gune soziolinguistiko ezberdinetako (Iruritako eta Iruñerriko) haurren arteko hizkuntza portaera hori jaso du: “Iruritako (...) haurrek adinkideekin euskaraz ihardukitzen dute eta, hori horrela, iruritarren belaunaldi berriak beren artean euskaraz egiten hazten ari dira (...) Iruñean arras bertzelakoa da haurrek euskaraz gizarteratzeko duten aukerak. (...) Etxean euskaraz aritzen diren neska-mutiko horiek D ereduan eskolatu eta maizko ikastetxeko harreman eszentrikoak erdaraz eratu behar dituzte, gehienetan hori baita adinkideen arteko elkarrekintzetan nagusitzen den hizkuntza” (Kasares, 2014: 334).
4. “Hala bada, nik euskararen jarraipenerako proposatu dudan xedea ez da gurasoek haurrei euskaraz egitea, ez eta haurrek euskara ikastea, edo aita-amek eta umeek elkarrekin euskaraz ihardukitzea. Xedea haurren arteko hizkuntza erabilera askean kokatu dut. Hau da, haur banakoek beren artean egiten duten hizkuntza, mintzaira berezkoa eta bat-batekoa, euskara izatea. Hori paratu nahi dut deus baino lehen gure hurrengo hamarraldietarako egitasmo soziolinguistikoan jomugan. Hori eginik datozen belaunaldietarako helburua haurrek —euskara lehen hizkuntza izan ala ez— euskaraz hazteko ahal den baldintzarik onenak izan ditzatela irudikatuko dugu” (Kasares, 2015: 30).
5. “Haurrak euskaldun bilakatzeko prozesua *elkarreragilea* da, belaunaldien arteko (goitik behe-tik nahiz behetik goitiko) elkarrekintzetan ez ezik adinkideen arteko (ezker-eskuineko) harreman eszentrikoetan ere gauzatzen dena. Euskararen jarraipenean *haurrak eragile* aktiboak izan dira jasotzaile hutsak baino gehiago” (Kasares, 2014: 347). Baztango Iruritan, euskararen ezagutza handiko herri batean, haurrekiko hizkuntza portaeraren gizarte arauaren aldaketa dokumentatu da: “Iruritan, hala familian nola familiatik at, belaunaldien arteko euskara-erabilera eredu berria ezarri da: haurrei euskaraz egitea. Helduak helduari erdaraz aise egiten badio ere, helduak haurrari nekez eginen dio gaztelaniaz. Haurrekin erdaraz solastatzeari “arraroa” irizten diote berriemaileek” (*Ibid.*, 214).
6. Euskararen erabilera aktibatzeko halako elkarrizketa asimetrokoak bultzatzeaz dihardu Nafarroako Gobernuaren *Euskararen I. Plan Estrategikoa (2016-2019)* dokumentuak: “Euskara ulertzen den baina erabiltzen ez den egoera edo gizarte taldeetan euskararen erabilera areagotzeko ekimenak garatzea” (Nafarroako Gobernua, 2017: 38).

BIBLIOGRAFIA

- EUSKO JAURLARITZA, NAFARROAKO GOBERNUA eta EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA (2017). VI. *Inkesta Soziolinguistikoa, 2016. Nafarroako Foru Komunitatea*. Txosten argitaragabea. Sarean: [http://www.euskarabidea.es/fitxategiak/irudiak/fckeditor/NAF-Inkesta%202016%20euskaraz\(1\).pdf](http://www.euskarabidea.es/fitxategiak/irudiak/fckeditor/NAF-Inkesta%202016%20euskaraz(1).pdf)
- KASARES, P. (2010). 20 urteko nafar euskaldun hori. Nafarroako euskararen egoera zenbait gazte euskaldunen bizipenetan. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 76, 101-123.
- (2014). *Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- (2015). Euskararen belaunez belauneko jarraipena aztergai eta jomuga. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 94, 13-45.
- NAFARROAKO GOBERNUA (2015). *Nafarroako Mapa Soziolinguistikoa. 2011*. Txosten argitaragabea. Sarean: http://www.euskarabidea.es/fitxategiak/irudiak/fckeditor/mapa-soziolinguistikoa-2011_txostena-2.pdf
- (2017). *Euskararen I. Plan Estrategikoa (2016-2019)*. Sarean: [http://www.euskarabidea.es/fitxategiak/irudiak/fckeditor/Euskararen%20I_%20Plan%20Estrategikoa%20\(2016-2019\)_%20Nafarroako%20Gobernua.pdf](http://www.euskarabidea.es/fitxategiak/irudiak/fckeditor/Euskararen%20I_%20Plan%20Estrategikoa%20(2016-2019)_%20Nafarroako%20Gobernua.pdf)

5

Euskararen erronkak

Eneko Gorri

Euskara teknikaria

Hizkuntzen Erabileraren Kale-neurketako Batzorde Zientifikoko kidea

gorrieneko@yahoo.fr

Sarrera-data: 2018-01-15 / Onartze-data: 2018-02-09

Laburpena. Ipar Euskal Herrian, 2016ko Inkesta soziolinguistikoaren datuak eta Hizkuntzen Kale-erabileraren neurketak aurkeztuak dira hizkuntza politika publikoaren berregituraketa urte erdi-erdian. Urtarrilaren 1ean sortu den Herri elkargoak asentuko ekintza gisa euskararen kompetentzia hartu eta EEPri esleitutako diru laguntza Estatua –Eskualdea– Departamenduaren mailara igo zuen. Denbora berean, zereginen banaketa teknikoa baino gehiago, hizkuntza politikaren lidergo politikoa nork hartuko duen jokatzeko da egiazki. Lurralde horretan hizkuntza politikak 10 urte baizik ez ditu eta ziklo berri baten atarian kokatzen da. Euskalgintzak orokorrean eta Euskal Konfederazioak partikularzki, paper garrantzitsua beteko du ondoko hamarkadetan garatuko diren politiken heina definitzeko. • **Hitz gakoak:** *hizkuntza politika, lankidetzeta, argazki soziolinguistikoa, Ipar Euskal Herria, euskararen biziberritzea, ziklo berria*

Abstract. Summary: In the North Basque Country, data from the 2016 Sociolinguistic Survey and Measurements of the Street Use of Languages have been presented during the restructuring of linguistic policy taking place in the middle of the year. The Basque Country Association (Herri Elkargoa), founded on January 1, assumed the responsibility for the Basque language for local activities and grants allocated to the EEP (Euskararen Erakunde Publikoa, i.e. Public Organization for the Basque Language, a.k.a. L'Office Public de la Langue Basque) were raised to a State –Région– Département level. At the same time, rather than a technical division of tasks, it is actually about who wields political leadership of language politics. In that territory, the language policy dates back to just 10 years and is at the beginning of a new cycle. Those working for the Basque language in general, and the Basque Confederation in particular, will play an important role in defining the range of policies that will be undertaken in upcoming decades. • **Key words:** *language policy, cooperation, sociolinguistic photo, Northern Basque Country, revitalization of basque, new cycle.*

ATARIKOA

I 2012az geroz, Lapurdiko hiri erdaldunenean, Biarritzen hain zuzen, 25 elkartek eta Herriko euskara zerbitzuak beren indarrak batzen dituzte. Hala, euskararen erabilera eta ikusgarritasuna ardatz duten egunak antolatzen dituzte: Mintzalasai. Aste bateko egitarauarekin hasi eta urtez urte handitzen joan den ekimena da. 2017an, BAM hiri-eremuko (Baiona-Angelu-Miarritze) hiru hirietara zabaldu da dinamika, euskararen ikuspegitik estrategikoa eta premiazkoa den lurralde batean ekiteko gogoz. Tailerrak, bisita gidatuak, iniziazioak, ate irekitzeak, ikusgarriak, proiektzioak, mintzaldiak... egitaraua anitza, berritzailea eta belaunaldi artekoa eraiki da aurten ere.

2017an, euskarazko 75 hitz orduetako batera, orotara 6.850 pertsona baino gehiago hurbildu da, parte hartzaile kopurua hirukoiztuz. Biztanleriaren %86a erdaldun hutsa den hiri-eremu batean, ez da gutti. Euskaldunei euskara erabiltzeko aukerak eskaintzeaz gain, 6 astez euskararen gaia mahai gaineratzeko parada da: hedabideen zutabe edo uhinetan, agenda mediatikoan, jendearen kontzientzietan eta ikusi nahi ez gaituzten jakobinoen begi aitzinean ere.

Urtero formakuntzari tartea eskaintzen dio egitarauak, egun erdi batez lurraldeetako euskara teknikariak, Euskararen erakunde publikoko (EEP) agenteak, elkarteetako langileak eta oro har euskaltzaleak bilduz. Azken urteetan, Ipar Euskal Herriko euskalgintza sozial eta instituzionalak ere egiturazko mutazioak ezagutu dituzte: profesionalizazioa, sektorializazioa, auto-zentratzea, burokratizazioa, hazkunde krisiak, birkokatzeak... eta berregituraketak ere, Herri elkargoaren sorrerarekin, adibidez. Gainera, badu orain bi urte, Lurralde kontratuaren baitan proposatutako hizkuntza politikaren indar hartze eskasagatik, Euskal Konfederazioak eta Kontseiluak EEPko Aholku batzordetik ateratzea erabaki zutela. Horrek guziak euskararen alorrean lan egiten dutenen arteko distantziak handitu ditu. Hala, trukaketa eta partekatze espazioak eraikitzea ezinbestekoa da.

Lan saio moduan antolatutako formakuntza hauek, behar honi erantzuten diete ere. Herri mugimenduen eta instituzioen arteko elkarlanak, euskararen inguruko diskurtsoak eta soziolinguistikaren oinarriak landu ondoren, aurten, Europako hizkuntzen egunaren kariatara, "Euskararen erronkak" izenburupean uda hasieran aurkeztu datuak izan ziren aztergai. Erramun Baxok Inkesta soziolinguistikoaren aurkezpen lanetan aritu zen, Olatz Altuna Hizkuntzen Kale-erabileraren inguruan, eta, Garikoitz Goikoetxeak 'Euskara irabazteko bidean' lana hizpide izan zuen, saio bukaran goratasuna eskainiz. Haien erranak eta bertan bildutako 20 lagunen

Ikastolen sorrerak ez daitezke ulertu Diwanen sorrerarekin lotuz, XX. mendean batez ere Gipuzkoan eta Bizkaian gertatutakoa begiratzeko ordez.

***Ipar Euskal
Herriko hiru
lurraldeetan,
euskarak ez du
estatutu legalik...
Hizkuntza
Gtxituen
Eurokartaren
gisan, Frantziak
ez ditu
nazioarteko
idazkiak
izenpetu.***

arteko solasaldiak izango ditugu abiapuntu ondoko lerroetan. Hego Euskal Herriatik irakurrita, heldutasun eskaseko idazkia, baina Ipar Euskal Herrian eramaten ari diren gogoeta batzuen berri jakiteko on.

LEHEN HITZAK

I

Erritual bat bilakatzen hasia da orain. 5 urte guztiz, ikasturte bukaeran, jendeak oraindik zango bat bulegoan eta bestea hondartzara abiatzeko prest duenean, Inkesta soziolinguistikoaren datuak eta Hizkuntzen kale neurketak aurkezten dira. Oihartzun txikiegia duten interes handiko lanak dira biak. Zehaztu dezagun oraindik ez dugula ondoko lerroetan deus berririk ekartzeko pretentsioa. Eginbeharreko analisia guziak idatziak eta erranak izan dira jada. Laranja horiei zuku gehiago ateratzea zaila litzateke orain.

Euskararen herriaren txoko batetik, hots Ipar Euskal Herriko hiru lurralde historikoetatik -Lapurdi, Baxe Nafarroa, Xiberoatik-, ekarpen xumea egiten ahaleginduko gara beraz. Auzi horretan, lurraldeak eta lurraldetasunak badute beren garrantzia. XXI. mende hasieran, euskararen egoera ez daiteke ulertu 2008an Frantziako ondare bilakatu den “langue régionale” baten perspektibatik. Edo ez perspektiba horretatik bakarrik. Azaletik begiratuta, Frantziak eta Espainiak Euskal Herriarekiko (eta euskararekiko) izandako ukazio jarrera norabide berean joan bada ere, ez dira parekatzekoak. Historia, kultura politikoa, estatuaren eraikitzea, legedia, hezkuntza sistema, demografia, lurralde antolaketa... erabat desberdinak (izan) dira. Eta horrek azaltzen du, neurri batean, lurralde administrati-boen artean euskararen osasuna hain desberdina izatea.

Euskara, ikergai gisa britainiarri, korsikarri edo kreolerari konparatzea zepo batean erortzea litzateke. Gure herriaren historia, bere lurraldeen eta jendeen arteko harremanen emaitza da. Ikastolen sorrerak ez daitezke ulertu Diwanen sorrerarekin lotuz, XX. mendean batez ere Gipuzkoan eta Bizkaian gertatutakoa begiratzeko ordez. Era berean, duela mende erdia gertatutako berpizkunde kulturala ez daiteke ulertu gerlatik ihesi etorritako arreba-anaien ekarpena ukatuz.

• • •

Bi hitzez, desberdintasunak badirela ezin uka. Bi elementu azaleratuko ditugu hemen (beste asko ere aipa genitzake): estatutu juridikoa eta hizkuntza politika publikoa.

Ipar Euskal Herriko hiru lurraldeetan, euskarak ez du estatutu legalik. Konstituzioaren 2. artikulua araberak, Frantziak hizkuntza bakarra

dauka (frantsesa). 75-1 artikulua arabera, “eskualdetako hizkuntzak Frantziaren ondarean sartzen dira”. Errepublika bat eta zatiezinen printzipioen arabera, hizkuntza eskubideak ez dakizkieke gutxiengo bati aitortu. Azkenik, *Hizkuntza Gutxituen Eurokartaren* gisan, Frantziak ez ditu nazioarteko idazkiak izenpetu, kasu honetan Albania, Estonia eta Lituania bezala jokatu. Legez kanpoko testuinguru horretan aitzinatzen da Ipar Euskal Herria, mugatuak diren hizkuntza politikak garatzera kondenatua eta tresna propioak oztopatzeko prefetaren errekursoaren mehatxupean.

Horrek bigarren puntura garamatza: euskararen aldeko hizkuntza politika publikoa duela 10 urte bakarrik egituratzen hasi zen lurralde mailan, Estata, eskualdea, departamendua eta herri arteko blokeak Euskararen erakunde publikoa sortu zutenean. Hortik aitzina estrategia bat eta baliabideak definitzen hasi ziren. 2006 aitzin, mende erdi batez euskalgintzak du euskararen bataila eraman, baliabide guttirekin eta haizea kontra. Baina, ikastola, uda leku, gau eskola eta oro har karrikan euskararen geroa aldarrikatu dutenei esker, emaitzak izan dira. Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Zuberoan, hizkuntza politika publikoa lehen urratsetan da oraindik, eraikitze eta esperimentazio fasean. Baina, sortu berri den elkargoarekin, berregituraketa bat eta lidergo berriak diseinatuko dira. Fase horrek aukera berriak zabalduko dituela pentsatzen dute askok. Lankidetzak forma eta neurrien intentsitatea ozka batez igotzeko aukera ere aurreikusten dute batzuek. Hego Euskal Herrian ziklo aldaketa aipatzen den garaiotan, Euskal Herri mailan sinkronizazio baten atarian ote gara?

• • •

Euskarari aukera zabaltzea, lankidetzak forma berriak asmatzea eta bide berriak urratzea izango dira etorkizuneko erronka nagusiak. Horiek guztiak zehaztu aitzin, azken inkesten irakaspen nagusiak izanen ditugu hizpide. Hiru multzo nagusitan bildu ditugu datuak: ezagutza eta gaitasuna, erabilera eta transmisioa, iritziak eta jarrerak.

IRAKASPEN NAGUSIAK

I

1. Ezagutza eta gaitasuna

Iluntasunean argi izpia

Ipar Euskal Herriko argazkian lehen aldikotz hiztun-kopuru absolutua egonkortzeak eman du zer erran gehien. Tendentzia ez da oraindik irauli. Baina, hamarkadetako apaltzearen ondotik, joera ohargarria da. Titular gehienetan formula hori berriz hartua izan da. Egia da, eta ez da gutxi:

**2006 aitzin,
mende erdi batez
euskalgintzak du
euskararen
bataila eraman,
baliabide
guttirekin eta
haizea kontra.
Baina, ikastola,
uda leku, gau
eskola eta oro
har karrikan
euskararen geroa
aldarrikatu
dutenei esker,
emaitzak izan
dira.**

**2004-2017
artean, 11
ikastola eta 49
sail elebidun
berri ireki dira
irakaskuntza
publikoan eta
katolikoan.
Euskaraz ikasten
duten haurrak
ikasleen
laurdena izatetik
herena izatera
pasa dira.**

2011n 51.100 hiztun zeuden, 2016an 51.200 zenbatu dira. Hemorragia gelditua da, baina galtzea handia izan da.

Baina, beste angelu (edo unitate) batetik begiratuta, hiru datu nabarmentzekoak dira:

— Lapurdi, Baxenabarre eta Xiberoak 20 urtez 5.000 euskal hiztun galdu dituzte, eta, 5 urtez kanpoko 9.000 erdaldun irabazi dituzte.

— 1996an, 136.000 erdaldun ziren, orain aldiz, 175.000.

— Duela 20 urte, biztanleriaren %26,50a euskalduna zen, orain aldiz, %20,50.

Egoera ezberdinak oraindik

Lurralde eta adinen arabera, tartek handiak dira. Elebidunak eta elebidun hartzaileak batera hartuz gero, Baiona-Angelu-Miarritze hiri-eremua da beti ere erdaldunena (%14,1 dira), Zuberoa eta Baxe Nafarroa euskaldunena (%63,2) eta bien artean Lapurdi barnealdea (%34,3). Ohargarria da, hala ere, zonalde euskaldunenean ere, hiztun galtzea handia izan dela.

Euskal Herriko beste lurraldeetan ez bezala, Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Zuberoan, euskaldun proportziorik altuenak piramidearen bi puntetan atzematen ditugu: eskolaren bitartez euskara ikasi duten gazteak eta etxean euskaldundu diren adinekoak. Erdian, euskaraz desjabetutako belaunaldia agertzen da, aitama euskaldunak eta haur elebidunak dituen guraso erdaldunak alegia.

Txanpon beraren bi aldeak

2004-2017 artean, 11 ikastola eta 49 sail elebidun berri ireki dira irakaskuntza publikoan eta katolikoan. Euskaraz ikasten duten haurrak ikasleen laurdena izatetik herena izatera pasa dira. Eskola transmisioak bi sentimendu parez pare jartzen ditu: familia transmisioa eskasa den lurraldeetan, esperantza iturri da. XXI. mende hasieran eraikitzen hasi den hizkuntza politika publikoak gazteak eta irakaskuntza lehentasun definitu zituen. Ondoko urteetan, emaitzak orain baino azkarrago sentiaraziko dira.

Baina, transmisio mota horrek hiztunen perfila erabat aldatzen du. Helduen komunikatzeko gaitasuna eta gazteen gaitasun testualak ez dira konparagarriak.

1996an, euskaraz mintzatzeko erraztasuna orekatua zen: 1/3k egiten zuten euskaraz aiseago, 1/3k erdaraz eta 1/3k bietan berdin. Orain, errexikiago frantsesez mintzo direnak gehiago dira (%42 eta %64ak 16-24 adin tartean), eta gutxiago euskaraz (%21).

2. Erabilera & Transmisioa

Sesitzeko zailtasunak

Euskararen erabilerak hizkuntzaren ezagutza eta gaitasunarekin lotura zuzena du, baina, ez da faktore bakarra. Aukerak, ohiturak, testuingurua, hizkuntza paisaia, urbanizazio maila, interakzioan diren eragileak, solasaldiaren formaltasuna, espazio publikoaren okupazioa... hainbat elementu sartzen dira jokoan.

Horren ebaluatzeko, inkesta soziolinguistikoan bildutako deklarazioak eta denbora berean interferentziarik egin gabe egiten diren neurketak iturri osagarriak dira.

Karrika euskarari aiher

2016ko neurketen arabera, karrikan entzuten diren elkarrizketen %5,3 bakarrik dira euskaraz (20 urtez, 3 puntu galdu ditu). Sekula neurtu den indizerik apalena da. Baionan, adibidez, espainola eta euskara berdin berdinean entzuten dira. Hor ere, lurraldeen arabera, desberdintasunak ohargarriak dira: BAM hiri-eremuan euskararen erabilera %2koa delarik, %15ekoa Nafarroa Beherean eta Zuberoan. Azken eremu horretan, erabilerak 4,6 puntuz gora egin du. Hego Euskal Herrian ez bezala, gurean ezagutza goragoko eremuetan erabilera ez da apaltzen.

Karrika erabileran ere adin piramidearen zolatik dator aldaketa: haurren erabilerak nabarmen egin du gora Ipar Euskal Herrian (3,4 puntu 10 urtez), eta erabilera 2 aldiz handiagoa da heldu-haur artean interakzioak direlarik.

Trenkadaz zatitutako erabilera

Euskara frantsesa bezainbat edo gehiago erabiltzen duten euskaldunak 5 puntuz apaldu dira 5 urtez. Biztanleria osoari begira, %8 dira kasu honetan (%0,8 BAM eremuan, %9 Lapurdiko gainerako herrietan, %28 Nafarroa Beherean eta Zuberoan). Apaltzea indartsua izan da azken bi hamarkadetan.

Azken ohar gisa, sorpresa handirik gabe, euskara eremu informalean gehiago erabiltzen da (familiar, lagun artean, auzoekin...), solasaldi formalean baino (administrazio publikoarekin, bankuan, osasun-zerbitzuekin...).

Transmisio naturalaren ahultzea

Euskara lehen hizkuntza dutenen tasa %19,5etik %15,9rat pasa da 5 urtez. 65 urte gorakoen %80,9ak euskara zuen lehen hizkuntza eta 16-24 urte

Euskararen erabilerak hizkuntzaren ezagutza eta gaitasunarekin lotura zuzena du, baina, ez da faktore bakarra. Aukerak, testuingurua, hizkuntza paisaia, urbanizazio maila... hainbat elementu sartzen dira jokoan.

***Ipar Euskal
Herri mailan,
biziki denbora
laburrean,
euskararen
gaiaren inguruan
kontsentsu sozial
bat eraiki dela
ezin ukatua da...***

bitartekoen %24,2ak. Bikote gazte elebidunetan, euskararen transmisioa 36 puntuz igo bada ere, badira oraindik euskalduna izanki euskara transmititzen ez duten familia batzuk.

3. Iritziak & Jarrerak

Haize berri baten ufakoa

Ipar Euskal Herri mailan, biziki denbora laburrean, euskararen gaiaren inguruan kontsentsu sozial eta politiko bat eraiki dela ezin ukatua da. Iritzi publikoaren eta erabakitzaileen itzulipurdikatzea faktore desberdinek eragin dute: euskalgintzaren urteetako borroka tematiak, Garapen kontseiluan eta Hizkuntzaren kontseiluan burutu lanak, mundializazioaren eta uniformizazioaren kontrako erresistentziak, euskararen inguruko diskurtso polifonikoak... Oraindik ohargarriagoa da ezen bigarren mundu gerla ondorengo eskolaren gutxiestearren arrastoak oraindik sentitzen baitira XXI. mendeko jendardean.

Paradigma aldaketa iraunkorra edo garaiko tendentzia arina denez errateko goizegi da. Segur dena da iritzi publikoa hizkuntza politikaren asentua dela, eta, biak, hertsiki lotuak direla. Datuek zer dioten beha dezagun eta zenbait pronostiko egiten josta gaitzen.

Aldekotasuna gora ala behera?

1996an, Ipar Euskal Herriko biztanleen %42a euskararen erabilera sustatzearen alde agertzen zen, eta, 20 urte berantago, %35a. Tarte berean, aurkakotasuna %13tik %17rat igo da. Sorpresarik gabe, hiztun perfilaren eta lurraldeen arabera tarteak badira: euskaldunago eta aldeago.

Denbora berean, iritzien sailean, sorpresa batzuk ageri dira: erdiak baino gehiagok pentsatzen du administrazio publikoan lan egiteko euskara jakitea beharrezkoa dela (%51,3) eta haurrek euskara ikas dezaten beharrezkoa dela (%52,2). Hedabide publikoetan euskararen presentziaren edo ingelesarekiko hierarkiaren aldetik, aldiz, atxikimendu apalagoa du. Tolerantzia eta onarpenaren arteko talka, nolazpait.

Ondoko sekuentziak aurreikusit

Gaur egun Ipar Euskal Herrian ere inoiz baino baldintza hobekak ditugu euskararen aldeko lanean urrats esanguratsuak egiteko. Baina definizioz, hizkuntza politika bat eraldatzailea da, ingurunea bestelakotzea duelako xede. Erresistentziak agertuko direla aurreikus daiteke beraz eta egoera berri horretara kolektiboki prestatu beharko gara. Momentuz, badirudi ekilibrista

baten gisara ibiltzen garela, oreka mantendu nahian: aldeko haizeak baliatu ahal bezain urrun joateko, baina, ez sobera azkar hausturarik ez sortzeko.

Bi elementuk sor dezakete inflexioa: arrazoi pragmatikoak eta posizio ideologikoak. Lehenak galdutako bataila bezala ikusten dute euskararen biziberritzea eta administrazio publikoak murrizketa orokor batean behartuak direlarik, zentzu horretan doazen gastuak ez dituzte lehentasunezkoztat ikusten. Bigarrenak aldiz postura politiko batetik euskararen aitzinamendua oztopatzen saiatuko dira horrek dakarren jendarte ereduaren kontra direlako; Frantzia neojakobino baten zaindariak dira, modernitatearen izenean mintzo, 1980ko hamarkadako diskurtso zaharkituarekin.

ETORKIZUNEN AUKERAK

I Elementu asko aipa daitezke; BAT aldizkari oso baten mentura bada, segurki. Zenbait ideia botako ditugu hemen, nahas-mahas eta laburbildurik.

1. Ateak zabaldu

Euskara etxeko gela batzuetara iritsi da, baina ez guzietara. Lehen supazterreko hizkuntza bazen, orain sukaldera, logelara, jangelara eta solairura ere eraman behar da. Bien arteko batean kokaturik bezala, trantsizio lanetan aritzea dagokigu, eremu batetik bestera pasa dadin: ikastetxetik plazara, besta mundutik administrazioa, familiatik lagunartera, jolas parketik saltegitara, jakitetik erabiltzera.

Diskurtsoak berrituz

Euskararen aldeko diskurtsoa azkartzea eta teknizitatek ateratzea ezinbestekoa da, hiru gabezia nagusiei erantzuteko: irisgarritasuna, eraginkortasuna eta finalitatea. Euskarara erakarri (inpaktatu) eta hiztun komunitatea trinkotu (konpaktatu).

Lehen galdera honakoa da: nola iritsi hermetikoa zaigun publikora, eremu sozial berriak irabazteko? Ez kontra diren horiek, baizik eta euskararekiko interes zertxobait duten %23a edo axolagabeak diren %49a. Mezuak eta kanalak birdefinitu beharko dira. Bigarren puntua eraginkortasunarena litzateke; euskararen alde gauza asko egiten dela pentsatzen dutenei nola ulertarazi behar diegu ez dela oraindik aski egiten? Azkenik, zein dugu helburua? Jendarte elebiduna edo Euskal Herri euskalduna eraikitzea, euskaldun euskaltzaleak edo euskara dakiten frantses herritarrak sortzea... Helburua ez da berdina.

**Paradigma
aldaketa
iraunkorra edo
garaiko
tendentzia arina
denez errateko
goizegi da. Segur
dena da iritsi
publikoa
hizkuntza
politikaren
asentua dela, eta,
biak, hertsiki
lotuak direla.**

**Euskara etxeko
gela batzuetara
iritsi da, baina ez
guzietara. Lehen
supazterreko
hizkuntza bazen,
orain sukaldera,
logelara,
jangelara eta
solairura ere
eraman behar da.**

Praktikak aldatu

Euskararen alorrean jarduten dugunontzat, euskara obsesio bat da eta zaila zaigu onartzea gainerako jendearen bizietan elementu marginala izatea. Hortarik abiatuta, eta inertzia beti euskararen kontra doala konbentziturata, jende horren praktikak aldatzeko bideak asmatzea dagokigu, desmarxa proaktiboak sustatuz (alde izatetik alde egitera).

Familiatan adibidez, gurasoek beti desiratuko dute ahal den hoberena haien haurrentzat eta horren arabera arau koherenteak hartuko dituzte. Hala izaten da elikadura ereduarentzat, pantailen erabilerarekin, aisialdi praktiken aldetik. Euskararentzat berdin-berdin behar luke izan, eskolari delegatu gabe euskararen zama (haur batek bere biziaren %10a bakarrik ikastetxean pasatzen duelarik). Bizi dugun egoera ultradiglosiko honetan, jendea urrats bat gehiago egitera lagundu behar da: aisialdiak euskaraz bizitzea, lehen hitzak guttienez beti euskaraz ematea, gure elkarten funtzionamenduan sistematikoki euskara lehenestea...

Naturaltasuna eraiki

Euskaldunaren perfila asko aldatzen ari da. Gaurko gazteei euskararen duten maila apala sobera aurpegiratzen zaie. Aldaketa bat izan dela argi da. Beste hizkuntzetan ez bezala? Frogatzekoa. Horrek hitz jarioan, espontaneitatean eragina baduela? Bai. Egokitu gaitezen beraz.

Mintzatzeko erretasuna garatzeko bide berriak asmatu beharko dira: dispositiboak, metodo pedagogikoak, belaunaldi arteko trukaketak, erabilera espazio funtzionalak garatuz... Naturaltasuna eraikitzen da!

2. Bide berriak urratu

Euskalgintzaren sektore zabal batentzat, urtarrilaren 1ean sortu den El-kargoa aukera bat da. Euskara konpetentzia barneratu izana eta EEPri esleitutako diru laguntza emendatu izana seinale azkarrak dira. Orain, euskararentzat larrialdi plana aldarrikatua da. Horrek, bi forma har ditzake: koadro legala eta esperimentazioa.

Lege gerizak sortu

Estatuaren partetik ofizialtasun zerbait espero zutenek Macron lehendakariaren ahotik izan dute erantzun argia otsailean: ez ditu ofizialki eza-gutuko hizkuntzak, ez Kortsikan, ez Euskal Herrian ez eta bere menpe diren beste lurralde guzietan ere. Legerik gabe gauza asko egin daitezkeela diotenen nahikerian bakarrik oinarritutako politika publikoen mugak

gordetzen saiatzen dira. Euskarari lurralde estatutu bat eskaintzea izan beharko da ondoko urratsa. Sinbolikoa bada ere, urtez urte indartuz eta edukiz jantziko litzatekeen armadura beharrezkoa du euskarak.

Eskaintzen duen perimetroagatik, Herri elkargoa horretarako eragile garrantzitsua da. Epe laburrean, euskarari eskubide berriak eskaini eta frantses legeak ematen dituen mugak desaktibatzea (Falloux legea adibidez) ekar dezake.

Esperimentazio lurraldea izan

Bestalde, konstituzioaren 72. artikulua lurraldeei gai eta epe mugatu baterako esperimentazio gaitasuna onartzen die. Estatu zentralizatu batean, aukera berria da. Esperimentazioaren koadroa erabiliz, azken urteetan, berrikuntzak ekarriak izan dira irakaskuntzan.

Lehen berrikuntza, irakaskuntza modeloari lotutakoa, sail publikoan “euskara indartua” sailaren zabaltzea izan da. Ordu parekotasuna eta murgiltzearen artean, ama eskolako lehen urteetan irakaskuntza denbora osoa euskaraz egitea proposatzen da, eskolako bizia euskaraz izan gabe, hala ere. Kualitatiboki ekarpen handia da eta horren emaitza agerikoa da. Bigarren berrikuntza euskara irakasleen eskasari erantzuteko mugaz bi aldetako ikasleen trukaketa programa berritzailea da.

Esperimentazioa beste sektoreetara eraman beharko da: helduen formakuntza, aisialdi eskaintza, lehen haurtzaroaren harrera...

Xitxuketa ere baimendu

Batzuetan, dispositibo brikolatuak sortzea onartu behar da, frantses administrazioaren kultura zurrunik urruntzea baldin badakar ere. Denei zuzendutako dispositiboak eraikitzeke obsesioarekin, administrazioek nehorrentzat egokiak ez diren munstro teknokratikoak sortzen dituzte, batzuetan. Hizkuntza politikan, terrenoarekin konektatutako dispositibo errektiboak sortzea ere komeni da, epe mugatu eta helburu berezia dutela onartuz.

Dena menderatu nahi duen administrazioan malgutasuna txertatu behar da.

3. Lankidetzak berrasmatu

Azken hilabeteetan Hego Euskal Herrian asko aipatzen den lankidetzaren forma berrien asmatzeko gogo sentitzen da Ipar Euskal Herrian ere. Irekitzen den zikloan, hor dugu gakoetatik bat: kolektibitateen artean edo herri mugimenduen eta instituzioen artean, espazio berriak eraiki beharko dira.

Euskararen alde gauza asko egiten dela pentsatzen dutenei nola ulertarazi behar diegu ez dela oraindik aski egiten?

Euskarari lurralde estatutu bat eskaintzea izan beharko da ondoko urratsa. Sinbolikoa bada ere, urtez urte indartuz eta edukiz jantziko litzatekeen armadura beharrezkoa du euskarak.

Ipar Euskal Herrian, bataila hau jokatzeko ari da. Herri elkargoak lidergoa har dezan pusatzen duen mugimendu oso bat bada, besteen engaiamendu heina gora atxikiz.

Lurralde eskala guziak (Estatua, Eskualdea, Departamendua, Herri blokea) EEPren baitan biltzen dira, eta, lehen aldiz, hizkuntza politikaren ardura duen lehendakari ordea, EEPko lehendakaria ere da.

Instituzioen lankidetzaren berrasmatu

NOTRe legeak hizkuntzen gaia zeharkako konpetentzia eta ardura partekatua dela aitortzen du. Lehen aldia ez bada ere, lurralde antolaketa arautzen eta iraultzen duen makro-erreforma batean, 'eskualdeko hizkuntzak' guttitan aipatzen dira. Konkretuki, horrek erran nahi du ozka administratibo bakoitzak (estatua, eskualdea, departamendua, herri artea, herriak) baduela bere zeregina berezkoak zaizkion konpetentzietan, gidari funtzioa beteko duen erreferentea identifikatuz.

Ipar Euskal Herrian, garai horietan, bataila hau jokatzeko ari da. Herri elkargoak lidergoa har dezan pusatzen duen mugimendu oso bat bada, besteen engaiamendu heina gora atxikiz. Etorrizkoak estrategikoa da. Gaurko egunean, lurralde eskala guziak (Estatua, Eskualdea, Departamendua, Herri blokea) EEPren baitan biltzen dira, eta, lehen aldiz, Herri elkargoan hizkuntza politikaren ardura duen lehendakari ordea, EEPko lehendakaria ere da. Datorren urte erditsurako, berantenez, kolektibitate bakoitzaren zereginak eta haien arteko lankidetzaren modalitateak definituak izanen dira. Ea ongi olioztatutako mekanikaria sortzen den.

Harreman mota berria eraiki

Gure herri txikian, euskalgintza esfera mikroskopiko bat da, baina, batzuetan, mundu berean jarduten duten pertsonen artean, distantziak ikaragarri handiak izan daitezke. Harremantzeko, trukatzeko eta ideiak konfrontatzeko espazio desinteresatuak distantziak laburtzen lagun dezakete. Logikak, funtzionamenduak, karaktereak, inguruneak, baliabideak... desberdinak ditugu. Baina, batzen gaituena kontzentratuz, elkarrekin aitzinatze hamaika arrazoi ditugu.

Urtean bizpahiru aldiz euskalgintza soziala eta instituzionala bilduko dituen espazio librea eskas da, momentuz. Agenda propioa izango lukeen mahai teknikoak, ez egitura baten ekintza zilegitzeko batzordea, aitzinetik definitutako gai ordena batekin, bere egoitzan eta bere joko arauekin. Espazio horiek existitzen dira eta ez dute benetako lankidetzaren sustatzen. Pertsonen arteko informazioa eta iritzi trukaketa bideratzeko agora, elkar elikatzeko eta formatzeko espazioa, formala eta informala nahastuko duen urteko topaketa.

AZKENA BIDEKO

I

Datuek gurean normalizaziorako bidea oraindik luzea dela erakusten dute. Gainbehera baten amaierara iritsi gara, aireeratze fase horretan, aze-

lerazioaren zain. Jagon jardunaldien karietara, Euskal Konfederazioak proiektzio ariketak egin zituen. 2030ean euskaldunen kopurua uzkurki %15era iritsiko zela ondorioztatu zen, mende bateko linguizidioa 10 urtez ezin dela konpentsatu erakutsiz.

Ipar Euskal Herrian, hain argazki fina eskaintzen duten ikerketa lan bakarrak inkesta soziolinguistikoa eta hizkuntzen Kale-erabilera dira. Euskararen alorrean lan egiten dutenek dimentsio kualitatiboa luketen beste lanak edo bestelako adierazleak faltan botatzen dituzte. Arrue ikerketa, euskara planak, neurketak, aburu ikerketak... ez dira oraindik gurera iritsi. Alta, adibidez, irakaskuntza elebiduna eskaintzen duen ikastetxe batean, hainbeste familiek haien haurrentzat elebakartasunaren hautua zergatik egiten duten jakitea interesgarria litzateke.

Era berean, hizkuntza politikak beren osotasunean ebaluatzeko tresnak eskas dira: euskararen alde egiten dena, egiten ez dena eta euskararengan eragina duten beste politikak ere neurtzea. Gaur egun, Ipar Euskal Herrian, euskararen geroan, beste politika publikoek hizkuntza politika publikoak baino eragin handiagoa dute. Euskararen alde €1 inbertsitzen den aldi guziz, beste 10€ berreskuratzearen kontra xahutuak dira. Euskalduntzen den herritar bakotxarentzat, 3,5 erdaldun datoz Euskal Herrira bizitzera. Lurralde antolamendua, etxebizitza politikak, turismoaren erakartzea... Presio demografikoa azkarra dela (erdaldunen %57 EHtik kanpo sortu da) kontuan hartzekoa da.

Progresio marjina ikaragarria dugu oraindik, guztia dugulako irabazteko. Eta irabaztera goaz. ●

BIBLIOGRAFIA

- Alvarez Enparantza, J.L. *Txillardegi* (2014). *Euskararen aldeko borrokan*. Elkar.
- BAT Soziolinguistika aldizkaria (2016). 99 zenbakia. *Euskararen bilakaera soziolinguistikoa (1981-2011) (I) transmisioa, gaitasuna eta jarrerak*. Soziolinguistika Klusterra. Andoain.
- BAT Soziolinguistika aldizkaria (2016). 100. Zenbakia. *Euskararen bilakaera soziolinguistikoa (1981-2011) (II) Erabilera*. Soziolinguistika Klusterra. Andoain.
- Crystal, D. *Hizkuntzaren iraultza* (2007). Erein.
- Goikoetxea, G. (2016). *Euskara irabazteko bidean*. Elkar-Berria-Jakin.
- Hagège, Cl. (2000). *Halte à la mort des langues*. Odile Jacob.
- Sarasua, J. (2013). *Hiztunpolisa. Euskaltasunaren norabideaz apunteak*. Pamiela.

Gaur egun, Ipar Euskal Herrian, euskararen geroan, beste politika publikoek hizkuntza politika publikoak baino eragin handiagoa dute. Lurralde antolamendua, etxebizitza politikak, turismoaren erakartzea... Presio demografikoa azkarra dela (erdaldunen %57 EHtik kanpo sortu da) kontuan hartzekoa da.

6

Euskara biziberritzea azaltzeko eredu estatistikoa

Xabier Isasi

Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia – UPV/EHU

xabier.isasi@ehu.es

Sarrera-data: 2018-01-15 / Onarpen-data: 2018-02-09

Laburpena. Hizkuntzen arteko ukipen egoeran, hizkuntza gutxiko hiztun guztiak elebidun direnean, euskararen erabilera, oro har, zorizko gertaera bilakatzen da. Hau da, hizkuntza gutxituaren erabilera probabilitate-eredu jakinaren arabera da. Txillardegiren azterketa matematikoa abiapuntua dela, artikuluan, euskararen erabileraren probabilitate-funtzioa zehaztu, oinarritzko ezaugarriak definitu eta eredu estatistikoaren erabilerarako azalpenak agertzen dira. Horretarako euskararen kale-erabileraren datuak erabiltzen dira eta, halaber, eredu estatistikoaren bitartez, datuok interpretatzeko eta ebaluatzeko irizpideak azaltzen dira. • **Hitz gakoak:** hizkuntzen kaleko erabilera, hizkuntza gutxitua, erabilera-probabilitatea, demolinguistika.

Abstract. In the context of language interaction, when all of the speakers of a minority language are bilingual, usage of Basque becomes an overall random occurrence. That is, the use of a minority language depends on a probability model. In the article, with Txillardegí's mathematical analysis as a starting point, the probability function of Basque language usage is explained in detail, the basic features are defined and explanations for usage of statistical areas are given. For this purpose, the use of Basque language data is used and, moreover, through a statistical model, the criteria for interpreting and evaluating this data are explained. • **Key words:** street language usage, minority language, probability of usage, demolinguistics.

UNESCOK ez du alferrik iragarri munduan hitz egiten diren 6.000 hizkuntzetatik asko desagertzen ari direla. Ez du alferrik esaten euskara hizkuntza *zaurgarria* dela.¹ Euskararen, edo, hobeto esanda, euskararen hiztun-elkartearen ajeak eta arazoak munduko beste edozein hizkuntza gutxituaren antzekoak dira, gutxienik, handiagoak ez badira. UNESCOren esanak ez dira alferrikakoak: euskararen hiztun-elkarteak euskara biziberritzeko zailtasunak dauzka.

Hau da, mundu osoan hizkuntza gutxituen egoera zaila da, Euskal Herrian ere. Mundu osoan gizartean bilakaerak ez du laguntzen hizkuntza gutxituen biziraupena. Pentsa daiteke euskararen kasua ez dela desberdina eta azken urteetan izandako aldaketak (Informazio eta Komunikazio Teknologien hedapena, digitalizazioa, migrazio mugimenduak, krisi ekonomikoak eta aldaketa sozio-politikoak) aukerak eta zailtasun erantsiak dakartzate hizkuntza gutxituak biziberritzeko.

Balio dezala aurreko aipu labur horrek euskararen kasua kokatzeko munduko hizkuntza gutxituen multzo zabalean. Hizkuntza gutxituen hiztun-elkarteak ahultzea, desegitea eta desagertzea berezko joerak direla esan dezakegu, beraz. Horregatik, euskararen hiztun-elkartearen trinkotzea eta zabaltzea salbuespen gisa kontsidera dezakegu, salbuespenetako bat. Ikuspegi horretatik aztertu behar dugu euskararen biziberritzearen fenomenoak, salbuespenaren ikuspegitik, alegia.

Euskararen bilakaera soziolinguistikoari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza politika ezinbesteko erreferentzia da, ezbairik gabe. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan biltzen dira euskaldun gehienak, herrialde horietan aitortu zitzaion ofizialtasuna euskarari lehenen eta herrialde horietan, azkenik, hizkuntzaren industria, hezkuntza eta hedabide egitura garrantzitsuenak daude. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa herrialdeetan gertatzen denak, bada, euskararen biziberritzeari gerta dakioken joera orokorra erakusten du. Euskararen biziberritzeko egoera eta baldintzarik onenak Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan dauzkagu eta. Hiru herrialde horien hiriburuak aztertuko ditugu.

Euskararen kale-erabileraren VII. neurketa²; 27 urte euskararen kaleko erabilera (1989-2016) neurtzen Euskal Herriko udalerrietan. Eskarmentua, zorroztasuna eta sendotasuna, ezaugarri horietan laburbildu daitezke *Euskararen Kale-erabileraren Neurketaren* ezaugarriak. Euskal Kulturaren Batzarreak (EKB 1989) lehenbizi, SEI elkarteak ondoren eta, azken urteetan, Soziolinguistika Klusterrak egindako lanak euskararen bizitasun egoera ezagutzeko balio du.

Biztanleria ez bada handitu ere, Euskal Herrian aldaketa izugarriak gertatu dira: Informazio eta Komunikazio Teknologien hedapena, digitalizazioa, migrazio mugimenduak, krisi ekonomikoak eta aldaketa sozio-politikoak. Halere, euskararen kaleko erabileraren tasa apenas aldatu den.

Objektiboki euskararen kale-erabilera mailak beheranzko joera erakusten du, baina erlatiboki euskararen kale-erabileraren mailak eutsi egiten dio.

Oro har, urte hauetan guztietan bildutako datuak nahiko egonkorak dira, aldaketa handirik ez dute islatzen. Datuek, bere gordintasunean azterturik, erakusten dute euskararen kaleko erabilera nahiko aldagai egonkorra dela. Kaleko erabilera, azken buru, hizkuntzaren erabilera sozialaren adierazle behinena baita. Dena den, euskararen kale-erabileraren VII. neurketak bildutako datuen interpretazioan murgildu baino lehenago nabarmendu nahi genuke azken urteotan zer gertatu den. Biztanleria ez bada handitu ere, Euskal Herrian aldaketa izugarriak gertatu dira: Informazio eta Komunikazio Teknologien hedapena, digitalizazioa, migrazio mugimenduak, krisi ekonomikoak eta aldaketa sozio-politikoak. Hogeita zazpi urteotan jendartean eta bizimoduan aldaketa handiak gertatu badira ere, euskararen kaleko erabileraren tasa apenas aldatu den.

1. taula: EKB-k, SEI-k eta Klusterrak egindako kale-erabileraren neurketak 1989-2016.

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
1989	3,9	8,1	23,3	11,5
1993	4,2	9,6	23,9	13,5
1997	4,0	10,5	27,6	15,2
2001	4,2	10,7	29,5	15,9
2006	4,7	10,7	32,1	16,7
2011	4,0	9,4	32,6	16,1
2016	4,2	8,2	31,4	15,5


Datuak: Soziolinguistika Klusterra.

Objektiboki euskararen kale-erabilera mailak beheranzko joera erakusten du, baina *erlatiboki* euskararen kale-erabileraren mailak eutsi egiten dio. Hau da, baldintza guztiak, hiztunen proportzioa, sakabanaketa, baliabideen falta eta abar, euskararen erabilera sozialaren aurkakoak diren arren euskaldunek, oro har, oinarrizko erabilera mailari eutsi egiten diote. Oraindik orain, euskaldunek euskara erabiltzen dute *estatistikoki itxaro daitekeena* baino gehiago. Kezkatuta gaude, nola ez, euskararen berreskurapen prozesua indarra galtzen ari delako. Halere, soziolinguistika matematikoaren ikuspegitik, zehatzago, hizkuntzen arteko ukipen egoeraren eredu estatistikoaren arabera euskararen hiztun-elkartek euskararen erabilera sozialaren oinarrizko mailari eusten diola baieztatu dezakegu.

Edozein kasutan, azken urteetako euskararen erabileraren gaineko neurraldiek erakusten dute **prozesuaren joera aldatu dela: inflexio-puntuari gaude. Irabazteko joera zena, galtzeko joera bilakatu da.**

1. taula: EKB-k, SEI-k eta Klusterrak egindako kale-erabileraren neurketak 1989-2016 Euskararen erabilera sozialaz ari gara. Kontuan hartu behar dugu hizkuntza gutxituaren komunitateari, hobeto, euskararen hiztun-elkarteari, aldaketei aurre egitea eta egokitzea gehiago kostatzen zaiola egoera asimetrikoan murgildurik bizi delako. Hau da, euskararen hiztun-elkarteak hizkuntzen arteko asimetriari aurre egiteaz gainera jendar-tearen aldaketei heldu behar baitie hizkuntza normalizatuko bada.

1. irudia. Euskararen kale-erabilera Euskal Herrian 1989-2016.



Iturria: Soziolinguistika Klusterra. Hizkuntzen Erabileraren kale-Neurketa. Euskal Herria, 2016.

Azken 27 urteotan (1989-2016) euskaldunen portzentajea, gutxi gora-behera, %25etik %33 izatera igaro da. Datu horiekin kalkulatu ditugu *itxaro daitekeen erabilera mailak*, %4 eta %7 1989an eta 2016an, hurrenez hurren. Horiek dira itxaro zitezkeen erabilera mailak hizkuntza harremanak zorizko harremanak izan balira. Neurtutako kale-erabilera mailak, berriz, 6,8 eta 5,7 puntu handiagoak dira: euskararen kale-erabilera itxaro daitekeen mailatik gorakoa da.

Datuen azterketan sakondu baino lehenago iruditzen zaigu datuak, errealitatea eta teoriari buruzko iruzkin bat egitea komeni dela. Hizkuntzaren egoerari buruz ari garenean galdera asko datozkigu gogora, Ondo eza gutzen dugu hizkuntza-egoera zertan den? Euskara, ondo/gaizki, dagoela esaten dugunean baliozkotasuneko datu fidagarriak dauzkagu? Aldizkari-artikulu hau, seguru asko, ez da modurik egokiena epistemologiaz eta metodologiaz azalpenak emateko. Bada esaten duena datu empirikoak

Kontuan hartu behar dugu euskararen hiztun-elkarteari, aldaketei aurre egitea eta egokitzea gehiago kostatzen zaiola egoera asimetrikoan murgildurik bizi delako.

**Elebiduna, hiztun
baten bizimodu
arruntean,
egoera
soziolinguistikoa
ren arabera,
hizkuntza
nagusia
erabiltzera
behartuko duena
sarri askotan
komunikazioa
izango bada. Hau
da, egoerak
mugatzen du,
hein
eraginkorrenean,
elebidunen hautu
linguistikoa, ez
euskaldunen
kontzientzia, ezta
hiztunen guraria
ere.**

ez direla inoiz errealitate linguistiko hutsa izaten. Arrazoi du, jakina, baina, kontua da, erakunde publikoek datu horien arabera egiten dituztela aurrekontuak eta politika-jarduerak, hizkuntza politika tartean.


Ez gara, bada, XIX mendeko eztabaida interesgarrietan murgilduko. Euskal Herrian zenbat euskaldun, non bizi diren, nola banatzen diren, zeintzuk ezaugarri soziologiko, kultural eta ekonomikoak dituzten, euskararen estatusa nolakoa den, hezkuntzan, hedabideetan eta abarretan ezagutzeak errealitate linguistikoaren berri ematen digu. Datuak. Datu horiei, bereziki, erakunde publikoek balioesten dituztenei esaten diegu datu enpirikoak, besteak beste, errealitatean eragiteko erabiltzen direlako. Datu horiei errealitatearen isla aitortzen diegu, bai, errealitatekoak ez badira ere errealitateetik oso gertu baitaude.

Txillardegiren erreferentzia nagusia darabilgu artikulu honetan. Horrela da. Txillardegi linguista, hizkuntza-pizkundera abiatzeko Euskara Batua behar-beharrezko jotzen zuena. Txillardegi soziolinguista, euskara hizkuntza gutxiaren izaera zertan den azaldu ziguna. Txillardegi ingeniaria, soziolinguistika matematikoa sortu zuena. Gaude, aipatu eremu guztietan bete-betean asmatu zuela harik eta errealitatea eraldatzeraino.

Erreferentzietan aipatzen dugun dokumentuetan aurki daitezke Txillardegik erabilitako oinarri epistemologiakoak eta metodologiakoak. Gure asmoa, jakina, Txillardegiren azterketa matematikoa balioestea da, nola ez, baina, harago, hizkuntza gutxituaren erabileraren inguruko eredu estatistikoa garatu nahi dugu. Hori da gur ekarpena: eredu estatistikoa. Zertarako? Aurrenik eta behin, hizkuntza gutxituaren erabileraren mugak ezagutzeko, behatutako erabilera-mailak ebaluatu ahal izateko eta, azkenik, normalizazio bidean jarritako helburuak zenbatetsi ahal izateko. Horretan saiatuko gara.

Datu enpirikoek erakusten digutena *Txillardegi* ikertzaileak aurreikusi zuen bere azterketa matematikoetan. Datuen segida historikoak aztertzeo aukera izan baino lehenago, Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegik* bere *Gizarte elebidunen azterketa matematikoa* (UEU, 1984) azterlanean azaldu zigun ezagutzaren eta erabileraren arteko lotura. Grafikoez lagundurik, azalduko dugu Txillardegiren eredu teorikoaren eta datu enpirikoen arteko lotura.

1. grafikoa. Hizkuntza gutxituaren erabilera, gizartean, ezin izan daiteke elebidunen proportzioa baino handiagoa.



Iturria: Egileak eginda R softwarearen bitartez.

Kale-erabilera edo, oro har, euskararen erabilera —soziala—, berez, **erabilera mugatua da**. Hau da, herri jakineko euskaldun guztiak beti eta soilik euskaraz hitz egingo balute, elkarren artean erdaldunetik aparte biziko balira, muturreko kasu horretan euskararen erabilera maila euskaldunen proportzio-maila bera izango litzateke. Horrek ez du esan nahi euskaldunen batek *itxaro daitekeena* baino gehiago ezin erabil dezakeenik; ezta beste elebidunen batek, *ahal izanik ere*, euskara ez erabiltzea deus ere. Kontua da, elebiduna, hiztun baten bizimodu arruntean, egoera soziolinguistikoaren arabera, *hizkuntza nagusia* erabiltzera behartuta dagoela sarri askotan komunikazioa izango bada. Hau da, egoerak mugatzen du, hein eraginkorrean, elebidunen hautu linguistikoa, ez euskaldunen kontzientzia, ezta hiztunen guraria ere.

Hizkuntza-portaera, portaera ororen antzean, jokabide moldagarria da, oro har, pertsonaren ongizatea lortzeko portaera. Elebidunek, oro har, euren hizkuntza-portaera egokitzen dute ingurumariaren arabera; hiztunak, beraz, arrunt bizi ahal izateko egoerari moldatzen zaizkio. Motibazioak, ideologiak, interesak eta izaera askotariko faktoreek eragiten dute, jakina. Baina, berriz diogu, oro har, hizkuntza-portaera, batez ere, portaera moldagarria da. Diogun hori zentzuzkoa da, hizkuntza pertsonaren bitartea baita, harremanetarako lanabesa. Gainera, egiten ditugun behaketek eta biltzen ditugun datuek hori erakusten digute: elebidunek hizkuntzak erabiltzen dituztela egoeraren arabera.

Esan dugunez, hizkuntza gutxituaren erabilera sozialeko gaindiezineko muga, hiztun elebatar euskaldunik ez dagoenean, elebidunen propor-

Erabilera individuala edo norbanakoaren erabilera nolakoa eta zenbatekoa izan daitekeen ulertzeko, aintzat hartu behar ditugu erabilera sozialak elebidun bakoitzari ezartzen dizkion mugak.


**Enpirikoki,
dauzkagun
datuen arabera,
familia
euskaldunen
etxeetan
erabiltzen den
euskara-tasa
udalerriko
elebidunen
proportzioaren
araberakoa da.
Dirudienez,
egoera
soziolinguisti-
koak mugatzen
du euskararen
erabilera kalean,
baina baita
sutondoan ere.**

tzioak zedarritzen du. Bestetik, hizkuntzen arteko ukipen-egoerak ahalbidetzen duen hizkuntza gutxituaren erabilera-mailak *itxaro daitekeen erabilera-funtzioan* du muga. Hartaraino esan ohi dugu hizkuntza-egoera *isotropikoa* dela. Hau da, hiztun guztien arteko hizkuntza-harreman aukera guztiak gertagarriak diren egoerari *egoera isotropiko* esaten diogu. Elebidunek hizkuntza gutxitua itxaro daitekeena baino gehiago erabiltzen badute, aitzitik, egoera *anisotropikoa* dela esaten dugu; egoera *anisotropikoaren* goi-muga, berriz, elebidunen proportzioak mugatzen du. Hau da, gizartean elebidun guztiak elkarren artean bizi eta bakarrik euskaraz hitz egingo balute, elebakarrak gizarteratu gabe, orduan lor zitekeen erabilera mailarik handiena, jendarteko elebidunen proportzioa izango litzateke. Horrela, euskararen erabilera-maila sozialak ezin gaindi zezakeen elebidunen proportzio-atalasea (*erabileraren funtzioa*). Udalerrri berean bizi litezke bi hiztun-elkarte, bakoitza bere hizkuntza-sareen murgilean, bata bestearengandik aparte; kasu horretan, hiztun-elkarte bakoitzak bere hizkuntzaren erabilera-mailaren neurri gorena emango luke. Halere, osotasunera begiratuta, ezinbestean ikusiko genuke hizkuntza baten eta bestearen erabilera-proportzioak hiztun-elkarteen pisu demolinguistikoei zegozkiekeen haztapen-neurriak eurak izango liratekeela.

Datu enpirikoen —zentsuetakoak eta kaleko erabileraren neurketenak³— eta eredu teorikoaren arteko egokitzapena da, hain zuzen ere, eredu teorikoaren baliozkotasunaren adierazlea. Hau da, baliozkotasuna dagoela esaten dugu eredu teorikoak errealitatea egoki islatzen duenean, eta, horregatik, errealitatea aztertzeko eta ulertzeko lanabes baliagarria da. Gizarte-zientzietan bilatu ohi dugun teoriaren eta errealitatearen arteko korrespondentzia hori, kasu honetan, bete-betean gertatzen dela esan dezakegu. Txillardegiren soziolinguistika matematikoa baliatuz, hizkuntza gutxituaren erabilera soziala azaltzen duen funtzioa aurkitu dugula esan nahi dugu, nahikotasunez eta zorroztasunez islatzen duela errealitatea.

Berriz ere errepikatuko dugu: hizkuntza gutxituaren erabilera soziala, berez, mugatua da. Halere, elebidun batek edo bestek gaindi dezake hizkuntza gutxituaren erabilera sozialaren muga hori, bere egoera, motibazio, ideologia eta bizimoduaren arabera. Horregatik, hain zuzen ere, erabilera sozialaren mugei, P_b eta e_x , beste bat gehitu diogu: norbanakoaren goren mailako erabilera-maila. Eredu hori, bere itxuragatik, *euskararen hostoa* izendatu dugu.

2. grafikoa. Hizkuntza gutxituaren erabilerearen muga-lerroak, euskararen hostoa.



Iturria: Egileak eginda R softwarearen bitartez.

Grafikoko *hosto* horren ertzek elebidunen hizkuntza gutxituaren erabilerearen behe (P_b —erabilera soziala—) eta goi (P_{bg} —norbanakoaren erabilera—) mailak adierazten dituzte. Horiek izango lirateke, hain zuzen ere, itxaro daitezkeen erabilera-mailak. Honela kalkulatu dugu norbanakoaren erabilerearen goi-maila:

$$P_b = mbw_2ex_{12} + w_3ex_{13} + w_4ex_{14} * 100$$

Non, euskaldunen hizkuntza-leialtasuna erabateko jotzen dugun ($m_b = 1$).

Hizkuntzen arteko ukipen-egoeran, hizkuntza gutxituaren hiztunak elebidunak direnean, hizkuntza gutxituaren erabilera soziala mugatua dela erakutsi dugu. Horrek ez du esan nahi, berriro diogu, elebidun guztiek hizkuntza gutxitua maila berean erabiltzen dutenik. Erabilera indibiduala edo norbanakoaren erabilera nolakoa eta zenbatekoa izan daitezkeen ulertzeko, aintzat hartu behar ditugu erabilera sozialak elebidun bakoitzari ezartzen dizkion mugak. Hau da, elebidun bakoitzaren borondatea, nahia, motibazioa, ideologia edo beste zernahi ez da nahikoa hizkuntza gutxituaren egoera soziolinguistikoa gainditzeko.

Gure XXI. mendeko gizarte honetan, euskaldun elebidun batek, nahi izanda ere, ezin egin dezake bere bizimodua oso-osorik euskaraz, ezta udalerririk euskaldunenean ere. Egia esanda, globalizazioak hizkuntzen arteko nahas-mahasa hedatu du bazter guztietara. Zaila da bizitzea hiz-

Norbanakoaren hizkuntza gutxituaren erabilera, tokian tokiko egoera soziolinguistikoak azaltzen du nagusiki; ondoren, eta eraginkortasun apalagoz, euskaldun bakoitzaren euskararekiko leialtasunak.

Elebidunak, oro har, gizarteraturik bizi dira, euren egunerokotasuna gainerako hiztunen egunerokotasunaren antzekoa da, bizimodu arrunta egiten dute, eta komunikazio-sareetan murgildurik bizi dira. Elebidunen hizkuntzen hautapena, bada, indibidualki eta sozialki, fenomeno mugatua da.

kuntza bakar bat erabiliz, baina egoera bereziki larria da hizkuntza gutxituen kasuan.

ERABILERAREN PROBABILITATE-FUNTZIOA: EREDU ESTATISTIKOA

I
Euskaldun elebakarren desagertpenak ekarri du euskararen erabilera **zorizko gertaera** bihurtzea. Elebakarrek, hain zuzen ere, bermatzen zuten euskararen erabilera gertaera segurua zela, haiek desagertzean, berriz, hizkuntza gutxituaren erabilera **zorizko aldagaia** bilakatzen da. Elebidun batzuek, kasurako, euskararen aldeko ingurumari soziolinguistikoa bizi direnek, euskaraz dezente hitz egin dezakete, nahi badute, bederen. Beste batzuek, ostera, ingurumari soziolinguistikoa erdaldunetan bizi direnek, nahi izanda ere, ez dute aukera askorik izango euskaraz mintzatzeko. Hori horrela da. Horren erakusgarri da, adibidez, euskaldunek etxeetan, euren artean, erabiltzen duten euskara-tasa, zentsuetan neurtu ohi dena.

Printzipioz, pentsa genezake euskaldunen arteko euskararen erabilera, beren artekoa, berriz diogu, beren borondate edo nahiaren arabera dela. Horrela izango balitz, Bilboko (Bizkaia) familia euskaldun baten etxeko erabilera-tasa eta Aulestiko (Bizkaia) beste familia euskaldun baten erabilera-tasa elkarren antzekoak izango lirateke. Bada, enpirikoki, dauzkagun datuen arabera, familia euskaldunen etxeetan erabiltzen den euskara-tasa udalerriko elebidunen proportzioaren arabera da. Dirudieenez, egoera soziolinguistikoa mugatzen du euskararen erabilera kalean, baina baita sutondoan ere.

Euskaraz egitea zorizko gertaera delarik, banaketa normalaren arabera azal daiteke hizkuntza gutxituaren erabilera. Hau da, euskararen erabilera *zorizko fenomeno* dela besterik ez dugu esaten. *A priori*, hiztuna ustekabeko egoera berrian aurkitzen denean ez dago faktore ezagunik elebidunen hizkuntzen hautua azal dezakeenik. Aztertu ditugun datuetan, behintzat, ehunka udalerrietako erabilera-tasetan, ez dugu joera estatistiko egonkorrik aurkitu. Hori horrela, azalpen ezagunik izan ezean, zorizko eredu da erabilera-tasa horiek egokien azaltzen dituenak. Ustekabeko hizkuntza-harremanetan elebidun jakin baten hizkuntzen hautua eta erabilera ez da konstantea; gaude ez dagoela euskaldunik Euskal Herrian *beti* euskaraz edo *beti* erdaraz mintzo denik. Egon badaude euskaraz *maiz* eta *ia guztietan* egiten duten euskaldunak, eta *gutxi* eta *ia inoiz* ez egiten dutenak. Seguru asko, berriz, etxeko eta eguneroko jarduera eta eginkizunetan euskaldun baten hizkuntza-portaera nahiko egonkorra izan daiteke. Bizimoduaren egoera egonkorretan, hizkuntza-portaerak, oro har, aldagai-


tzak baitira. Esan genezake, esate baterako, harreman-sare txikia, finkoa eta aldaketa gutxiko bizimodua daraman euskaldun baten hizkuntza-portaera bizimoduaren antzekoa izango dela, egonkorra eta erraz igartzekoa. Baina zenbat eta harreman-sare zabalagoa eta bizimodu irekiagoa izan, hizkuntza-portaera orduan eta aldakorragoa bihurtzen dela pentsa dezakegu.

Informazio- eta komunikazio-gizartean bizi garelarik, ohikoa bihurtu da hitzunen hara-honako mugikortasuna eta askotariko harremanak izatea. Horrela, mugikortasun handiko eta harreman-sare zabaleko elebidunen hizkuntzen hautua ezin izan daiteke egonkorra, hizkuntza-portaera portaera moldagarria den neurrian, bederen.

Gogoetak gogoeta, gure egoera soziolinguistikoan, euskararen erabilera probabilitatezko fenomeno gisa definitu dugu. Hizkuntza gutxituaren erabilera probabilitatezko banaketaren arabera azal daiteke, beraz. Hizkuntza gutxituaren erabilaren banaketa-funtzioa, oro har, banaketa normala da $N(\mu, \sigma)$, honako parametro hauekin:

- Batezbesteko aritmetikoa: $\mu_{Pb} = 50$
- Desbideratze estandarra: $\sigma_{Pb} = 15$
- Probabilitate-funtzioa⁴: $\phi_{Pb} = \frac{1}{\sqrt{2\pi}} e^{-\frac{1}{2} \left(\frac{x - \mu_{Pb}}{\sigma_{Pb}}\right)^2}$

3. grafikoa. Hizkuntza gutxituaren erabilaren banaketa. $N(50,15)$.



Iturria: Egileak eginda R softwarearen bitartez.

Hizkuntza gutxituaren kaleko erabilera edo, kasurako, erabilera sozialak, ezin gaindi dezake elebidunen proportzioaren langa.


Bilboko euskaldun batek bizimodu arruntean, gure ustez, gehien-gehienez, batez beste, euskaraz egin dezake % 56,73 mailan.

Oro har, elebidunen —euskaldunen— hizkuntza-portaerak, euskaraz zenbatean egiten duten, probabilitate-funtzio normalari darraio. Gogoratu behar dugu euskaldun *elebakarrak*, erdaraz ez dakitenak, desagertu direla; euskaldun guztiak, maila batean edo bestean, gutxienik, elebidunak gara, beraz. Egoera horretan, elebidunen batzuk euskaraz *elebakar* bizitzea oso probabilitate txikiko gertaera izango litzateke; elebidun (euskaldun) *elebakar funtzionalak* gutxi izango lirateke, eta gutxi, baita ere, euskaraz deus ez edo ia deus ere ez egiten duten euskaldunak. Elebidun horiek grafikoren muturretan kokatzen dira (4. grafikoa). Horrela, Euskal Herriko edozein euskaldunen erabilera-tasa %5 eta %95 bitartekoa da, %99 edo handiagoko probabilitate-mailaz.

$$p_{0,05} \leq P_b \leq p_{0,95} = 0,99$$

Onartzen badugu hizkuntza gutxituaren erabilera *zorizko fenomeno*a dela, euskaldunen euskararen erabilera-tasak banaketa normalaren arabera irudika daitezke.

4. grafikoa. Erabilera-tarteak banaketa normalaren arabera. $N(50,15)$.



Iturria: Egileak eginda R softwarearen bitartez.

Banaketan zortzi erabilera-tarte berezi ditugu; muturretan *elebakar funtzionalak* leudeke —erdaldunak, ezkerrean, eta euskaldunak, eskuinean— erdialdean, berriz, gainerako elebidunak erabilera-mailen arabera. Probabilitateen banaketa-funtzioak ahalbidetzen digu kalkulatzeko multzo bakoitzaren proportzioa zenbatekoa den.

1. Elebidun elebakar funtzionalak (erdaldunak) $pPb < 0,05 = 0,001$
2. Erabilera-maila oso txikia $p0,05 \leq Pb \leq 0,20 = 0,021$
3. Erabilera-maila txikia $p0,20 \leq Pb \leq 0,35 = 0,136$
4. Erabilera-maila normala (baxua) $p0,35 \leq Pb \leq 0,50 = 0,342$
5. Erabilera-maila normala (altua) $p0,50 \leq Pb \leq 0,65 = 0,342$
6. Erabilera handia $p0,65 \leq Pb \leq 0,80 = 0,136$
7. Erabilera-maila oso handia $p0,80 \leq Pb \leq 0,95 = 0,021$
8. Elebidun elebakar funtzionalak (euskaldunak) $pPb > 0,95 = 0,001$

Gure ustez, norbanakoaren hizkuntza gutxituaren erabilera, tokian tokiko **egoera soziolinguistikoak** azaltzen du nagusiki; ondoren, eta eraginkortasun apalagoz, euskaldun bakoitzaren **euskararekiko leialtasunak**. Euskaltzale sutsuenak ere euskara ezin erabil baitezake maila berdinean udalerrri oso erdaldunean edo udalerrri oso euskaldunean. Hizkuntzarekiko leialtasunak euskararen erabilera sozialean eragin esanguratsua badu ere, udalerrri bakoitzeko egoera soziolinguistikoak mugatzen du eraginkorren norbanakoen hizkuntza-portaera. Udalerrri oso erdaldunetan euskaraz bizi nahi duten euskaldunak etengabeko borrokan ibiltzera behartuta dauden bitartean, udalerrri oso euskaldunetan euskaraz bizitzea errazago daukate. Hau da, Bilboko euskaldun batek euskaraz %70eko erabilera-tasa lortzeko askoz ahalegin handiagoak egin behar ditu Nabarrizko euskaldun batek euskaraz %95ean egiteko baino. Ez da zuzena esatea Nabarrizko euskaldunen euskararekiko leialtasuna bilbotarra baino handiagoa dela euskaraz gehiago egiten dutelako, udalerrri baten eta bestearen egoera soziolinguistikoak zeharo desberdinak direlako.

Egoera soziolinguistikoaren muturrera joko bagenu, elebidun bakar bat balego, haren hizkuntzarekiko leialtasunik handienak ere ez zukeen zitziz balio izango hizkuntza gutxituaren erabilera eragiteko. Elebidunen hizkuntzarekiko leialtasuna eragingarria izan daiteke erabilera, egoera soziolinguistikoaren baldintza jakinak betetzen badira. Baldintza horien artean garrantzitsuenak, gure ustez, bi dira: elebidunen proportzioa eta hizkuntza gutxituaren hiztun-elkartearen trinkotasun-maila.

Demolinguistika eta hizkuntza gutxituaren erabilera ulertzeko eta aztertzeko eredu estatistikoa azaldu behar dugu. Nahi genuke irakurleari erduaren muina, kontzeptuak eta garapen estatistikoa ahalik sotilenean erakustea, gogoeta eta hausnarketa luzeetan murgildu barik. Eredua ulertzeko ohar eta iruzkin beharrezkoak besterik ez ditugu egin nahi.

Udalerrri bakoitzeko egoera soziolinguistikoak zedarritzen du hizkuntza gutxituaren erabilera. Baiona (Lapurdi), Iruñea (Nafarroa Garaia) edo

Bilbo (Bizkaia), Euskal Herriko hiru hiriburu aipatzearen, euskaldunentzat hiru ingurumari arras desberdinak dira; tamainaz oso desberdinak, eremu administratibo desberdinekoak, hizkuntzari dagokion araubide desberdinekoak, euskalki edo hizkuntza aldaki desberdinekoak, ezaugarri sozioekonomiko desberdineko hiriak, hizkuntzen arteko ukipen-egoera desberdinekoak, euskaldun kopuru desberdinekoak eta elebidun proportzio desberdinekoak. Desberdintasunak desberdintasun, ordea, hizkuntza gutxituaren erabilerari dagokionez, arazoa oso antzekoa da hiru hiri horietan. Baina oso antzekoa izate horrek ez dakar, berez, desberdintasun horiek hizkuntza gutxituaren erabileran ez eragiterik. Nola eta zein neurritan eragiten duten ez badakigu ere, seguru gaude tokian tokiko egoerak baldintzatzen duela elebidunen hizkuntzen erabilera.

Edozein tokitan, dakiguna da hizkuntza gutxituaren erabilera mugatua dela. Elebidunak, oro har, gizarteraturik bizi dira, euren egunerokotasuna gainerako hiztunen egunerokotasunaren antzekoa da, bizimodu arrunta egiten dute, eta komunikazio-sareetan murgildurik bizi dira. Elebidunen hizkuntzen hautapena, bada, indibidualki eta sozialki, fenomeno mugatua da. Erabileraren muga hori, arestian azaldu moduan, hiztun elebakarraren multzoak zedarritzen du.

$$P_b = mbw_2e_{x12} + w_3e_{x13} + w_4e_{x14} * 100$$

Egiari zor, proposamen bat besterik ez da *batezbesteko haztatu* hori hizkuntza gutxituaren erabileraren goi-muga izatea. Lehen azaldu dugu, egoera isotropikoan, hizkuntza gutxituaren erabilera-tasak ezin gaindi dezakeela elebidunen proportzioaren langa (e_x). Egoera anisotropikoan, ostera, estatistikoki itxaro daitekeena gainditu daitekeela onartzen badugu ere, elebidunek hizkuntza gutxituaren erabilera muturrera eramaten badute ere, ezin desager dezakete hiztun elebakarren hizkuntza nagusiaren erabilera. Hau da, hiztun elebakarren multzorik dagoen bitartean, oso txikia izanagatik, hizkuntza gutxituaren erabilera, batez beste, esandako muga hartaraino irits daiteke, kasurik onenean ere.

Gauzak horrela, tokian tokiko erabileraren banaketaren mugak honako hauek izango lirarteke:

$$0 \leq P_b \leq P_bq$$

Horren arabera, tokian tokiko hiztun-euskaldunaren erabilera-tasa tarte horretako balioen bat izango du. Oro har, hizkuntza gutxituaren erabilerak banaketa normalari darraiolarik, hauek izango lirarteke banaketaren parametroak:

Batez besteko aritmetikoa: $\mu_{pb} = P_{bg}^2$

Desbiderapen estandarra: $\sigma_{pb} = 0,15 P_{bg}$

Euskararen erabilerari dagokionez, udalerrri bakoitzak berariazko erabilerera-banaketa dauka elebidunen proportzioaren (e_x) eta erabileraren goimugaren (P_{bg}) arabera. Probabilitate ereduaren arabera itxaro daitekeen batezbesteko erabilerera maila erabileraren goimugaren erdiko puntua da. Erabileraren desbiderapen estandarra edo errore tipikoa, berriz, tokian tokiko erabileraren goimugaren arabera izango da, halaberharrez. Tokian tokiko hizkuntza gutxituaren banaketa zehaztu daiteke, beraz, ezagutzen baititugu erabileraren behe- eta goimugak, batezbestekoa, eta desbiderapen estandarra. Eredu horren arabera neurtutako erabilerak, kaleko erabilerak kasurako, ebalua ditzakegu eta, aldi berean, norbanakoaren erabilerera maila zenbatekoa izan daitekeen.

Horiek horrela, hizkuntzen arteko ukipen-egoerako eredu orokorra — $N(50,15)$ — eta tokian tokiko banaketak — $N(\mu_{pb}, \sigma_{pb})$ — dauzkagu. Banaketa horiek, bada, euskararen hiztun-elkarteari eta euskaldunei dagokie, hiztunei, alegia. Hizkuntza gutxituaren erabileraren probabilitate eredu estandarizatua ebaluazio tresna da. Bere bitartez, tokian tokiko egoera soziolinguistikoaren arabera, irudika dezakegu erabileran funtzioa eta behatutako erabilerera-maila zentzuz eta zorrotz ebaluatu dezakegu.

Hizkuntza gutxituaren kaleko erabilerak edo, kasurako, erabilerera sozialak, arestian esan moduan, ezin gaindi dezake elebidunen proportzioaren langa. Hau da, euskaldun guztiek komunikazio aukera guztietan euskaraz egingo balute, ezinezkoa dena, bestalde, aparteko hiztun-elkarte gisa agertuko lirarteke baina orotara erabilerera maila, berriz diogu, hiztun-elkartek duen pisu demografikoaren arabera izango litzateke. Baldintza horietan euskaldun arruntaren euskararen erabilerera-funtzioa aztertu dugu, horrela ulertu behar da.

Probabilitate eredu hobeto azaltzeko, eta adibide gisa, Autonomia Erkidego hiriburuen kasuak azalduko ditugu. Seguru asko hiriburuak izango dira euskararen biziraupenerako plaza erabakigarriak. Ikusiko dugu.

Bilbo

Euskarari buruzko informazioa jaso zuen lehenengo zentsutik (1981) abiatuta bildu ditugu hogeita hamar urteetako datu esanguratsuak. Euskaldun kopuruak, elebidunen proportzioa eta etxean erabilitako ohiko hizkuntza (*Etxean*) zentsuetatik (EUSTAT) Euskararen kaleko erabilerera (erabilerera soziala) EKBk, SEIk eta Klusterrak neurtutakoa. Azkenik, datu-

Bilboko euskaldunen ohiko erabileratasak % 3,64 (itxaro daitekeen erabilerera-maila) eta % 56,73 (erabileraren muga) bitarteko balioren bat izango du. ... Itxarondako erabilerera maila eta neurtu eta behatutako erabilerera mailen artean ez dago diferentzi esanguratsurik.


sortak osatze aldera, egoera isotropikoan itxaro daitekeen erabilera maila (P_b), tokian tokiko egoera horretan izan daitekeen norbanakoaren goi mailako erabilera (P_{bg}) eta erabileraren errore tipikoa (σ_b) Bilboko datuak.

2. taula: Bilboko datu soziolinguistiko esanguratsuak.

Udalerrria	Euskaldunen proportzioa	errola urtea	neurketa urtea	P_b	P_{bg}	σ_b	Etxean	Erabilera soziala
Bilbo	0,0726	1981		0,0029	0,3557	0,0534		
	0,0907	1986	1989	0,0046	0,3872	0,0581		0,0250
	0,0963	1991	1993	0,0052	0,3961	0,0594	0,0154	0,0433
	0,1437	1996	1997	0,0120	0,4622	0,0693	0,0155	0,0452
	0,1549	2001	2001	0,0140	0,4758	0,0714	0,0178	0,0458
	0,2430	2006	2006	0,0364	0,5673	0,0851	0,0268	0,0426
	0,2299	2011	2011	0,0323	0,5551	0,0833	0,0333	0,0319

Datuak datu, azter dezagun Bilboko kasua. Demagun, Bilboko euskaldunen portzentajea %24,3 (83.354 euskaldun, EUSTAT 2006), ($e_x=0,2429635$). Horren arabera, *itxaro daitekeen erabilera-maila* (P_b) %3,64 izango litzateke. Hiri horretan Klusterrak, 2016an %2,5eko kaleko erabilera neurtu zuen (2001ean, %4,58koa); 2006ko udal-errolaren arabera (EUSTAT 2006), euskaldunek etxeetan, oro har, %1,78ko euskararen erabilera-maila erakutsi zuten, eta, euren artean, euskaraz %11,28 erabiltzen zuten (2006). Horiek horrela, Bilboko euskaldun batek bizimodu arruntean, gure ustez, gehien-gehienez (2006), batez beste, euskaraz egin dezake %56,73 mailan (P_{bg}). Horrela, Bilboko euskararen erabileraren mugak honako hauek izango lirateke:

6. grafikoa. Bilboko euskaldunen euskararen erabileraren banaketa, orokorrean.



Iturria: Egileak eginda R softwarearen bitartez.

Oro har, $N(50,15)$ banaketan, Bilboko euskaldunen ohiko erabilera-tasak %3,64 (itxaro daitekeen erabilera-maila) eta %56,73 (erabileraren muga) bitarteko balioen bat izango du. Eskuragarri ditugun datuen arabera, horrela gertatzen dela ikus dezakegu: Bilbon kaleetan neurtutako erabilera-tasak %2,5 eman zuen (Klusterrak 2016), eta etxeetan euskara ohiko hizkuntza, oro har, biztanleen %3,33k aitortzen du (EUSTAT 2011). Zehatz-mehatz, —euskaldunen arteko— euskararen erabilera etxeetan, berriz, %14,8ra iritsi zen (EUSTAT 2011); neurri biak itxaro zitekeen tartearen barrenekoak dira, beraz. Halere, ageri denez, erabilera-tasak oso txikiak dira.


Bilboko egoerari dagokion parametroak kalkulatzeko baditugu:

Batez besteko aritmetikoa: $\mu_{pb} = P_{bg2} = 0,56732 = 0,28365$

Desbiderapen estandarra: $\sigma_{pb} = 0,15 \cdot P_{bg} = 0,15 * 0,5673 = 0,085095$

Kalkuluak biribildu ditugu irakurketa errazagoa egiteko. Bilboko datu horiekin marraztu dugu, berriz, euskararen erabileraren banaketa.

7. grafikoa. Bilboko egoerari dagokion euskararen erabileraren banaketa.



Iturria: Egileak eginda R softwarearen bitartez.

Grafikoak erakusten du erabileraren mugak eta itxaro ditzakegun Bilboko euskaldunen erabilera-tasak nola banatzen diren. Egoera isotropiakoa itxaro daitekeen erabilera maila (%3,64) oso txikia da; kaleetan neurtutakoak (%2,5) erakusten du Bilboko egoera isotropiakoa dela. Erroldetan neurtutako etxeko ohiko hizkuntzaren erabilera (%11,28), euskara euskaldunen artean, maila apalekoa da. Bilbon, hamar urteetan, 2006tik 2016

Gasteizko kasua euskara biziberritzeko eredu gisa kontsidera dezakegu, egoera okerragotik abiatu arren Bilboko antzeko egoerara iritsi baita. Orain, Bilboko eta Gasteizko banaketak oso antzekoak dira.

bitartean, anisotropiatik isotropiara igaro da hizkuntza egoera. Okerrera. Euskararen erabilera-tasa, bai kalean bai etxean, dezente emenda daiteke.

Bilboko kasuan arreta eman digu 2006 / 2011 urte artean euskaldunen multzoak 4.627 hiztun galdu izanak. Hiztunak galtzen badira, neurri batean, behintzat, ulergarri egiten zaigu erabilera mailak behera jotzea.

Etxean erabilitako ohiko hizkuntzaren proportzioa (euskaraz) –EUSTAT– eta kaleko erabilera maila, biak ahala biak, errore tipiko unitatearen baitan daude. Hau da, **itxarondako erabilera maila** eta **neurru** eta **behatutako erabilera mailen artean ez dago diferentzi esanguratsurik**. Itxarondako erabilera maila, bada, benetako erabileraren zenbatesle baliagarria eta fidagarria da.

Konparazio baterako ekarri ditugu hona Inkesta Soziolinguistikoen hiriburuetakoko datuak (2011)

3. taula: Bilboko, Donostiako eta Gasteizko euskararen erabilera aitortua –datu soziolinguistiko esanguratsuak.

2011	Etxea-Laguna-Formala eremuen tipologia				
	Euskaraz erdaraz baino gehiago	Euskaraz erdaraz beste	Euskaraz erdaraz baino gutxiago	Oso gutxi euskaraz	Beti erdaraz
Gasteiz	0,5%	2,3%	7,3%	6,8%	83,1%
Bilbo	0,5%	2,6%	6,7%	6,6%	83,6%
Donostia	7,6%	10,0%	14,0%	4,7%	63,6%

Datu horiek ikusirik ulertzen dugu ez dagoela inor euskaraz “beti” egiten duenik, adierazgarria da. Euskaraz egiten dutela, oso gutxi bada ere, aitortzen dutenak Bilbon (%23), Donostian (%40,6) eta Gasteizen (22,46) ez dira iristen inon elebidunen proportzioa izateraino. Inkesta soziolinguistikoen hiriburuetakoko hiztunek aitortutako erabilera, kalean neurtutakoa eta eredu teorikoan estimatutakoa elkarrenik gertukoak dira.

Donostia


Donostian 72.071 euskaldun bizi dira (2011), herritarren %40,6, alegia. Donostia da, bada, Euskal Herriko hiriburu euskaldunena, nahiz Bilbon 6.656 euskaldun gehiago izan.

4. taula: Donostiako datu soziolinguistiko esanguratsuak.

Udalerrria	Euskaldunen proportzioa	errolda urtea	neurketa urtea	P_b	P_{bg}	σ_b	Etxean	Erabilera soziala
Donostia	0,2179	1981		0,0288	0,5436	0,0815		
	0,2611	1986	1989	0,0425	0,5836	0,0875		0,1030
	0,2733	1991	1993	0,0469	0,5942	0,0891	0,2101	0,0953
	0,3263	1996	1997	0,0691	0,6373	0,0956	0,2154	0,1401
	0,3471	2001	2001	0,0792	0,6531	0,0980	0,2151	0,1578
	0,4035	2006	2006	0,1109	0,6934	0,1040	0,2227	0,1818
	0,4059	2011	2011	0,1124	0,6951	0,1043	0,2175	0,1515

Donostiako biztanleriaren %40,35 euskalduna da (EUSTAT 2006); horren arabera, *itxaro daitekeen* erabilera maila (P_b) %11,1 litzateke. Klusterrak 2016an Donostiako kaleetan %16,1 (2001ean %15,68) neurtu zuen, eta 2006ko udal-errolaren arabera, Donostiako etxeetan, euskaldunen artean, %28,77 mailan erabiltzen zen euskara. Azkenik, gure ereduaren arabera, norbanakoen aldetik itxaro daitekeen goi-mailako erabilera-tasak %69,35 emango luke. Datu horiekin Donostiako banaketa irudikatu dugu.

8. grafikoa. Donostiako euskaldunen euskararen erabilerearen banaketa, orokorrean.



Iturria: Egileak eginda R softwarearen bitartez.

Bilbon, euskaldun batek bizimodu arruntean, batenaz beste, euskara % 28an erabiliko du. Ahalegin txikia eginda euskaldun arruntak bere erabilera maila % 36,6 mailaraino eramán lezake

Bilboko kasuan egin moduan, hasieran eredu orokorraren arabera azalduko dugu. Donostiako euskaldunen hizkuntza-portaera bilbotarra baina jasoagoa da. Alabaina, erabilera-tasak, bai soziala zein etxekoa, biak txikiak direla pentsa daiteke. Edozein kasutan, gogorarazi behar dugu Donostiako edozein euskaldunentzat euskaraz %69tik gora mintzatzea oso zaila izango litzatekeela.

Donostiako egoerari dagozkion parametroak kalkulatzén baditugu:


Erabilerearen mugak: $0 \leq P_b \leq 0,6935$

Batez besteko aritmetikoa: $\mu_{pb} = P_{bg} = 0,69352 = 0,34675$

Desbiderapén estandarra: $\sigma_{pb} = 0,15 \quad P_{bg} = 0,15 * 0,6935 = 0,104025$

Horren arabera, Donostiako egoerari dagokion banaketa, berriz, marrazten badugu:

9. grafikoa. Donostiako egoerari dagokion euskararen erabilerearen banaketa.



Iturria: Egileak eginda R softwarearen bitartez.

Ikus daitekeenez, euskararen erabilera-mailak, itxarondakoa eta kalean neurtutakoa, oraindik ere txikiak dira. Etxeetan (erroldan) neurtutakoa, ordea, nabarmen hurbiltzen da banaketaren batezbestekora. Donostiako egoera anisotropikoa Bilbokoa baino argiagoa da.


Gasteiz

5. taula: Gasteizko datu soziolinguistiko esanguratsuak.

Udalerrria	Euskaldunen proporzioa	errola urtea	neurketa urtea	P_b	P_{bg}	σ_b	Etxean	Erabilera soziala
Gasteiz	0,0338	1981		0,0006	0,2669	0,0400		
	0,0594	1986	1989	0,0020	0,3296	0,0494		0,0200
	0,0751	1991	1993	0,0032	0,3603	0,0540	0,0356	0,0254
	0,1362	1996	1997	0,0107	0,4527	0,0679	0,0432	0,0293
	0,1488	2001	2001	0,0129	0,4685	0,0703	0,0487	0,0281
	0,2464	2006	2006	0,0375	0,5704	0,0856	0,0552	0,0397
	0,2246	2011	2011	0,0308	0,5500	0,0825	0,0631	0,0311

Gasteizko biztanleriaren %24,64 euskalduna da (EUSTAT 2006); horren arabera, *itxaro daitekeen* erabilera maila (P_b) %3,75 litzateke. Klusterrak 2016an Donostiako kaleetan %3,7 (2011n %3,11) neurtu zuen, eta 2006ko udal-errolaren arabera, Gasteizko etxeetan, oro har, %5,52 mailan erabiltzen zen euskara. Azkenik, gure ereduaren arabera, norbanakoen aldetik itxaro daitekeen goi-mailako erabilera-tasak %55 emango luke.

10. grafikoa. Gasteizko euskaldunen euskararen erabilaren banaketa, orokorrean.



Iturria: Egileak eginda R softwarearen bitartez.

Erabilera-tasak, bai soziala zein etxekoa, biak txikiak direla pentsa daiteke. Edozein kasutan, gogorarazi behar dugu Gasteizko edozein euskaldunentzat euskaraz %55etik gora mintzatzea oso zaila izango litzatekeela.

Gasteizko egoerari dagokion parametroak kalkulatu baditugu:


Erabilera mugak: $0 \leq Pb \leq 0,55$

Batez besteko aritmetikoa: $\mu_{pb} = Pbg = 0,552 = 0,275$

Desbiderapen estandarra: $\sigma_{pb} = 0,15 \cdot Pbg = 0,15 \cdot 0,55 = 0,0825$

Horren arabera, Gasteizko egoerari dagokion banaketa, berriz, marrazten badugu:

11. grafikoa. Gasteizko egoerari dagokion euskararen erabilera banaketa.



Iturria: Egileak eginda R softwarearen bitartez.

Gasteizko kasua euskara biziberritzeko eredu gisa kontsidera dezakegu, egoera okerragotik abiatu arren Bilboko antzeko egoerara iritsi baita. Orain, Bilboko eta Gasteizko banaketak oso antzekoak dira.

Hiriburuen azterketa eredu estatistikoa ulertzeko ariketa gisa har daiteke. Egindako azterketaren gainean ondorio batzuk atera ditzakegu.

Eredu estatistikoak balio dezake tokian tokiko erabilera banaketa eza-gutzeko. Hau da, tokian tokiko erabilera parametroak kalkulatu: ba-

tezbeteko eta desbiderapen estandarra. Halaber, banaketak balio du neurtutako erabilera mailak ebaluatzeko. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hiriburuen banaketak azalduko ditugu.

Bilbo N(28 , 8,6) 2016ko erabilera %2,5 (Kluster)

Bilbon, euskaldun batek bizimodu arruntean, batenaz beste, euskara %28an erabiliko du. Ahalegin txikia eginda euskaldun arruntak bere erabilera maila %36,6 mailaraino eraman lezake, desbiderapen estandar bat gora.

Donostia N(35 , 10) 2016ko erabilera %16,1 (Kluster)

Donostian bizi den euskalduna da euskara gehien erabiltzen duena baina gutxi hala ere, %35a baino ez. Desbiderapen estandar bat gehiago Donostian bizimodu arruntean %45era iritsi daiteke.

Gasteiz N(28 , 8,3) 2016ko erabilera %3,7 (Kluster)

Gasteizen, azkenik, bizimodu arruntean euskara %28an erabil daiteke. Desbiderapen estandar bat gorago, berriz, %36,3 erabilera-mailara iritsi daiteke.

Hala ere, euskaldun bakoitzak egin dezakeen ahaleginak erabilera sozialean izan dezakeen ekarpena elebidunen proportzioaren arabera izango da. Errazagoa da Donostian kaleko erabilera maila areagotzea Gasteizen baino. Euskaldunak zenbat eta gutxiago izan orduan eta ahalegin handiagoak egin behar dituzte kalean euskararen presentzia zabaltzeko.

AZKEN GOGOETA

I Aurkeztu dugun hizkuntza gutxituaren erabileraren gaineko eredu estatistikoak, batez ere, euskararen erabileraren azterketarako eredu izateko sortu dugu. Euskararen hiztun elkarte, zorionez, hizkuntzarekiko konpromiso maila handiko taldea da. Hau da, hezkuntza euskaldunaren aldeko jarrera, hedabide euskaldunen aldeko joera edota euskaraz bizitzeko konpromiso oso handiak dira. Zenbateko? Hori jakiteko, neurri batean, balio dezake ere du estatistikoak; zoriz itxaron daitekeenetik zenbat eta gorago euskararekiko konpromiso orduan eta handiago dela ulertzen baitugu.

Onartzen dugu eredu estatistikoan badela zer hobetu, bai, eta batez ere zer hobeto azaldu. Eskerrik asko. ●

Euskaldun bakoitzak egin dezakeen ahaleginak erabilera sozialean izan dezakeen ekarpena elebidunen proportzioaren arabera izango da. Errazagoa da Donostian kaleko erabilera maila areagotzea Gasteizen baino. Euskaldunak zenbat eta gutxiago izan orduan eta ahalegin handiagoak egin behar dituzte kalean euskararen presentzia zabaltzeko.

OHARRAK

1. *Atlas of the World's Languages Danger* UNESCO
2. http://www.soziolinguistika.eus/files/hekn2016_eu_1.pdf
3. Hizkuntzari buruzko datuak biltzen dira EAEn 1981. urtez geroztik hamar urteren behin, horrela zehazten da **legez** zenbat hitzun dagoen. Kale-erabileraren neurketa, berriz, entzuten den hizkuntzaren araberrako zenbaketa da, behaketa metodologia. Horregatik esaten dugu datuak *enpirikoak* direla.
4. $\pi = 3,14159265358979$
 $e = 2,71828182845905$

ERREFERENTZIAK

- Altuna, O., Iurrebaso, I., Isasi, I., Martínez de Luna, I., Ramos, R. eta Uranga, B. (2012 (3)). "Hizkuntzen Kale-erabileraren VI. Neurketa, 2011. Emaizta nagusiak". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 84 zk. 31-58 or.
- Alvarez Enparantza, J.L. *Txillardegi* (1984). *Elebidun gizarteen azterketa matematikoa. Sarrera bat*. Iruñea, UEU.
- Alvarez Enparantza, J.L. *Txillardegi* (1994). *Soziolinguistika matematikoa*. Iruñea, UEU.
- Alvarez Enparantza, J.L. *Txillardegi* (2002). *Hacia una socio-lingüística matemática*. Donostia, Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen.
- Isasi, X. (1994). "Hiztun erroldak, labelak eta euskaldunak". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 13-14 zk. 28-33 or
- Isasi, X. (2007). "Euskararen erabilera kale". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 64 zk. 119-121 or
- Isasi, X. (2009 (2)). "OMENEZ; Euskararen erabilera aztertze oinarri zientifikoak". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 71 zk. 39-56 or
- Isasi, X. (2011 (2-3)). "Euskara: politika, inkestak eta erabilera". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 79-80 zk. 301-313 or
- Isasi, X., Iriarte, A. (1998). "Euskararen kale-erabilera. Txillardegiren eredu matematikoa". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 28 zk. 51-80 or.
- Moseley, Ch. (ed.) (2010) *Atlas of the World's Languages in Danger*. 3. argitaraldia. Paris, UNESCO Publishing.
- UNESCO Ad Hoc Expert Group on Endangered Languages (2003) *Language Vitality and Endangerment*. Paris, UNESCO Internet: http://www.unesco.org/new/fileadmin/MULTIMEDIA/HQ/CLT/pdf/Language_vitality_and_endangerment_EN.pdf

ARGIA

Zer emateko
prest zaude?

Eta zer jaso
nahi duzu?

**INDARTU DEZAGUN
INDARTZEN GAITUENA**
EZAGUTU HARPIDETZA EREDU BERRIA

%2,7a¹ - Euskara, generoaz mintzo?

Jaime Altuna Ramírez

EHU/UPV – Euskal Herriko Unibertsitatea
jaime.altuna@ehu.eus

Jone M. Hernández García²

EHU/UPV – Euskal Herriko Unibertsitatea
jm.hernandez@ehu.eus

Sarrera-data 2018- 01-15 / Onarpen-data: 2018-02-09

Laburpena. Azkenengo Kale-Neurketetan joera argi bat antzematen ari da: emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago egiten dute euskara. Artikulua, horren azpian egon daitezkeen arrazoiak irudikatzen saiakera bat da. Horretarako testuak hiru atal garatzen ditu. Lehenengoan Kale Neurketak hainbat urtetan utzitako datuen gaineko genero irakurketa egingo dugu. Bigarrenengan, eta aurretik emandako datuak osatzeko asmoz edo, azken urteotan zenbait azterlan kualitatiboek agertutako ondorioak aurkeztuko ditugu. Eta azkenengo atalean, datu kuantitatibo zein kualitatibo horiek mahai gainean utzitako hainbat planteamendu, galdera, zein erronka plazaratuko ditugu, helburua generoaren gaineko auziak azaltzea baino azalaraztea izanik. • **Hitz gakoak:** *Kale Neurketa, hizkuntza antropologia, hizkuntza-erabilera, antropologia feminista, generoa, gazteak, prestigioa, hezkuntza.*

Abstract. There is a clear trend being seen in recent Street Measurements: women speak more Basque than men. The article is an attempt to represent the reasons behind it. To this end, the text is broken down into three sections. In the first one, we shall carry out a reading of gender data over the course of several years. In the second section, and in order to complete the data provided beforehand, we shall present the conclusions that have appeared in qualitative studies over the last few years. Finally, in the last section, we shall put forward a series of approaches, questions, and challenges regarding the quantitative and qualitative data that we have set out in the table rather than explaining gender issues. • **Key words:** *Street Measurement, language anthropology, feminist anthropology, gender, young people, prestige, education.*

1. Portzentai honen bidez 2016ko Kale-Neurketak utzi duen datu zehatz bati egite diogu erreferentzia: hauxe baita neska eta mutil gazteen artean agertzen den diferentzia euskararen Kale-erabilerari dagokionez. Emakumezko neska gazteek %13,6ak euskaraz egiten badu ere, mutilen kasua portzentaia %10,9koa da.

2. Jone M. Hernández Gizarte Antropologia irakaslea da Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Sailean (UPV/EHU). Jaime Altuna doktoregaia da Sail horretan. Biak AFIT-eko (Antropologia Feminista Ikerketa Taldea) kideak dira. AFIT (Erreferentzia: IT1030-16) Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak finantzatutako euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-talde bat da. 2016ko abenduaren 5eko ebazpenaren ondorioz taldeak 6 urtetarako onarpena eta babesja jaso du (2016-2021). Aipatutako deialdian 97 puntu jaso zituen (100etik) eta laugarrena geratu zen kalifikazio gorena (bikain) jaso duten lehenengo 10 taldeen artean. Mari Luz Esteban Galarza da AFIT ikerketa taldearen zuzendaria.

SARRERA: HIZKUNTZA ANTROPOLOGIA ETA ANTROPOLOGIA FEMINISTAREN ARTEKO ELKARLANA

I

Mundu mailan soziolinguistika feminista lehen urratsak ematen ari zenean (Serrano 2008) Euskal Herrian hizkuntzaren gaineko ikerkuntza zientifikoaren hastapenak suertatzen ari ziren. Horrela, Robin Lakoff-ek (1975) *Language and Women's Place* argitaratu zuen urtean, gurean, Iñaki Larrañaga soziologoak azaltzen zuen moduan (Esnaola eta Odriozola 2000), euskal soziolinguistika martxan jartzen ari zen. Ekimen horren fruituak izan ziren, besteak beste, José M^a Sánchez Carrión *Txepetx*-ek (1970) *El estado actual del vascuence en Navarra. Factores de regresión. Relaciones de bilingüismo* (1972an argitaratuta) osatutako ikerlana, Pedro de Yrizar-ren (1973) *Los Dialectos y Variedades de la Lengua Vasca. Estudio Lingüístico –Demográfico* izeneko azterlana edota Apat-Etxebarne-ren (1974) (Irigarai Aingeru) *Una geografía Diacrónica del Euskara en Navarra* eta Jose Angel Irigaray-k 1973an argitaratutako *Euskara eta Nafarroa*. Urte batzuk beranduago, eta Euskaltzaindiaren eraginez, soziolinguistika aplikatuari hasiera eman zitzaion *Hizkuntz Borroka Euskal Herrian* izeneko lanarekin. Hau euskararen inguruko lehenengo ikerketa orokorra izan zen, SIADCO elkarteak burutu zuen eta horren laburpena 1979an argitaratu zen.

Lakoff-ena soziolinguistika feministaren oinarritzko lana kontsideratua izateaz gain, hizkuntza kezka-gai dutenentzako erreferente bilakatu zen mundu mailan, eta hurrengo urteetan ikerketa ezberdinak agertu ziren Lakoff-en tesiak abiaburu zituztela (Serrano 2008: 179). Geroztik ikuspegi, teoria zein lan ildo ezberdinak garatu dituzte euren burua feministatzat jotzen duten soziolinguistek. Halere, lau hamarkada pasa ondoren, ez dago oraindik Euskal Herrian emakume eta gizonen hizkuntza jarrera edota praktikak sakontasunez aztertu duen ikerlanik. Beste batzuetan aipatu izan dugunez (Altuna 2015, Hernández, 2002; Hernández, 2004), orain arte, emakume eta euskara edota genero eta euskara gogoetagai izan duten lanak oso mugatuak izan dira garapen teoriko zein enpirikoari dagokienez.

Nola azaldu daiteke euskal soziolinguistikan sumatutako hutsune hori? Arrazoiez arrazoi, bi nabarmendu nahi ditugu. Batetik, feminismo akademikoaren ibilbidea genuke. Izan ere, azkenengo hamarkadetan generoko ikasketak zein ikerkuntza feminista erruz eta dotoreki garatu badira ere (Hernández eta Imaz, 2010), eremu honetan hizkuntzak (euskarak) hartutako tokia ia ikusezina izango litzateke. Hizkuntza zehar-

Mundu mailan soziolinguistika feminista lehen urratsak ematen ari zenean (Serrano 2008) Euskal Herrian hizkuntzaren gaineko ikerkuntza zientifikoaren hastapenak suertatzen ari ziren.

**Orain arte,
emakume eta
euskara edota
genero eta
euskara
gogoetagai izan
duten lanak oso
mugatuak izan
dira garapen
teoriko zein
enpirikoari
dagokienez.**

kako gaia izan da genero ikuspegitik egindako zenbait lanetan, adibidez, euskal literatura (Lasarte 2011) edo euskal eskolaren ibilbidea (Fernández 1994, Amurrio 2003) aztertu izan direnean, baina inoiz ez ikerketa objektua; azterketa ezberdinen periferian kokatu da, ez erdigunean.

Bestetik, esan behar da euskal soziolinguistikaren garapena oso baldintzatuta egon dela frankismoak sorturiko (hizkuntza) egoera itogarriari buelta eman nahian bultzatutako ekimenengandik. Hauek, nagusiki, lege, arau, erakunde eta bestelako baliabide instituzionalak garatzea izan dute helburua eta, maila teorikoan zein metodologikoan lehentsitako hurbilpen eta ereduak horretara bideratu dira nagusiki. Horren ondorioa da hizkuntza politikak edota hizkuntza plangintzak Euskal Herrian hartutako protagonismoa; ikerkuntzaren eremuan ere agerian geratzen den protagonismoa. Horri gainera beste elementu garrantzitsu bat gehitu behar zaio: gizarte mugimendua edota hizkuntzaren inguruan garatutako aktibismoa. Olatz Altunak eta Jacqueline Urlak diotenez (Altuna eta Urla 2013: 212): *language revival has never been solely the province of government officials. Before and even since the transition to democracy, language activism has had a strong involvement of local and civic associations.* Egile hauek (Altuna eta Urla 2013) Kale-Neurketa (*Street Survey*) espreski aipatzen dute hizkuntza eragile ezberdin horien (hizkuntza politika, akademia eta gizarte mugimendua) elkarlanaren adibide argia bezala. Izan ere 1980. hamarkadatik gaur egun arte egin diren Kale-Neurketaren edizioetan profil ezberdinetako pertsonak zein taldeak parte hartu dute: norbanako arruntak (hiztunak), militante edo aktibistak, elkarteak, akademikoak eta gero eta gehiago erakunde publikoak eta hizkuntza politikan zein plangintzan aritzen diren profesionalak.

Ondorioaz, esan daiteke ikerkuntza feminista batetik eta hizkuntzaren gaineko ikerketak bestetik (nagusiki, soziolinguistikari zein hizkuntza soziologiari loturik) ibilbide oparoa egin dutela, baina ez dutela elkar-gunerik topatu:

“(…) “euskal kulturaz” ari garenean ez ditugu aintzat hartzen ez mugimenduaren ezta teoria feministaren nondik norakoak (ezta beste gizarte mugimenduenak ere ez). Eta alderantziz, feminismoan murgildurik gaudenean ez diogu erreparatzen “euskalgintzan” hausnartzen edo teorizatzen denari” (Esteban 2012: 3).

Testu hau sinatzen dugunok, hizkuntza antropologian eta antropologia feministan murgiltzen garen neurrian, autokritika egin beharrean gaudelakoan gara. Izan ere, beste testuinguru batzuetan gizarte antropologia

eta hizkuntzaren arteko elkarlanaren onurak erraz ikusi dituzten bitartean, gurean ez da horrelakorik gertatu, eta egun oraindik hizkuntza antropologia eta antropologia feministaren arteko zubia egiteke dago. Erronka horri heltzeko beharraz jabetzeko, Elise Kramer-rek bi ikerketa lerro horiek eman dezaketeenaren inguruan aipatzen duena ekarri nahi izan dugu honera:

The two disciplines together have crafted incredibly powerful analytic tools in the fight for gender equality. Linguistic anthropology provides a robust theoretical framework for studying the ways that social difference is created, maintained, and altered; and feminist anthropology applies this framework to issues of the utmost importance, both at home and abroad (Kramer 2016: 80).

Gauzak horrela, egungoari so egiten baiezta dezakegun gauza bakarra hau da: gurean hizkuntza antropologia eta antropologia feministaren arteko loturak egiteke daudela; eta orokorrean hizkuntza eta zehazki euskararen gaineko datuei genero begirada aplikatzeke eta garatzeke. Hau kontuan harturik, artikulu honetan euskararen gaineko ikerketek generoaren inguruan eman dutena eta kanpotik jasotako hainbat erreferentzi lagungarriak uztartzen saiatu gara. Helburua ez da inolaz ere, 2016ko Kale-Neurketak mahai gainean utzi dituen sexuen arteko diferentziak azaltzea. Zinez diogu horretarako nahiko datu teoriko zein empiriko ez dugula. Helmuga aldiz, datuek azaltzen (edo erakusten) digutenaz gogoeta egitea litzateke. Datu horien azpian egon daitezkeen errealitateak eta egoerak hartu ditugu gogoetarako lehengai gisa, ikerkuntza feministan ezagunak eta jakinak diren zenbait genero dinamikak, harremanak zein arauak, hizkuntzaren eremuan (gure kasuan euskararen eremuan bereziki) zein itxura hartzen ari diren edo irudikatzeke.

Helburu hauek tartean, testuak hiru atal jasotzen ditu. Lehenengoan Kale Neurketak hainbat urtetan utzitako datuen gaineko genero irakurketa egingo dugu. Bigarrenengoan, eta aurretik emandako datuak osatzeko asmoz edo, azken urteotan zenbait azterlan kualitatiboek agertutako ondorioak aurkeztuko ditugu. Eta azkenengo atalean, datu kuantitatibo zein kualitatibo horiek mahai gainean utzitako hainbat planteamendu, galdera, zein erronka plazaratuko ditugu, beti ere, lurzoru (teoriko, epistemologiko zein metodologiko) ezegonkor baten gainean. Horregatik generoaren gaineko auziak azaltzea baino azalaraztea izango litzateke asmoa.

Hizkuntza zeharkako gaia izan da genero ikuspegitik egindako zenbait lanetan... baina inoiz ez ikerketa objektua; azterketa ezberdinen periferian kokatu da, ez erdigunean.

Egun oraindik hizkuntza antropologia eta antropologia feministaren arteko zubia egiteke dago.


“Emakumezkoek gehiago egiten dute euskaraz gizonzkoek baino adin-tarte guztietan, adinekoetan izan ezik”. Horrela laburbiltzen da Hizkuntzen erabileraren Kale-Neurketa.

1. ZENBAKIAK ETA DISKURTSOAK: EUSKARA ETA GENEROAREN INGURUKO ZENBAIT DATU

1.1 Kale Neurketen zenbakiak

“Emakumezkoek gehiago egiten dute euskaraz gizonzkoek baino adin-tarte guztietan, adinekoetan izan ezik”. Horrela laburbiltzen da *Hizkuntzen erabileraren Kale-Neurketa*. *Euskal Herria 2016* izeneko txostenean generoari dagokion atala. Aldeak handiak ez badira ere, egun emakumezko haur, gazte zein helduek euskara gehiago erabiltzen dute:

1. grafikoa. Euskararen erabilera, sexua eta adin-taldean arabera. EUSKAL HERRIA, 2016. (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, 2017. *Hizkuntzen erabileraren Kale-Neurketa*. *Euskal Herria*, 2016

Portaera horrek azken lau neurketen joerarekin bat egiten du. 1997ko neurketan hasi ziren sexuaren arabeko datuak jasotzen. Urte hartako datuetan, gizonzkoen artean euskararen erabilera handiagoa zela ageri zen, nahiz eta diferentzia txikia izan: emakumeak %13,1 eta gizonak %13,4. Orduko Kale-Neurketan lurraldekako datuetan ezberdintasunak zeuden: Nafarroan, Bizkaian eta Ipar Euskal Herrian gizonzkoek euskara gehiago erabiltzen zuten, baina Gipuzkoan eta Araban emakumezkoak ziren erabilera datu handiagoak azaltzen zutenak. Edonola ere, aldeak oso txikiak ziren (handiena Nafarroan ageri zen %7 eta %8,6 arteko ezberdintasuna) eta adinaren arabeko datuak falta ziren ondorio argirik atera ahal izateko.

2001eko neurketan hobekuntza interesgarriak egin ziren. Lehenengo aldiz, sexu aldagaia adinarekin gurutzatzeko aukera izan zen. BAT aldizkarian argitaratutako “Kale Neurketa: sexuaren arabeko erabileraren emaitzak eta horien inguruan sortutako galderak” artikuluan na-

barmendu zen aurreko neurketarekin alderatuz 2001ean emakumezkoek aurrea hartu ziotela gizonezkoei (Hernandez, 2002). 2001ean Euskal Herriko neurketan emakumeen erabilera %13,8 izan zen, gizonezkoena, aldiz, %13,4. Horrekin batera, azpimarratu zen lau urte horietako bilakaera: emakumeen euskararen erabileran 0,7 puntuko igoera gertatu zen, baina gizonen kasuan ez zen igoerarik egon. 90 eta 80. hamarkadetakoa sexuen araberako datuak ez baditugu ere, itxuraz, mende berriarekin batera emakumezkoek euskararen kaleko erabileran aurre hartu zioten gizonezkoei.

2001etik Euskal Herrian hizkuntzaren beste hiru Kale Neurketa egin dira, eta, alde handia ez bada ere, joera finkatu eta orokortu da egungo egoerara iristeko: emakumezkoen euskararen erabilera gizonezkoena baino handiagoa da lurralde guztietan, herri gehienetan eta, nagusiak izan ezik, adin tarte guztietan. Ikus ditzagun datu horiek zehaztasun handiagoarekin azken 10 urteetan gertatutako bilakaera aztertuz.

Adinaren araberako datuak

Beharbada, adinaren araberako datuak dira argien agertzen dutenak sexuaren araberako euskararen erabileran gertatu den bilakaera:

1. taula. Euskararen erabileraren bilakaera sexua eta adinaren arabera.

	2006				2011				2016			
	Em.	Aldea	Gz.	Aldea	Em.	Aldea	Gz.	Aldea	Em.	Aldea	Gz.	Aldea
Haurrak	20,2	+1	19,2		19,9	+1,4	18,5		19,0	+1,3	17,7	
Gazteak	14,3	+2,4	11,9		14,0	+1,4	12,6		13,6	+2,7	10,9	
Helduak	12,0	+0,2	11,8		11,9	+0,5	11,4		11,8	+0,6	11,2	
Adinekoak	10,0		11,0	+1	9,2		10,4	+1,2	7,8		8,6	+0,8

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, 2017. Hizkuntzen erabileraren Kale-Neurketa. Euskal Herria, 2016.


Adinekoetan izan ezik, gainontzeko adin tartetan emakumeen erabilera gizonen erabileraren gainetik dago. Hamar urtetan finkatu den egitatea dela esan dezakegu eta, aldeak oso handiak ez badira ere, badirudi zertxobait handitzen ari direla. Gainera, diferentziak askoz argiagoak dira haur eta gazteen artean. Duela hamar urte horretaz ohartarazi zuen Kike Amonarriz-ek “2006ko hizkuntzen kale-erabileraren neurketa: aurreikuspenak eta emaitzak” artikuluan: *emakumeen aldeko aldeak nabarmenak dira haurren, eta batez ere gazteen artean* (Amonarriz 2007).

Adinekoetan izan ezik, gainontzeko adin tartean emakumeen erabilera gizonen erabilerearen gainetik dago.

Generoarekin lotutako datu esanguratsuena adin berekoen arteko elkarrizketetako datuetan topatu dugu.

Bestalde, hamar urtetan adin tarte guztietan euskararen erabilera jai-tsiera eman da, eta, horretan ere, berriro ikusten dugu joera errepikatzen dela: beti jai-tsiera zertxobait handiagoa izaten da gizonen artean emakumeen artean baino.

2. grafikoa. Euskararen erabilerearen bilakaera sexua eta adin-taldean arabera. EUSKAL HERRIA, 2006-2016 (%).



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, 2017. Hizkuntzen erabilerearen Kale-Neurketa. Euskal Herria, 2016.

Baina, beharbada, generoarekin lotutako datu esanguratsuena adin berekoen arteko elkarrizketetako datuetan topatu dugu. Batetik, adinkideen arteko solasaldietan euskararen erabilera jaisten da ia adin guztietan. Salbuespenak emakume gazteen arteko solasaldiak eta adineko gizonen arteko solasaldiak dira. Bestetik, gazteen arteko solasaldietan gertatzen da ezberdintasun txikiena adinkideekin hitz egiterakoan, edo beste adineko norbaitekin mintzatzeko garaian. Pentsatzekoa da datu hauetan haurren presentziaren faktoreak garrantzi handia duela, edo, hobe esanda, haur eta helduen arteko solasaldietan euskaraz egitera bultzatzen duen arau sozialak nabarmen eragiten duela.

2. taula. Euskararen erabileraren bilakaera sexua eta adinaren arabera.

Adin bereko elkarrizketak				Edozein adinekoekin elkarrizketak			
Emak.	Aldea	Gizon.	Aldea	Emak.	Aldea	Gizon.	Aldea
15,5	+ 3,8	11,7		19,0	+1,3	17,7	
14,4	+4,6	9,8		13,6	+2,7	10,9	
8,9	+1,5	7,4		11,8	+0,6	11,2	
6,4		8,9	+2,5	7,8		8,6	+0,8

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, 2017. *Hizkuntzen erabileraren Kale-Neurketa. Euskal Herria, 2016.*

Ziur aski, haurren presentzia euskararen kale-erabileran eragin handiko aldagaia da, eta zenbait adin tarteetan euskararen feminizaziorako joeretan eragina izan dezakeela uste dugu: gurasoen artean osatzen diren praktika-komunitateetan, haur aisialdian garatzen diren hizkuntza-praktiketan, amonen zaintza lanetan... Oraindik orain, euskal gizartearen haurren zaintzaren ardura, nagusiki, emakumeen esku geratzen da. Alde horretatik, esanguratsua da 2016ko Kale-Neurketaren zeharkako datu hau: jasotako haur eta nagusien arteko elkarrizketa guztien %46an emakumezko nagusiak zeuden soilik (ez zegoen gizonezko nagusien artean), %22an gizonezko nagusiak soilik, eta %32an emakumezkoak eta gizonezkoak zeuden.

Baina, ez dugu uste aldagai horrek soilik azaltzen duenik emakume eta gizonen artean topatu diren ezberdintasunak. Badira beste datu eta aldagaiak tentuz aztertu beharrekoak. Esaterako, adin bereko elkarrizketetan emakume eta gizonen arteko aldeak handitzen direla ikustea ere datu esanguratsua dela uste dugu. Berrito ere, haur eta gazte adin taldeetan nabarmentzen da egitate hau: haurtzaroan adinkideen artean nesken %15,5ek euskaraz egiten dute eta mutilen %11,7k; neska gazteen %14,4k eta mutil gazteen %9,8k soilikⁱ.

3. taula. Adin bereko elkarrizketak sexuaren arabera erabileraren taula.

Emakume				Gizon			
2-14.	15-24	25-64	>64	2-14	15-24	25-64	>64
15,5	14,4	8,9	6,4	11,7	9,8	7,4	8,9

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, 2017. *Hizkuntzen erabileraren Kale-Neurketa. Euskal Herria, 2016.*

Haurren presentzia euskararen kale-erabileran eragin handiko aldagaia da, eta zenbait adin tarteetan euskararen feminizazioarako joeretan eragina izan dezakeela uste dugu.

Lurralde eta herrietako datuak

Adin bereko elkarrizketen datuak lurraldeka aztertuz gero, joera bera lurralde guztietan ageri da, baina adierazgarriak iruditu zaizkigu Gipuzkoa eta Ipar Euskal Herriko datuak. Gipuzkoako 2-14 urtekoen artean nesken %44,7k euskaraz egiten du adinkideen artean dagoenean. Mutikoen artean, ordea, %36,3k egiten du. Lurralde horretako gazteen artean, aldea oraindik handiagoa da: nesken %39k eta mutilen 30,2k. Ipar Euskal Herriko haurren datuetan ere diferentzia nabarmena da: nesken %12,3k eta mutilen 4,9k.

Lurraldeetan emandako bilakaeraren datuetan ñabardurak topatu badiugu ere, behin eta berriro aipatzen ari garen joera finkatzen ari da: haur, gazte eta helduen multzoetan emakumezkoek euskaraz gehiago egiten dute eta adinekoen artean gizonetzkoak aritzen dira gehiago euskaraz. Egoera horretara iristeko, ordea, erritmo ezberdinak izan direla esan dezakegu. Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban 2006tikⁱⁱ errepikatzen den egitatea da, baina bestelakoa izan da bilakaera Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian.

Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian 2016an atzeman da emakumezkoek euskara gehiago egitearen portaera lehen aldiz. Nafarroan, parez pare zegoen emakumezkoen eta gizonetzkoen erabilera adin-talde guztietan, baina azken neurketan haur eta gazteetan nesken erabilera handiagoa dela jaso da. Helduen kasuan ez da alderik jaso. Ipar Euskal Herriko haur eta gazteen multzoetan nesken erabilera handiagoa jaso da azken hamarkadan. Helduetan, aldiz, gizonetzkoen erabilera altuagoa zen emakumezkoena baino. Azken neurketan helduen joeran aldaketa nabaritu da, eta lurralde hauetan ere emakumezkoen erabilera handiagoa jaso da adin tarte guztietan, adinekoen multzoan izan ezik.

Herriz herri azterketa egitea zailagoa suertatu zaigu. Orain arte aipatutako joera berresten bada ere, salbuespenak topatu dira. Ondorio orokorrak ateratzeko tentu handiz aztertu beharko lirateke datu hauek, lagina txikiekin osatuak baitaudeⁱⁱⁱ. Hori dela eta, guk hautu bat egin dugu: haur eta gazteen adin tarteetako datuei begiratu diegu. Bi arrazoi ditugu hautu hori egiteko, batetik, sexu aldagaia kontutan hartuta euskararen erabileraren aldeak nabarmenagoak direlako haurren eta, batez ere, gazteen artean. Bestetik, guk azken hiru urteetan egin ditugun hizkuntzaren inguruko ikerketa kualitatiboak haur eta nerabeekin garatu ditugulako.

2016an Kale Neurketa egin zen 47 herritako^{iv} haur eta gazteen erabileraren datuak aztertuta, ondorio orokor hauek atera daitezke:

— Herri gehienetan neskek euskara gehiago erabiltzen dute mutilek baino: 2-14 urteko adin tartean 35 herritan eta 15-24 urteko adin tartean 43 herritan.

— Haurren artean mutilen erabilera handiagoa neurtu den 12 herrietako neska eta mutilen arteko aldeak nekez pasatzen dira 3 puntutik (salbuespenak Oiartzun 9,4ko aldea, Zarautz 4,9ko aldea eta Azpeitia 3ko aldea dira). Gainera, hiru herritan diferentzia 0,6 baino txikiagoa da.

— Gazte adin-taldean mutilen erabilera handiagoa neurtu den 4 herrietan aldeak ez dira 12 puntuetatik pasatzen (Zarautz 11,1ko aldea, Zaldibar 6,3koa, Soraluze 5,1ekoa eta Ermua 4,3koa).

— Gazte adin-taldean nesken erabilera handiagoa ageri diren 43 herrietatik 14 herritan aldeak 11 puntu baino handiagoa da. Horietako 8 herritan 20 puntu baino aldea handiagoa neurtu da (Aretxabaleta, Hernani, Anoeta, Arrasate, Bermeo, Igorre, Aramaio eta Astigarraga)

— Zarautz da herriz herri egindako azterketa honetan herri bakarra non mutilen erabilera datuak altuagoak diren haurtzaroan eta gaztaroan. Gainera, Zarautz da herri bakarra non sexuaren araberako datu orokorretan gizonak gehiago erabiltzen duten euskara (emakumezkoek %48,7 eta gizonetzkoek %52,9) eta haur eta gazteen adin-taldeetan ere portaera hori jasotzen den.

Esan bezala, herriz herriko azterketa sakonago bat egitea komeniko litzateke ondorio argiagoak ateratzeko. Hala ere, argi dago emakumeek euskararen erabilera altuagoa izatea lurralde guztietara eta herri gehienetara zabaldurik dagoen portaera orokorra dela.

1.2 Nerabeen diskurtsoak eta praktikak

Kale Neurketak utzitako datuen laburpena egin ondoren, azken urteotan nerabeekin egin ditugun zenbait ikerketei begiratuko diegu^v. Azterketa horietan jasotako informazioa izaera *makroagoa* (edo orokorragoa) duten bestelako ikerketa soziolinguistikoetako datuak testu-inguratzen laguntzen dutela uste dugu. Zenbait gazteekin egon ondoren euren hizkuntza-praktikak nolakoak diren eta gazte horiek dituzten diskurtsoak zein diren azalduko ditugu hizkuntza eta generoaren gaia argitzeko elementu gehiago mahai gainean jartzeko.

Mutilak mugimenduan, neskek geldirik

Hasteko, Jone Miren Hernándezek 2001eko Kale Neurketari buruzko azterketan zioena berretsi behar dugu “sexuen arteko aldeak ulertzera-

Haur, gazte eta helduen multzoetan emakumezkoek euskaraz gehiago egiten dute eta adinekoen artean gizonetzkoak aritzen dira gehiago euskaraz.

**Zarautz da herriz
herri egindako
azterketa
honetan herri
bakarra non
mutilen erabilera
datuak altuagoak
diren
haurtzaroan eta
gaztaroan.
Gainera, Zarautz
da herri bakarra
non sexuaren
araberako datu
orokorretan
gizonek gehiago
erabiltzen duten
euskara.**

koan, sexu bakoitzari sozialki egokitutako arauak, rola, aurreikuspenak... kontutan hartu behar ditugu" (Hernández 2002, 124). Egin ditugun ikerketetan alderdi hau oso garbi agertzen da. Gure gizartean energia handia erabiltzen da gizon eta emakumeen kategoriaren arabera banaketa garbia egon dadin. Maskulino eta femeninotzat hartzen diren jokabideak eta jarrerak naturalizatzeko prozesuak oso indartsuak dira eta oso bizirik daude.

Neska-mutilek oso argi azaltzen dituzte zein diren gizonei eta emakumei egozten zaizkien ezaugarriak. Mutilen identitatea ekintzarekin eta mugimendurekin lotuta agertzen da. Nesken identitatea, ordea, pasiboagoa da, irudiarekin lotura handiagoa du. Hala azaldu zigun 16 urteko neska batek "Mutilak mugituagoak dira, beti. Gure adinean mutilak dira más "goazen hau egitera!" eta neskak egoten gea geldik". Ekimena eta ekimen-eza batzuk eta besteak dituzten jarrerekin lotuta agertzen da gazteen testigantzetan: "Igual mutilak iniziatiba gehio dute" zion 16 urteko mutil batek jarraian honela osatuz: "Nik ustet mutilak piskat astuagok, brutogo bezela...Ta neskak txintxugo edo handiyo balira bezela". Nerabeen artean behintzat, gizonak indartsu eta oldarkor agertzen dira, emakumeak, aldiz, apal, txintxo, umil agertzen zaizkigu.

Izaera ezaugarri hauek praktikekin oso lotuta daude eta gure ikerketetan jaso ahal izan dugu mutilen aisialdiko praktika garrantzitsuen kirola dela, erdigunean dagoen jarduera nagusia da. Neskek ere kirola egiten dute, baina ez neurri berean, eta euren kontakizunetan argazkigintza, moda, arropa erosketa bezalakoak ageri zaizkigu praktika esanguratsu gisa, hau da, irudiari lotutako jarduerak. Ikerketa hauetan egin ditugun behaketetan mutilen presentzia nabarmentzen da eta espazio handiago okupatzen dute. Gainera, mutilek jarrera oldarkorragoa adierazten dute eta gehiago entzuten zaie. Protagonismoa bereganatzen saiatzen dira eta, gehienetan lortu ere lortu egiten dute. Salbuespenak ere badaude, noski, baina oro har oso agerikoak diren batzuk eta besteak jokatzen dituzten rol ezberdinak horiek.

Hitz egiteko modu ezberdinak

Horrek guztiak, hizkuntza-praktiketan eragina du. Gorputz dinamika ezberdinak horiek derrigor baldintzatzen dutelako hitz egiteko moduak. Behaketetan hainbat ezberdintasun topatu ditugu eta adierazgarrientako bat da mutilen artean elkarrizketa luzeak nekez entzuten direla. Euren arteko komunikazio egoera arruntena esaldi eta, batez ere, esamolde motzez osatutakoak dira: "somos porreros!, los mejores, los putos

amos!” “*Quita, quita que te atropello!*” “*Eh! Tú, joder, déjame!*” “*Jo! Idatzi ondo!...Tú eres tonto!*”. Mutilek beraiek, elkarrizketa luzeak edukitzeko zailtasuna adierazten ziguten. Hona, adibidez, 16 urteko mutil eta neska baten arteko hausnarketa:

- Mutila: *Hor ginen sei mutil bakarrikan ta ahal genun denbora luzeo... . hamar minutu hizketan lasai.*
- Neska: *Kar, kar, kar, kar... Hamar minutu... (parrez). Ez dago gaizki (ironiaz)*
- Mutila: *Atsalde osoa ezingo genuke. Atsalde osoa mutilen artean... (...) astuak gera e bai. Igual neskak hitz egiten dute mutilez xuabego edo, ez dakit. Mutilak ahal degu hitz egin xuabe, baino gaudenen talde handian, hasten da bat berotzen, beste harek txorrada bat esaten ta ordun... Ez da modu berdina.*
- Neska: *Nesken artean arratsalde osoa egoten gara hitz egiten. Beti dago zerbait kontatzeko.*

Ezarritako genero rolaren arabera bakoitzari hitz egiteko modu bat dagokio, eta mutilen solasaldietan esaldi labur eta amaitu gabeak erabiltzen dituzte, mugimenduan dagoen gorputzak garrantzia du komunikazioan, etenak, isiluneak, komunikazio monosilabikoa... Elkarrizketa motzez edo esamolde laburrez osatutako hizkera berezi honek badu eragina hizkuntza aukeraketan. Txantxa giroan, haserretzerakoan edo elkar zirikatzekoan euskaraz egitea kosta egiten zaie, erraz pasatzen dira gaztelaniara:

“Nik igual esaten dut zeozer euskeraz ta geo hitz bat gazteleraz ezta?. Ez dakit ‘Ze ai zea? Kabron!’ edo holako zerbait. (...) Igual ‘burroago’ sonatzen du erderaz” (16 urteko mutila).

Beste muturrean legoke neskei egotzen zaien txutxu-mutxuka aritzearen joera. 13 urteko neska batek hala laburbiltzen zigun beste hainbatetan jaso duguna: “*Neskak gea gehio komunikatzeko ta beaiek dia en plan atea behar diezula dena en plan con sacacorchos, ez dute kontatzen deus. Gu gea kotorras!*”. Behaketetan, hala ere, nesken kasuan, hizketa egoera anitzagoak sumatu ditugu: zenbaitetan, mutilen hizkeraren antzera aritzen dira (esamolde motzez osatutako komunikazio egoerak), besteetan, talde txikietan baina tonu baxu samarrean. Helduekin hizketaldi luzeagoak edukitzeko joera handiago ere neskei sumatu diegu. Aniztasun honen barruan, hala ere, zirikatzeko edo irainez betetako esamoldeen erabilera mutilen artean askoz nabarmenagoa da. Neskek horrelako hizkera erabiltzeko lotsa agertzen dute. Gizarte arauen arabera hizkuntza zu-

Mutilen identitatea ekintzarekin eta mugimendurekin lotuta agertzen da. Nesken identitatea, ordea, pasiboagoa da, irudiarekin lotura handiagoa du.

Ezarritako genero rolaren arabera bakoitzari hitz egiteko modu bat dagokio, eta mutilen solasaldietan esaldi labur eta amaitu gabeak erabiltzen dituzte, mugimenduan dagoen gorputzak garrantzia du komunikazioan, etenak, isiluneak, komunikazio monosilabikoa.

zenarekiko transgresorea den hizkera erabiltzeko (irainak, hitz “itsusiak”...) mutilak legitimatuak sentitzen dira. Nesken artean, aldiz, lotsa agertzen da, hizkera hori ez erabiltzeko nolabaiteko gizarte presioa narbaritzen dutelako.

Hizkuntzen sozializazioa eta genero sozializazioa bat egiten duten tokia

Neska eta mutilen artean hizkera modu ezberdinduak genero bakoitzari ezarritako ezaugarrien rolen arabera dira, eta oso lotuta daude horren ondorioz batzuk eta besteek garatzen dituzten gorputza dinamikekin: mugimendua edo geldotasuna. 16 urteko mutil batek hala zion: “*tipiko mutilak jota edo bazilatzen edo korrika, ta neskak bankuan exeita hitz egiten*”. Horrek guztiak, noski, euskara edo gaztelaniaren erabileran ondorioak ditu eta nerabeen artean jaso ditugun iritziak bat datoz Kale-Neurketetan bildutako datuekin “*Generalian neskak dira euskeraz eiten dutenak. O sea, zuk ikusten bazu txikien kuadrillak, nik ikusi detenagatik gehienbat neskak eiten dute euskeraz*”(16 urteko mutila). Zailago egiten zaie, ordea, horren arrazoiak azaltzea, eta gauza berari gertatzen zaigu guri. Batetik, esku artean azterketa nahikorik ez dugulako, eta, bestetik, gizarte prozesu guztietan gertatzen den bezala, hainbat faktorek eragiten dutelako. Aurrera begira oinarri batzuk jartzeko asmoz, aztertu daitezkeen zenbait alderdi mahai gainean jarriko ditugu gure ikerketetan eta Euskal Herrian zein gure testuingurutik kanpo egin diren beste hainbatetan oinarrituta.

2. HIZKUNTZA GENEROAZ ERE MINTZATZEN DA

I

2.1 Hizkuntza, boterea eta prestigioa

Euskararen gainean generoaz gogoetatu den gutxia kontuan harturik, esan dezakegu gehienetan sexuen arteko jarreretan eta erabileran topatutako aldeak azaltzeko prestigioaren teoriak erabili direla. Sexu aldagaiari arreta eskaini dioten lan gutxik emakumezkoen hizkuntz joeren aldakortasuna nabarmendu dute. Badirudi, hizkuntza ukipeneko egoeretan, emakumezkoen jokaerak hizkuntzak duen prestigioarekin lotuagoak daudela gizonezkoen kasuan baino. Amonarriek (2007) azaltzen duenez euskararen inguruan –normalizazio prozesua dela eta emandako urratsak eragin zuzenagoa izan dute hiriko emakume gazteengan gizon gazteengan baino. Hori dela eta, *euskararen erabilpenaren feminizazioa* sumatzen dela dio egileak.

Emakumeen hizkuntz jokaeraz ere, ohartu ziren Jose M^a Sánchez Carrión, *Txepetx* (1981) eta Xabier Erize (1997) Nafarroako baserri ingurunea

ikertu zutenean. Bi egileek, sexuaren aldagaiarekin batera, bestelako aldagaien garrantzia azaleratu zuten, eta emakumezkoen hizkuntz erabilerak prestigioarekin duen lotura estua planteatu zuten. Ideia hauek lotura zuzena izango lukete emakumeek gizartearen ispilu gisa jarduteko duten joerarekin, alegia, gizartean modan dauden jokabideak koptatzeko eta erreproduzitzeko duten joerarekin. Honi beste fenomeno bat gehitu behar zaio: antza denez, azken urteotan euskarak arlo publikoan (hezkuntza bezalako erakunde publiko nagusien eskutik) izandako garapena hobeto egokitu zaiela emakumeen gizarte eginkizunei eta bere ohizko lan esparruei, gizonezkoenei baino (industria eremuan nagusi). Beste hitzetan esanda, euskarak gehien eta hobekien zabaldu den tokietan emakumeen presentzia topatu du eta horrek aipatutako euskararen feminizazioan eragin zuzena izango luke.

Beraz, gizartean zabaldutako joera edota modaren (eta oinarrian, prestigioaren) baitan agertzen dira emakumeak. Baina kontuan hartu behar da egoera honek batzuetan gazteleraren alde egiten duela eta, beste batzuetan, euskararen alde. Horregatik joera orokor honen gainean, nabardurak egin beharko lirake. Batetik, tokian tokikoaren errealitateari buruz irakurketa egin behar da, euskararen egoera ez baita berdina tesuinguru soziolinguistiko eta sozial guztietan eta, askotan, herri batean agertutako joerak ez du zerikusirik ondoko herrian ikusitakoarekin. Ezin dugu ahaztu genero sistema (genero harremanak agintzen duena) une eta toki jakinetan gauzatzen dela, bakoitzaren errealiterata egokituz eta, ondorioz, aurpegi ezberdinak erakutsiz. Kramer-ek dioen moduan (2016: 68): *when it comes to language change, women are sometimes the engines for innovation and sometimes the conservative force resisting change.*

Euskal Herriko soziolinguistika arloko lehen lanak garatzen ziren bitartean, Estatu Batuetan generoan oinarritutako hizkuntza-azterketa sendoak garatzen hasi ziren. New Yorken William Labov-ek egindako ikerketa hasierako erreferentziazko lana da. Lan horren arabera, sexua ezinbesteko aldagaia zen ikuspuntu eta azalpen soziolinguistikoa garatzeko orduan eta jasotako datuek generoaren arabera jokoera ezberdinak azaleratzen lagundu zuten. Teoria feministak garatzearekin batera, hainbat proposamen jorratu ziren emakumeen eta gizonen arteko hizkuntza-ezberdintasunak genero sisteman oinarrituta zeudela adarrikatuz: Robin Lakkoff, Barrie Thorn, Nancy Henley... (Hernandez 2004).

1980. hamarkadan Eckerter-ek hiztunen hizkuntzen erabileraren nolakotasuna abiapuntutzat hartuta, erabilera horretan generoak eta hizkuntza-komunitatearen egituraketak duen protagonismoari erreparatu

**Beste muturrean
legoke neskei
egozten zaien
txutxu-mutxuka
aritzearen joera.**

Neska eta mutilen artean hizkera modu ezberdinak genero bakoitzari ezarritako ezaugarrien rolen arabera dira, eta oso lotuta daude horren ondorioz batzuk eta besteek garatzen dituzten gorputza dinamikekin.

zior (Hernandez 2005:49). Generoa erdigunean jarrita, “Gender roles and ideologies create different ways for men and women to experience life, culture and society” (Eckert 1989:247), hizkuntzaren praktika sozialean aldagai horrek duen eragina aztertu zuen, soziolinguistikan adina eta klase aldagaiekin egiten ziren azterketekin konparatuz eta osatuz. Abiapuntu horretatik, Eckerten ustez gizonezkoak eta emakumezkoak azpitalde soziolinguistiko ezberdinetan hazten direnez, hizkuntza erabilera eredu ezberdinak garatzen dituzte.

Luis Alberto “Amatiño” Aranberri-k, 2004 urtean argitaratutako testu batean, eta Joxe Azurmendi-ren 1964an esandako hitzak aintzat harturik, emakumeari ispilu-zaletasuna *sortze beretik* zetorkiola zioen. Horren ondorioz, emakumeak gizonezkoak baino errazago islatuko zituela gizar-tean indarrean dauden baloreak ondorioztatzen zuen Aranberrik, neskek garaiko termometroa bilakatu.

Gurean zein kanpoan sarritan erabilitako argudioa dugu hau. Eta ikerlariok, gehienetan, hau baieztatza edo deuseztatza mugatu gara. Aldiz, arreta gutxi jarri dugu dinamika honetan azaleratzen den beste fenomeno batean: emakumeak dira gehienetan mugitu, aldatu, mudatza prest agertzen direnak. Hau, gure ustez, detaile inportantea litza-teke. Izan ere egoera horretan topatu dezakegu “prestigioaren” teoria hauek funtsean ezkututzen dutena: boterearen banaketa desorekatua, hau da -Penelope Eckerten hitzetan-, botere eza.

Horrela, Eckertek dioenez (1996), gizonezkoen eta emakumezkoen erabilera dagoen aldea azaltzeko garaian, prestigioaren inguruko teoriak arrakasta handia izan badute ere, ezer gutxi frogatzen dute. Emakumezkoen kasuan hizkuntza erabilerak prestijioarekiko duen lotura hori ulertzeko, jarrera horren arrazoien muinera jo behar dugu, hau da, emakumezkoek boterea ez izatearengana. Eckert-en hitzetan:

When social scientists say that women are more status conscious than men, and when sociolinguists pick up in explaining sex differences in speech, they are stumbling on the fact that, deprived of power, women must satisfy themselves with status. It would be more appropriate to say that women are more status bound than men (Eckert 1996: 126)

Emakumeek euren egoera soziala hobetzea bilatzen dute eta hartzen dituzten erabakietan zein aurrera eramaten dituzten jarduna edo praktiketan asmo hori ikus daiteke. Asmo horrek ez du zertan lotura eduki behar hizkuntza jakin batetik jarraitarekin (esate baterako, hizkuntza jakin bat baztertu nahiarekin), baina argi dago horrekin lotutako eraba-

kiak eta praktikek ondorio jakin bat eduki dezaketela hizkuntza horretan. Hau da, emakumeek, bere egoera soziala hobetu nahian praktika batzuk garatu ditzakete eta horiek hizkuntzan eragina zuzena eduki dezakete. Migrazioaren alde egitea horren adibidea izan daiteke: helburua ez da kultura edo hizkuntza bat baztertea, egoera sozio-ekonomikoa (edo bizimodua) hobetzea baizik. Baina, argi dago, migratzeak eragin zuzena izan dezakeela kultura eta hizkuntza batean, hiztunak galtzen direlako edota hiztun horien profila –epe ertain edo luze batera begira- aldatzen delako (adibidez, elebakarra izatetik elebiduna izatera).

Artikulu honen ikerketa eremura ekarrita, eta berriz ere arreta gazte-
txoengan jarrita, ikusiko dugu hauek ere, euren moduan eta euren hitzekin, prestigioaz ere hitz egiten digutela. Neska nerabe batek (16 urtekoa) hala laburbiltzen zuen mutilen gaztelaniarekiko joera: “*Mutilek gaztelaniaz gehiago egiten dute guayago direlako*”. Hizkuntza batean edo bestean aritzeak irudi eta estatus bat ematen dizu, eta, hortaz, prestigioarena oso kontuan hartzeko aldagaia da. Gazteek oso argi identifikatzen dute euskara edo gaztelania erabiltzeak estatus kontua ere badela, gehienetan bi aldagai hauekin lotuz: guay izatea eta handia (nagusia edo heldua) izatea.

Eckerti jarraituz, esan beharko genuke gizonezkoek eta emakumezkoek bere ingurune hurbilari lotzen diotela prestigioa edo estatusa gehienetan: *ingurune hurbil horretan uztartua egotea eta onartua izatea bilatzen dute. Pertsona baten ingurunea komunitate ezberdinez osatuta dagoela dio Eckertek, eta horien partaide izatea izango du helburu* (Hernandez 2005:51). Beraz, prestigioaren aldagaia maila orokorrean (migrazio edo mugikortasunaren inguruko ikerketak kasu) zein mugatuan hartu daiteke. Guk bigarren horren alde egin dugu hautua eta, ondorioen atalean aipatuko dugun moduan, bertan praktika-komunitate nozioari protagonismoa eman diogu. Modu honetan prestigioa zerbait moldakorra, aldakorra eta dinamikoa agertzen zaigu, Euskal Herriko gune batetik bestera eta une historiko batetik bestera aldatu daitekeena.

“Nola txertatu genero ikuspegia hizkuntza-politikan” artikuluan iradokitzen da, gaur egun, hizkuntzen irudien inguruan generoaren araberako ezberdintasunak egon daitezkeela: *litekeena da emakumeek eta gizonezkoek euskara balio eta irudi ezberdinekin lotzea eta horrek hizkuntza erabiltzeko nahian eragitea*” (Oruesagasti eta beste 2014: 77). Hau sakonago aztertzea oso interesgarria litzateke, besteak beste euskarak (eta euskararen gaineko ikerlanek) soziolinguistika kritikoari (Morales-López 2011) atea irekiko liokeelako, hizkuntza erabilerak talde sozialen artean

**Gizartean
zabaldutako
joera edota
modaren (eta
oinarrian,
prestigioaren)
baitan agertzen
dira emakumeak.**

Gazteek oso argi identifikatzen dute euskara edo gaztelania erabiltzeak estatus kontua ere badela, gehienetan bi aldagai hauekin lotuz: guay izatea eta handia (nagusia edo heldua) izatea.

ematen diren desberdinkeriaren produkzioan, erreprodukzioan zein aldatetetan duen eragina eta parte hartzea agerian utziz.

2.2 Hezkuntza, hizkuntza eta eskola arauak

Aurretik azpimarratu den moduan, euskal soziolinguistikan generoaren gainean egindako hausnarketak oso urriak izan dira eta, nagusiki, gizartean gertatutako hizkuntzen aldaketekin egon dira nagusiki lotuta. Hau dena, elebitasunak eta, batez ere, diglosiak bi hizkuntzen artean (euskara-erdara) sortzen duten tentsioaren barruan. Batzuetan *heroia* moduan, beste batzuetan *traidore* moduan, emakumeak euskararen gora beheren baitan agertu dira, baina praktikan hizkuntzaren norabidean agentzia edo protagonismo gutxi eman zaie. Hau bereziki deigarria gertatzen da emakumeek euskararentzat funtsezkoa izan den eremu batean jokaturako paperean erreparatzen badugu: eskola edo hezkuntza formalaren eremuan, hain zuzen ere.

Jakina denez, azken hamarkadetan, hainbat eta hainbat hiztun (ume eta gazte bereziki) eskolaren bidez euskaldundu dira. Onartuta dagoenez, horiek dira egun euskararen sostengu nagusienetariko bat. Eskola, ezinbesteko eragilea dugu euskararen biziberritze prozesuan. Hezkuntzan jarri da bereziki (ez bakarrik) arreta eta hezkuntzan inbertitu dira baliabide eta energia gehienak. Horrek bere emaitzak eman ditu eta horietako asko neurtuak eta aztertuak izan dira jada.

Hezkuntza eta eskola, eremu bereziki aberatsa eta konplexua da ikerlari baten ikuspegitik, hainbat eta hainbat irakurketa egiteko parada ematen duena. Batetik, irakaskuntza edota ikaskuntzari lotutako prozesuak egongo lirake. Bestetik, eskola elementu subjektibo eta ideologikoz blai eginda dago. Kasu batean zein bestean, generoa funtsezko aldagaia da, besteak beste, eskola genero sistema erreproduzitzeko, indartzeko eta sendotzeko funtsezko tresna delako. Gainera, aldi berean, eskola – antolaketan, kudeaketan, diseinuan- genero sistemak zeharkatzen du goitik behera. Euskal eskola ez da salbuespen bat. Hau horrela izanda ere, euskal soziolinguistikak eskola eremua, zein eremu horretan gertatutako hizkuntza ereduak (A, B eta D ereduak, 1983an ezarriak) aztertu izan dituenan ez du generoaren aldagai aintzat hartu. Era honetan, eskolaren errealitatea eta dinamika agitzen duen dimentsio nagusienetariko bati muzin egin zaio eta egiten zaio.

Emakumeek (andereño) irakasle gisa historikoki izan duten papera, eskola esparru elebarkar gisa ezartzen dituen arauak (zein hizkuntza ideologia) eta hizkuntzen ikaskuntza prozesuan generoak jokatzen duen

papera dira egun jada mahai gainean dauden hainbat auzi.

Euskal nazionalismo tradizionala lehenago garatzen hasi bazen ere, bere “hizkuntza politika” XX. mendearen hastapenetan hasi zelakoan gaude, orduan ekin bai zitzaion nolabaiteko esku-hartze egituratuari euskararen garapenean eragiteko. Bertan emakumeen papera funtsezkotzat jotzen zen. Are gehiago, esan daiteke lehenengo hizkuntza politika euskara emakumeen eskuetan uztea izan zela. Orokorrean esan daiteke, barrura begirako politika izan zela, helburu nagusia etxean eragitea izan baitzen. Hizkuntzaren biziraupena transmisioari oso lotuta zegoela uste zen eta, eginkizun honetan familia kide berrien lehen sozializazioak lehentasuna zuen. Laburbilduz: euskararen erabilpena etxean eta familian ziurtatu behar zen eta emakumeak (amak) ziren horren arduradun nagusiak, euren eskuetan baitzegoen familiaren zaintza eta familia nazionalista baten bete beharreko nagusiak: arraza, ohiturak, erlijioa eta hizkuntzaren babesa eta garapena ziurtatzea.

Garaiko amek bazuten - nazionalismoak aginduta- zeregin zehatz bat: amaren figurak bildu ditzakeen ertz, eginkizun zein ardurak guztiak eureganatzea eta betetzea. Eginkizun honetan ama biologikoak zein sozialak zuten tokia. Horrela umeak etxean zituen emakumeak euren euskara erakustea eta euskaraz heztea zituen helburu. Baina eginkizun bera zuten eskolako maistrak, andereñoek. Izan ere, (hizkuntza) politika horren ondorioa izan ziren lehenengo “ikastolak” edo euskal eskolak (1920. eta 1930. hamarkadetan sortuak). Bertan, Elvira Zipitria bezalako andereñoak, baserriko sukaldeko mahaia eredu hartuta, eskolak ematen hasi ziren, gerra ondorengo egoera zailenean (Fernández 1994).

Transmisioari loturiko eginkizun horretan zegoen berekizi kokatuta emakumeen hitza. Hazkuntza eta hezkuntzari loturiko hitza da (hez-kuntza formala –eskolan- zein informala – familia gunean); hitz zorrotza zein leuna tartekatuz. Tarteka hitz ludikoa da, jolas zein kantuari loturikoa. Baina orokorrean barrura begira zeuden hitzak ziren (Del Valle 1995), hitz etxekotuak.

Orain dela urte batzuk Bilboko ikastetxe batean burututako ikerketan (Hernández 2005) ikasgelan mutilen eta nesken arteko banaketa nabaria ikusteko aukera izan genuen. Neskek euren buruak arduratsua gotzat jotzen zituzten. Oro har, ikasle onak ziren eta hizkuntzarekiko kezkatuagoak agertzen ziren. Mutilekin konparatuta gehiagotan aritzen ziren euskaraz. Nesken ikuspuntutik mutilak alferragoak ziren, ikasle okerragoak eta hizkuntzari buruz batere kezkatzen ez zirenak. “Mutilek ez

Litekeena da emakumeek eta gizonezkoek euskara balio eta irudi ezberdinekin lotzea eta horrek hizkuntza erabiltzeko nahian eragitea” (Oruesagasti eta beste 2014: 77).

**Generoa
funtsezko
aldagaia da,
eskola genero
sistema
erreproduzitzeko,
indartzeko eta
sendotzeko
tresna delako.**

dute euskaraz hitz egiten, euskaragatik ez direlako kezkatzen, ez zaie euskara inporta” azpimarratzen zuten ikastetxe horretako zenbait neskek (13 urte).

Mutilek, euren aldetik, beraiek ia ez zutela euskara erabiltzen aitortzen zuten. Bitartean, neskek ia beti euskaraz aritzen zirela zioten. Gainera, mutilen ustez, neskek denbora gehiena ikasten eta lanean ematen zuten, bai ikasgelan, bai handik kanpo (klase partikularretan...). Baina gauza guztien gainera, mutil horiek (13 urte) kexa bat zuten ikaskide neska horiekiko: “Beti euskaraz hitz egiteko esaten ari zaizkigu, zergaitik ez gaituzte pakean uzten?”.

Ikerketa horretako lekuan lekuko lana irauin zuen bitartean ikasle gazteen artean oso normala zen mutilen eta nesken artean eztabaidan aritzea hizkuntza kontuak zirela eta. Neskek ahal zuten guztietan hauxe ohiukatzen zuten: “Euskaraz egin!”. Erraza zen oihu edo aldarrikapen horren atzean eskolak bultzatutako hizkuntza ideologia topatzea. Izan ere, gazteen kasuan, eskola da hizkuntza ideologiari dagokionez eragile nagusia: ez hainbeste eskolaren mezua onartu eta barneratu egiten dutelako, eskolaren mezua modu argi batean identifikatuta dutelako.

Publikoki, eskolak eremu euskaldun bat ordezkatzeko du, eta eskolan proiektio publikoa duten figurek (jende aurrean ari direnak), -irakasleak nagusiki- gehienbat euskaraz egiten dute. Hau garrantzitsua da ume eta gazteen hizkuntza sozializazio prozesuan, eskola barruan hizkuntzaren bidez (euskararen bidez kasu honetan) umeak eta gazteak sozializatuak izateaz gain, hizkuntzan (edota hizkuntzaren erabilpenean, sinismenetan, hizkuntzari lotutako arau sozialetan...) sozializatuak izaten baitira. Ideia hau argiki azaltzen du Paula Kasaresek :

Hizkuntza sozializazioak bi dimentsio nagusi aztertzen ditu, haurrak nola diren sozializatuak hizkuntzaren erabileraren bidez eta nola diren sozializatuak hizkuntza erabiltzeko (...). Paradigma horretan hizkuntza sozializazioa prozesu dinamikoa, elkareragilea, bizitza osoan dirauena eta inguruneari lotua da (Kasares 2015:16).

Euskal Herrian espazio elebakar (ia) bakarra da eskola eta eguneroko borroka eta eginkizuna da “euskaraz egiteko” mezua zabaltzea eta beartzea. Gaur egun zaila da arau hori betetzen duen gunerik topatzea, baina orokorrean horren defendatzaileen artean neska nagusi direla baieztatu dezakegu – hizkuntzaren auziaz aparte- neskek eskola eta hezkuntza sistemaren defendatzaile arduratsuagoak direlako. Eta egun hezkuntzan, eskolan, euskaraz hitz egitea da araua. Horrela, nesken

kasuan, araua defendatzea eta betetzea baldin bada bere zeregina, mutilen kasuan mutil gisa jokatzeko araua apurtzea dakar, arau transgresio horretan oinarritu eta sendotzen baitu bere maskulinitatea, bere genero identitatea.

Sozializazio prozesuaren bidez bi subjektu mota sortzen dira (neskak eta mutilak) eta eredu horren arabera emakumezkoek atxikimendu handiagoa erakusten dute hezkuntza eta arauetarako, eta horretarako sozializatuak dira, sistema indartzeko; gizonezkoak, aldiz, arauen kontra joan ohi dira, eta apurtzailea izatea beraien identitatea sortzeko edo gartzeko elementu bat da. Honako hau, prestigioarekin zuzenean lotuta dagoen elementu da. Batez ere, gizarte mailan “sexu bakoitzetik” espero den jokabideari lotuta. Ideia hau, 16 urteko gazte batek esandako esaldi honekin laburbildu daiteke: *“Mutilek brutogo hitz egiten dute ta neskek txintxugo edo handiyo balira bezela”*.

Hau dena kontuan harturik, gure ustez beharrezkoa da ohartaraztea, adin honetako gaztetxoaren artean hizkuntza-arauen kontra jotzea, era berean gizarte-arauen alde joatea ere badela. Izan ere, euskaraz egitearen agindua, batez ere, eskolaren bidez bideratzen den haur eta nerabeentzako ezarritako araua da. Baina, helduen gizarte egituretan eta praktikan gaztelania da nagusi. Beraz, nerabeen artean gaztelania erabiltzea sistema formala sinbolizatzen duten erakundeek (eskola, batez ere, baina baita familia zenbait kasuetan) aurka agertzeko modu bat da, baina gizartean oso agerikoa den hizkuntza arauetara egiteko modua ere bada. Euren adinekoei ezarritako arauaren transgresioaren bidez, mutilak boterea duten helduen mundura prozesua azkarrago egingo lukete, besteak beste, estatus hori lortzeko ere sozializazio prozesuak abantaila gehiago ematen dizkielako. Neskek, aldiz, araua betetzeko agindua sendoago dutenez mantsoago emango lukete urratsa, eta gainera, presio handiagoz biziko lukete.

Baina hizkuntza jarreraz, arauaz eta ideologiaz gain, zer dakigu euskararen ikaskuntzaren inguruan generoari dagokionez?

Beste hizkuntzekin gertatzen den moduan, euskararen ikaskuntzaren gainean ere aurreiritzi aunitz topatu daitezke. Askotan, esate baterako, neskek hizketan lehenago ikasten dutela eta gehiago hitz egiten dutela entzungo dugu. Hau horrela al da gurean?

Aztertutako euskararen ezagutzaren gainean neskek eta mutilek utzitako datuak. ISEI/IVEI Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko erakundeak neurtzen ditu euskal haur eta gaztetxoaren kompetentziak eta

Transmisioari loturiko eginkizun horretan zegoen bereziki kokatuta emakumeen hitza. Hazkuntza eta hezkuntzari loturiko hitza da (hezkuntza formala -eskolan- zein informala - familia gunean);

Eskola da hizkuntza ideologiari dagokionez eragile nagusia: ez hainbeste eskolaren mezua onartu eta barneratu egiten dutelako, eskolaren mezua modu argi batean identifikatuta dutelako.

Sozializazio prozesuaren bidez bi subjektu mota sortzen dira (neskak eta mutilak) eta eredu horren arabera emakumezkoek atxikimendu handiagoa erakusten dute hezkuntza eta arauetik, eta horretarako sozializatuak dira, sistema indartzeko; gizona eta, aldiz, arauen kontra joan ohi dira, eta apurtzailea izatea beraien identitatea sortzeko edo garatzeko.

hor hainbat datu interesgarri agertzen dira. Aldiro aldi oro egiten diren neurketetan Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek (9-10 urte) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasleek (12-13 urte) parte hartu ohi dute. Emaitzetan erreparatuta, ikusiko dugu bi kasuetan euskarazko hizkuntza-komunikazioarekin lotutako kompetentzietan alde nabarmenak daudela neska eta mutilen artean. ISEI/IVEI-k argitaratutako txostenetan irakur daitekeen moduan, neskek eta mutilek hizkuntzekin loturiko kompetentzietan agertzen diren aldeak estatistikoki adierazgarriak dira. 2015eko datuek erakusten dutenaren arabera, LH4ko^{vi} mailan 7 puntuko aldea dago neska eta mutilen artean euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren kasuan (nesken alde), eta 5 puntu ingelesezko kasuan. DBHko 2.^{vii} mailan erreparatuta bi sexuen arteko tartea handiagoa dela ikus daiteke: 13 puntu euskararen kasuan, 12 ingelesezko hizkuntza-komunikazioa eta 5 puntu gaztelerazkoan. Datu hauen aurrean bi gogoeta otu zaizkigu. Batetik, jasotako alde hauek kontuan hartzekoak direla iruditzen zaigu, kompetentzia erabilerarekin lotura zuzena dagoela dakigulako jada (Soziolinguistika Klusterra, Topagunea eta Urtxintxa 2011). Bestetik, orain arte datu hauen gainean gogoeta falta nabarmendu nahiko genuke, neskek beste materia batzuen inguruan azaltzen dituzten ahuleziak (matematikaren inguruan esate baterako), sarritan hizpide badira ere, mutilek hizkuntza-kompetentzietan agertutako maila ez dirudi bereziki kezka-gai denik.

Era horretan, erabileraz hitz egiteko garaian ez ezik, ezagutza edota kompetentziak aipatzean ere ez da normalean genero ikuspeirik lantzen, nesken ohiko aldakortasuna nabarmentzeko ez bada ere.

2.3 Hizkuntzaren gaineko rol banaketa

Antropologiaren ikuspuntutik hizkuntza kulturaren parte bat da, beti ere zentzu aktibo batean, hau da, hizkuntza kultura egiteko eta eraikitzeko tresna bezala irudikatzen du antropologiak, bereziki honen azpiatala den hizkuntz antropologiak (Duranti 2000). Ikuspegi horretatik antropologoek bi modutan aztertu izan dituzte herri eta gizarte ezberdinetako hizkuntzak. Batetik, antolaketa sozial zabal baten pieza, ikur edota adierazle gisa; bestetik, gizakiok gure errealitatean eragiteko dugu bitarteko eta estrategia bezala. Horrela, hizkuntz antropologian kokaturik, zeregin komunikatiboaz aparte, hizkuntza isla (erakusgarri) eta praktika kultural gisa agertzen zaigu, mezua eta gramatikaz gain, non, nola, noiz eta zeinek esaten duenak ere garrantzia bereganatuz. Agerikoa denez, kasu hauetan hizkuntzak eta hitzaren testuinguruak^{viii} protagonismoa bereganatzen dute ere^{ix}. Guzti hau kontuan harturik bat

egiten dugu Pierre Clastres-ekin hizkuntzaren gaineko lan-banaketa ere hitz egin daitekeela (Clastres in Orobítg 2015: 125) aipatzen duenean. Ulertzen dugun moduan, gizarteak hizkuntza-lan banaketa ezartzen du eta gizarte horretako hiztunak, hizkuntza-lan hori burutzen duten neurrian, pertsona zein arlo ezberdinen arteko harremanak antolatzen eta kudeatzeko ezinbesteko bilakatzen dira.

Gizarteak zein testuinguru kulturalak ezarritako hizkuntza-lana ezartzeko ohiko estrategia erabili izan du: esentzialismoa. Horregatik, sarritan gizon eta emakume edo neska eta mutilen arteko ezberdintasunak (zein parekotasun ezak) azaltzeko, argudio biologiko eta psikologikoak nagusitu dira. Gurean ere horrelako argumentuak erabili dira, generoaren auzia agertu izan denean. Jose Maria Sánchez Carrión, *Txepetx*-ek, zalantzarik gabe euskal soziolinguistikan egondako erreferente nagusienetarikoa bat, horien alde egin zuen euskararen inguruan ikertzen hasi zenean (Sánchez Carrión, 1981).

Rol banaketa horren eraginez, emakumeek eta gizonezkoek euskararekiko duten ardura eta zeregina ezberdinak izango dira, gizarte iruditegian profil (ia) antagonikoak osatuz. Emakumeena hizkuntza da, ama-hizkuntza (Skutnabb-Kangas eta Phillipson, 1989) eta gizonezkoena, hitza.

Tradizioz, gizonezkoak euskal kulturaren hitza ordezkatu du. Are gehiago, gizona hitzaren bitartez ezaugarritu izan dela ere esan daiteke. Hitza eta gizona. Bien arteko lotura erabatekoa izan da. Horretaz ohartarazi zigun Joseba Zulaika antropologoak (1988). Bere iritziz, gurean hitzak duen garrantzia azpimarragarria litzateke, batez ere, gizonaren nozioa zehazteko garaian (1988: 239). Protagonismo horren erakusle dugu Zulaikak tarte luzea eskaini izana hitzaren ideologiaren azterketari.

Antropologo horren iritziz, euskal kulturaren hitza ez da bakarrik bitarteko bat, hitza mezua bera da. Hauxe bera pertsonari aplikatu behar zaio: *horrela, baserriko kulturaren baitan, pertsona ideala guztiz lotuta dago emandako hitzaren ideologiarekin* (Zulaika 1988: 262).

Aurretik azaldu den moduan, nazionalismo tradizioaletatik, ikastolen sorrera eta garapena finkatu arte emakumeek izan zuten nagusiki hizkuntzaren ardura. Egunerokotasunean gauzatzen ziren praktika txikiez ari gara, hizkuntza errutina soilez. Horiek emakumeen eskuetan zeuden eta eurei egokitutako jarduera patriotikoen barruan zeuden kokatuta (hezkuntza, osasuna eta ongizatearekin batera). Gizonezkoen eremua, aldiz, ekintza politikoena zen, eremu publikoan eta botere guneetan garatzen zen larriz idatzitako politika.

Lehen
Hezkuntzako
4. mailako
ikasleen (9-10
urte) eta
Derrigorrezko
Bigarren
Hezkuntzako
2. mailako
ikasleen (12-13
urte) euskarazko
hizkuntza-
komunikazio-
arekin lotutako
kompetentzietan
alde nabarmenak
daude neska eta
mutilen artean.

**Gizarteak zein
testuinguru
kulturalak
ezarritako
hizkuntza-lana
estaltzeko ohiko
estrategia erabili
izan du:
esentzialismoa.
Horregatik,
sarritan gizon
eta emakume edo
neska eta
mutilen arteko
ezberdintasunak
(zein
parekotasun
ezak) azaltzeko,
argudio biologiko
eta psikologikoak
nagusitu dira.**

Sabino Aranak sorturiko alderdiaren sorreran euskal identitatean “erlijioak” (Jainkoa) eta “lege zaharra” (Foruak) elementu nagusiak ziren. 1960 hamarkadan aldiz hizkuntzak identitatearen erdigunea bereganatu zuen, euskara euskal identitaterako ezinbesteko aldagai bilakatuz. Hizkuntza erdigunean jartzeak bestelako moldaketak ekarri zituen, besteak beste, hezkuntza eremuan. Idoia Fernández-ek (1994) ezin hobeto azaltzen du garai horretan eskola arloan biziutakoa. Ordura arte hezkuntzak zuen izaera, dinamika, protagonistak eta, neurri batean, helburuak berrikusi ziren.

Aldaketa asko eman baziren ere, Fernándezek bat azpimarratzen du bereziki: gizonezkoak ikastoletan txertatzen hasten dira nabarmenki, euren parte hartzea igoz. Hau bi modutan gertatzen da bereziki: guraso bezala eta irakasle bezala. Lehenengoari dagokionez esan behar da gertaera hori fenomeno zabalago batekin lotzen duela Fernándezek. Hain zuzen ere, hezkuntza mundu mailan jasaten ari zen aldaketak aztertzean (beste batzuen artean) ondorengo nabarmentzen du (Fernández 1994:157):

Eraldaketa hau errotikoa dela uste dugu, eta, gizarte tradizionaletik modernura, heziketa funtzio maternalaren luzapen soil batetatik funtzio sozio ekonomikoa betetzera, nola igarotzen den ulertzeko balio digulakoan gaude.

Euskarak 1982tik aurrera aro berri bati ematen diola hasiera esan dezakegu, orduan jartzen baita indarrean Euskararen legea. Ofizialtasuna aitortzen zaio 40 urtetan debekatuta eta zigortuta egon den hizkuntzari, eta egoera horrek sortutakoari buelta emateko, hainbat tresna (juridiko, sozial, ekonomikoa eta politikoak) hasten dira aplikatzen. Horri euskararen normalizazioa edota biziberritze prozesua deitu zaio. Testuinguru horretan, eta legea ezarri zenetik, hizkuntza bi eremu nagusietan murgildu dela esan dezakegu: batetik, hizkuntza politikan eta plangintzan; bestetik, diskurtsoetan (iritzi publikoak: pertzepzioak eta irudikapenak), hauek nagusiki identitatearekin lotu direlarik.

Hizkuntzaren eremua indartuz joan da azken hamarkadetan, praktikan, diskurtso zein agerpen mailan, baina horren barruan, berriz ere, lan banaketa gertatu dela esan daiteke –jada aurretik emandako bereizketa bat berretsiz-: hizkuntzarekin lotutako ekintza soziala batetik, eta ekintza politikoa bestetik. Lehenengo arloa emakumeen eskuetan geratuko da (andereñoak, begiraleak, herri dinamizatzaileak...) eta bigarrena gizonezkoen eskuetan. Euskararen aro berrian gizonezkoek nagusiki hartu dute hizkuntza politikaren ardura arlo ezberdinetan (hizkuntza plangintzan, kultur plangintzan, hezkuntza arloan, orokorrean politika arloan), (hizkuntza) ekintzaile publiko bilakatuz.

Emakumeek bi-hiru ardura nagusi mantendu dituzte euskararekiko, gehienbat amaren figurarekin lotura zuzenenak zituztenak: hezkuntza, zaintza eta gertuko harremanen zaintzailea. Kasu guztietan afektuei oso lotuta dauden zereginak dira. Emakumeek ez dute euskal identitatea ordezkatu; emakumeak euskal identitate hori elikatzen saiatu dira. Horretaz gain euren euskalduntasuna demostratu izan behar dute, euskaraz hitz egiten, euskara ikasten... Azken urtetan ere, biziberritze prozesuan euskara behar izan diren lanbideetan emakumeen presentzia handiago izan da, eta –aurretik aipatu den moduan– emakumezkoek bete ohi dituzten lanbideetan euskararen eskaera eta erabilera handiago da (Amo-narriz, 1995). Esan daiteke, beraz, transmisioa emakumeen gain egoten jarraitzen duela (Oruesagasti eta beste 2014:82).

Hau oso argi ikusten da eskola esparruan. Haur eta Lehen Hezkuntza irakasleen artean emakumeen presentzia nagusia da, eta adin tarte horietan ere euskararen presentzia eskoletan askoz nabarmenagoa da beste gizarte edozein esparruan baino. Horrek ekarriko luke neskak errazago identifikatzea rol hori betetzen duten emakumeekin. Zaintza feminitatearekin lotzen denean, beraz, euskararekin ere oso lotuta agertzen da, eta beraz, euskara zaintzaren ardura maila handiago batean geratzen da nesken bizkar gainean.

Mendeetan zehar emakumeek hizkuntzaren transmisioaren ardura izan badute ere, euskararen aro berrira iritsi dira diskurtso propiorik gabe. Diskurtso propiorik gabe esaten dugunean, bere esperientzietatik sortutako diskurtsoaz ari gara (ez emakumeak emakumeak izateagatik). Non dago andereñoen ekarpena? Non azken hamarkadetan euskaldundu diren emakumeen ekarpena? Puntu honetan guztiz bidezkoa iruditzen zaigu Fernándezek “andereñoen mugimenduaren” inguruan egiten duen aldarrikapena ekartzea. Jaxinto F. Setienek erabili omen zuen lehenengo aldiz kontzeptu hau eta Fernándezen ustez:

Andereñoen artean sortu zen elkarlanari mugimendua deitzeari guztiz egoki deritzogu, zeren nortasun osoko iharduera izan zela uste baitugu, hau da, gizartearen eta hezkuntza sistemaren barruan ezarrita zegoen eskola eredua errotik aldatzera abiatu baitziren eta eraldaketa honetarako tresnak sistematik at, eta batzuetan horren indarraren kontra ere, sortu eta finkatu baitziren. (Fernández 1994: 161)

Bere ibilbidean zehar hizkuntza politikak protagonismo handia eman dio hezkuntza sistemari baina hor emakumeak bitarteko papera baino ez duten izan. Esate baterako, andereñoen mugimendua kontsideratu

**Nazionalismo
tradizionalistik,
ikastolen sorrera
eta garapena
finkatu arte
emakumeek izan
zuten nagusiki
hizkuntzaren
ardura.**

Lan banaketa gertatu dela esan daiteke -jada aurretik emandako bereizketa bat berretsiz-: hizkuntzarekin lotutako ekintza soziala batetik, eta ekintza politikoa bestetik. Lehenengo arloa emakumeen eskuetan geratuko da (andereñoak, begiraleak, herri dinamizatzai-leak...) eta bigarrena gizonezkoen eskuetan.

zena jada desagertuta dagoela esan daiteke, bere legatua guztiz lausotua dagoelarik.

Paradoxikoa badirudi ere horrela gertatu zen: hizkuntzak (euskarak) euskal kultura eta euskal identitatearen erdigunea hartzen duen unean, ordura arte bere zaindari nagusia izan zena (emakumea) bazterturik izaten da, protagonismoa gizonen eskuetara igaroz. Prozesu hau aztertea eta azaltzea beste artikulua baten gaia litzateke.

3. ONDORIOAK

2016ko Kale-Neurketak emakumezko eta gizonezkoen artean euskararen erabilerak zantzu ezberdinak dituela frogatu du. Diferentziak txikiak dira baina, aldi berean, oso orokortuak dira. Horregatik, emaitzen txostenean sexuen arteko aldeak ondorio nagusien artean azpimarratzen dira. 2016ko datu hauek aurreko Kale-Neurketetan sumatutako joera baieztatzen dute, eta Amonarrizek (1995) nabarmendutako *euskararen feminizazioaren* fenomenoarekin bat egiten dute.

Artikulu honetan ez gara saiatu azkenengo Kale Neurketak utzitako argazkia azaltzen. Hasieratik esan dugu zaila dugula gaur egun –ditugun datu urriekin- azalpen sendo eta borobil bat ematea. Aldiz, por-tzentai horiek errealitateaz esaten digunaz mintzatzen saiatu gara. Urpe-kari moduan, zenbakiek gordetzen duten errealitatea zirriboratu nahian. Testuan zehar gogorarazi dugun moduan, gizarte antropologiak hizkuntzaren gainean proposatzen digun ikuspuntutik hizkuntza kul-turaren parte bat da, eta hizkuntza-praktikak baliabide material zein sinboliko gisa ulertu ditzakegu. Horregatik hiztunek hizkuntza (hiz-kuntza- praktika) erabiltzen dute norbanako identitatea, komunitatea zein desberdinkeria eraikitzeo, elikatzeo, zalantzan jartzeko. Hizkun-tza –soziolinguistika kritikoak planteatzen duen moduan- tentsio, ga-tazka zein borroka ahalbideratzen duen gunea litzateke (Del Percio eta Duchene 2011: 44 in Torkington eta beste 2015: 201) eta bertan hizkuntza, klase soziala, adina edota genero bezalako aldagaiez zeharkatutako desberdinkeriazko harremanak aldatzeko edo mantentzeko ezinbesteko tresna litzateke.

Kasu honetan euskara gizarteak inposatzen dituen (bi) generoen arteko tentsioaren erdigunean agertzen zaigu. Genero sistemak garai eta gune zehatz batzuetan euskara eta emakumeen arteko lotura ezarri du eta modu sinbolikoan zein praktikoan euskararen *feminizazioa* gertatu da. Baina kontrakoa ere gertatu daiteke, eta praktikan gertatu da eta gerta-

tzen da. Hor dugu Sánchez Carrión-ek (1981) Nafarroako zenbait guretan euskararen erabilera eta maskulinitatearen artean deskribatutako loturak, edo gaur egun hika eta maskulinitatearen artekoak (Beitia 2016).

Testuan zehar azaldu dugun moduan, generoaren auziak presentzia ikusezina izan du euskal soziolinguistika: oso tarteka izan da aipatua eta hala izan denean azaleko azalpenak baino ez dira eman. Presentzia ikusezin horretatik hainbat aspektu nabarmendu nahi izan ditugu, historiari zein egungoari erreparatuz. Bide horretatik jarraitzea eta jada jakinak diren gertakarietan sakontzea dugu erronka, eta horretarako tresna teorikoaz gain, metodologikoak ere funtsezkoak izango dira. Hizkuntza praktikak jaso eta horien inguruan azterlan zehatzak eta sakonak osatzea bide interesgarria delakoan gaude. Esperanza Morales-Lopez-ek (2011) aldarrikatzen duen moduan ikerketa etnografiko gehiago behar dugu:

(...) necesitamos conocer lo que el lenguaje de manera sistemática significa para sus usuarios y en sus contextos concretos (contextos que pueden ser muy diferentes a los hegemónicos); y en donde no sólo es crucial detectar las voces presentes, sino también las ausentes. (Morales-Lopez 2011)

Azken finean generoa (beste aldagiekin gertatzen den moduan) ezin da modu abstraktuan ikertu, praktika sozialetik at (Eckert eta McConnell-Ginet, 1992: 89 in Pujolar, 2003: 486) generoa une oro eraikitzen eta berreraikitzen den zerbait delako. Eta hizkuntza eraikitze eta berreraikitze prozesu horretako parte da, tresna zein adierazgarria da. Maila horretara iristen ez garen bitartean zaila izango zaigu esku artean ditugun zenbait datu interpretatzea.

“Sabem el ‘*què*’, però del ‘*com*’ en tenim una idea molt superficial” idatzi zuen 2003an Joan Pujolar ikerlari kataluniarrak (2003:486). Euskararen kasuan, eta generoarekin lotuta, egoera beharbada kaskarragoa da, nekez dakigu “*zer*” gertatzen den baina ezer gutxi dakigu “*nola*” gertatzen denari buruz. Bide honetatik aritzen hasteko “Praktika-komunitatea”-ren nozioa^x bereziki baliagarria zaigu, kontzeptu honi loturiko guzuek hiztunei zein hizkuntz praktika zehatzei hurbiltzeko aukera ematen digutelako. Praktika-komunitate hauei begira (kuadrillak, kirol edo kultura jarduera baten inguruan sortzen diren taldeak, lan arloan garatze direnak...) hizkuntza-praktikak, hizkuntzaren inguruan garatutako keinuak, bizipenak edo diskurtsoak jaso eta aztertu ditzakegu. Eguneroko bizitzan kokatutako talde hauetan garatzen eta errutina bihurtzen diren elkarrekintza arauak interesatzen zaizkigu. Arau hauek

**Paradoxikoa
badirudi ere
horrela gertatu
zen: hizkuntzak
(euskarak)
euskal kultura
eta euskal
identitatearen
erdigunea
hartzen duen
unean, ordura
arte bere
zaindari nagusia
izan zena
(emakumea)
bazterturik
izaten da,
protagonismoa
gizonen
eskuetara igaroz.**

sortzen eta birsortzen dira egunerokotasunaren oreka sotilen bidez, “ohitura” deitu daitekeen egitate bat sortuz. Eta egitate horiek hizkuntz sozializatorako oinarritzko eta funtsezkoak direlakoan gaude, bertan boterea eta prestigioa, arauak, sinismenak, rolak, harremanak... elkarlotzen eta elkar eragiten direlako. ●

OHARRA

1. Kontutan hartu behar da, Kale-Neurketan jasotako elkarrizketa gehienak, %70, adinkideen arteko solasaldiak direla. Gazteen artean hizketaldi mota honen kopurua handitzen da, haurren artean, aldiz, kopuru txikiagoa da.
2. 2001eko datuek ere hala adierazten zuten.
3. Dena den, salbuespen ageri diren herri horietan azterketa sakonagoa egitea oso interesgarria izan daiteke, askotan joeratik kanpo edo mugan dauden egoerek joera bera ulertzen laguntzen baitigute.
4. Udalerri hauek dira 2016an Neurketa Berezia egin dutenak, beraz, udalerri mailako datu fidagarriak dituzten tokiak dira.
5. Guk garatutako ikerketa hauetan oinarritu gara: (1) *Gu Gazteok, 12-14 urteko gazteen hizkuntza egunerokotasunera hurbiltzeko ikerketa partehartzaila* (2016). Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren Aholku Batzordeko Gazteriaren Batzorde atal bereziaren eskariz egindakoa. (2) *Euskara pasilloetan galduta. Praktiken aldaketak eta hizkuntz mudantzak nerabezeroan* (2015). (3) *Euskara generoaren ispiluan barrena. Hizkuntza praktikak, bizipenak eta gogoetak Lezo eta Pasai Donibaneko nerabeen artean* (2016). Ikerketa hauek guztiak izaera kualitatiboa zuten eta datuen jasoketan hainbat teknika erabili dira: behaketak, elkarrizketak eta talde-dinamiken bidezko talde hausnarketak.
6. Datuak hemen daude eskuragarri (2017/11/01):
http://www.isei-ivei.hezkuntza.net/c/document_library/get_file?uuid=a5662da8-8f58-4ee1-a678-03ea1fc0309b&groupId=635622
7. Datuak hemen daude eskuragarri (2017/11/01):
http://www.isei-ivei.hezkuntza.net/c/document_library/get_file?uuid=efa9069b-264c-44e5-a1dd-d89cd2f4506b&groupId=635622
8. Bereziki azpimarratu nahi dugu “testuingurua” aipatzen dugunean hau zentzu oso zabalean ulertzen dugula, alegia, ez diogula “testuinguru soziolinguistikoari” bakarrik erreferentzia egiten –hizkuntzaz ari garenean ohikoa denez-.
9. Testuan zehar agertuko den moduan, ez dugu proposatzen hitza eta hitzaren testuinguruaren arteko banaketa zorrotza. Inolaz ere. Aldiz, bien arteko lotura estua aldarrikatzen dugu. Halere, puntu honetan bi dimentsio horien garrantzia azpimarratu nahi izan dugu, hain zuzen ere bion papera eta partehartzea nabarmentzeko asmoz. Izan ere, susmoa dugu, interes edo helburuen arabera, joera izaten da biak banandurik aztertzea, bata edo bestearen gainean protagonismoa jarriz.
10. Praktika-komunitatea nozioak “Community of Practice” (CofP) kontzeptuari egiten dio erreferentzia, Penelope Eckert eta Sally McConnell-Ginet-ek horren inguruan egiten duten proposamena gurea eginez. Egile hauen hitzetan (Eckert; MacConnell-Ginet, 1999: 186): *CofP is an aggregate of people who, united by a common enterprise, develop and share ways of doing things, ways of talking, beliefs, and values –in short, practices. A CofP can develop out of a formally or informally constituted enterprise: a choir, a gang, a secretarial pool, a family, a garage band, a friendship group, or an academic department. Once launched, it has its own life and develops its own trajectory. The development of shared practices emerge as the participants make meaning of their enterprise, and of themselves in relation to this enterprise.*

BIBLIOGRAFÍA

Altuna, J. 2016. “Euskara generoaren ispiluan barrena. Hizkuntza praktikak, bizipenak eta gogoetak Lezo eta Pasai Donibaneko nerabeen

- artean” Ikasketa Feministak eta Generokoak Master Amaierako Lana. Interneten eskuragarria (2017/11/01): <https://addi.ehu.es/handle/10810/19898>
- Altuna, J. “Euskara pasilloetan galduta. Praktiken aldaketak eta hizkuntz mudantzak nerabezaroan”. *BAT aldizkaria* 97; 39-65.
- Altuna, O., Urra, J. 2013. “The Basque Street Survey: Two Decades of Assessing Language Use in Public Spaces”. *IJSL* 224; 209-227.
- Amonarriz, K. 1995. “Euskararen erabilpenaren feminizazioa”. *BAT Aldizkaria* 15; 89-96.
- Amonarriz, K. 2007. “2006ko hizkuntzen Kale-erabileraren neurketa: Aurreikuspenak eta emaitzak”. *BAT Aldizkaria* 64; 33-46.
- Amurrio, M. 2003. *Genero, nazio eta nazio hezkuntza: ikastoletako irakasleria*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.
- Aranberri, L.A. 2004. “Neskatxak ez dute euskaraz...” *Argia* 1956.
- Beitia, I. 2016. “Toka-Noka Tribua. Eskoriatzako gazteak eta hitanoa: uste, balore eta jarrerak”. Gradu Amaierako Lana. Argitaratu gabe.
- Del Valle, T. eta beste. 1985. *Mujer vasca. Imagen y realidad*, Anthropos: Barcelona.
- Duranti, A. 2000. *Antropología lingüística*. Madril: Cambridge.
- Eckert, P. 1996. “The Whole Woman: Sex and Gender Differences in Variation” in d. Brenneis eta R. Macaulay, R. (arg.) *The Matrix of Language*. Colorado: Westview Press; 117-118.
- Eckert, P., McConnell-Ginet, S. 1999. “New generalizations and explanations in language and gender research”; *Language in Society* 28; 185-201.
- Erize, X. 1997. Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa. 1863-1936. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Esnaola, I., Odriozola, J.M. 2000. “Iñaki Larrañagarekin elkarrizketa”. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 35. Interneten eskuragarria (2017/11/01): <http://www.soziolinguistika.org/eu/node/845>
- Esteban, M.L. 2012. “Feminismoa, euskalgintzarako gogoeta-tresna?”. *Udaltop* 2012. Interneten eskuragarria (2017/11/01): <http://www.udaltop.eus/documents/192363/753319/Feminismoa%2C+euskaragintzarako+gogoeta-tresna.+Txostena/883192c5-c52d-4322-bda8-67caafcba319>
- Eusko Jaurlaritzaren 2016 *Gu Gazteok, 12-14 urteko gazteen hizkuntza egunerokotasunerako hurbiltzeko ikerketa partehartzailea*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Fernandez, I. 1994. Oroimenaren hitza: ikastolen historia, 1960-1975. Bilbo: UEU
- Hernandez, J.M. 2002. “Kale Neurketa: sexuaren arabera erabileraren emaitzak eta horien inguruan sortutako galderak”. *BAT Aldizkaria* 43; 119-127.

- Hernandez, J.M. 2004. "Euskara dela eta... neskek zer diote?". *BAT Aldizkaria* 53; 79-95.
- Hernandez, J.M. 2005. *Jolasgaraia. Gaztetxoak, hizkuntzak eta identitateen adierazpenak*. Soziologiako Euskal Koadernoak 16. Eusko Jaurlaritza.
- Hernandez, J.M. eta Imaz, E. 2010. «Demythicalizing, Unveiling, Challenging: A Review of Twenty-five Years of Feminist Academic Production (1985-2010)», in M.L. Esteban eta M. Amurrio (arg.), *Feminist Challenges in the Social Sciences: Gender Studies in the Basque Country*, Center for Basque Studies (University of Nevada, Reno)/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/ EHU), Current Research Series; 55-70.
- Kasares, P. 2015. "Euskararen belaunez belauneko jarraipena aztergai eta jomuga". *BAT Aldizkaria* 94; 13-45.
- Kramer, E. 2016. "Feminist Linguistics and Linguistic Feminisms" in E. Lewin eta L. M. Silverstein (arg.) *Mapping Feminist Anthropology in the Twenty-First Century*. New Brunswick, New Jersey; London: Rutgers University Press; 65-83.
- Lasarte, G. 2011. "Pertsonaia protagonista femeninoen ezaugarriak eta bilakaera euskal narratiba garaikidean". Tesi doktoralak. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Morales-Lopez, E. 2011. "Hacia dónde va el análisis del discurso". *TONOS. Revista electrónica de estudios filológicos*, 21. Interneten eskuragarria (2017/11/01):
<https://www.um.es/tonosdigital/znum21/secciones/estudios-21-discurso.htm>
- Orobitg, G. 2015. "Lamento ritual de las mujeres pumé. Un ensayo sobre emotividad y política" in M. Gutierrez Estévez eta A. Surralles (arg.) *Retórica de los sentimientos. Etnografías Amerindias*. Madrid: Iberoamericana; 125-152.
- Ortega, A. eta beste 2014. "Nuevos hablantes de euskara" *Digithum* 16; 86-97.
- Oruesagasti, G., Arakistain, J. eta Otaegi, A. 2014. "Nola txertatu genero-ikuspegia hizkuntza-politikan? Lanerako marko baten proposamena. *BAT aldizkaria* 92-93; 67-86.
- Pujolar, J. 2003. "La construcció del gènere en la interacció informal cara a cara: aspectes teòrics i metodològics". *Estudios de Sociolingüística* 4(2); 485-503.
- Sanchez Carrion "Txepetx", J.M. (1981) "La Navarra Cantábrica". *Fontes Linguae Vasconum* 37;19-99.
- Serrano, M.J. 2008. "El rol de la variable *sexo* o *género* en sociolingüística: ¿diferencia, dominio o interacción?", *Boletín de Filología*, Tomo XLIII. 175-192.

Skutnabb-Kangas, T., Phillipson, R. (1989). "‘Mother tongue’: The Theoretical and Sociopolitical Construction of a Concept". In U. Ammon (arg.), *Status and Function of languages and Language Varieties* (450–477 or.). Berlin / New York: Mouton de Gruyter.

Soziolinguistika Klusterra; Topagunea; Urtxintxa. 2011. *Erabileraren GPSa*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.

Torkington, K. eta beste 2015. *Practising the Good Life: Lifestyle Migration in Practices*. Newcastle upon Tyne: Cambridge Scholars Publishing.

Zulaika, J.1988. *Violencia Vasca. Metáfora y sacramento*. Madrid: Nerea.

BAT aldizkariaren aurreko zenbakiak

1/HIZKUNTZ PERFILAK **AGORTUA**

2/LURRALDE TASUNA

3-4/EUSKARAREN ERABILPENAREN NEURKETA **AGORTUA**

5/KATALANERAREN NORMALIZAZIOA **AGORTUA**

6/EUSKARAREN HERRI-MUGIMENDUA

7-8/HERRI BALTIOAK **AGORTUA**

9/HIZKUNTZA ETA BOTERE POLITIKOA

10/IRAKASKUNTZA ETA HIZKUNTZ: NORMALIZAZIOA **AGORTUA**

11/EUSKARAREN NORMALKUNTZA LAN MUNDUAN **AGORTUA**

12/HIZKUNTZEN GEROA EUROPAR BATASUNEAN

13-14/EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILPENA

15/IRLANDERA GAUR EGUN **AGORTUA**

16/EUSKARAREN GIZARTE MUGIMENDUA ETORKIZUNEAN: EDUKINAK ETA EGITURAK **AGORTUA**

17/EUSKARAREN ERABILERAREN NORMALIZAZIOA HEGO EUSKAL HERRIKO ADMINISTRAZIOAN: PLANGINTZEN AZTERKETA

18/XXPETX-EN HIZKUNTZEN TEORIA SOZIALA HAMAR URTE ONDOREN

19/HIZKUNTZ HERIOTZA

20-21/HIZKUNTZ PLANGINTZA KATALUNIAN ETA EUSKAL HERRIAN

22-23/SOZIOLINGUISTIKAZKO INKESTAK: DATUAK ETA GOGOETAK

24/EUSKARAREN ERRONKA TEKNOLOGIA BERRIEN AURREAN

25/UNIBERTSITATEKO HIZKUNTZA NORMALKUNTZAN BI EREDU: EUSKAL HERRIA ETA BELGIKA **AGORTUA**

26/EUSKARAREN: EGOERA NAFARROAN IKERTZAILAEN BEGIRADAPEAN

27/EUSKARA BATUAK 30 URTE

28/EUSKARAREN KALE ERABILPENA EUSKAL HERRIAN

29/HIZKUNTZA GUTXIAGOTUAK JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAN

30/SUOMIERAREN NORMALKUNTZAZ

31/EUSKARAREN ALDEKO GIZARTE-MUGIMENDUA ETA EKB, AZKEN 25 URTEAK GAINBEGIRATUZ

32/NEURKETA SOZIOLINGUISTIKOAK EUSKAL HERRIAN

33/ADDENDA. 1-30 ZENBAKIETAN ARGITARATURIKOAREN ADDENDA

34/UEMA 1991-2000

35/HIZKUNTZA ESKUBIDEAK ETA LEGE EREMUA

36/HIZKUNTZA GUTXITUA, BIZI IRAUPENA ETA NORMALKUNTZA

37/EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA INSTITUTUA SORTZEN. SINPOSIOA

38/HIZKUNTZA ESKUBIDEAK EREMU PRIBATUAN, ETIKETA TOKIKO HIZKUNTZAN

39/ESLOVENIA

40/QUEBEC

41/ERABILERA, LABIRINTOTIK SUKALDERA

42/HIZKUNTZA NORMALKUNTZA HIZKUNTZA ERREPERTORIOAREN BIDETIK

43/KALE-ERABILERAREN IV. NEURKETA 2001 EMAITZAK, AZTERKETAK, GOGOETAK

44/EUROPAKO BATASUNAREN GEROA I: HIZKUNTZA ARLOKO ESKUMENEN KUDEAKETA

45/EUROPAKO BATASUNAREN GEROA II: HIZKUNTZA GUTXITUAK EUROPAKO BATASUNEAN

46/EUSKARA AZTERKETA "MAKROETAN" ETA EGITASMO BERRIETAN

47/DONOSTIA-BAIONA EUROHIRIA

48/EUSKAL ERREPERTORIOA HEDABIDEETAN

49/HEZKUNTZA MUNDUA ETA HIZKUNTZA BERRESKURAPENA

50/UNIBERTSITATEA ETA ETA EUSKARA

51/LANBIDE HEZIKETA ETA EUSKARA

52/EUSKARA ETA ETORKINAK

53/EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA

54/EUSKARAREN ERABILERAREN ETA NORMALIZAZIOAREN AZTERKETA UDALETAN

55/EUSKARAREN ERABILERAREN ETA NORMALIZAZIOAREN AZTERKETA EAeko ADMINISTRAZIOAN

56/EUSKARAREN JABEKUNTZA ESKOLAN

57/EUSKARAREN ERABILERA ENPRESETAN

58/EUSKARAREN ERABILERA NAFARROA GARAIAN

59/EUSKARAREN EGOERA IPAR EUSKAL HERRIAN

60/UNIBERTSITATE AURREKO HIZKUNTZA EREDUEN BALORAZIOA ETA PROPOSAMENAK

61/UNIBERTSITATE MAILAKO SOZIOLINGUISTIKAREN IRAKASKUNTZA

62/HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA

63/EUSKARAREN ERABILERA ESKOLA-ORDUZ KANPO

64/KALE NEURKETAREN V. NEURKETA, 2006. EMAITZAK, AZTERKETAK, GOGOETAK

65/EUSKAL HERRIKO KULTURAK ETA EUSKARA

66/TEKNOLOGI BERRIAK ETA EUSKARA

67/ERRAMUN BAXOKEN OMENEZ

68/HEDABIDEAK ETA EUSKARA-PLANGINTZA

69/HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

70/EUSKARAREN LEGEAK

71/JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA TXILLARDEGIREN OMENEZ

72/ZEIN HIZKUNTZA HITZ EGITEN DU KOMUNIKAZIO GIZARTEAK?

73/EUSKARA LAN MUNDUAN... LANEAN!

74/II. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

75/EUSKARAREN PRESENTZIA UNIBERTSITATEAN

76/BAT ALDIZKARIAREN XX. URTEURRENA (I)

77/BAT ALDIZKARIAREN XX. URTEURRENA (II)

78/III. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

79-80/DIGLOSIAREN INGURUAN HIZKUNTZA-EKOLOGIA EUSKARAREN INGURUNEAN

81/HIZKUNTZA-EKOLOGIA EUSKARAREN INGURUNEAN

82/IV. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

83/KULTURGINTZA EUSKARAREN GARABIDEAN

84/HIZKUNTZEN KALE-ERABILERAREN VI. NEURKETA, 2011. EUSKAL HERRIA

85/V. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

86/EUSKARAREN FRAMING BERRIAZ

87-88/EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA IKERKETA. AZKEN URTEOTAKO BEGIRADA

89/VI. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

90/LURRALDE-ANTOLAKETA ETA HIZKUNTZA

91-92 /EUSKARA ERABILTZEKO PLANAK BERRITZEN

93/VII. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

94/TRANSMISIOAREN MOLDE BERRIAK

95/LURRALDEAREN ETA HIZKUNTZAREN ARTEKO LOTURAK

96/AHOZKO KOMUNIKAZIOA ESKOLAN

97/VIII. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

98/EUSKAL TZALETASUNAREN AKTIBAZIOA

99/EUSKARAREN BILAKAERA SOZIOLINGUISTIKOA (1981-2011). (I) TRANSMISIOA, GAITASUNA ETA JARRERAK

100/EUSKARAREN BILAKAERA SOZIOLINGUISTIKOA (1981-2011). (II) ERABILERA

101/UNIBERTSITATEAREN ERANTZUKIZUN SOZIALA EUSKARAREKIKO

102/IX. HAUSNARTU. EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK (II) ERABILERA

103/EUSKAL TZALEEN TOPALDIA: EUSKARAREN HERRIA, ZUBIAK ETA PALANKAK

104/HIZTUN BERRIAK

105/X. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

8

Arduradun politikoek, eragile sozialek eta unibertsitateko adituek esandakoaren kronika.

UDAKO IKASTAROKO MAHAI-INGURUAK

Nerea Azurmendi. *Kazetaria*

nazurmen@gmail.com

Uxo Anduaga, *Soziolinguistika Klusterra*

u.anduaga@soziolinguistika.eus

Belen Uranga, *Soziolinguistika Klusterra*

b.uranga@soziolinguistika.eus

Garikoitz Goikoetxea. *Kazetaria*

goikoetxea.garikoitz@gmail.com

Euskararen erabilera: egoera, bilakaera eta norabidea, datuen argitan 2017ko EHUko Udako ikastaroan, hiru mahai-inguru egin ziren, gizartearen hiru sektore esanguratsuenetarikoen ekarpenak bildu nahirik: Herri Administrazioeko hizkuntza-plangintzarako arduradun politikoak lehenean, EAEko unibertsitatean euskararen eta euskal soziolinguistikaren inguruan lanean ari diren irakasleak bigarrenean, eta, hirugarrenik, gizarte esparruko hiru erakundeetako ordezkariak. Zehazki, honakoak izan ziren mahai-inguruak eta parte-hartzaileak:

— **‘Zertan den euskararen sustapena Euskal Herriko hiru eremu administratiboetan**

- **Miren Dobaran Urrutia** (Hizkuntza Politikarako sailburuordea. Eusko Jaurlaritza), **Mikel Arregi Perez** (Euskarabidea -Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailea- Nafarroako Gobernu) eta **Mathieu Bergé** (Euskararen Erakunde Publikoko (EEP) ordezkaria).

— **Euskararen erabileraren aktibazioan, zer dago gizarte eragileen esku?**

- **Iker Salaberria Urkizu** (Ildoen koordinatzailea, KONTSEILUA), **Iker Martínez de Lagos Menique** (Komunikazio arduraduna. TOPAGUNEA), **Mertxe Mugika Balanzategi** (Koordinatzaile nagusia. AEK).

— **Euskararen erabilera sustatzeko unibertsitatearen begirada.**

- **Estibalitz Amorrortu Gómez** (Irakaslea. Deustuko Unibertsitatea), **Asier Irizar Mezo** (Irakaslea. Mondragon Unibertsitatea -HUHEZI), eta **Jone Miren Hernández García** (Irakaslea. EHU/UPV).

Mahai-inguru horietan moderatzaile edo antolatzaile izan ziren kazetari eta Soziolinguistika Klusterreko teknikariek osatu dute, mahai-inguruetako ekarpenen ondorengo kronika.

**Aurreneko
urratsetan da
Nafarroan
hizkuntza
politika, oinez
ikasten,
Nafarroako
Gobernuko
Euskarabidearen
zuzendari
kudeatzaile
Mikel Arregiren
hitzetan.**

Euskal Herrian 6 bat puntukoa izan da ezagutzaren igoera azken 25 urteetan, bereziki belaunaldi gazteetan. Nafarroan, %3,4koa izanda, txikiagoa da, baina berez ona da. Nafarroan elebidunak eta elebidun hartzaileak batuta populazioaren %23ra iritsi izanak zenbakiez haragoko garrantzia du, badelako “kopuru nahikoa planifikazio egoki baten bidez ezagutza eta erabilera handitzeko”.

Norabide berean, nor bere erritmoan. ‘Zertan den euskararen sustapena Euskal Herriko hiru eremu administratiboetan’ mahai-ingurua

Nerea Azurmendi

Benjamin Disraeli mihi zorrotzeko politikari britainiarrari egotzi izan zaio “badira gezurrak, gezur itzelak eta estatistika” esaldi biribil eta erabilia. Disraelik XIX. mendean ezagutu zuen estatistika urrun zegoen gaurko zientzia garatutik, jakina. Hala ere, hedabideetako tituluez jabetu den hizkera estatistiko mordoiloaren osagai nagusitzat jo daitezkeen batezbesteko eta portzentaje orokortzaileak ispilu desitxuratzaile izan daitezke, isla izan beharrean, zuzen, tentuz eta arduraz erabiltzen ez badira.

Batez ere aztergaiak izen bakarra baina abizen asko, eta askotarikoak, dituenen. Islatu nahi den errealtatea zenbakietara nekez makurtzen diren ñabarduren baldintzapean egoteak ez du errazten egitekoa. Euskal Herriko geografia administratiboaren hiru zutabe instituzional nagusietan euskararen erabilera sustatzeko abian diren hizkuntza politiken nondik norakoak azaltzeko, alderatzeko eta aztertzeo antolatutako mahai-inguruak erakutsi zuen, alegia, 2017an jendarteratu ziren bi ikerketa nagusietan (VI. Inkesta Soziolinguistikoa eta Hizkuntzen Erabileraren VII. Kale-neurketa) horren ugariak diren zenbakiak ezinbestean igaro behar direla, erretratu zintzoa nahi bada, tokian tokiko ezaugarri eta baldintzen araberako zuloak dituzten galbahetatik.

Mahai-inguruan Ipar Euskal Herria ordezkatu Mathieu Bergéki esan zuen nerabezaro betean daudela berean hizkuntza politika eta, horrenbestez, euskararen erabileraren sustapen publikoa, nerabezaroak berezkoak dituen gorabehera guztiekin. Aurreneko urratsetan da Nafarroan hizkuntza politika, oinez ikasten, Nafarroako Gobernuo Euskarabidea -Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaile Mikel Arregiren hitzetan. Euskal

Autonomia Erkidegoan, non ekainaren 24an beteko diren 20 urte Euskararen Aholku Batzordeak gerora berrikusia izan den ‘Euskara Biziberrietzeko Plan Nagusia’ onartu zuenetik, helduarorako bidean dela esan daiteke. Edo, behintzat, heldutan zer izan nahi duen finkatzeko une erabakigarrian. Miren Dobaran Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika-rako sailburuak nabarmendu zuen moduan, gauzak berriz pentsatu eta hausnartzeko momentuan, “gaurkoa beste gizarte bat delako”.

Behingoz lurralde guztietan ditu euskarak aldeko sustapen-politika publikoak. Estreinakoz, euskararen hiru eremuetako administrazioak norabide berean lerrokaturik daude; denak aurrera egiteko prest, nor bere erritmoan. Hiru administrazio horietako ordezkariak proposatu zitzaizkien gaien inguruan egindako iruzkinak erakutsi zuten aldibereko hiru arotan bizi dela euskara, esku-hartze publikoari dagokionean bederen; espazio berezitueta ez ezik, denbora desberdinetan. Eta posible dela, hala eta guztiz ere, espazio-denbora desberdinetan elkarrekin jardutea.

Aipatu ikerketek mahai gainean jarri duten datu andana hartzeko eta interpretatzeko moduari eragiten dio, lehenik eta behin, “hirutasun” horrek. Ikuspegi batetik eta testuinguru jakin batean apala edo ez nahikoa izan daitekeena, bestela ikus daiteke ikuspegi eta testuinguru aldatuta.

EMAITZEN AZTERKETA

Mikel Arregiri, esaterako, “positiboak” iruditu zitzaizkion euskararen ezagutzak Nafarroan izan duen hazkundearen berri ematen duten datuak, Euskal Herriko datu orokorrekin alderatuta apalak ematen badute ere. “Euskal Herrian 6 bat puntukoa izan da ezagutzaren igoera azken 25 urteetan, bereziki belaunaldi gazteetan. Nafarroan, %3,4koa izanda, txikiagoa da, baina berez ona da”, esan zuen. Gazteen arteko alde handiagoak (16-24 adin tartean %32ko hazkundea gertatu da Euskal Herri osoa aintzat hartuta, %15,8koa Nafarroan) ere ez zuen kezkatu, “horiek guztiak, elebidun hartzailen artean eman den igoera barne, euskalduntze prozesuaren ondorio direlako”. Une honetan, hain zuzen, Nafarroan elebidunak eta elebidun hartzailak batuta populazioaren %23ra iritsi izanak zenbakiez haragoko garrantzia du, badelako “kopuru nahikoa planifikazio egoki baten bidez ezagutza eta erabilera handitzeko”. Puntu horretan dagoenaren ikuspegitik, ezagutza eta erabilera “bereizteko edo bereiz aztertze” joeraren inguruko hausnarketa partekatu zuen Arregik. Haren ustez, “ezin ditugu bereiz aztertu, bestela badirudi ezagutzan irabazten dena gertatzen dela erabileraren kaltetan. Irabaziak nahi baditugu, ezinbestekoa da ezagutzan irabazten jarraitzea, ezin dugu gauza bat lehenetsi bestearen gainetik”.

Iparraldean, tokian tokiko kontsentsu politiko eta instituzionala eraikitzeko gai izan garez, hasi gara hizkuntza politika publikoaren emaitzak ikusten. Inkestak egiten direnetik lehen aldiz, eten egin da hiztunen galera.

Iparaldeko biztanleen herena hartzen duen BAM (Baiona-Angelu-Miarritze) eremua pairatzen ari den presio demografikoa handia da. Azken urteetan, kanpotik eta euskararik gabe bertaratzen diren gero eta biztanle gehiago erakartzen ditu eremu horrek. Eta hala ere, seme-alabak euskara ikas dezaten nahi dute askok eta askok.

“Txanponaren beste aldean”, alde kezkarrian, euskaldunen tipologia ematen ari den aldaketa jarri zuen Arregik. Euskaldunen %51 erdal elebidunak dira Nafarroan, askotan euskaraz mintzatzeko erraztasun handirik ez dutenak. Ezaugarri horri egotzi zion erabileraren igoera (beheranzko joera etetea ekarri duena, bestalde), ezagutzaren areagotzeari legokiokeena baino apalagoa izatea. “Emaitza gazi-gozoa”, hortaz, “hobetzeko aukera” eta horretarako oinarri sendoa eskaintzen duena.

Emaitzak Ipar Euskal Herriko ikuspegitik aztertzeke orduan, saioan zehar maiz aipatuko zuen “testuingurua” nabarmendu zuen Mathieu Bergék: bertako hizkuntza politikaren gaztetasuna eta euskararen egoera juridiko gutziz desagokia. “Frantziako Errepublikak ez du inolako anbiziorik hizkuntza aniztasunari dagokionez. Hala ere, tokian tokiko kontsentsu politiko eta instituzionala eraikitzeke gai izan garenez, hasi gara hizkuntza politika publikoaren emaitzak ikusten. Inkestak egiten direnetik lehen aldiz, eten egin da hiztunen galera. Irabazi txiki bat ere badago elebidun pasiboen multzoan. Aurreneko bost inkestak etengabeko galera egiaztatzeraz mugatu dira. Seigarrenak beste mezu bat ekarri du, eta adierazi du batez ere gazteen artean, 19-24 urte bitartekoetan bereziki, egonkortzen ari dela susperraldia”.

Ezagutzari dagokio susperraldia, jakina, erabilerak behera egin baitu Iparaldean. Ez da horrelakorik gertatu Nafarroa Beherean eta Zuberoan, gora egin baitu lurralde erabilerak, baina biztanleriaren banaketa desorekatuaren ondorioz, batez bestekoak irentsi egin du barrualdeko eskualdeetan gertatu den igoera. Erabileraren puntu bateko jaitsierak bi zergati nagusi ditu, Bergéren ustez. Batetik, Iparaldeko biztanleen herena hartzen duen BAM (Baiona-Angelu-Miarritze) eremua pairatzen ari den presio demografikoa handia. Azken urteetan, kanpotik eta euskararik gabe bertaratzen diren gero eta biztanle gehiago erakartzen ditu eremu horrek. “Lortu dugun kontsentsuari esker, bat datoz hizkuntza politikarekin, eta seme-alabak euskara ikas dezaten nahi dute” nabarmendu zuen Bergék. Epe ertain eta luzera, hortik etor daiteke joeraren zuzenketa, baina oraingoz kontrako eragina izan du fenomenoak. Bigarren arazoa “hizkuntza politikaren izaera bertikala” da, euskararen gainerako lurraldeetan ez bezala udalak kanpo uzten dituenak. Iparaldean dauden 138 udaletatik hiruk baino ez dute erabileraz sustatzeko horren garrantzitsua den udalerrri mailako hizkuntza politikarik: Hendaiak, Miarritzek eta Baionak. Maila horretan eragitea ezin bestekotzat jo zuen Mathieu Bergék erabileran jauzia egiteko.

Miren Dobaran Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, berriz, ikuspegi-aldaketa proposatu zuen: euskararen erabileraren

inguruan “ematen ari diren mezu negatiboegiak euskal hiztun berriek, egiten ari diren ahaleginagatik, merezi duten aintzatespen” bilakatzea. Azken urteetan euskaldundu diren pertsonak, “batzuk hezkuntza sistemari esker, beste batzuk euskaltegietan”, egin duten esfortzua izan zuen gogoan. Batez ere euskaldun dentsitate txikiena duten lehen eta bigarren gune soziolinguistikoetakoak, horietan baita nabarmenena goranzko joera. “Bilbo, Bilbo Handiko eta Uribe Kostako herri askotan ahalegin handi bat egiten ari dira egunean-egunean, horregatik zor zaie begirunea, eta horregatik ez da behar mezu katastrofistarik”, esan zuen Miren Dobaranek

Datu pozgarria “zailtasun asko izan arren hiztun berri horiek euskara erabilteko egiten duten ahalegina” izanik, kezken artean nagusia “agertoki berria, behin eta berriz aipatu den paradigma berri hori, hiztun berriarena” da Dobaranentzat. “Neronek ikastola batean izan ditudan 2.000 ikasleetan hiztun berriak ziren gehienak. Ez daukate inolako transmisiorik etxean, euskara eta euskal kultura ikastolan transmititu zaie, eta aukera gutxi dute euren inguru hurbilean euskaraz hitz egiteko. Hori da gure hiztun berria, eta horrela ulertu behar da ezagutzan eta erabileran ez joatea erritmo berdinean. Argi dago gutxitasun horretatik abiatuta aurrera egin behar dugula, jakinda ere hiztun berri horiek ez dituztela bakarrik baliatzen bi hizkuntza, eleaniztunak baitira txikitandik. Ingeleseztako hainbat eta hainbat produktu kontsumitzen dituzte, eta ikastetxean ere normaltasunez ematen dituzte ‘science’ eta ‘sport’ ingelesez. Lengua castellana gaztelaniaz ematen dutela kontuan hartuta, zer gelditzen da euskararentzat?”. “Hori izango da aurrerantzean ere gure errealtatea eta, horrenbestez, ardura nagusia da zelan eragin hiztun berri hauengan.”

EUSKARAREN SUSTAPENA, HIZKUNTZA POLITIKAK

I Abiapuntu objektibo (eta subjektiboak) horren diferenteak izanik, nahitaez behar zuten desberdinak galdera nagusiari –zertan da euskararen sustapena?- emandako erantzunak. Miren Dobaranen ustez, EAEk une honetan behar du “ikerketan oinarritutako hizkuntza politika berritzailea”. Eragingo duena, esaterako, euskera ikasi gabe eroso bizi diren horiengan: “Euren seme-alabak bidali dituzte D eredura, egin dute egin beharrekoa, eta jarraitzen dute euskaldundu gabe. Hizkuntza politika berri bat behar da horiek erosotasun egoera horretatik ateratzeko, euskaltegietara erakartzeko eta, horrela, erabileran eragiteko”.

Lehentasunezkoa da, Dobaranen ustez, “hiztun berri” horien behar eta kezkei erantzun egokiak ematea. “Euskaldun hiztun berri askok euskaldun sentitu nahi dute, baina ez dira sentitzen benetako euskaldun. Askotan, euskaldun zaharrek ere ez dituzte euskalduntzat hartzen, ez dute

Hiztun berrien behar eta kezkei erantzun egokiak eman behar zaie. Euskaldun hiztun berri askok euskaldun sentitu nahi dute, baina ez dira sentitzen benetako euskaldun. Askotan, euskaldun zaharrek ere ez dituzte euskalduntzat hartzen, ez dute haiekin euskaraz hitz egiten”.

Zelan erakarriko ditugu euskarara? Zelan eragin behar da? Ze eratako hizkuntza politika behar dugu hori guztia zuzentzeko? Erakarri ditugu D eredura, ikasi dute euskaraz, eta orain jarri behar ditugu hitz egiten. Berriz pentsatu behar dugu hizkuntza politika, beste gizarte batean gaudelako.

Iparaldean, ez naiz (M. Bergé) konkurrentzia politikoaren beldur, denok egiten baitugu bat euskararen sustapenarekin, baina badiot beldur konkurrentzia instituzionalari. Horrenbestez, aurreneko erronka da politika publikoak ondo artikulatzea maila desberdinen artean". Beste erronka da eragileen profesionalizatzea.

haiekin euskaraz hitz egiten", gogoratu zuen. "Zelan erakarriko ditugu euskarara? Zelan eragin behar da? Ze eratako hizkuntza politika behar dugu hori guztia zuzentzeko?". Bada, "berria, berritzailea, ikerketan oinarritua. Erakarri ditugu D eredura, ikasi dute euskaraz, eta orain jarri behar ditugu hitz egiten. Berriz pentsatu behar dugu hizkuntza politika, beste gizarte batean gaudelako, globalizazioak eragin izugarria duen gizarte eleaniztunean", esan zuen.

Hizkuntza politika berri hori irudikatu eta zehazteko "irudimena eduki behar dugu, eta ikerketa asko egin behar da. Probatu, eta erratzen bagara beste bide batetik jo", adierazi zuen. Hasita dauden bideetan aurrera egiteari utzi gabe, jakina. Miren Dobaranek berretsi zuen "2020an legealdia amaitu baino lehen, ahal bada lehenago, B2ra arteko doakotasuna lortzea" dela Jaurlaritzaren asmoa eta, oro har, "oztopoak kentzea, erraztasunak ematea eta metodologietan ere aldaketak egitea, bai hezkuntzan eta bai helduen euskalduntzean, erabilerari begira jartzeko". Zeren eta berrikuntza eta ikerketa behar direla aldarrikatzeak ez baitu esan nahi inondik ere, Dobaran sailburuordearen ustez, egungo hizkuntza politika eredia krisian dagoenik...

Nafarroan ere ez dago krisian hizkuntza politika. "Gure krisia aldez aurretik gertatu den prozesua izan da –gogoratu zuen Mikel Arregik-, ez oraingoa... Duela bi urte krisi horren amaiera iritsi zelako dauzkagu hain justu aurrean erronka potoloak. Hizkuntza politikaren inguruan definizio berriak landu eta garatu behar ditugu, 25 urte beranduago iritsi delako Nafarroa euskararen aldeko hizkuntza politika bat garatzera". Orain bi urte Foru Erkidego mailan bederen ia hutsetik abiatuta, 2017ko urtarrilaren 25ean onartu zuen Nafarroako Gobernuak 'Euskararen Plan Estrategikoa 2016-2019'. Arregik nabarmendu zuen "parte-hartze prozesu baten eta dinamika nahiko interesgarri baten barruan" definitu zela zazpi ardatz nagusi dituen plana. Erabilera, ezagutza, administrazio publikoan erakargarritasuna eta prestigioa, alde ekonomikoa eta araugintza aintzat hartzen dituen plana elkarlanean ondu bazen, horretan oinarritutako "hizkuntza politika eraginkorra" gauzatzeko eta garatzeko ere arlo desberdinetako eragileen parte-hartzea hobesten ari dira, asko baitira aintzat hartu behar diren eremuak: helduen euskalduntzea, aisialdia, teknologia berriak, hedabideak, arnasmuneak... Azken horiei dagokienez, ez zuen ahaztu Nafarroako eremu euskaldunean egin den lan handia, udal eta mankomunitateek ere, landu eta zaindu baitute urtetan gobernuak zeharo utzitako arloa. "Garrantzi berezia eman nahi diogu arnasmuneetako egoerari. Gai horri ez diogu oraindik heldu, baina helduko diogu, hainbat mailatan", aurreratu zuen.

Iparraldean, aldiz, krisi betean dago hizkuntza politika: hazkunde krisian. “Gaztea da gure hizkuntza politika, oraintsu sartu da nerabezaroan, ez gara iritsi helduarora”, esan zuen Mathieu Bergék. Eta adoleszentiak berezkoa du frustrazio-arriskua. Kasurako, euskarazko irakaskuntzan sumatzen duena. “Lortu dugun kontsentsu sozialari esker, euskarazko irakaskuntzaren eskaera handia da, bai sare publiko elebidunean, bai ikastoletako murgiltze ereduari, bai ikastetxe konfesionalean. Beraz, badugu borondate politikoa, badugu gizartearen eskaera, baina irakasleak falta zaizkigu. Iparraldean ez daukagu eskaerari erantzuteko adina irakasle sortzeko gaitasunik. Deialdia Hegoaldera zabaldu arren, ezinezkoa izan da eskola publikoan modu esperimentalean zabaldu nahi ziren murgiltze ereduko gela denak irekitzea. Behar ziren 15 irakasleetatik hiru baino ez genituen lortu”, esan zuen.

Nahiz eta nerabezaro aldabera ez izan munta handiko erabakiak hartzeko unerik aproposena, Iparraldean aldi berean suertatu dira aro gorabeheratsu hori eta euskarari dagokionez “historikoa eta estrategikoa” izan daitekeen momentua. Kinka zeharo berezi horretan ezinbestekoa da, Mathieu Bergéren ustez, “modu ahalik eta koordinatu eta eraginkorrean jartzea lanean udalak, lehendik diharduen Euskararen Erakunde Publikoa eta hizkuntza politikaren arloko eskumenak dituen Euskal Hirigune Elkargoa. Une historiko honek hizkuntza politikaren ardatz berriak garatzeko aukera ematen digu. Ez gaitezen erratu ardurak eragile desberdinen artean banatzeko orduan. Ez naiz konkurrentzia politikoaren beldur, denok egiten baitugu bat euskararen sustapenarekin, baina badiot beldur konkurrentzia instituzionalari. Horrenbestez, aurreneko erronka da politika publikoak ondo artikulatzea maila desberdinen artean”.

Euskararen Erakunde Publikoko buru gisa emandako boladak ikuspegia aldatu ziola aitortu zuen Bergék. Hasiera batean uste zuen “gauza izango ginela, inguruan sumatzen nuen energia horrekin guztiarekin, hizkuntza politika eraginkorra eraikitzeko. Eraginkorrak gara, baina oraindik ere gehiegitan egin behar dugu brikolaje instituzionala eta brikolaje ekonomikoa hizkuntza politika garatzeko, Frantziako Estatuari -utzikeria eta ezjakintasunagatik batik bat, nire ustez- ez zaizkiolako axola hizkuntza aniztasuna eta nazio mailako hizkuntza politika. Presidentetzarako hauteskundeak iristen direnean beti sortzen da Eurokartaren gaia, baina ez du sekula aurrera egiten, inork ez duelako eramaten estatu mailara tokian tokiko hizkuntzen afera. Eta maila horretako eztabaida politikoa behar da Frantzian, frantsesa ez besteko hizkuntzei dagokienez XXI. mendeko Errepublikak ezin duelako izan XIX. mendekoaren ikuspegi jakobino bera”.

Euskararen lurraldeetako administrazioek badute, behingoz eta aurrenekoz, elkarrekin jarduteko marko bat: Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak EEP sinatutako euskara sustatzeko hitzarmena.

**Hitzarmen
horren bitartez,
lehendik
hasitako
lankidetzari,
orain eman zaion
forma. "Ikusita,
gainera, denok
sinesten dugula
proiektuan (EJ,
Euskarabide,
EEP)
aurrerapausoak
nabarmenak
izango dira
finkatutako ildo
eta arloetan.**

"Historikoki 12 urteko nerabea" den Ipar Euskal Herriko hizkuntza politikaren beste erronka bat da "eragileen profesionalizazioa. Militantziak ematen duen energiaren aritu dira, eta ari dira, elkarteetako kideak. Profesionalizazioa areagotzen doa horien artean, baina beste urrats bat egin behar da, eta EEP horretan lagundu behar die sektore guztietako eragileei". Horrek eredu ekonomiko berri bat abiaraztea eskatzen du, Bergéren aburuz, administrazio guztiek har dezaten euren gain dagokien ardura. Mathieu Bergék euskararen sustapenera bideratutako baliabide ekonomikoen zeharkako izaera defenditu zuen, ohi duenez. Ikastetxeak eraikitzeke aurrekontu orokorretik 7 miloi euro lortu dituen Seaskaren Etxepare lizeoaren adibidea erabili zuen adierazteko eraginkorragoa dela euskarak bultzada behar duen sektore desberdinetako aurrekontu arruntak baliatzea, berariazko diru-sailak lortzen saiatzea baino. Horrek ahalbidetuko luke, besteak beste, erakunde bakoitzak bere eskumen eta baliabideak ustiatzea euskararen aurrerabiderako, EEPk bere gain hartuz gainerako eragile sozial eta instituzionalak osatzen duten "orkestraren zuzendari rola".

ELKARLANA

Esan daiteke elkarlan zintzoan sakontzea eskatzen duten estrategia horretan, onuragarria izango dela Mathieu Bergék usu aipatu zuen adostasun sozial eta politikoa nagusi den abagunea. EAEn ere, lankidetzaren giroa da nagusi azkenaldian euskalgintza sozialaren eta instituzionalaren arteko harremanetan. Elkarlana da "naturala", Miren Dobaranen hitzetan: "Gure taldeak elkarlana modu naturalean ulertzen du. Askotan sartuko dugu hanka, baina gauza berriak egin behar ditugu, arriskatu egin behar dugu. Zelan ez gara ba elkartuko eta elkarrekin gauzak egin? Berdin UEMArekin, berdin Topagunearekin, berdin ikastolekin, guztiekin... Ez dakigu beste era batera lan egiten. Ni euskalgintzako arlo guztietan ibili naiz, eta badakit arlo bakoitzean nork dakien. Hortaz, askotan desadostasunak izango badira ere, haiekin eseri behar dugu proiektuak aurrera ateratzeko". Adibide zehatz ugari aipatu zituen, hala nola Foru Aldundien esku dagoen eskola kirola euskalduntzeko ahalegin partekatuak; Euskal Wikilarien Elkartearekin duten egitasmoa "euskarazko wikipedia aberasten jarraitzeko"; aisialdian eta udalekuetan sektoreko eragileekin probatzen ari diren formatu berriak; arnaguneek dituzten arazoei aurre egiteko UEMArekin ezagutza eta eskarmentua baliatzea...

Hizkuntza Politika gaietarako Herri Aginteen Koordinaziorako Batzordeak (HAKOBA) elkarrekin aritzeko orduan duen garrantzia nabarmendu zuen halaber Miren Dobaranek. Eusko Jaurlaritzak, EAeko hiru lurraldeetako aldundiak eta hiru hiriburu-udalak, EUDELeke eta UEMAK

osaten duten organoak ahalbidetzen du “hizkuntza politika koordinatu bat egitea, eta batek egiten duena beste erakundeetara zabaltzea, adostasun handi batean oinarrituta betiere”.

“Nafarroan lankidetzaren inguruan esango nuke aldaketa prozesuan gaudela”, adierazi zuen Mikel Arregik. Horren lekuko izan da askoren artean landutako Euskararen Plan Estrategikoa. “Dokumentu nahiko adostua da, baina oraindik ere badaude inertziak administrazioan, zaila da gauzak eta ohiturak aldatzea. Orain arte saiatu gara gehienbat gizarte eragileentzako laguntzak berreskuratzen eta, alde horretatik, gizarte eragileei begira modu nahiko pasiboan egin dugu lan. Aurrera begira, erakunde oso formala izan den Euskararen Nafar Kontseiluaren egitura aldatu nahi duguⁱⁱ. Orain arte 22 kide ditu, aurrerantzean 35 izango ditu, eta euskararen aldeko politikak garatzen dituzten elkarteak bi kide izan beharrean zazpi izango dituzte. Horrez gain, erakundearen funtzionamendua aldatuko dugu, gizarte eragile gehiagok izan dezaten parte hartzeko aukera. Hiru batzorde martxan jartzea aurreikusten dugu. Bat, helduen euskalduntzeari buruzkoa, eta bigarrena lege markoaren inguruko azterketa egingo duena. Gai hori arazotsua denez euskararen ofizialtasuna eremu euskaldunera mugatuta dagoen Nafarroan, eta alderdi politikoen artean adostasunik ez dagoenez, foro hori iruditu zaigu lanketa-gune interesgarria. Hirugarren batzordean, hedabideen garrantzia kontuan hartuta, aztertuko digu nolako elkarlana garatu dezakegun sektorearekin. Momentu honetan ez daukagu gaitasunik eraldaketa handiagoa egiteko. Aldaketa-rako aukera egon badago. Denborak esango digu konplizitateak-eta nola gauzatzen diren”.

ADMINISTRAZIOEN ARTEKO HITZARMENA

I Euskararen sustapena ahalbidetu eta bizkortu ditzaketen politika publikoak garatzeko orduan testuinguruak, abiapuntuak, eskumenek, legezko egoerak eta beste hainbat faktorek duten eragina saihetsezina den arren, baditu behingoz euskarak bere aurrerabidearekin konprometitutako erakundeak lurralde guztietan. Eta lurralde horietako administrazioek badute, behingoz eta aurrenekoz, elkarrekin jardutea ahalbidetzen dien marko bat: Eusko Jaurlearitzak, Nafarroako Gobernuak eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak EEP sinatutako euskara sustatzeko hitzarmena. Lankidetzaren tekniko bost esparru ezartzen dituen akordioa 2017ko uztailearen 3an sinatu zuten Iruñean Nafarroako Gobernuak Herriarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollok; Eusko Jaurlearitzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburu Bingen Zupiriak eta artean EEPko lehendakari zen Mathieu Bergék.

Euskarak azken hogeita bost urteotan irabazi dituen 200 mila hiztun berrien gaia aztertu dute Deustuko Unibertsitatean egindako ikerketa batean. Hiztun horietako askok euskaraz hitz egiteko erraztasunik izan ez arren (gaitasun-mailako mugak), edo jatorrizko euskaldunekin (etxean ikasi dutenak) hitz egiteko aukera handirik izan ez arren, euskaraz egin, hitz egiten dute.

**Interesgarria
izango litzateke
populazio
euskaldun
berriaren
hizkuntza-
identitatearen -
edo identitateen-
gaineko
ekarpenak
kontuan hartzea.**

Hitzarmenaz aritzerakoan, hitz bera egon zen hiru mahaikideen ahotan: historikoa. “Mugaz gaindiko hizkuntza politika amankomunean inportanteena da ze konpromiso dagoen, eta ze borondate dugun lauzpabost puntu horietan aurrera egiteko”, azaldu zuen Miren Dobaranek, eta urrats zehatzak aipatu zituen, hala nola “helduen euskalduntze eta alfabetatzean ditugun desajusteak ajustatzen joatea, curriculum, fitxak eta gainerakoak bateratuz” edo “sustapenaren arloan Topagunearekin lortutako akordioa”. “Horrelako aktibazio programa bat bakoitzak bere neurrian, ahal duen lekuetan eta dituen baliabideekin Euskal Herri osoan martxan jartzea ikagarraria da. Hitzarmenaren beste puntuak pixka bat atzetik doaz, baina gure artean hurbiltasun handia dago, eta laster ikusiko ditugu hitzarmen horrek ekarriko dituen lorpenak”, adierazi zuen.

Mathieu Bergék lehendik ere abian ziren egitasmo partekatuak eta trukeak aipatu zituen, “elkarrekiko eta bakoitzaren errealitate sozial, politiko eta juridikoekiko errespetuan oinarrituak” horiek ere. Bergéren ustez, “hizkuntza politika Europa mailako markoan kokatu ahal izatea” da hitzarmenaren onura nagusietakoa. “Euroeskualdeak hizkuntza politikarako funtsak mobilizatzeko aukera emango ditu. Arlo horretan, erronka da Akitania Berria, Euskadi eta Nafarroa ados jartzea, POCTEFA programa europarreko 2020-2026 Egitasmo Operatiboan hizkuntza politikarako aurrekontu-ildo bat ezar dadin lortzeko. Pirinioetako gainerako komunitateekin ere adostu beharko litzateke, baina apustu estrategikoa da”.

“Lehendik ere ari ginen lankidetzan, baina ez orain eman zaion forman”, berretsi zuen Mikel Arregik. “Ikusita, gainera, denok sinesten dugula proiektuan, uste dut aurrerapausoak nabarmenak izango direla finkatu ditugun ildo eta arloetan. Horrez gain, gogoetarako ildo berriak irekiko ditugu, eta bakoitzak esperientzia desberdinak dituenek, horien trukaketa aberatsa izango da guztiontzat”.

• • •

OHARRAK

1. 2016ko martxotik 2017ko uztaileira bitartean Euskararen Erakunde Publikoko lehendakari izan zen. Frantziar estatua, Akitania Berria eskualdea, Pirineo-Atlantikoetako departamendua eta Euskal Hirigune Elkargoa biltzen dituen Office Public de la Langue Basque-Euskararen Erakunde Publikoaren presidentetza txandaka hartzen dute lau erakundeek. Eskualdearen izenean hautatua izan zen Bergéren tokia Elkargoa ordezkatzeko duen Beñat Arrabitek hartu zuen 2017ko uztailean, mahai-ingurua egin baino egun batzuk lehenago. Arrabit bera da, 2017ko otsailaz geroztik Euskal Hirigune Elkargoko (EHE) hizkuntza politika arduraduna.
2. Nafarroako Gobernuak 2017ko irailaren 6an onartu zuen Euskararen Nafar Kontseiluaren araudi berria.

“Euskararen erabilera sustatzeko unibertsitatearen begirada” mahai-ingurua

Uxoa Anduaga eta Belen Uranga

EHU-ko 2017ko Udako Ikastaroetan antolatutako *Euskararen erabilera: egoera, bilakaera eta norabidea, datuen argitan* ikastaroan, unibertsitateetatik egin daitekeen irakurketa aztertzeke mahai-inguru berezitu bat antolatu zen. Bertan, Ana Urkizaren gidaritzapean, honakoak izan dira parte hartu zuten irakasleak: Euskal Herriko Unibertsitateko Jone Miren Hernández (Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea), Mondragon Unibertsitateko Asier Irizar (Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea – HUUHEZI) eta Deustuko Unibertsitateko Estibaliz Amorrortu (Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea).

Abiapuntuan, **Estibalitz Amorrortu irakasleak** Deustuko Unibertsitatean egin duten ikerketa baten emaitzen ikuspegitik planteatu zuen bere azalpena. Ikerketa horretan aztertu dena euskarak azken hogeita bost urteotan irabazi dituen 200 mila hiztun berrien gaia izan da. Informazio orokorra biltzeaz gain, euskararen hiztun berri horien bizipenak, hizkuntzarekiko dituzten jarrerak eta euskaraz aritzeko sortzen zaizkien aukerak eta zailtasunak aztertu dituzte. Jakin da, esate baterako, hiztun horietako askok euskaraz hitz egiteko erraztasunik izan ez arren (gaitasun-mailako mugak), edo jatorrizko euskaldunekin (etxean ikasi dutenak) hitz egiteko aukera handirik izan ez arren, euskaraz egin, hitz egiten dutela. Beraz, irakurketa positiboa egitea komenigarria dela iritzi dio. Alegia, nahiz eta Kale-neurketan agertzen diren azken datuek aditzera ematen duten erabilera orokorrak behera egin duela, kontuan izan behar da hori ez dela harriztekoa, egun dugun egoera soziolinguistikoa aintzat hartuta. Horrek ez du esan nahi, halere, konformatu behar dugunik.

Halere, ikuspegi orokorrean arreta jarri ezker, egia da ezinbestean fokua hiztun berriengana joaten dela, izan ere, populazioaren parte oso garrantzizkoa da; eurak euskararen biziberritze-prozesuan ezinbestekoak dira, eta euren jarrerak eta hizkuntza-erabakiak estrategikoak. Eta, jada bada-kigu populazio hori aldaketak ekartzen ari dela euskaldunen populazio orokorrari. Esate baterako, interesgarria izango litzateke -akaso iradokizun

%52k gaztelaniaz euskaraz baino gehiagotan.

Aldiz, %20k euskaraz erdaraz bezainbeste egiten duela aitortzen du; %8k euskaraz gaztelaniaz baino gehiago eta %1,8k beti (ia) euskaraz.

Garrantzia berezia du euskara erabiltzeko aukerak eta sareak izatea. Ez dira euskaldun gutxi norekin hitz egin ez dutela adierazten dutenak! Garrantzia berezia du euskararekiko hiztunak duen kontzientzia, konpromisoa, atxikimendua, eta jarrera erreaktiboa edo proaktiboa.

moduan- populazio euskaldun berriaren hizkuntza-identitatearen -edo identitateen- gaineko ekarpenak kontuan hartzea.

Aipatzen ari garen ikerketan Ane Ortegak, Jaky Urlak eta Jone Goirigoi-zarrrik parte hartu dute Estibaliz Amorrorturekin batera, eta, esan bezala, *Hiztun berriak eta euren bizipenak* dira ikergai nagusia. Ikertze-lagina euskaraz ongi hitz egiten duten 18-55 urte bitarte dituzten lagunek osatu dute, eta metodologikoki bi alderdi izan ditu: lehenengoan, eztabaidatalde eta elkarrizketa bideratuen bitartez, hiztun berrien esperientziak ezagutu, jarrerak identifikatu eta euskara erabiltzeko zailtasunak zeintzuk diren identifikatu nahi izan da. Bigarreanean, aurrekotik eratorritako gai garrantzitsuenen inguruko inkesta kuantitatiboa egin da, EAE mailako lagin nahiko esanguratsu bati berariaz prestatuturiko galdetegi pasata.

Ikerketa horren arabera, euskararen eguneroko erabilerari dagokionean honako ezaugarriak aipa daitezke:

- Euskaldun berri askok euskaraz oso gutxitan hitz egiten du: %18ak ia beti gaztelaniaz egiten du eta %52k gaztelaniaz euskaraz baino gehiagotan.
- Aldiz, %20k euskaraz erdaraz bezainbeste egiten duela aitortzen du; %8k euskaraz gaztelaniaz baino gehiago eta %1,8k beti (ia) euskaraz.

Baina zein dira euskararen erabilera hori azaltzen duten arrazoiak? Zein dira gakoak? Honakoak dira ikertzaileek ondorioztatu dituzten ideia nagusiak:

1. Garrantzia berezia du euskara erabiltzeko aukerak eta sareak izatea. Ez dira euskaldun gutxi norekin hitz egin ez dutela adierazten dutenak! Beraz, testuinguru soziolinguistikoak eta sare sozialak euskararen erabileraren baldintza determinatzaileak dira.
2. Hizkuntza-ohiturek ere pisu berezia dute. Izan ere, harreman-hizkuntza gaztelaniaz abiatuz gero, ondoren aldatzea ez da erraza izaten.
3. Euskaraz hitz egiteko gaitasun-mailak zeresan handia du hiztunak euskaraz hitz egin dezan. Ez da soilik gaitasun formala behar dena; hiztunak behar dituen erregistro guztietan erabiltzeko egokia izan behar du ikasi duen hizkuntzak, esate baterako, hurbileko elkarrizketetarako.
4. Garrantzia berezia du euskararekiko hiztunak duen kontzientzia, konpromisoa, atxikimendua, eta jarrera erreaktiboa edo proaktiboa. Ikerketak erakutsi du kontzientzia-mota desberdinak daudela hiztun berrien artean (eta ziur asko baita gainerakoan artean ere!), ez baita gauza bera, esate baterako, umeak euskaraz egin dezaten ahalegina

egitea, edo beste maila bateko konpromisoekiko aldeko posizionamendua hartzea.

5. Hiztunaren autokontzeptua edo hizkuntza-identitatearen gaia modu berezian azpimarratuta agertu da ikerketan. Hiztun berri izaiteak duen pisua edo balioa hiztun horrengan berebiziko garrantzia duela agerian jarri da, alegia, hiztun legitimo edo *zerbait falta izanaren sentimendua* izateak modu batera edo bestera baldintzatzen du hiztuna euskaraz aritzeko orduan.

Beraz, hiztun berriek euskaraz hitz egiteko gako esanguratsuak baldin badira horiek, pentsa daiteke horietan eraginez, neurri batean behintzat, erabiltzeko aukerak handituko direla. Horrela, honako puntuetan ahalegintzea garrantzizkoa izan daiteke:

1. Interbentzio-plangintzak neurri berezituetan egin behar dira. Komeni da talde txikien diagnosia egin eta horien araberrako plangintzak helburu egokituekin prestatzea. Aspaldi dakigu Barakaldo eta Bermeo ez direla soziolinguistikoki ingurune berdinak (euskaldunen dentsitate oso desberdinak dituztelako), baina kontuan izan behar da baita ere, euskaldun-dentsitate antzekoa duten udalerrietan ere aniztasun oso handia dagoela. Esate baterako, ez da soziolinguistikoki gauza bera Bermeo eta Gernika. Beraz, tokian tokiko diagnosiak eta plangintza egokituak egitea ezinbestekoa dirudi.

2. Hizkuntza-helburuak ezarri behar dira, eta betetzen diren edo ez jakiteko jarraipena egin. Eta, jakina, jarduera bereziek egin behar dira horiek bete daitezen.

3. *Harreman-hizkuntza aldatzea zaila da* ideologia oso barneratua dago hiztun berri eta zaharren artean. Eta, jakin badakigu, *aldaketa oso posible dela*. Beraz, *ideia hori neutralizatzeko neurriak hartzea garrantzizkoa da*, marketing- eta harreman-mailan. Izan ere, denok aldatzen dugu harreman-hizkuntza norbaitekin noizbait. Hiztun berri eta umeen kasuan lortu beharko litzateke gutxienez, harreman-hizkuntza ez dadila bakarra izan.

4. Asertibitatea eta jarrera proaktiboa sustatzeko -alegia norberak hautua egitea- neurriak hartzea interesgarria izango litzateke.

5. Gazteek zer egiten duten horretan jartzen dugu fokua gehien, baina horrez gain, umeei ere begiratu behar zaie. Horiek etorkizuneko gazte eta helduak dira, eta askotan ez gara konturatzen euren hizkuntza-portaerek duten garrantziaz.

6. Berezi azpimarratu behar da euskaldun natibo eta ez natiboen arteko banaketa ez indartzearen garrantzia, euskaldun zahar eta berrien arteko bereizketa ez sakontzea, alegia. Kontzientzia oso argia

Harreman-hizkuntza aldatzea zaila da ideologia oso barneratua dago hiztun berri eta zaharren artean. Eta, jakin badakigu, aldaketa oso posible dela. Beraz, ideia hori neutralizatzeko neurriak hartzea garrantzizkoa da

**HUHEZIn egin
zen kale-
neurketa.
Jasotako
emaitzak aurrez
zegoen
pertzepzioa
berretsi zuen.
Ikusi zen espazio
ez formaletan eta
ikasleak haien
artean dauden
tokietan,
euskararen
erabilera
ezagutza baino
baxuagoa dela
(%62koa).**

izan behar da euskal hiztun-mota desberdinak daudela, eta, ondorioz, euskararen erabilerearen sustapena egiteko denei eman behar zaiela balioa, guztiak hartu behar direla kontuan.

Asier Irizar irakasleak jarraipena eman dio gaiari, Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultatean sortutako ezagutzaren ekarpena egiteko. Bere ikuspegitik, euskaldun bezala garenaren inguruan pentsatu behar da, alegia, zer garen, non gauden eta norantz goazen, eta hori guztia testu-inguratu. Horretarako, HUHEZIk egindako ikerketarako ibilbidearen berri eman du ondoren. HUHEZI 1976. urtean sortu zen euskal hezkuntza-sisteman arituko ziren profesionalak (irakasleak) euskaraz presatzeko helburuarekin. Kontuan izan behar da 1977an euskal hezkuntza-sisteman euskaraz irakasteko gai ziren irakasleen kopurua ez zela %5era iristen. Gaur egun, ordea, ia %90ekoa da.

HUHEZIk hiru gradu eskaintzen ditu gaur egun: *Haur Hezkuntza*, *Lehen Hezkuntza* eta *Ikus-Entzunezko Komunikazioa*. Fakultateak sortze beretik du euskaltasunarekin lotura estua, eta, hizkuntza erdigunean kokatzen duten graduak eskaintzen ditu, Aretxabaletako eta Eskoriatzako bi campusetan. Urtero, 900 inguru ikasle matrikulatzen dira bertan.

Horrela bada, esan daiteke euskararen presentziari dagokionean HUHEZI ez dela gizartearen isla. HUHEZI osatzen duten guztiak euskaraz hitz egiten dakite, eta bertan ikasle zein langile izateko euskara jakin behar da. Horrek, jakina, gizartearekiko diferentzia nabarmena markatzen du.

HUHEZIn definizioan bertan kokatzen da euskal zaletasuna. Horrez gain, aipagarria da Mondragon taldean dauden enpresa guztiek bezala euskara-batzordea duela, non ikasle eta langileek parte hartzen duten. Beraz, egoera oso euskararen aldekoa da, ia-ia ideala. Halere, 2009rako susmoa bazegoen euskararen erabilera, baldintza horietan espero zitekeena baino nabarmen txikiagoa zela, eta, beraz, pertzepzio horrekin kezaturik ikerketari ekin zioten.

Soziolinguistika Klusterrak espazio sozialetan erabiltzen duen kaleko hizkuntzen erabilera neurtzeko metodologia ber-bera erabiliz, egin zen ikerketa hori (kale-neurketa). Eta jasotako emaitzak aurrez zegoen pertzepzioa berretsi zuen. Ikusi zen espazio ez formaletan, alegia, arlo edo espazio kurrikularretatik kanpo dauden horietan eta ikasleak haien artean dauden tokietan, euskararen erabilera %62koa zela (emaitza kuantitatiboa). Horrez gain, ikusi zen euskararen ezagutza bermatuta izan arren, ikasleek lan-esparrutik kanpoko erabilerarako duten euskara-gaitasuna nahiko mugatua dela (emaitza kualitatiboa).

Emaitzaren ondorioz, *Landuizu* izeneko tresna bat prestatu eta abian jarri zen gabezia horiei aurre egiteko. Tresna Moodle plataformatik sortu eta ikasleekin egiten zen kontratu modukoa zen. Bertan, hizkuntzari buruzko zenbait betekizun edota irizpide azaltzen ziren, baina irizpide horiek ez zuten inolaz ere derrigorrezkotasunik ezartzen. Hasierako urteetan ikasle gehienek bete zuten kontratua; handik 5 urtera, ordea, kontratuak bere balio guztia galdu zuen, ikasleek derrigorrezko betebeharrak modura hautematen hasi zirelako.

Nolanahi ere, aipagarria da esperientzia hartatik hiru urtera berriz egin zela neurketa, eta erabilera %50ra jaitsi zela, beraz, egoera oso etsigarria gertatu zen.

Aurten, berriro ekin diote ikerketara, lau urteko proiektu berri bat abian jarritz. Lehen mailan matrikulatu diren ikasle guztiak kontuan hartu dira, abiapuntuko euskararen kale-neurketa egiteko. Kasu honetan, datuek erakutsi dute euskararen erabilera %44,8koa dela. Beraz, datua oso deigarria da kontuan izanda unibertso osoa euskalduna dela. Ikerketaren baitan aurreikusi da, gainera, aurten lehen maila egin dutenekin 2. eta 3. mailan interbentzioa egitea.

Lau urteko ikerketaren helburuak honakoak dira:

1. Kudeaketa akademikoan ikasleei begira neurriak hartzeko informazio nahikoa biltzea, jakitun izanik euskara ezagutzeak ez duela berez gaitasun nahikoa bermatzen. Garrantzi berezia izango du, beraz, idatzizko lanketaz gain, ahozkotasunean indar handia jartzeak.
2. Ikas/irakas prozesuetan euskararekiko motibazioetan eragiteko neurriak hartzea. Helburu horri lotuta, azpimarratzekoa da eskolak formazio soziolinguistikoa eskaini eta eman beharko lukeela.
3. Arlo kurrikularrean eta ez kurrikularrean euskal kulturgintzari loturiko ekimenak eskaintzea. Esate baterako, Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduondokoak aurten 6. edizioa du, eta asmoa da graduko ikasleak bertara inkorporatzen joatea.
4. Identitate eraketa prozesuetan euskal kontzientzia soziokulturala eraikitzea.

Egoera interpretatzeko orduan, honako hiru faktore azpimarra daiteke: 1) Estatu nazioaren eragina (izan ere, mende dituen nazio eta identitateen asimilazioa eta ordezkapena dakar); 2) Globalizazio berantiarra (zeinaren bitartez, kultura eta identitateen homogeneizazioa hedatzen den). Bere eraginez, gazteak globalak sentitzen dira eta hiritartasun kontzeptu berdinzale batean murgildu dira; eta 3) migrazio-mugimendu handiak (es-

Aurten berriro ekin diote ikerketara, lau urteko proiektu berri bat abian jarritz. Lehen mailan matrikulatu diren ikasle guztiak kontuan hartu dira, abiapuntuko euskararen kale-neurketa egiteko. Kasu honetan, datuek erakutsi dute euskararen erabilera %44,8koa dela.

**Egoeraren
aurrean hainbat
proposamen egin
daiteke: esate
baterako,
euskalduna
izateko gogoa
piztea komeni da.
Baina ez da
ahaztu behar,
euskaldun
izatearen nahia
identitateari
lotuta dagoela;
ikasleei azaldu
beharko litzaieke
zergatik ikasten
duten euskara.**

parru horretan, ekologia linguistikoaren ekarpenak osagarriak izan daiteke gure proposamenarekin).

Beraz, egoeraren aurrean hainbat proposamen egin daiteke: esate baterako, Joxe Azurmendik eta Maria Anjeles Iztuetak esaten duten bezala, euskalduna izateko gogoa piztea komeni da. Baina ez da ahaztu behar, euskaldun izatearen nahia identitateari lotuta dagoela. Juan Carlos Etxegoien *Xamar*-en hitzak gogora ekarriz, ikasleei azaldu beharko litzaieke zergatik ikasten duten euskara, izan ere, askok inposizio moduan ikusten dute euskara. Baina euskaldun izatearen poz eta gogoa ikasleengan pizteko ardura egon beharko litzateke.

Jone Miren Hernandez-en hitzetan Inkesta Soziolinguistikoak eta Euskal Herriko Kale-Neurketak argitaraturiko datuek fase berri bat abian jartzeko une egokia dela iradokitzen dute. Hala ere, berak dioen modura, ideia hori ez da berria, azken urteetan inpresio hori hedatu baita euskalgintza osoan. Arriskua dago, ordea, inpresio horretan harrapatuta geratzekoa. Agian, irakurketa hori egiteari jada utzi beharko litzaioke. Izan ere, jakina da zerbait egin behar dela, baina, aldi berean, egin behar hori etengabe presente dagoen mamu kaltegarri bat ere bada.

Bere ideia edo ondorio nagusia da gauzak ez direla, orokorrean, gehiegi aldatu. Edo bestela begiratuta, kuantitatiboki mugitu diren arren, norabide berean doazela. Gainera, gertatu diren aldaketak, esate baterako kale neurketakoak, nahiko mantso ari dira gertatzen; ez dira gizarteari loturiko aldaketak. Alegia, ezagutza gorantz azkar samar doan modura, erabilera oso mantso doa. Beraz, laburpen modura esan daiteke azken hiru hamarkadetan norabidea mantendu dela gizarte-aldaketa handirik gabe.

Esan bezala, ezagutzari buruzko datuak positiboak dira. Goraka doa, baina kontuan hartu behar da mende bat baino gehiagoko ibilbidea dagoela ezagutzaren alde lan egiten. Hernandezek bilakaera horren abiapuntua XIX. mende amaierako mugimenduan kokatzen du, noiz eta nazionalismo tradizionalak euskararen ezagutzaren ardura emakumezkoei egotzi zien. Garai hartan, umeei euskaraz hitz egiten erakutsi behar zitzaie aldarrikatu zen, hau da, euskararen ezagutza zabaltzeko hizkuntza-politika bat hasi zen. Hasiera hartan, emakume abertzaleen eskuetan geratu zen eginkizun hori, eta, ondoren, andereñoenetan. Beraz, euskararen ezagutzaren aldeko mugimenduak ibilbide luzea darama. Horregatik, hain zuzen ere, ikus daitezke orain emaitzak. Izugarritzko ekimena izan da; esan liteke herri bezala egin den apustu nagusienetakoa izan dela, non, zinez, energia, dirua eta lanesku asko inbertitu den. Eta azpi-

marratzekoa da ezagutzaren garrantzia. Izan ere, gaur egun biztanleriaren parte handi batek ezin izan zuen euskara eskolan ikasi, eta ikastekotan beste baldintza zailagoetan ikasi behar zuten. Eta gaur egun ikusten denean umeez zer-nolako aukera duten euskara eskolan ikasteko, aldaketa hori ondo baloratu behar da. Beraz, ahalegin berezia egin behar da ezagutza ziurtatzeko.

Gaur egun, alabaina, erabilera da kezka nagusia. Eta esan behar da hizkuntza-politikaren ikuspegitik erabilerearen ibilbidea laburragoa dela ezagutzarena baino. Gauza asko egin den arren, ez dira alderagarriak. Gainera, erabilerearen esparruan ez da norabide argi bat egon. Gatazka handi bat dago hor. Ze erabilera sustatu behar da? Batua? Euskalkia? Kultua? *Euskañola*? elkarrizketa mistoak? mundu guztiak erabili behar du euskara denetarako? Esan daiteke, gaur artean ez dagoela erabilera gidatuko duen norabide argi bat. Eta, gogoratu behar da ezagutzaren aldean elementu konplexua dela erabilerearena. Hau da, beste era bateko elementua da eta zalantzarik gabe, zailagoa ulertzeko, planifikatzeko edota neurtzeko. Ez da ahaztu behar, erabilerearen eragiten duten faktoreak asko direla eta horietako asko ez daudela hizkuntzarekin lotuta.

Egia da, bestalde, frustrazioa datorrela, maiz, datuak ikusi eta ezagutza altua eta erabilera baxua dela antzematen denean. Horri dagokionez, oso kontuan hartu behar dira azken urtean ikasi diren bi ideia: 1) Eskolak (bakarrik) ez du gizarte euskaldunduko eta 2) Ezagutzak ez dakar (halabarrez) erabilera. Halere, bi ekitate horiek ezagututa ere, ezagutza eta erabilerearen arteko lotura zuzena egiten jarraitzen dugu. Eta pentsatzekoa da, nahiz eta ezagutza, erabilera eta motibazioa elkar lotuta dauden, behar bada bakoitza bere baitan hartu behar dela azterketa-gai. Eta hiruki horren logika apurtuz, elementu bakoitzari begirada berezi bat eskaintzea. Horrela egin ezean, batere laguntzen ez duen frustrazioan inguratua egoteko arriskua dago.

Beraz, badiogu ezagutzak zoru bat jarri duela. Eta horrek lasaitasun pixka bat eman beharko luke erabilerearen inguruan pentsatzen hasteko. Esate baterako, aipa daitezke aztertu eta ulertu beharreko honako bi gertakari. Lehena, migrazioko fenomenoarekin lotuta, aztertzekoa da Gasteizen izan den bilakaera: 2011. urtean atzerrian jaiotako biztanleak 23.800 ziren, eta 2016an 28.000. Immigrazioko datuen igoera hori gertatu den arren, aipagarria da hiriburu horretan euskararen Kale-erabilerak gora egin duela.

Aipagarria den bigarren fenomeno haurren arteko erabilereari dagokio. Izan ere, dirudienez, haurren arteko euskararen erabilerean aurreikusi ez

Hizkuntza-politikaren ikuspegitik erabilerearen ibilbidea laburragoa da ezagutzarena baino. Esparru honetan ez da norabide argi bat egon: Ze erabilera sustatu behar da? Batua? Euskalkia? Kultua? Euskañola? elkarrizketa mistoak? mundu guztiak erabili behar du euskara denetarako?

**Haurren arteko
euskararen
erabileran
aurreikusi ez den
jaitsiera gertatu
da. Harrigarria
da joera hori,
jakina denean ia
haur guztiak
euskalduntzen
ari direla.
Horrek, zinez, zer
pentsatua
ematen du.**

den jaitsiera gertatu da. Harrigarria da umeen hizkuntza-portaeretan neurtutako joera hori, jakina denean ia haur guztiak euskalduntzen ari direla. Horrek, zinez, zer pentsatua ematen du.

Mahaira bildutako azken ideia batzuk ere ekarri nahi izan ditugu artikulu labur honetara, neurri batean behintzat, etorkizunari begirako proposamen modura bildu zirenak.

Etorkizun hurbilean lehentasunezko eragin-esparruak

Euskararen erabilera sustatzeko bideetan eta moduetan eragiteko baliagarri izan daitezkeen ideia nagusiak honakoa dira:

- Alde batetik, euskararen irakaskuntza-moduan arreta berezia jartzeko garaia dela azpimarratu da. Euskararen ahozkoaren alderdian lanketa sakona ezinbestekoa da momentu honetan, izan ere, esan daiteke hizkuntza %97an ahozkoa dela. Gaitasun funtzionalak bermatu behar dira, eta orain artean, eskolak eremu formaleko euskararen irakaspenean jarri du bere lehentasuna, eta ez eremu informaletakoan. Eta, eremu ez formaletako gaitasun mugatuak garbi asko oztopatzen du euskararen erabilera.
- Ideologia bat osatzen ari da esaten duena euskara ikastea eta erabiltzea eremu formalean ondo dagoela, erakundeak horren aldekoak direlako, baliabideak dituztelako eta bertan lan egiteko behar delako. Beraz, badu garrantzia horrek. Beste alde batetik, orokortua dago euskaraz hurrekin egitea ondo dagoela esaten duen pentsamendua. Horrela, garbi ikus daiteke pentsamendu horrek ez duela euskararen erabilera handiagoa izaten laguntzen, ez esparru informaletan, ez eta haur eta helduen arteko harreman horretatik harago ere.
- Biziberritze prozesuetan Administrazioak esku-hartze zuzena egin dezake eremu publikoko hainbat esparrutan: administrazioan, eskolan, hainbat hedabidetan. Eta hori posible da gizarte-mugimenduaren babesa dagoelako eta baliabide ekonomikoak dituelako. Orain, ordea, horiekin batera erronka handia eremu hurbil eta informaletako erabileran dago, harreman-mailan. Eta eremu horretan interbentzioa nabarmen zailagoa da.
- Interbentzio eta plangintza publikotik harago, hiztunek erabaki behar dutenean hizkuntza eremu hurbilean erabiliko duten ala ez, hor esku-hartzea (plangintza) askoz zailagoa da eta behetik gora etortzea ezinbestekoa: erakunde publikoek lagundu beharko dute baina jendearen desiotik ez badator aldaketa hori oso zaila izango da.

Ezagutza orokorraren gunea eta pertsonen nortasuna egituratzen den espazioa izanik, Unibertsitatean euskarak duen lekuaz

- Euskara erdigunean dago HUHEZI-ren kasuan. Diskurtsoetan al-daketa bat dago, ordea. Ikasle batzuk euskararen erabilera erabat instrumentala egiten dute: ikasten dute lana nahi dutelako. Gogoratu behar da, hori bazegoela lehen ere, baina, orain, halakoen kopurua nabarmenki handiagoa da. Eta argi xamar ikusten da euren bizitzetan ez dutela euskara erabiltzeko asmorik.
- EHUko Antropologiako departamentuan, oro har, ikasleak oso euskaldunak dira. Irakasle batzuk kezkatuta daude egoerarekin baina azken bi edo hiru urteetan oso esperientzia interesgarria egiten ari dira. Gradu 4. mailan, “hizkuntza eta antropologia” gaia eskaintzen da. Hasieran eztabaida izan zen zein hizkuntzatan irakatsi, eta erabaki zen euskaraz emango zela gaia. Aldi berean, ordea, gaztelaniako ikasle-leen presentzia bultzatu nahi zen. Soluzio modura ikasleekin hitz eginenez, talde misto bat sortzen zen urtero euskaraz eta gaztelaniaz ikasi dutenak nahastuz. Eta, esan behar da oso emaitza onak lortu direla.
- Deustuko Unibertsitateari dagokionean, esan behar da gehiago egin daitekeela modu esplizituan, momentuz egiten dena baino. Balioak transmititzeak garrantzi handia du, eta esparru horretan, aniztasunarekiko errespetua kontuan hartzen den arren, horren baitan, gehiago landu beharko litzateke euskararekiko balioa. Baina hori maiz irakasleek esku geratzen da ez dagoelako apustu instituzional argirik, nahiz eta badauden esperientzia interesgarriak EHUko Antropologian aipatu direnen antzekoak.

Unibertsitateak lan-munduan euskararen erabilera sustatzeko duen arduraz

- HUHEZI fakultateak badu ibilbide bat lan-munduan euskararen erabilera sustatzeko ekimenetan. Esate baterako fakultate horretan sortu zen EMUN aholkularitza, kezka soziolinguistiko bati erantzunez. Eta esan daiteke emaitza oso ona dela, lan-munduko errealitatean zuzenean eragiteko gaitasuna duelako eta 20 urte igaro ondoren lanean jarraitzen duelako. Nolanahi ere, oso kontuan izan behar da zein den errealitatea. HUHEZI fakultatean irakasle euskaldunak formatzen dira, baina ezaguna da D ereduko ikastetxe askotako klaus-trotan gaztelania dela harreman-hizkuntza. Beraz, unibertsitatea saiatzen da irakasle euskaldunak lan-merkatura hurbiltzen eta, bertan, erabilera mugatzen duen kristalezko sabai batekin egiten dute topo. Beraz, hor beste nonbaitetik eragitea garrantzizkoa izango da.

Euskararen irakaskuntza-moduan arreta berezia jartzeko garaia da.

Hiztunek erabaki behar dutenean hizkuntza eremu hurbilean erabiliko duten ala ez, esku-hartzea askoz zailagoa da eta behetik gora etortzea ezinbestekoa: erakunde publikoek lagundu beharko dute baina jendearen desiotik ez badator aldaketa hori oso zaila izango da.

***Ikasle batzuk
euskararen
erabilera erabat
instrumentala
egiten dute (lana
nahi dutelako).
Hori bazegoen
lehen ere, baina,
orain, halakoen
kopurua
nabarmenki
handiagoa da.
Eta argi xamar
ikusten da euren
bizitzetan ez
dutela euskara
erabiltzeko
asmorik.***

- Euskal Herriko Unibertsitateari dagokionez, asko dago egiteko. Baina bada inpresioa kezka zabaltzen ari dela: Euskara Errektoreordetza hor dago, baina erabileraren inguruko kezka orain pizten eta zabaltzen ari da, oso nabarmena delako. Berez EHU erakunde erraldoia da, errealitate askotakoa, baina orain abiatzen ari da bidetxo bat euskararen erabileran eragiteko aukerak sortzeko bidean.
- Deustuko Unibertsitatearen ikuspegitik azpimarratzen da unibertsitatearen zeregina lanean ondo arituko diren profesionalak trebatzea dela. Zentzu horretan unibertsitateko ikasle horiek laneratzen direnean euskaraz lan egiteko gai izango diren edo ez da Deustuko Unibertsitatearen kezka nagusia. Baina unibertsitateek erantzukizun handia dute horretan, eta hori kontuan hartuta haien hizkuntza-politika berrikusi beharko lukete.

• • •

Markoa, argazkiak, kristala

Garikoitz Goikoetxea

SARRERA

Gizarte eragileek zer interpretazio egiten duten, hiru solaskide mahaian: Iker Salaberria, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluko Ildoen arduraduna; Mertxe Mugika, AEK-ko koordinatzaile nagusia; eta Iker Martinez de Lagos, Euskaltzaleen Topaguneko komunikazio arduraduna. Ez dituzte ustekabean harrapatu inkesta soziolinguistikoak eta kaleko erabileraren neurketak ekarritako datuek, aurreko joerarekin bat datoz eta. Baina badute kezka, baldintza soziolinguistikoak nola aldatu. Aldaketa ildo batzuk jarri dituzte mahai gainean.

Euskararen biziberritzea zer norabidetan sartua dagoen berretsi dute 2016ko ikerketek: Euskal Herriko seigarren inkesta soziolinguistikoak eta kaleko erabileraren zazpigarren neurketak. Egoera marraztu dute zenbakitan. Marko orokor bat, Euskal Herri osokoa: euskaraz dakien jende gehiago, erdal elebakar gutxiago, euskararen aldekotasan handiagoa, baina erabilera trabatua. Markoaren barruan, kolore desberdineko argazkiak: tokian-tokian, egoera eta norabide desberdina du euskararen egoerak. Eta, markoari lotuta, argazkien gainean, kristala: egoera behatzeko modua, etorkizunerako norabidea argitzeko ezina.

MARKOA: JOERAREN BAIEZTAPENA

I Ezustekorik gutxi ekarri dute inkesta soziolinguistikoak eta kaleko erabileraren neurketak: gutxi-asko, aurreko urteetan agertutako norabideak baieztatu dituzte. “*Déjà vu* modukoa izan da: espero ahal ziren datuak eta joerak dira”, azaldu du Iker Martinez de Lagosek, Euskaltzaleen Topaguneko komunikazio arduradunak. Markoaren lau erpin seinala litezke bi ikerketa horien ondorio nagusizat. Bat: gero eta euskal herritar gehiagok dakite euskaraz (%28), batez ere gazteen artean, eta erdal elebakar gutxiago dago, nahiz eta oraindik ere gehiengoa diren (%55). Bi: gehienek etxetik kanpo ikasi dute euskara, eta erosoago egiten dute erdaraz. Hiru: euskararen aldeko jarrera dute gehienek, eta inoiz baino txikiagoa da aurkakotasuna. Eta lau: erabileran ez da aurrerabiderik nabari, etxeko erabilera bere horretan dago eta kalean jaisten hasi da.

Marko orokor bat, Euskal Herri osokoa: euskaraz dakien jende gehiago, erdal elebakar gutxiago, euskararen aldekotasan handiagoa, baina erabilera trabatua.

Gogoeta eta autokritika
«asko eta ondo»
egin du euskalgintzak.
«Eragin dugu, bai, baina ez behar beste».
Hiru motibo: gizarte aldaketak, eragileen eta administrazioen arteko harreman hotza, eta eman beharreko mezuari buruzko ikuspegi bateraturik eza.

Joerak ez dira orain agertu bat-batean. Euskara biziberritzeko bidea geldialdi batean sartua ote den, aurreko urteetatik dator kezka; ezagutzan, bai, pausoak ageri direla urtez urte, baina beste eremu batzuetan aurrera egin ezin bat iritsi ote den. Kaleko erabileraren datuek geldialdi hori erakutsi zuten aurreko bi neurraldietan, eta azkenekoan jaitsieratxo bat agertu da, neurketa egiten dutenetik lehen aldiz. Ezinegona eragin du. “Frustrazio sentsazioa” ere bai, Martinez de Lagosen ustez. Euskalgintzan dabilzan eragileen artean sentsazio ezkorrak zabaldu samar daude aspaldian: espero izandako emaitzak ez direla iritsi, jarritako helburuak ez direla betetzen ari, ametsak urrun daudela. “Ohartzen hasita gaude kuantitatiboki emaitzak ez direla nahiko genituzkeen bezain onak”, dio, adibidez, Topalabea taldearen *Berrikasi eta berrikusi* txostenak (2015). Kuantitatiboki ere agertu du beherakada kaleko erabileraren azken neurketak. “Orain artekoa baieztatu dute datuek: zerbait ez gara ari ondo egiten”. Mertxe Mugikaren iritzia da hori, AEKren koordinatzaile nagusiarena. “Baina ez dugu erori behar biribilgunean bueltaka jarraitzera: har ditzagun neurriak”.

Biribilgunearen ideia makina bat aldiz aipatu dute azken urteetan. Bada denbora gogoeta prozesu betean murgilduta daudela euskalgintzako eragile ugari: Kontseiluak egin du barne gogoeta bat, Topagunearen altzoan jaio zen *Berrikasi eta berrikusi* dokumentua, EHE Euskal Herrian Euskaraz-ek *Euskal Herri euskaldunari ateak ireki* agiria landu du, Euskararen Aholku Batzordeak *Eta hemendik aurrera zer?* dokumentua adostu du Eusko Jaurlaritzaren ekimenez... *Euskara irabazteko bidean* liburuan jasoak daude gogoeta eta iritzi horiek.

Gogoeta eta autokritika “asko eta ondo” egin du euskalgintzak, Topaguneko ordezkariaren ustetan. “Gehiegizko zartakoak ere bai batzuetan”. Hutsune bat baino gehiago aipatu dituzte eragileek. Bat seinalatzekotan, zera: eragile lana, akuilu izatearena, kamustua dagoela. “Eragin dugu, bai, baina ez behar beste”, aitortu du Kontseiluko Ildo arduradunak, Iker Salaberriak. Hiru motibo aipatu ditu: gizarte aldaketak, eragileen eta administrazioen arteko harreman hotza, eta eman beharreko mezuari buruzko ikuspegi bateraturik eza —“gaia problematizatzea ala mezu positiboak ematea”—.

ARGAZKIAK: HURBILTZEKO ERA BAT

Marko barruan, argazkietan, ari dira mugimendu batzuk izaten. Euskal hiztunen argazkia berritu egin da: gazteagoak dira euskaldunak. Hara: 1991n, 65 urtetik gorakoena zen adin talderik euskaldunena —%28 ziren

euskaldunak—, eta, orain, 16-24 urtekoena —%55 dira euskaldunak—. Gaztetu egin da soslaia, beraz. Baina kontuan izatekoa da biztanleriaren egitura ere asko aldatu dela urteotan: gazte gutxiago dago, eta adineko gehiago. 50 urte baino gehiago dituzte Euskal Herriko biztanleen erdiek; hain justu ere, haienak dira adin talderik erdaldunenak. Haien pisua erabakigarria da hiztunen portzentajeak zehaztean: erdaldunen %60k 50 urte baino gehiago dituzte. Batez ere 34 urte baino gutxiagoko herritarren artean nabari da euskararen ezagutzaren goraldia, baina, haien pisu demografikoa ahula denez, ez da aski joera orokorra gehiago aldatzeko.

Baldintza soziolinguistiko horiek ikusita, gazteen artean ari dela euskaldunen ehuneko handitzen batez ere, aurrera egin ezin bat nabari du Salaberriak: “Belaunaldi berriak erdaldundu egiten dira gizarte bizitzan sartzean”. Alegia, nahiz eta euskaldunak gero eta gehiago diren gazteen artean, gizarteratzen diren heinean erdarazko mundu batekin topo egiten dute. “Eta egoera sozialera egokitzen dira”. Dela aisian, dela familian, dela lan arloan. Erdarazko mundua.

Ezagutzari erreparatuta, gaztetu egin da argazkia, beraz. Eta beste ezau-garri batzuk hartu ditu. Duela 25 urte, bost euskaldunetik lauk euskara zuten lehen hizkuntza, eta, orain, erdiek; hiztun berrien proportzioa ia hirukoiztu egin da —%14tik %36ra—. Eta erraztasuna ere aldatu da: euskaldunen %45ek aitortu dute aiseago egiten dutela erdaraz —areago, 16-24 urterekin, %57k—. “Hezkuntzan apustu handia egin da. Ikusten da zertan geratu garen”, ohartarazi du Martinez de Lagosek. Ezagutza, bai, hedatu da belaunaldi gazteetan, baina badira hutsuneak ere: “Erraztasuna, atxikimendua... Eskola kanpotik heldu behar zaie gabezia horiei. Aisiaren esparrua askotan aipatzen dugu, adibidez”. Topaguneko ordezkariak badu kezka bat euskalgintzak eremu horretan duen rolaz, eragiletza lanarekin lotuta: “Geure espazioak sortu ditugu, baina sortuta daudenetan eragin dugu?”.

Ezagutzan badatoz pausoak, nahiz beste jite batera ari den zabaltzen euskara —bigarren hizkuntza gisa, hitz egiteko erraztasun mugatuarekin...—. Hori erabilerara eramatea da datozen urteetarako gako nagusia. Baina euskaraz ikasi duten milaka herritar (gazte) horiek zergatik egingo dute euskaraz? “Hori izango da etorkizuneko galdera izarra”, ohartarazi du Martinez de Lagosek. “Hautua egin beharko dugu euskaraz bizitzeko”. Ideia horri berari heldu zion, adibidez, Txerra Rodriguez soziolinguistak *Berria*-n Bizkaiko datuei buruz gogoeta egitean: “Lehenik eta behin, argi izan behar dugu aurrerantzean euskaraz egitea hautua izango dela Bizkai osoan, hautu kontzientea. Beraz, hautu hori elikatzeke jakiak beharko

Batez ere 34 urte baino gutxiagoko herritarren artean nabari da euskararen ezagutzaren goraldia, baina, haien pisu demografikoa ahula denez, ez da aski joera orokorra gehiago aldatzeko.

**Argi izan behar
dugu
aurrerantzean
euskaraz egitea
hautua izango
dela Bizkai
osoan, hautu
kontzientea.
Beraz, hautu hori
elikatzeko jakiak
beharko ditugu,
denetariko
jakiak, eta
bakoitzari
gustatzen zaiona
eman beharko
diogu, arraina
ala haragia,
barazkiak edo
koipea.**

ditugu, denetariko jakiak, eta bakoitzari gustatzen zaiona eman beharko diogu, arraina ala haragia, barazkiak edo koipea". Hautu horri begira, galera bat sumatu du Topaguneko kideak "transmisio kultural eta identitarioan".

Euskaraz egiteko hautu horri begira, kontzeptu bat jarri du oinarritzat Kontseiluko ordezkariak: erabilera erosoarena. Euskaraz egitea gauza erosoia izatea hiztunentzat. "Bi dimentsio ditu. Batetik, indibiduala, norberari lotzen zaiona: gaitasun egokia izan behar da euskaraz eroso aritzeko". Eta, datuek diotenez, euskaldunen portzentaje handia dago —gazteen artean, gehiengo— erraztasun hori gabe. "Bestetik, dimentsio soziala: elebidunen dentsitate, euskaraz egitearen onarpen soziala, prestigioa...".

Euskaraz aritzeko aukerarekin lotuta, aztertzekoa da beste argazki bat ere: zer aukera eta bultzagarri dauden euskaraz egiteko. Zein eremutan ari den gora egiten euskararen ezagutza, zein testuingurutan, eta horrek nola eragiten dion euskara erabiltzeko zer aukerari. Egoera ahulena duen eremuetan ari da euskara aurrerapauso handienak ematen, gehiengo erdal elebakarra den lekuetan, eta horrek, jakina, erabilera zailtzen du, "dimentsio soziala" kontuan hartzen bada —eta, areago, "dimentsio indibidualean" ere eragiten du, erabilerarik ezak gaitasuna kamusten baitu—.

Bilbokoa da argazki hori, adibidez. Euskaldunen portzentajea hazten ari da urtez urte, baina oraindik gutxiengo dira euskaraz dakitenak (%19), eta gehiengoak ez du euskara ulertu ere egiten (%60). Euskaraz dakiten bilbotar gehienak hiztun berriak dira (%91), eta aiseago moldatzen dira erdaraz —hamar euskaldunetik bakarrak egiten du euskaraz errazago—. Erabilera erosoia egiteko ezintasun handiak, beraz.

Euskal herriko hirigune nagusia da Bilbo Handia. Handia. Euskalgintza nabari ote da? "Euskalgintza badago. Baina beste gauza bat da zer inbertsio egiten duen euskalgintzak Bilbon", ohartarazi du Martinez de Lagos. Ezintasunak sumatzen ditu Mugikak ere: "Momentu jakin batzuetan heltzen gara. Proiektu sakabanatuak daude". Bilbon euskara ikusten ote den, hori dute kezka eragileek. Asko aldatu da hiria aurreko urteetan. "Bilboren eraldaketan ez da zaindu hizkuntzaren gaia", Topaguneko ordezkariaren ustetan. Gaztelaniaren alboan, euskara ez, ingelesa ari da leku handia hartzen, Martinez de Lagosen eta Mugikaren esanetan.

Euskaldunak badirela erakustea, euskara badela agertzea. Hori da, eragileen ustez, erronka nagusia Bilbon —eta ezaugarri horretako eremuetan,

euskaldun gehienak bizi diren tokietan, beraz—. “Bilbon estrategia bat behar dugu euskaldunak ikusarazteko”, dio AEK-ko arduradunak. Euskaldunak trinkotzea da euskalgintzaren egiteko nagusia orain Bilbon, Topaguneko ordezkariaren esanetan: “arnasgune funtzionalak” sortzea. Deustuko Unibertsitateak 2016an aurkeztu zuen hiztun berriei buruzko azterketan —*Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*— bistan jarri zuten horrelako tokiek euskaldunentzat zer garrantzi duten euskaldun dentsitate baxuko eremuetan.

Arnasgune geografikoena da, hain justu, kezka iturri nagusietako bat euskalgintzan: atzerapausoak nabari direla euskara hizkuntza nagusia den eremuetan. Hori berretsi dute inkesta soziolinguistikoak eta kaleko erabileraren neurketak. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako laugarren gune soziolinguistikoa aintzat hartuta —euskaldunak %80 baino gehiago diren udalerriak—, hara: 1991ko inkestan, %88k adierazi zuten batik bat euskaraz aritzen zirela; 2016an, %79k. Kaleko erabileraren neurketari begiratuta, hona: 2006an, %68 entzun zituzten euskaraz, eta 2016an, %65 —1989an, %62—. Etxeko erabileran ere nabari da apaltzea, mapa soziolinguistikoak aztertuta.

Faktore batek baino gehiagok eragin dute arnasgune geografikoen ahultze horretan, baina bistakoa da biztanle mugimenduek zuzeneko zerikusia izan dutela. Hartzen bada laugarren gune soziolinguistikoan euskaraz badakitenen erabilera aitortua, nabarmen hobea da datua: %95ek euskaraz egiten dute maizenik —1991n, %97k—. Biztanle mugimenduen eragina erakusten du, baita ere, laugarren gune soziolinguistikoan euskararen ezagutza jaitsi izanak. Erdaldun gehiago dago eremu horietan.

Bi argazki desberdin, bi joera desberdin, hortaz. Eremu erdaldunagoetan, areagotzen ari da ezagutza, batez ere gazteen eskutik, baina erabilera tratatuta dago. Eremu euskaldunagoetan, jaitsi egin da ezagutza, eta erabilera ere bai. Joera desberdinak, neurri desberdinak eskatzen dituztenak. “Lekukotu dira politikak”, nabarmendu du Salaberriak. Arnasgune geografikoei dagokienez, badu kezka bat Martinez de Lagosek: “Ez dakit herri horietan hausnarketa egin ote den gertatzen ari denaz”.

Badu lana euskalgintzak, beraz. Nola dago, baina, euskalgintzaren beraren argazkia? Gazteen artean euskararen ezagutza nabarmen areagotzen ari den honetan, euskalgintzaren jarduna iristen ote da gazteengana? Eta gazteak euskalgintzara? Mugikak uste du eragileek badutela lana “erakargarriago” izaten. Eragile ugariaren jarduteko moduetatik urrun daude gazte sektore asko; bilera amaigabeak, desordutan... “Euskalgintzan ere

Euskaraz dakiten bilbotar gehienak hiztun berriak dira (%91), eta aiseago moldatzen dira erdaraz —hamar euskaldunetik bakarrak egiten du euskaraz errazago—. Erabilera eroso egiteko ezintasun handiak, beraz. Bilbon estrategia bat behar dugu euskaldunak ikusarazteko.

**Euskal Herri
osorako
egitasmoa
aurkeztu zuten
Euskaltzaleen
Topaguneak eta
Eusko
Jaurlaritzak
2017ko Udaltop
jardunaldietan:
2018an, erabilera
areagotzeko
proiektu bat,
Baietz 11 egun
euskaraz
elkarrekin!
Lelopean;
2019an,
erakundeei
begirako
Erakunde
bakoitzean
praktika sozial
berriak erraztuko
dituen neurri
bat.**

betiko jende asko dago”, ohartarazi du AEK-ko arduradunak. “Gazteei protagonismo handiagoa eman behar diegu”. Esperientzia batzuk probatzen ari dira. Araban, adibidez, 2016an egin zuten esperimentu bat, euskalgintzatik at euskararen alde lanean ari diren gazteak bilduta. Hain justu, Topaguneko ordezkariak uste du hori dela bideetako bat, “autoeraketarena”.

KRISTALA: NOLA BEGIRATU ARGAZKIEI

I
Hori da egoera soziolinguistikoa. Erabileran ageri den geldialdia ikusita, eragileek ondo gogoan dute 2011ko neurketaren ondoren Soziolinguistika Klusterrak ohartarazitakoa: harik eta baldintza soziolinguistikoak aldatu arte, goia joa izango zela erabilera. Beheraka hasi da kaleko erabilera orain. “Kezkatzekoa da”, ohartarazi du Kontseiluko ordezkariak. “Orain bost urte esan genuen baldintza soziolinguistikoak aldatu behar ditugula. Ari gara”, erantzun du Martinez de Lagosek. Datuei begiratuta, ez da emaitzarik nabari. “Herrietan, hala ere, ari da ilusio pizte bat sortzen”.

Azken pare bat urteetan egindako esperimentuek ekarri dute berritasun aire bat euskalgintzara. Lutxo Egiak piztu zuen lehen txinparta, Bilbon, 2015eko ekainean. Igaro berri zen 19. Korrika, *euskahaldun* leloarekin, eta ahalduntze ariketa bat egin zuen Egiak hilabetez: “hizkuntza hegemoni-koa ahaztuta”, erabat euskaraz egiteko hautua. Gogoeta eragin zuen hainbat eremutan. Donostiako Egia auzoan hartu zioten lekukoa 200 lagunek 2016ko urtarrilean: astebeteko txandetan banatuta, konpromisoa hartu zuten astebetean euskaraz bizitzeko. Atzetik etorri ziren beste hainbat herri ere: Agurain, Hernani, Astigarraga, Añorga, Arrigorriaga... Lasarte-Orian egin dute orain arteko aktibazio egitasmorik handiena, *Irten armairutik* leloarekin, 1.300 herritarren parte hartzearekin. Arrakastatsutat jo dituzte egitasmo horiek. Lasarte-Oriakoaren datuak har daitezke adibidetzat: euskaraz egiteko konpromisoa hartu zutenen erabilera %62koa zen proiektuaren aurretik; abian zela, %84koa; eta bukatu eta hiru hilabetera, %81ekoa. Hogei puntu hazi dute erabilera, hortaz. Ezagutzan eta ulermenean egindako pausoak ikusita, argazkiei bestela begiratzeko modua ekarri dute egitasmo horiek. Beste kristal bat.

Proiektua zabaldu egin nahi dute: Euskal Herri osorako egitasmoa aurkeztu zuten Euskaltzaleen Topaguneak eta Eusko Jaurlaritzak 2017ko Udaltop jardunaldietan, izenburu honekin: *Euskarak 365 egun: hizkuntza-ohiturak eta gizarte-aktibazioa Euskal Herrian eta elkarrekin lantzeko proposamen berria*. Aktibazioarena “lan ildo bat” izatea nahi dute. Bi jomuga zehatz ezarriak dituzte, hala ere. Batetik, 2018ko azaroaren 23tik abenduaren

3ra, erabilera areagotzeko proiektu bat, *Baietz 11 egun euskaraz elkarrekin!* lelopean; bestetik, 2019an, erakundeei begirako *Erakunde bakoitzean praktika sozial berriak erraztuko dituen neurri bat*.

Herriz herri egindako proiektuak ditu oinarri Euskal Herri osorako proposamen horrek. Oinarri teoriko gisa, Aldahitz egitasmoa da nabarmentzekoa, Soziolinguistika Klusterra garatzen ari dena, Pello Jauregiren zuzendaritzapean, lan arloko hizkuntza ohiturak aldatzeko. Bi ezaugarri nabarmendu ditu Martinez de Lagosek, Topaguneko ordezkariak. “Batetik, proiektu kolektiboa da”. Taldea du ezaugarri: erronka kolektiboa da, taldearen babesean egiten dena, nahiz eta hiztun bakoitzari eskatzen dion euskararen aldeko konpromisoa. “Bestetik, hiztun guztiei ematen zaie funtzio bat”. Bi rol zehaztu dituzte: batetik, *ahobizi*, ahal den guztietan euskaraz egiteko konpromisoa duen euskal hiztuna; bestetik, *belarriprest*, euskaraz ulertu behintzat egiten duen herritarra, eta konpromisoa hartzen duena euskaraz egiten dion hiztunari oztoporik ez jartzeko.

Ez die, beraz, zama osoa euskal hiztunei uzten: hiztun pasiboei ere eskatzen die jarrera bat hartzeko, euskarazko elkarrizketak ez oztopatzeko. Ezagutzaren eta ulermenaren gorakada dute oinarri asmo horiek: Euskal Herria oro har hartuta, euskara ulertu gutxienez egiten dutenak %45 dira —inkestak soziolinguistikoko datua da hori: datu aitortua, 16 urtetik gorako herritarrena—. Zenbat eta adin gazteagoa, gehiengo da euskara ulertu gutxienez egiten dutenena, eta erdal elebkarrena, gutxiengo. Gipuzkoan, hiru herritarretik bik ulertu behintzat egiten dute euskara.

Aktibazioaren ildo horrek indar handia hartu du euskalgintzaren barruan; nolabait ere, ekarri du euskalgintzako eragileen euren aktibazio bat ere. Mugikak, hala ere, ohartarazi du erabileran egituraz eragiteko behar dela ezagutzan aurrera jarraitu: “Euskal herritarren %55 erdaldunak dira oraindik. Erabileran eragiteko, ezinbestekoa da hor lan egitea”. Proposamen zehatz bat jarri du mahai gainean AEK-ko arduradunak: “Euskarazko B2 mailara arteko plan nazional bat behar dugu”. Euskara ikasteko doakotasunari buruzko eztabaida pil-pilean dagoelarik jarri du proposamen hori mahai gainean AEK-k: Eusko Jaurlaritzak helburuen artean ezarria du B2ra arte maila gainditzen dutenei matrikularen gastu osoa ordaintzea. Tituluen gaiarekin agertu du kezka bat Mugikak: erdiguneegian ez ote den jarri mailak egiaztatzea, erabilerari begiratu ordez. Helduen euskalduntzean indar egitea ezinbesteko dela berretsi du Salaberriak ere: “Helduek dute protagonismoa gizartean. Gazteak, gainera, demografikoki ahul daude”.

Proiektuak ez die zama osoa euskal hiztunei uzten: hiztun pasiboei ere eskatzen die jarrera bat hartzeko, euskarazko elkarrizketak ez oztopatzeko. Ezagutzaren eta ulermenaren gorakada dute oinarri asmo horiek.

***Etorkizuna
argitzen
pixkanaka ari
dela uste dute
eragile gehienek.
Ezinikusiak ari
direla gainditzen.
Elkarlanerako
deiak sekula
baino indar
handiagoa hartu
du
euskalgintzaren
eta erakunde
publikoen arteko
harremanei
dagokienez.***

Erabilera areagotzeari begira, beste puntu bat: hizkuntzaren prestigioa. Pisuzko faktorea dela uste du Kontseiluko ordezkariak. Horrekin lotuta, Martinez de Lagosek dio inportantea dela aktibazio proiektuak erakundeen babesa edukitzea. Tokian tokiko egoerara egokitzea ere bai: “Progresibotasuna garrantzitsua da, marko orokor baten barruan”.

Kristala garbitzen, etorkizuna argitzen pixkanaka ari dela uste dute eragile gehienek. Ezinikusiak ari direla gainditzen. Elkarlanerako deiak sekula baino indar handiagoa hartu du euskalgintzaren eta erakunde publikoen arteko harremanei dagokienez. “Ari gara pausoak ematen”, adierazi du Mugikak. “Aurrera egiteko aukera handiak ditugu benetako elkarlanerakin”. Ikusten ditu horretarako zimenduak. Bada euskalgintzako eragileek bereziki nabarmendu duten gai bat: aitortzarena. Ez dutela erakunde publikoen partetik aitortua sentitu urteetan egin duten lan eskerga. Hori aldatzen hasia dela uste dute.

Urratsak nabari direla dio Martinez de Lagosek ere. “Erakunde publikoekin ez ezik, beste eragile batzuekiko harremanetan ere bai”. Uste du euskalgintzaren jardunean badagoela beste zeregin bat ere: beste eremu batzuetara iristea. “Jende askok ez gaitu ezagutzen, eta ez dakite zer nahi dugun. Eta guk ere ez dakigu haiek zer nahi duten”.

Elkarlan hotsetan, ohar bat egin du Kontseiluko ordezkariak: “Elkarlana ez da helburua. Egokia da, baldin eta aurrera egiten lagunduko badu”. Beste kontzeptu bat jarri du: “Konplizitatea behar dugu. Desadostasunei beldurra izan gabe”. Markoari eta argazkiei desberdin begiratu ahal izatea, horrekin kristalak dar-darka jarri gabe. ●

9

Hizkuntzen Erabileraren
Kale-Neurketa. Euskal Herria,
2016

EMAITZA
NAGUSIEN TXOSTENA

Olatz Altuna Zumeta

Soziolinguistika Klusterra

Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketaren zuzendaria

o.altuna@soziolinguistika.eus

Txosten honetan aurkezten dira Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketaren emaitza nagusiak. 2016an egindakoa ikerketa honen zazpigarren edizioa da. Kale Neurketak hizkuntzen presentzia kuantifikatzen du kalean entzundako elkarrizketa informalak behatuz. Datu-bilketa zabalak aukera ematen du Euskal Herri mailako, lurraldeetako eta hiriburuetako emaitzak ezagutzeko; baita adinaren, sexuaren eta haurren presentziaren eragina aztertzeko ere.

IKERKETAREN IBILBIDEA

I

- Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa **ibilbide luzeko ikerketan lan zabala** da, Siadecoren eta Euskal Kultur Batzordearen –EKB– eskutik 1989an abiatu, eta 2001etik Soziolinguistika Klusterrak egiten duena.
- **Ikerketak hizkuntzen presentzia kuantifikatzen du, kalean entzundako elkarrizketa informalak behatuz.** “Zenbat erabiltzen da euskara kalean?”, galdera horri erantzuten dio ikerketak.
- Neurtzaileek ez dute interferentziarik eragiten, alegia, hiztunari ezer galdetu gabe, norbanakoaren **subjektibotasuna albo batera utziz**, entzun eta elkarrizketaren hizkuntza jasotzen da, solaskideen adina, sexua eta haurren parte-hartzearen informazioarekin batera.
- Neurketaren I. edizioa 1989an egin zen, eta azkena, VII.a, 2016an burutu da. **Hogeita zazpi urtetan zazpi argazki atera zaizkio euskararen erabilerari Euskal Herri osoan.**
- Euskal Herrian bertan sortua da metodologia¹, eta zazpi edizioetako eskarmentuak **metodologia aski kontsolidatzea** ahalbidetu digu.
- Gaur egun, **ezinbesteko erreferentzia da euskararen bizi-indarra ebaluatzeko.**

LANDA-LANA

I

VII. Neurketa honetan Euskal Herri osoko 144 udalerritan egin da neurketa, eta 187.635 elkarrizketaren nahiz 515.260 solaskidderen informazioa bildu da².

- Jasotako datuen bolumen handi horrek bermatzen ditu fidagarritasun estatistikorako baldintzak. Udalerriez haragoko emaitzak lortzeko (lurraldeka, Euskal Herria...) hainbat kalkulu estatistiko egin dira³. **Lagin-akatsa %95eko konfiantza-mailarekin, $p=q$ (%50/%50) dela, $\pm 0,3$ koa da.**

**VII. Neurketan
Euskal Herri
osoko 144
udalerritan egin
da neurketa, eta
187.635
elkarrizketaren
nahiz 515.260
solaskidderen
informazioa
bildu da.**

**Lehen kale-
neurketa egin
zenetik, hogeita
zazpi urteetan,
1,8 puntu egin du
gora euskararen
erabilerak. Duela
hamar urtetik
hona euskararen
kale-erabilera
apaldu egin da.**

LAGUNTZAK

I


Ikerketa honek erakunde hauek izan ditu finantzatzaile: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Nafarroako Gobernuko Euskararen Nafar Institutua – Euskarabidea, Arabako Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Bilboko Udala, Donostiako Udala, Iruñeko Udala, Gasteizko Udala eta beste 36 udal.

EMAITZA NAGUSIAK


I

EUSKARAREN KALE-ERABILERA APALDU EGIN DA EUSKAL HERRIAN AZKEN HAMAR URTEETAN


Lehen kale-neurketa egin zenetik, hogeita zazpi urteetan, 1,8 puntu egin du gora euskararen erabilerak. Hasiera hartan, 1989an, %10,8ko erabilera jaso zen. Baina, **duela hamar urtetik hona euskararen kale-erabilera apaldu egin da.**



2016ko udazkenean burututako kale-neurketan euskararen erabilera %12,6koa izan da⁴; gaztelaniaren erabilera %76,4koa, frantsesaren erabilera %8,3koa eta beste hizkuntzen erabilera %2,7koa.



Beste hizkuntzen kale-erabilerak azken bost urteotan behera egin du, eta duela hamar urte jasotako erabilera-maila bera jaso dugu⁵. Hala, bosturteko honetan euskara, gaztelania eta frantsesa⁶ ez diren hizkuntzen erabilera %3,7tik %2,7ra igaro da.




Gipuzkoan hogeita bi urtean goranzko joera nabarmendu da, baina azken bosturtekoan atzera egin du erabilerak.

ARGI-ITZALAK LURRALDEKA

Gipuzkoan jaso dugu erabilera-mailarik altuena, %31,1; Bizkaian %8,8; Nafarroan %6,7, Ipar Euskal Herrian %5,3, eta azkenik, gutxien erabiltzen den lurraldea Araba da, %4,6ko erabilerarekin.

Bizkaian


1997tik 2006ra bitarte erabilera-indizea egonkor zegoen, ez atzera ez aurrera, **baina azken hamar urteetan behera egin du.**



Araban orain arte jasotako emaitzarik onenaren parera iritsi da. Eta Nafarroan, urteetako egoera egonkorretik goranzko joerara igaro da azken bost urteotan.

Gipuzkoan⁷


Gipuzkoan hogeita bi urtean goranzko joera nabarmendu da, baina **azken bosturtekoan atzera egin du erabilerak, 1,5 puntu.**




Nafarroan eta Araban

Azken bost urteotan gora egin du euskararen kale-erabilerak Araban eta Nafarroan, batez ere Nafarroan.

— Araban orain arte jasotako emaitzarik onenaren parera iritsi da.




— Eta Nafarroan, urteetako egoera egonkorretik goranzko joerara igaro da azken bost urteotan.



Ipar Euskal Herrian⁸

Ipar Euskal Herrian 1997tik beheranzko joera etenik gabea da. Inoizko erabileraren indize baxuena jaso dugu.



HEGO EUSKAL HERRIKO LAU EREMU SOZIOLOGIKOEN BILAKAERA

Bi ohar:

- Euskararen erabileraren araberako lau eremu soziolinguistikoak datuak 1993az geroztik ditugu, hogeita hiru urteko bilakaera azter dezakegu, beraz.
- Eremu soziolinguistikoak multzokatzea 2001eko zentsuko euskararen erabileraren arabera egin da.

Hego Euskal Herriko biztanle gehienak euskararen erabileraren %25 baino txikiagoa den eremuan bizi dira. Eremu horretan zein erabileraren %25 eta %50 bitartekoa den eremuan, erabilerak bere horretan dirau 2011tik hona. Aurretik, 2006tik, bi eremuetan behera egin zuen erabilerak.


Aldiz, gainontzeko bi eremuetan, hau da, euskararen erabileraren %50-75eko tartean dagoenean eta %75etik gorakoan atzerakada gertatu da.

Beraz, Hego Euskal Herrian, oro har euskararen **erabileraren indize gutxiagoko eremuetan euskararen erabileraren indize baxuena jaso dugu, eta erabileraren indize gehiagoko eremuetan atzerakada egin du.**

Ezagutza gutxiagoko eremuetan euskararen erabileraren indize baxuena jaso dugu, eta erabileraren indize gehiagoko eremuetan atzerakada egin du.

Ipar Euskal Herrian, erabileraren indize gutxiagoko eremuetan euskararen erabileraren indize baxuena jaso dugu. Erabileraren indize gehiagoko eremuetan, berriz, erabileraren indize baxuena jaso dugu.

Bilbon eta Baionan beste hizkuntzak euskara baino gehiago erabiltzen dira.




IPAR EUSKAL HERRIKO HIRU EREMUEN BILAKAERA: BAM, Lapurdi barnealdea eta Nafarroa Beherea-Zuberoa

Ipar Euskal Herrian ez dugu herriz herriko daturik euskararen ezagutzari dagokionez. Horregatik, Inkesta Soziolinguistikoak sailkatzen dituen hiru eremuak baliatu ditugu Ipar Euskal Herriko errealitate soziolinguistikoa gertuagotik ezagutzeko:

- BAM (Baiona, Angelu, Miarritze eta Bokale): %8ko elebidun kopurua⁹. Euskararen erabilera baxuena sumatu dugu eremu honetan, azken bosturteko 0,8 puntuko jaitsierarekin.
- Lapurdi barnealdea: %25eko elebidun kopurua⁹. 3,3 puntuko jaitsiera izan du euskararen erabilerak eremu honetan azken bost urtean.
- Nafarroa Beherea-Zuberoa: %50eko elebidun kopurua⁹. Euskara gehien entzun dugun eremua da. Azken bost urtean igoera sumatu da¹⁰.

Ipar Euskal Herrian, ezagutza gutxiagoko eremuetan euskararen erabilerak jaitsiera izan du. Ezagutza altueneko eremuan, berriz, euskararen erabilerak gora egin du.




Zenbat eta gazteago, orduan eta gehiago erabiltzen da euskara.

Euskal Herri mailan, azken hamar urteotan adin-talde guztietan atzerakada gertatu da.

HIRIBURUAK¹¹

Hiriburuetako euskararen kale-erabilerak beren lurraldeetako joera bera izan du, Iruñean izan ezik.

- **Iruñean** erabilera **bere horretan** dago 1997az geroztik, %2,5-2,9ren inguruan.
- Duela bost urtetik hona, **Gasteizen** gertatu da **kale-erabileraren igoerarik nabarmenena**, 0,6ko igoera izan bada ere.
 - Donostian 1989tik hona ia bost puntu egin du gora erabilerak. Baina, azken hamar urteotan atzera egiten ari da kale-erabilera.¹²
 - **Bilboko** erabilerak behera egin du azken hamabost urteetan.
 - **Baionan** erabilera apaldu egin da 2011tik hona.



Nafarroan eta Araban, azken neurketan, gora egin du adin-tarte guztietan.

Baionan, gaur egun, euskararen erabilera gaztelaniaren erabilera bezainbestekoa da.


Euskararen erabilera eta gaztelania eta frantsesa ez diren beste hizkuntzen erabilera alderaketa hiriburuetan:

- Bilbon eta Baionan beste hizkuntzak euskara baino gehiago erabiltzen dira.
- Gasteizen eta Iruñean euskararen zein beste hizkuntzen erabilera ehunekoa antzekoa da.

EUSKAL HERRIAN ZENBAT ETA GAZTEAGO, ORDUAN ETA GEHIAGO ERABILTZEN DA EUSKARA

Lau adin-talde bereizi dira: haurrak (2 eta 14 urte bitartekoak), gazteak (15 eta 24 urte bitartekoak), helduak (25 eta 64 urte bitartekoak), eta adinekoak (65 urtetik gorakoak).


Adin-taldeak gehien hitz egiten dutenetik gutxien hitz egiten dutenera ordenatzen baditugu, haurrak daude lehen tokian (%18,3), gero gazteak (%12,3), helduak (%11,5) eta, azkenik, adinekoak (%8,1).



Lehenengo kale-neurketa egin zenean, 1989an, egoera desberdina zen: haurren artean jaso genuen erabilera-mailarik altuena, baina bigarrenaz adinekoen erabilera genuen, ondoren helduena, eta azkenik gazteena.

Zenbat eta gazteago, orduan eta gehiago erabiltzen da euskara. Hori gertatzen da Araban, Gipuzkoan, eta oro har Euskal Herrian.


- Nafarroan gazteek eta helduek erabilera bera dute.
- Bizkaian eta Ipar Euskal Herrian, berriz, gazteen euskararen erabilera helduena baino baxuagoa da. Eta, Ipar Euskal Herrian gazteen erabilera adinekoen parekoa da.



Emakumezkoek gehiago egiten dute euskaraz gizonezkoek baino adin-talde guztietan, adinekoetan izan ezik.


— Hogeita zazpi urteko bilakaeran (1989tik 2016ra), haurren, gazteen eta helduen erabilerak gora egin du. Adinekoen, berriz, erabilerak etengabeko beherakada izan du.

— Baina azken hamar urteotan adin-talde guztietan atzerakada gertatu da.




Euskal Herriko bi joera nagusi horiek gertatu dira Bizkaian, baina haur eta helduen euskararen erabilera egonkor dago azken bosturtekoan.


Ipar Euskal Herrian, helduetan gizonezkoen erabilera altuagoa zen emakumezkoena baino. 2016an joera aldaketa sumatu da, emakumezkoek gehiago baitarabilte euskara.




Gipuzkoan joera bera gertatu da, baina beranduago heldu da adin-talde guztietako erabileraren jaitsiera hori, 2011tik aurrera hain zuzen.




Nafarroan eta Araban, 2001etik 2011ra haur, gazte eta helduen erabilera ez aurrera ez atzera zegoen. Azken neurketan, ordea, gora egin du adin-tarte guztietan. Salbuespena Arabako adinekoetan gertatu da, erabilera oraindik ere egonkor baitago, eta baita gazteetan ere, zertxobait behera egin baitu erabilerak.



Erabilera daturik altuenak haurrak eta nagusiak elkarrekin daudenean jasotzen dira. Baxuenak, berriz, nagusiak haurren presentziarik gabe ari direla behatu ditugu.





Ipar Euskal Herrian nabarmentzekoa da haurren erabilera 2006tik datorren goranzko joerari eutsi diola, duela hamar urte baino erabilera indize altuagoa jaso dugu. Gazteen eta helduen erabilerekin bere horretan diraute 2001etik, eta adinekoen erabilera behera egin du edizioz edizio.



EMAKUMEZKO HAUR, GAZTE ZEIN HELDUEK EUSKARA GEHIAGO ERABILTZEN DUTE


Emakumezkoek gehiago egiten dute euskaraz gizonetzkoek baino adin-talde guztietan, adinekoetan izan ezik.






Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian ere atzeman da emakumezkoek gehiago egitearen portaera lehen aldiz.

— **Nafarroan**, parez pare zegoen emakumezkoen eta gizonezkoen erabilera adin-talde guztietan. 2016an berriz, batez ere haur eta gazteetan, emakumezkoen erabilera altuagoa sumatu dugu. Helduen kasuan, ez dago alderik emakumezkoen zein gizonezkoen artean.



**Haurren artean
Bizkaian eta
Gipuzkoan
behera egin du
erabilerak;
Iparraldean gora,
eta Araban eta
Nafarroan bere
horretan
mantendu da.**

Iparraldean, helduetan gizonezkoen erabilera altuagoa zen emakumezkoena baino. 2016an joera aldaketa sumatu da, emakumezkoek gehiago baitarabilte euskara.




Hala bada, lurralde guztietara zabaldurik, dagoeneko portaera orokorra da.

HAURREN PRESENTZIA, ERAGIN HANDIKO ALDAGAIA EUSKARAREN KALE-ERABILERAN

Ondorengo da joera orokorra:

- Erabilera daturik altuenak haurrak eta nagusiak¹³ elkarrekin daudenean jasotzen dira.
- Tarteko erabilera datuak haurren artean osatutako elkarrizketetan daude.
- Erabilera daturik baxuenak, berriz, nagusiak haurren presentziarik gabe ari direla behatu ditugu.

Salbuespena Araba eta Nafarroa dira. Bi lurralde hauetan ez dago estatistikoki esanguratsua den alderik haurren arteko (nagusirik gabe) zein nagusien arteko (haurrik gabe) erabilera datuetan.



Bilakaerak aztertzen baditugu, **azken hamar urtean aldaketarik handiena hurrez osatutako solaskide-taldeen euskararen erabileran gertatu dela ikus dezakegu** (26. irudia).


— Nagusien arteko elkarrizketetan euskararen erabilerak **ez du gorabehera esanguratsurik izan, ezta haurren eta nagusien arteko elkarrizketetan ere.**

— Haurren arteko elkarrizketetan, berriz, **2006-2016 bitartean euskararen erabilerak 3,6 puntuko jaitsiera izan du Euskal Herrian.**



Haurren arteko euskararen erabileraren bilakaeran badira alde esanguratsuak lurraldez lurralde:

- Araban eta Nafarroan, azken hamar urteetan **bere horretan mantentzen da, oro har.**
- Ipar Euskal Herrian, azken hamar urteetan **2,5 puntuko igoera** izan du.
- Bizkaian eta Gipuzkoan, **berriz, 3 eta 10 puntuko jaitsierak izan ditu, hurrenez hurren.** Jaitsiera hauek izan dira, beraz, Euskal Herriko ia 4 puntuko jaitsiera horretan eragin zuzena izan dutenak.



ONDORIOAK

I

- Euskararen kale-erabilera apaldu egin da Euskal Herrian azken hamar urteetan.
- Beste hizkuntzen kale-erabilerak azken bost urteetan behera egin du.
- Argi-itxalak daude lurraldeka, euskararen kale-erabileraren bilakaerari dagokionez:
 - Bizkaia: azken hamar urteetan behera.
 - Gipuzkoa: azken bosturtekoan atzera.
 - Araban, eta batez ere Nafarroan, gora azken bost urtean.
 - Ipar Euskal Herrian inoizko erabilera-indizerik baxuena jaso dugu.
- Euskararen ezagutzaren araberako eremuetako euskararen kale-erabileraren bilakaerari dagokionez:

- Hego Euskal Herrian: azken bost urtean, ezagutza gutxiagoko eremuetan mantendu, ezagutza gehiagokoetan atzera.
- Ipar Euskal Herrian: azken bost urtean, ezagutza gutxiagoko eremuetan jaitsi, ezagutza altueneko eremuan (Nafarroa Beherean eta Zuberoan) gora.
- Hiriburuetakoko euskararen kale-erabileraren bilakaerak beren lurraldeetakoa joera bera izan dute, Iruñean izan ezik:
 - Iruñea: bere horretan dago 1997tik.
 - Gasteiz: igoserarik nabarmenena izan du azken bost urtean.
 - Donostia: azken hamar urteotan atzera egiten ari da.
 - Bilbo: azken hamabost urteotan behera egin du.
 - Baiona: apaldu egin da 2011tik, eta gaur egun, gaztelaniaren erabileraren bezainbestekoa da euskararena.
- Euskal Herrian, zenbat eta gazteago, orduan eta gehiago erabiltzen da euskara.
 - Hogeita zazpi urteko bilakaeran (1989-2016), haurren, gazteen eta helduen erabilerak gora egin du. Adinekoen erabilerak, berriz, etengabeko beherakada izan du.
 - Baina azken hamar urteotan adin-talde guztietan atzerakada gertatu da.
- Emakumezko haur, gazte eta helduek euskara gehiago erabiltzen dute.
 - Portaera errepikatua da azken hiru edizioetan.
 - Portaera orokorra da lurralde guztietan.
- Haurren presentzia eragin handiko aldagaia da euskararen kale-erabileran.
 - Joera orokorra:
 - Erabilera daturik altuenak haurrak eta nagusiak elkarrekin daudenean jasotzen dira.
 - Erabilera daturik baxuenak nagusiak haurren presentziarik gabe ari direla.
 - Euskal Herrian, azken hamar urtean, haurren arteko euskararen erabilerak jaitsiera izan du. Nabarmenezkoa da Ipar Euskal Herriko haurren arteko euskararen erabilera 2,5 puntuan igo izana azken hamar urteetan.

LAN-TALDEA

- Zuzendaria: Olatz Altuna Zumeta, Soziolinguistika Klusterra.

- Landa-lanaren arduraduna: Maialen Iñarra Arregi, Soziolinguistika Klusterra.
- Datu-basearen kudeatzailea: Nestor Urrestarazu Ramos, Datu Tailerra.
- Komunikazioa: Asier Basurto Arruti, Soziolinguistika Klusterra.

BATZORDE ZIENTIFIKOA

- **Eneko Anduaga Insausti.** Soziologoa (Atarrabia, 1978). Malerrekako euskara teknikaria.
- **Eneko Gorri.** Soziologian eta komunikazioan diplomatua (Biarritz, 1983). Miarritzeko euskara teknikaria.
- **Iñaki Iurrebaso Biteri.** Soziologoa (Legazpi, 1967). Aztiker Ikerguneko zuzendari teknikoa izana, gaur egun irakasle dabil EHU eta "Hizkuntzen egoera soziala Euskal Herrian, 1981-2016" doktorego tesia lantzen ari da.
- **Iñaki Martinez de Luna Perez de Arriba.** Soziologian doktorea (Gasteiz, 1950).UPV-EHUko irakasle ohia eta 1986tik Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteko arduradun izana. "Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Euskal Herria" ikerketako batzorde zientifikoko kidea hastapenetatik.
- **Olatz Altuna Zumeta.** Soziologoa (Usurbil, 1971). Soziolinguistika Klusterreko teknikaria, azken urteetan erabilera behaketa bidez neurtzeko metodologiaren garapena izan du lan-ildo nagusitzat. "Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Euskal Herria" ikerketako zuzendaria 2001etik.
- **Paula Kasares.** Filologoa, antropologoa, eta soziolinguistikan doktorea (Iruñea, 1969). Baztango euskara teknikaria izana eta, egun, NUPeko irakasle elkartua. Nafarroako Gobernuko Euskarabideko -Euskararen Nafar Institutuko Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko zuzendaria.
- **Xabier Isasi Balantzategi.** Portaera Zientzien metodologian doktorea (Deustua, 1956). Udako Euskal Unibertsitatearen zuzendaria eta Euskal Herriko Ekonomia eta Gizartearen Behategiko (Gaindegia) lehendakaria izana. Egun UPV/EHUko irakaslea. "Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Euskal Herria" ikerketako batzorde zientifikoko kidea hastapenetatik.

OHARRAK

1. Metodologia zehatz mehatz azaldua dago "Hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko Gida Metodologikoa - A guide to language use observation survey methods" argitalpenean (Altuna

& Basurto, 2013): <http://www.soziolinguistika.eus/Gida>.

2. Araban 16 udalerrri eta 46.035 solaskide behatu ditugu, Bizkaian 36 udalerrri eta 156.539 solaskide, Gipuzkoan 38 udalerrri eta 213.273 solaskide, Nafarroan 32 udalerrri eta 68.917 solaskide eta Ipar Euskal Herrian 22 udalerrri eta 31.357 solaskide.
3. 2011n argitaratutako txosteneko datuak aldatu egin dira zertxobait, egokitzapen metodologiko bat egin delako emaitza sendoagoak lortu nahian. Aldeak oso txikiak dira, %0,3koa gehienez.
4. Kalean entzundako elkarrizketetan parte hartzen zuten solaskideen %12,6a ari zen euskaraz. Hemendik aurrera ere, euskararen kale-erabileraz hitz egiterakoan, solaskideen datuaz ariko gara.
5. Azterketa hau azken hiru neurketetan baino ez da egin; aurretik ez ziren beste hizkuntzen erabilpenak jasotzen.
6. Gaztelania beste hizkuntzen multzoan sartu da Ipar Euskal Herrian, eta modu berean frantsesa Hegoaldean
7. Kontuan izan, beste lurraldeetan ez bezala, Gipuzkoako grafikoan datuen eskala %40koa dela.
8. Ipar Euskal Herriko datuak hiru lurraldeak batuta emango ditugu, bereizita emateko jasotako elkarrizketa kopurua nahikoa ez delako.
9. Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.
10. 2011ko datua estatistikoki sendoa izan ezenez, 2016an Nafarroa Beherean eta Zuberoan zortzi herri gehiago neurtu dira: Aiherra, Heleta, Irisarri, Izpura, Bastida, Orzaize, Donazarre eta Bildoze-Onizepea. Herri horien datuak kontuan hartzen ez badira, erabilera %13,1ekoa da, eta horiek kontuan hartuz gero, %14,6koa da.
11. Maule eta Donibane Garaziko datuak ez dauzkagu, nahiko elkarrizketa behatu ez direlako.
12. 2016an Donostian bi auzo gehiago neurtu dira: Igeldo eta Añorga. Auzo horien datuak kontuan hartzen ez badira, erabilera %13,9koa da, eta horiek kontuan hartuz gero, %15,2koa da.
13. Nagusitzat hartzen ditugu gazte, heldu eta adinekoak.

10

Euskal lankidetzaren Hego Amerikako hizkuntzen biziberritzea

Robbie Felix Penman

SOAS (Londreseko unibertsitatea)
robbiepenman@protonmail.com

Beñat Garaio Mendizabal

ELEBILAB ikerketa-taldea (EHU)
benyat@garaio.eus

Laburpena. Artikulu honetan Hego Amerikako bi hizkuntza-kulturen biziberritze linguistikoa dagoen euskal lankidetzaren deskribatuko da: alde batetik, maputxeak, eta bestetik, hegoaldeko ketzueren mintzo diren komunitateak. Bi hizkuntza hauen zertzelada batzuk eskainiko dira bigarren atalean, eta hirugarren atalean, berriz, euskal lankidetzaren inguruko oinarri bat. Laugarren atalean, hots, lan honetako zati nagusienean, komunitate hauekin euskaldunek izan duten lankidetzaren ikuspegi historiko batetik aztertuko da, bost prozesu edo joera historiko oinarri hartuta. Prozesu edo joera bakoitzetik euskal lankidetzak berretzat hartu ditzakeen hainbat ondorio eta proposamen atera ditugu. • **Hitz gakoak:** hizkuntzaren biziberritzea, euskal lankidetzaren, ketzuera, mapuzuguna.

Abstract. This article will describe the cooperation of Basques in revitalizing the language of two linguistic cultures in South America: Firstly, Mapuche and, secondly, the communities that speak southern Quechua. A rundown on both languages [i] will be given in the second section, and, in the third section, a basis for Basque cooperation. In the fourth part, i.e. in the main body of this work, the collaboration that Basques have had with these communities will be analyzed from a historical perspective, based on five processes or historical trends. From each process or trend, we have come up with several conclusions and proposals that may be considered by those taking part in the Basque cooperation project. • **Key words:** language revitalization, Basque cooperation, Quechua, mapping.

Eskertzak: Javier Cuadra, Andoni Barreña, Ane Ortega, Txema Abarrategi,
Oier Agirresarobe, Jesus Gonzalez Pazos, Luis Nieto

1. SARRERA: ZERGATIK MAPUZUGUNA² ETA HEGOALDEKO KETXUERA?

I
Duela 500 urte Andeetako herriek ez zuten inolako harremanik Euskal Herriarekin, baina espainiarrek menperatu izanak batu ditu. Interesgarria da, orduan, bakoitzaren hizkuntza-menderakuntza horiek alderatzea, are gehiago kontutan hartuta historia ezberdineko bi eremuez ari garela³. Ariketa intelektual honetaz harago, espero dugu lan hau euskal lankidetzarako akuilu izango dela, bai euskal aktoreen ekintzen testuinguru historikoaren kontzientziatorako (Freirek esan bezala, 1974) eta baita berriazko proposamen batzuk luzatzeko ere. Ikerketa honen garrantziaz ohartu beharra dago, izan ere, hizpide diren bi hizkuntza hauek amerikarren artean hitzun gehien dituzten hizkuntzetako batzuk dira (ketxuera lehenengoa da, adibidez), nahiz eta biak halako biak gainbehera azkarrean dauden. Honexegatik guztiatik du euskal lankidetzak izugarritzeko potentziala.

Ketxueraren hizkuntza familiaren kasuan, zeinek mapuzugunak baino barne-aniztasun gehiago duen (adib. Cerrón-Palomino, 1987; Parker, 1963; Torero, 1964), derrigorrezkoa da azaltzea zergatik aukeratu den aldaera hau. Hein batean, egileetako batek Peruko hegoaldean eta Bolivian izandako egonaldiak du eragina, baina beste hainbat arrazoi ere badaude hau azaltzeko. Esaterako, ketxueraren biziberritzean izandako euskal lankidetzaren Boliviano eta Peru hegoaldeko ketxuera hitzunekin izan da, salbuespen garrantzitsu bat Garabide gobernuaren kanpoko erakundeak Ekuadorreko kichwekin⁴ burututako lankidetzaren izanik. Azken kasu hau ez dugu kontuan hartuko lan honetan, hizkuntza egoera paretsuagoa duten komunitateen arteko alderaketa egin ahal izateko. Gainera, ziurrenik pisu demografiko handiena duen ketxuera aldaera da hegoaldekoa, aurrerago (§3) ikusiko dugun bezalaxe; bere lehiakide bakarra Ekuadorren hitz egiten den aldaera litzateke, 3.000.000 lagun inguruko hitzun kopuruarekin (King eta Haboud, 2007:47). Bestalde, ketxueraren aldaera hau aukeratu izanak, kontuan hartuz bere barne aldaeren arteko ulermen gaitasuna bermatuta dagoela, mapuzugun eta euskararen barne aldaerekin du zerikusia, izan ere, bi hizkuntza hauek dialekto anitz dituzten arren, beraien hitzunen artean elkar ulertzeko arazo handirik ez dago. Ordea, Peruko beste ketxuera aldaeraren bat aukeratu izan bagenu, hizkuntza bariazio

***Espero dugu lan
hau euskal
lankidetzarako
akuilu izango
dela, bai euskal
aktoreen
ekintzen
testuinguru
historikoaren
kontzientzia-
ziorako eta baita
berriazko
proposamen
batzuk luzatzeko
ere.***

**Azterketarako
ketxueraren
aldaera hau
aukeratu izanak
(Peruko
hegoaldekoa),
kontuan hartuz
bere barne
aldaeren arteko
ulermen
gaitasuna
bermatuta
dagoela,
mapuzugun eta
euskararen barne
aldaerekin du
zerikusia.**

faktore ugari hartu beharko genituzke kontutan eta hori ez dator bat euskararen eta mapuzugunaren kasuarekin.

2. MAPUZUGUN ETA HEGOALDEKO KETXUERAREN EGOEREN LABURPENAK

I

2.1 Zer hartu liteke kontuan hizkuntza-herri baten deskribapenean?

Mapuzugun eta hegoaldeko ketxueraren “laburpen” motz hauek bi helburu dituzte, hizkuntza-herri hauek ezagutzen ez dituzten lagunentzako sarrera bat eskaintzeaz gain. Lehenengo helburua beraien bizitasuna deskribatzea da, edo, ikustea zein neurritan dagoen hizkuntza arriskuan. Hizkuntzen arriskuen azterketak arreta asko bereganatu du alor teorikoan (adib. Bourhis, Giles eta Rosenthal, 1981; Dwyer 2011; Lewis eta Simmons, 2009). Artikulu honetan UNESCOk (2003) proposatzen dituen bederatzi faktoreetatik zazpi aukeratu ditugu,⁵ mapuzugun eta hegoaldeko ketxueraren bizitasuna modu osoan aztertzeko:

- Belaunaldien arteko transmisioa
- Hiztun kopuru absolutua
- Biztanleria kopuru osoarekin erkatuta, hiztunen proportzioa
- Hizkuntzaren erabilera-eremuetan gertatutako aldaketak
- Teknologia berrietan eta komunikabideetan agerpena
- Komunitatearen jarrerak euren hizkuntzarekiko
- Erakunde eta gobernuen jarrera eta politikak, estatusa eta erabilera ofiziala barne

Jakina, laburpen hauek hizkuntza hauen bizitasunarentzako esanguratsuak diren faktore guztiak ezin dituzte beregain hartu. Adibide bat ematearren soilik, Stoessel (2002) eta De Bot eta Stoessel-ek (2002) sare sozialen garrantzia aipatu dute hizkuntzen mantentzean edo desagertzean; baina, egile hauek dakitenaren arabera, ez dago ikuspegi teoriko honetatik abiatutako ketxuera eta mapuzugunaren inguruko ikerketarik.

Deskribapen hauen bigarren helburua hizkuntza hauen biziberritzea zertan den deskribatzea da. Hizkuntzak ikuspegi hauetatik aztertzea ez da hain ohikoa izan hizkuntza gutxituak aztertzen dituzten ikerlarien artean: “90. hamarkadaren amaiera arte hizkuntza gutxituen inguruko literaturaren gehiengoa hizkuntza galerarekin tematu da” (Sallabank, 2010:159). Hau hizkuntza gutxituen egoera deskribatzen duten eskaletan islatzen da, zeinetan egitura hizkuntzen gainbehera aztertzerako bideratuta dagoela antzematen den (Lewis eta Simmons, 2009:6). Joera honek azalpen argi

bat dauka: hizkuntza gehienak bizitasun handiagoko egoera batetik behar bidea egiten ari dira. Baina ikuspegi honek luzera begira pentsatutako edo bideratutako hizkuntza biziberritze prozesuak ahaztu ditzake (Dorian, 1993), aurrerago ikusiko dugun bezala. Honen harira, jarraian gehitu diren deskribapenek bi hizkuntza hauen egoera orekatuago bat eskaintzeko parada emango digute, ez soilik gaztelaniak ordezkaturako esparrua, baizik eta balizko biziberritzerako aukerak ere aztertuz.

Ordezkapenaren zein biziberritzearen testuinguruan, “*language beliefs*” edo hizkuntza usteen eraginean sakondu nahiko genuke. Hizkuntza usteek “gizabanako edo talde batek hizkuntzari, hizkuntzei, hizkuntza aldaerei, hizkuntza aldakorrei eta hizkuntzen erabiltzaileei eskaintako erantzunei” egiten die erreferentzia, eta “antzeman daitezkeen ideologiak osatzen dituzten ezaugarriez eraikiak dira, izan jarrerak, motibazioak, edo balioak” (Spolsky, 2014: 407). Hizkuntza usteen barruan, hizkuntza jarrerak azpimarratu behar dira, hau da, “edozein motatako objektu sozialaren ebaluatze joerak [...], eta jarrera, oro har, identifikatzeko eta nolabait neurtzeko erraza den jarrera ebaluatzaile egonkorra da” (Garrett, Coupland eta Williams, 2003: 3). Izan ere, jarrerak, komunitate barneko edota kanpokoak, hizkuntzen biziraupenean eragiten duten faktore garrantzitsuenetarikoak direla aitortzen da, garrantzitsuena ez bada (UNESCO, 2015). Honen ondorioz, hizkuntza bat biziberritzerako orduan jokaleku oso garrantzitsua dira jarrerak. Esaterako, hegoaldeko ketzueraren eta mapuzugunaren inguruan dagoen literatura ugariak ikuspegi honen garrantzia islatzen du (adibidez, Coronel-Molina, 2008, 2015; Hornberger, 1988; Howard, 2007; Luykx, 2004; Catriquir Colipan 2007; Lagos 2012, 2014; Lagos et al. 2013, hurrenez hurren).

2.2 Mapuzugunaren laburpena

Mapuzuguna, Txileko hegoaldean, eta neurri askoz txikiago batean, Argentinan hitz egiten den hizkuntza isolatu bat da; lan honetan Txileko egoera soilik aztertuko dugun arren. Dialektoen arteko aldaketak mugatuak dira eta ez dago beraien artean ulertzeko zailtasunik, hiztun oso gutxi dituen hegoaldeko bi aldaera salbu (Adelaar, 2004:508-510). Sintaxiaren hainbat ataletan ketzueraren antza du, eta baita orokorrean ere “bere morfologiaren konplexutasun eta gardentasunean, eta bere aurrizkiekiko dependentzian” (Adelaar, 2004:517). Gainera, ketzueratik hainbat mailegu ere baditu bere lexikoan (Adelaar, 2004:538). Ethnologuek (Lewis, Simmons eta Fennig, 2016a) mapuzuguna “arriskuan dagoen hizkuntzat” jo du (6b estatusa), eta UNESCOren Arriskuan dauden Munduko Hizkuntzen Atlasak, berriz, “arriskuan” (Moseley, 2010).

**Hizkuntza usteek
"gizabanako edo
talde batek
hizkuntzari,
hizkuntzei, ... eta
hizkuntzen
erabiltzaileei
eskaintako
erantzunei"
egiten die
erreferentzia, eta
"antzeman
daitezkeen
ideologiak
osatzen dituzten
ezaugarriez
eraikiak dira.**

**Mapuzuguna
kontinenteko
beste
hizkuntzekin
desberdindu
dezakeena
maputxe herriak
bere
hizkuntzarekiko
jarrera aldatu
izana litzateke,
izan ere, badirudi
maputxeen
hizkuntza
jarrerak
'baikortu' egin
direla.**

2.2.1 Biztanleria absolutua eta biztanleria erlatiboa

Orain arte egin den mapuzugunaren azterketa soziolinguistiko zehatzena, 2008an egin zen Txileko hegoaldean (hiztun gehienak kontzentratzen diren hiru eskualdeetan, hain zuzen ere: Bio-Bio, Araukania eta Lakuen Eskualdea izandakoa). Ikerketa honek dio hiru eskualde hauetan bizi den biztanleria maputxearen artean, %53,4 elebakar gaztelaniaduna dela. Gainera, mapuzugun-gaztelania hizkuntzetan elebidunak direnen artean, soilik %49,8 dira "hiztun garatuak", hots, gainontzekoek ulermen eta ekoizpenerako gutxieneko edo erdi-mailako gaitasunak dituzte (CONADI-UTEM, 2008:16). Honenbestez, Txileko inguru honetan 45,206 hiztun garatu leudeke (CONADI-UTEM, 2008:15).

Hiztunen ehunekoa biztanleria osoarekin alderatuz kalkulatzeko gai konplexua da. Horren harira, CONADI-UTEM-en ikerketak soilik "biztanle maputxeak" izan zituen kontuan. Hala ere, komunitate maputxeetan ere hiztun garatuak minoria bat dira. Are gehiago, dagoeneko ez dago osoki "maputxe peto-petoak" diren komunitaterik, eta hiztunen ehunekoa ez hiztunekin alderatuz gero, askoz txikiagoa litzateke lehenengo hori (CONADI-UTEM, 2008: 45).

2.2.2 Belaunaldien arteko transmisioa

Azkenaldian egin diren ikerketa guztietan, mapuzugunaren galera jarraitua deskribatu da, ia aztertutako talde demografiko guztietan (Zúñiga, 2007; CONADI-UTEM, 2008; Gundermann et al., 2009; Lagos et al., 2009; Lagos, 2012; Barahona 2014). Hirietan bizi diren hiztunen %2,4 eta nekazal-giroko hiztunen %15 soilik azaldu zuten interesa umeekin (beraien umeak izan ala ez) mapuzugunez hitz egiteko (Zúñiga, 2007:21).

2.2.3 Hizkuntza ideologia eta jarrerak (komunitatean eta winken artean)

Gizarte txiletarrak, eta horren ondorioz, maputxe herriak, mapuzugun hizkuntzarekiko izan dituzten jarrera ezkorrak funtsezkoak izan dira bere galeran (adib. Chiodi eta Loncón, 1991:26; Salas, 1992). Zentzu honetan, mapuzugunak munduko gainontzeko arriskuan dauden hizkuntzek duten patroia bera jarraitu eta jarraitzen du (adib. Dorian, 1998; Crystal, 2000).

Mapuzuguna kontinenteko beste hizkuntzekin desberdindu dezakeena maputxe herriak bere hizkuntzarekiko jarrera aldatu izana litzateke, izan ere, badirudi maputxeen hizkuntza jarrerak 'baikortu' egin direla (Zúñiga,

2007; CONADI-UTEM, 2008; Lagos, 2012). Lagosen esanetan, “azken bi hamarkada hauetan, Txileko hizkuntzak biziberritzeko eta berreskuratzeke interesaren agerpena ikusi dugu, gizartearen osotasunean” (Lagos, 2014: 86). Jarrera aldaketen isla da, horretaz gain, hizkuntzaren biziberritzearekin lotutako ekimen kopuruan gorakada (adib. Wittig, 2006). Hizkuntzaren biziberritze hau kultura maputxearen “balorazio positibo baten” testuinguruan gertatu da (Zúñiga, 2007:23).

Hala ere, puntu honetan euren burua maputxetzat definitzen duen jendea eta hiztunak desberdindu behar ditugu: hizkuntza hobeto mantendu duten komunitateetan, hizkuntza horren inguruko jarrera ezkorrenak dira nagusi. Lagosek hizkuntza galera nabarmenago gertatu den tokietan, hizkuntzari identitate balio handiagoa eskaintzen zaiola ondorioztatu du, hizkuntza mantendu den tokietan, Bio-Bio Garaian kasu, hizkuntza diskriminazioarekin lotzen den bitartean (Lagos, 2015:17). Era berean, maputxe jendearen jarrera ezkorrek sarri traba garrantzitsua dira mapuzugunaren aldeko politikak abian jartzeko orduan. Hau beha liteke, esaterako, Galvarino komunan, non hizkuntzak erlatiboki mantentze maila altua duen, Penmanen elkarrizketatuen arabera (ez dago komuna mailako estatistikarik).

2.2.4 Hizkuntzaren erabilera eremuak (“Teknologia berrietan eta komunikabideetan agerpena” barne)

Senitarteko hurbilen sareak dira mapuzugun hiztunen gehiengoarentzako (51,5%) hizkuntza erabiltzeko aukerarik garrantzitsuenak (CONADI-UTEM, 2008:54).

“ahaidetasun handiagoa izan ahala, bereziki landa giroan, eta aldagai baldintzatzaileak ez badira agertzen, mapuzunguna erabiltzeko joera handiagoa izango da. Harremanek senitartekoen, bizilagunen, komunitako eta laguntasunaren gertutasun hori galtzean, ordea, hizkuntza bernakularren erabilera jaitsi egingo da.” (CONADI-UTEM, 2008:61-62)

Hizkuntzekin gertatzen den joera hau ez dator bat gizarte eremuetan beha litekeen uzkuertze prozesuarekin (adib. Fishman, 1991). Bigarren solaskide mota esanguratsuen sendikoak ez diren hurbileko jendea da, hala nola, lagunak, bizilagunak eta irakasleak (CONADI-UTEM, 2008:61-62). Erabilera eremuetan gertatu diren aldaketa hauek, testuinguru berriei emandako erantzun eskasaz gain, lexikoaren eskastea eta estiloaren garapen falta bezalako prozesuengatik izan da (Chiodo eta Loncón, 1999:12-13), gaztelaniatik hartutako mailegu kopurua, ketxueraren kasuan baino txikiagoa den arren (Adelaar, 2004:358).

Hizkuntza hobeto mantendu duten komunitateetan, hizkuntza horren inguruko jarrera ezkorrenak dira nagusi; hizkuntza diskriminazioarekin lotzen da. Hizkuntza galera nabarmenago gertatu den tokietan, hizkuntzari identitate balio handiagoa eskaintzen zaio.

**Lurralde
maputxearen
konkistaz
geroztik, Txileren
jarrera eta
politikak bereziki
asimilazionistak
izan dira,
beharbada beste
Hego Amerikako
herrialde
batzuetan baino
areago. Duela
gutxira arte ezer
gutxi egin da
egoera hau
aldatzeko,
2014an
bederatzigarren
eskualdeko bi
komunetan
mapuzugunaren
ofizialtasuna
salbu.**

Hala ere, mapuzugunaren egoera ikuspegi antropologiko batetik aztertzen duten ikerlariak mapuzugunak lortu dituen erabilera eremu berriak azpimarratzen eta goratzen dituzte, winka (ez maputxea) bizitzari egokitu-tako eremuak, hain juxtu: mapuzugun eskolak hirietan, eta hein batean, EIB (Escuelas Interculturales Bilingües) programa duten eskolak (Lagos, 2012). Erabilera eremu hauek, bestalde, lexikoaren eta estiloaren aberas-tasunerako aukerak eskaintzen dituzte, berrikuntza horien arrakasta ikertu beharra badago ere. Hutsune horri aurre egiteko asmoz, Wittig-ek (2006) mapuzugunaren erabilera eremu berriak azpimarratzen ditu hiz-kuntza idatzian, esaterako, EIBn eta argitalpenetan; Lagos-ek (2012:167) mapuzugunaren erabilera aztertu du bai Facebookean eta baita Santiagoko erietxeko seinaleetan ere.

2.2.5 Erakunde eta gobernuen jarrera eta politikak

Lurralde maputxearen konkistaz geroztik, Txileren jarrera eta politikak bereziki asimilazionistak izan dira, beharbada beste Hego Amerikako herrialde batzuetan baino areago (Lagos eta Espinoza, 2013). Txileko kasuan bitxikeria “*la cuestión mapuche*” delakoa ikuspegi ekonomiko batetik hartzea da, “merkatuaren subjektu eginez (hiritartasuna lortzeko benetako baldintza, gaur egun)” (Lagos, 2012: 171). Duela gutxira arte ezer gutxi egin da egoera hau aldatzeko, 2014an bederatzigarren eskualdeko bi komunetan mapuzugunaren ofizialtasuna salbu. Praktika, ordea, guztiz bes-telakoa da (Penman, 2015). Dena dela, urte horretaz geroztik eskualde guztian zehar abian egongo den ofizialtasuna negoziatzen ari dira.

2.3 Hegoaldeko ketzueraren laburpena

Hegoaldeko ketzuera, *meridional* izenez ere ezagutua, Peruko Ayacucho departamendutik Argentinako Santiago del Esterora hitz egiten den hiz-kuntza aldaera multzo batek osatzen du, aldaera horien arteko ulergarri-tasuna handia delarik (Hornberger eta Coronel-Molina, 2004:11). Hego-aldeko ketzueraren ezaugarri linguistiko, sozial eta politikoen zertzelada batzuk emate aldera, Santiago del Estero (Argentina) eta Boliviarekin mugan dauden Argentina eta Txileko lurraldeak baztertuko ditut, soilik Ayacucho, Cusco, Puno eta Boliviako hizkuntza aldaerak kontutan hartuz (Hornberger eta Coronel-Molina, 2004).

2.3.1 Biztanleria absolutua

Cusco (566,581), Puno (455,816), Ayacucho (361,622), Huancavelica (272,085), Apurimac (266,336), Arequipa (161,891), Moquegua (14,733) eta Tacnako

(6,822) kexuera-hiztunak gehitzen baldin baditugu, betiere erroldaren araberan, 2,105,886 hegoaldeko kexuera hiztun inguru ditugu Perun (Instituto Nacional de Estadística e Informática, 2007). Esan genezake departamentu hauetako hiztun gehienak “hegoaldeko kexuera”-ren aldaeraren baten hiztunak direla, Huancavelinca departamendua izan ezik, non Huaylla Wanca aldaeran ere mintzo diren (Lewis, Simmons eta Fennig, 2016b). Ziurrenik, Liman hiztun kopuru handia egongo da, baina ez dago horren inguruko estatistikarik. Boliviako 2012ko erroldari dagokionez, non hegoaldekoa kexuera aldaera bakarra den, 2,124,040 kexuera-hiztun daude (Instituto Nacional de Estadística, 2015:32). Kopuru honi Peruko hiztun kopurua gehituz gero, 4,229,926 hegoaldeko kexuera hiztun ditugu Perun eta Bolivian.

2.3.2 Biztanlego erlatiboa

“Jatorrizko hizkuntzen” hiztunak %76 dira Apurimac-en, %72 Punon, %69 Huancavelinca, %68 Ayacuchon eta %56 Cuscon (Escobar, 2011:3). Nahiz eta pertsona hauen zati bat aimara hiztuna izango den Punon eta, neurri txikiago batean, hizkuntza amazoniarren hiztunak Cuscon, gainontzeko departamentuetan pentsa liteke kopuru horiek, batik batik, hegoaldeko kexuerari egiten diotela erreferentzia. Honek esan nahi du hegoaldeko kexuerak pisu demografiko handiagoa duela bertako jendearen artean, kexueraren Peruko beste aldaerekin konparatuz gero. Bolivian 2012an kexuera hiztunek herrialdeko hiritarren %18 osatzen zuten (Instituto Nacional de Estadística, 2015:32) eta Potosiko departamentuan %50,6, Chuquisacakoan %40,8 eta Cochabambakoan %36,9 osatzen dute, gainontzeko departamentuetan nabarmen gutxiago direlarik (Instituto Nacional de Estadística, 2015:36).

2.3.3 Belaunaldien arteko transmisioa

Kexua komunitateetan hizkuntzaren galera aurrera doala ondorioztatzen duten ikerketak asko dira (adib. Hornberger eta Coronel-Molina, 2004; Howard, 2007; Klee, 2009; Escobar, 2011). Hala ere, erabakigarria den belaunaldi arteko transmisioa faktorearen inguruko datu zehatzik ez dago: ziurra da hiriguneetako umeek ez dutela hizkuntza ikasten, baina ez dago argi zer paper jokatzan duen etengabe hazten ari den landa-eremuko populazioaren hazkundeak hizkuntzaren transmisioan (Heggarty, 2006). Ikerketa fidagarriagoen faltan, 2015eko uztailaren eta irailaren artean Penman-ek egindako behaketetan ikusi zen Cusco departamenduko herri isolatu eta txikienetan ere nekez entzun daitezkeela 20 urtez azpiko pertsonak haien artean kexueraz hitz egiten, ezta gurasoak lehen aipatutako adin-tarte horretako euren haurrekin ere.

Erabakigarria den belaunaldi arteko transmisioa faktorearen inguruko datu zehatzik ez dago: ziurra da hiriguneetako umeek ez dutela hizkuntza ikasten, baina ez dago argi zer paper jokatzan duen etengabe hazten ari den landa-eremuko populazioaren hazkundeak hizkuntzaren transmisioan.

**Hegoaldeko
ketxueraren
kasuan, aldi
berean bi joera
ditugu:
espainierak
ketxuerarenak
ziren erabilera-
eremuak hartzen
jarraitzen dituela
dirudi, bereziki
etxeko eremuak,
eta hiriguneetako
testuinguruetan
sartzen ari da,
bereziki, klase
sozial “altuetan”.**

2.3.4 Hizkuntza ideologiak eta jarrerak

Peru, Bolivia eta Ekuadorreko hizkuntza ideologiak era zabalean aztertuak izan dira azkenengo hamarkadetan. Hornberger eta Coronel-Molinak (2004) ketxuera hiztunen hizkuntza-ideologiak bildu zituzten, eta esan zuten ketxuera hiztunen eta ez-hiztunen jarrerak nagusiki ezkorrak direla, nahiz eta Ekuadorren adibide baikorra batzuk eman (Cotacachi, 1997; Haboud, 1998; King, 2000). Eremu geografiko zehatzago batzuk ikertu dituzten lanek, era berean, ez dute hobekuntzarik sumatzen aipatu esparruan (Luykx, 2004; Manley, 2008; Centro Guaman Poma de Ayala, 2012). Batzuk ketxueraren biziberritze bat aipatzen dute, baina soilik Andeetako kultura jorratzen duten ekintzetan (telebista, musika, literatura, etab.) oinarrituz eta ez hizkuntza portaerak behatuz (Escobar, 2011:6-7).

2.3.5 Erabilera esparruak (komunikabide eta esparru berriei erantzuna barne)

Zoritxarrez, mapuzugunaren egoera zertan den aztertzeke egindako ikerketa hain zehatzik ez dago hegoaldeko ketxueraren kasuan. Hala ere, hizkuntza honen bizi-indarra aztertzen lagunduko digun aldagai honi dagokionez, aldi berean gertatzen ari diren bi joera ditugu. Alde batetik, espainierak ketxuerarenak ziren erabilera-eremuak hartzen jarraitzen dituela dirudi, bereziki etxeko eremuak (adib. Escobar, 2011:4). Bestalde, eta hau batik bat Bolivian gertatzen da, hegoaldeko ketxuera hiriguneetako testuinguruetan sartzen ari da (Firestone, 2006; Carbajal, 2006; Sichra, 2003), eta bereziki, klase sozial “altuetan” sartu da (Luykx, 2004; von Gleich, 2004, 2009). Escobar-ek (2011:4) adibidetzat jartzen du Boliviako egoera

“Bolivian, [ketxuera] hezkuntza erakundeetan dago, leku publiko ofizialetan (gobernu eraikinetan, legebiltzarretan, etab.), zerbitzu sozialen erakundeetan (osasun etxeak, bankuak, etab.) eta komunikabide zenbaitetan (gobernuaren dokumentu ofizialetan, prentsa idatzian, irratsaioetan, etab.)”.

Hala eta guztiz ere, denek ez dute idatzizko eta ahozko ketxueraren artean bereizten, eta hizkuntzaren ustezko biziberritzea erakusten omen duten idatzizko adibideak emateko joera dago.

2.3.6 Erakunde eta gobernuen jarrera eta politikak

70. hamarkadaz geroztik, Bolivia, Ekuador eta Peru nahiko progresistak izan dira, Peru izanik Ameriketako lehenengo herrialdea hizkuntza indigena bati ofizialtasuna ematen, ketxuera hain justu (Hornberger, 2000:174). Hau, akaso, hiru herrialde hauetan dagoen indigena kopurua propor-

tzioan askoz handiagoa delako gertatu da. Dena den, eta Latinoamerikako gainontzeko beste herrialdeetan bezala, hiru estatu hauetako politikek gaitz bera dute:

“Gizarte mailako ezberdintasun sakonak; hizkuntza eta kulturen ustezko gabezien ideologiaren islapena; eta erreproduktzioa eta Kulturen Arteko Hezkuntza Elebiduna (KaBE) soilik indigenentzako bideratu izana, biztanleria guztiarentzako eskaini beharrean.” (McCarty, 2012:556).

Ez daukagu tokirik hemen hiru herrialdeak xehetasunez aztertzeko, baina esan dezagun baldintzak askoz onuragarriagoak izan direla Txilen baino, Euskal Herrian bezainbeste izan ez bada ere (informazio gehiago nahi bada, ikus Cerrón-Palomino, 1989; Mannheim, 1991; von Gleich, 1994; King eta Hornberger, 2004; King eta Haboud, 2007; Coronel-Molina, 2015).

3. EUSKAL LANKIDETZA ANDEETAN

I Euskal Herriko hainbat ordezkari harremana izan dute Andeetako lau hizkuntza-komunitateekin hizkuntza biziberritzean lan egin ahal izateko, hots, Txileko maputxeekin, Bolivia eta Peru hegoaldeko ketxuekin, Ekuadorreko kichwekin, eta bukatzeko, Kolonbiako nasa/paez-ekin (artikulu honetan azken bi hauek baztertuko ditugu, lehen bi kasuak hobeto eza-gutzen baititugu). Bestalde, esan behar da euskal lankidetzaren Andeetan ez dela hizkuntzen biziberritzea mugatzen, izan ere, Euskal Herriko eta Andeetako hainbat herrialdeen arteko lankidetzak ez du hizkuntzekin zerikusirik, adibidez, Askapena erakundearen lana. Lankidetzaren hau ere ez dugu artikulu honetan aztertu. Gutxienez, Euskal Herriko sei erakun-deren jarduna esanguratsua da lankidetzaren hau aztertzerako orduan:

- Garabide, hizkuntzen biziberritzearen diharduen GKEa⁶
- Urtxintxa, hezkuntza alorrean lan egiten duen eta euskararen erabilera sustatzen duen GKE-a⁷
- Mugarik Gabe, bere misioa horrela deskribatzen duen GKE-a: “Giza garapen integrala lortzeko eskubidean eragin, ez soilik garapen ekonomikoa, baizik eta gizon eta emakumeen arteko berdintasunezko garapena, herri ezberdinen artekoa eta etorkizuneko belaunaldien-entzako jasangarria” (Mugarik Gabe, 2015)⁸
- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Eusko Jaurlaritza
- Askapena erakunde internazionalista eta bere brigadak

***Euskal Herriko
hainbat
ordezkari
harremana izan
dute Andeetako
lau hizkuntza-
komunitateekin
hizkuntza
biziberritzean lan
egin ahal izateko:
Txileko
maputxeekin,
Bolivia eta Peru
hegoaldeko
ketxuekin,
Ekuadorreko
kichwekin, eta
Kolonbiako
nasa/paez-ekin.***

**Konkistaz ari
garenez, kontu
handiz atxiki
beharko
genizkioko
euskaldunei
Hegoamerikarrei
eskainitako
baldintza eta
ezaugarriak, izan
ere, euskaldunek
ere kolonizazioan
parte hartu
zuten.**

3.1 Maputxeekin lankidetzaren

Wallmapu (maputxeen lurralde historikoa) eta Euskal Herriaren arteko lankidetzaren ondoko ekintza eta egitasmotan ikus liteke (baliteke gehiagotan parte hartzea, baina ez ditugu ezagutzen):

- bi ordezkari maputxeen parte-hartzea “Biziberritze Linguistikoaren Estrategiak” izeneko ikasketetan, 2011 urtean Garabidek eskainia (Barreña, 2015, k.p.)
- Garabidek Wallmapura egindako bisita 2014ko abenduan, mapuzugunak Araukania (Txileko bederatzigarren administrazio eskualdea) eskualdean ofizialtasuna lortzeko prozesuaren harira
- Hizkuntza Maputxearen Akademia eta Garabideren arteko “hiztarmen generiko” baten sinadura (Barreña, 2015, k.p.)
- Garabide eta Xeg Xeg elkarte maputxearen arteko lankidetzaren (Barreña, 2015, k.p.)
- Eusko Jaurlaritzaren eta CONADIren arteko lankidetzaren, “hizkuntza, hezkuntza eta kultura politikoa” arloetan lankidetzaren teknikoko harremanak estutzeko” (CONADI, 2015)

3.2 Hegoaldeko kexuera hiztunekin lankidetzaren

Euskal Herriaren eta hegoaldeko kexuera hiztunen artean azken aldian sortu diren lankidetzaren arlo batzuk honakok hauek izan dira:

- Euskal Herriko Unibertsitateak 2014an Hizkuntza politika eta plan-gintza gaitzat zituen master bat jarri zuen abian Cusco hirian, Universidad San Antonio Abad de Cusco erakundearekin⁹ lankidetzaren (eskolak bertan ematen dira)
- 2012-2013 ikastaroan, Cuscoko Centro “Guaman Poma de Ayala” delakoak “Sensibilización y capacitación para un desarrollo inclusivo en la región de Cusco” izeneko egitasmo bat jarri zuen abian, EHUk “Solidaridad Internacional” izeneko GKE-aren bitartez finantziatutakoa: honek helburu eta ondorio sinbolikoa izan zuen jarrerak aldatzeko, baita helburu eta ondorio publikoa ere, udalerriekin lan egin baitzen bertako zerbitzuetan kexuerearen erabilera sustatzeko
- 2014-2015 ikasturtean Guaman Poma elkarteak “Desarrollo integral de las comunidades indígenas del valle de Cusco” izeneko egitasmoa sortu zuen, hau ere Solidaridad Internacionalen bitartekaritza EHUk finantziatutakoa. Oraingo honetan, kulturartekotasuna zerbitzu publikoetan landu zen, kexuerearen ahozko eta idatzizko erabilera sustatuz tokiko udalerrietan
- 2015eko martxoan, eta UPV-EHU eta Euskaltzaindiko kideen partaidetzarekin, foro bat izan zen, Euskararen Normalizazioaren Legeaz

geroztik burutu den euskal administrazio publikoaren euskalduntze prozesua jorratuz, besteak beste. Gainera, ketxueraren biziberritzea diharduten bertako adituek ere parte hartu zuten (Barreña, 2015, k.p.)

- Eusko Jaurlaritzak Cuscoko udalerriarekin hitzarmen bat sinatu zuen
- Mugarik Gabe GKEak “komunikazio propioa” edo “norberaren komunikazioa” landu du Bolivian, esaterako, ekimen batzuetan norbere hizkuntzen erabilera jorratuz.
- Boliviako hegoaldeko ketxueraren bi hiztunek “Biziberritze Linguistikoaren Estrategiak” izeneko ikasketetan hartu zuten parte, 2011 urtean Garabidek eskainia (Barreña, 2015, k.p.)

Honetaz gain, esan behar da Eusko Jaurlaritzaren eta Cuscoko eskualdearen arteko elkarrekintza ez hain formala ere badagoela, biziberritze linguistikoarekin zerikusia duena, gainera. Esaterako, Cusco udalerriko langile batzuk (oraingo alkatea eta aurreko Kultura zinegotzia) Euskal Herrian ikasi zuten (Cuadra, 2015, k.p.); Pukllasunchis eskolak, zeinek ketxuaren biziberritzearen aldeko apustua egin duen, euskararen normalizazio prozesua partekatu zuten euskal boluntario batzuk hartu zituen (Chiappe, 2015, k.p.); eta 2015eko irailaren amaieran, EHUko irakasle batzuk Cusco bisitatu zuten (Cuadra, 2015, k.p.).

4. EUSKAL LANKIDETZA HISTORIKOKI TESTU-INGURATUZ

Nola ulertu genezake XXI. mendean euskal hiztunek Andeetako herriei lankidetzan aritzea hizkuntzaren biziberritzearen arloan? Zeintzuk izan dira fenomeno hau ahalbidetu duten prozesu eta testuinguru historikoak? Garabideren aburuz, lankidetzaren Euskal Herriak ondoko esperientzia garrantzitsu hau partekatu dezaken ideiatik abiatzen da:

“Gure herriak munduarekin partekatzeke zein esperientzia edo jardunbide dituen pentsatzen hasiz, berehala dator burura euskararen biziberritze esperientzia. Ekimen zibiletik sortutako azpiegitura sarea oinarri izan duen hizkuntza biziberritze esperientzia moduan ez du pareko gehiegi eta jakintza hori altxorra da munduko hizkuntzen galera prozesua inoiz baino biziago den honetan” (Garabide, 2016).

Atal honetan ez dugu euskararen “borroka eta garapena” bere horretan aztertuko, baizik eta esperientzia horren transmisioa eta bere testuinguru historikoa, lau prozesu historikori arreta eskainiz. Era berean, gomendio batzuk luzatuko dira euskal lankidetzari argi gehiago eskaintzeko asmoz.

**Kolonia garaiko
Perun, Ketxua
hiztun gehienek
ez zuten
gastelaniarekiko
kontaktu gehiegi
izan, ketxua
zubi-hizkuntza
bezala erabili
baitzuten
bereziki Elizak
eta lurjabe
mestizoek.**

**Euskararen
komunitate
osorako
ikuspegiaren
arabera, estandar
bat lortzeko
egindako
saiakerak
emankorrek izan
dira.**

4.1 Menderakuntza espainiarra

Euskal lankidetzeta posible egin duen lehen pausua espainiarren Ameriketako konkista eta kolonizazioa izan dira. Alde batetik, honek gaztelania hiztunen menderakuntza ekarri du, bai Ameriketara eta baita Euskal Herrian ere. Hizkuntza indigenen aurkako politika espainiarren areagotzea 1770 urtearen bueltan jazo zen eta Andeetako herrialdeen independentzia arte luzatu zen (Konetzke, 1965). Politika hauek alde aurretik Espainian burututako politiken eragina jaso zuten, bereziki arabiera hizkuntzaren akabatzea (Mannheim, 1989:26) eta baliteke ondoren Espainian hartutako norabideak Ameriketara hizkuntzekin egindakoan izatea sustraia. Espainiarrek Ameriketara zein Euskal Herrira eramane zituzten ideologia horiek, eta ikusi dugun bezala, faktore hauek funtsezkoak izan dira bai Hego Ameriketako hizkuntzen galeran eta baita hauen biziberritze saiakeretan ere. Hala ere, eta konkistaz ari garenez, kontu handiz atxiki beharko genizkioke euskaldunei Hegoamerikarrei eskainitako baldintza eta ezauzgarriak, izan ere, euskaldunek ere kolonizazioan parte hartu zuten (esaterako, Antiokia eskualdeko konkistan, Kolonbia).

Hein batean, ideologia hegemonikoen artean partekatzen diren ezaugarriak nabarmenagoak dira euren arteko aldeak baino -hau da, Latinoamerika, Australia, Indonesia, Txina eta abarreko hizkuntza gutxituek gutxi gora-behera “mespretxuzko ideologia” berdinak dituzte (Dorian, 1998), inguratzen dituzten kulturak edonolakoak izanda ere. Ideologia horiek esango lukete hizkuntza gutxitu horiek zarpailak, konplexutasuna adierazteko ezaugarriak eta abar direla. Munduan zehar hain zabalduta dauden ideologiaren hedapena europar kolonizazioari zor zaio, indoeuroparrek kolonizatutako lurralde eremuetan barne (Anderson, 1983). Edonola ere, lan honetan aipagai ditugun hiru herrialde-kultura hauek europar inperialismoaren biktima izan dira, zein hizkuntza aniztasunarekin bereziki gogorra izan den, beste inperio historiko batzuekin alderatuz gero:

“aginduan zeuden botereek ez dute beti itxaron manupean zeuden herriek euren jatorrizko hizkuntza alde batera laga zezaten, eta ez dituzte bultzatu talde hedakorraren hizkuntza hartzera ere” (Dorian in Grenoble eta Whaley 1998:5).

Hala ere, ideologia hauen formetan hainbat alde ezberdin daudela nabarmendu behar dugu. Mapuzugun hiztuna den eskualde nagusia (gaur egungo Txileko bederatzigarren eskualdea), aske mantendu zen XIX. Mendera arte, Txile dagoeneko herrialde independentea zenean (Bengoa, 1991). Latinoamerikako beste herrialde indigena batzuekin alderatuta, beraz, Txileren hizkuntza politika oro har estatu-kreole batena izan da.

Gainera, esan beharra dago ideologia berdina aplikatu izan balira hiru eskualdeetan, politika edo praktika berdina izatea guztiz ezinezkoa zela. Ketxueraren kasuan, konkistaren hasieran espainiarrek ez zuten beste aukerarik izan administrazioa hizkuntza gisa erabiltzea baino, ikusita zegoen espainiarren kopuru urria (Evans 2009, *Speaking to other hearts and minds*). Kolonia garaiko Perun, Ketxua hiztun gehienek ez zuten gaztelaniarekiko kontaktu gehiegi izan, ketxua zubi-hizkuntza bezala erabili baitzuten bereziki Elizak eta lur-jabe mestizoek (Ostler, 2005:987-1015) eta gaztelania oso baldintza jakin batzuetan hedatu zen Errepublikara, hots, “ekonomiaren modernizazioa, komunikazio sareen garapena eta kostaldera hedatu zen migrazio mugimenduen hastapena” (Cerrón-Palomino 1989:23).

4.1.1 Euskal lankidetzarentzako ondorioa: Nola gainditu “mespretxuzko ideologia horiek?”

Ameriketako hizkuntzak bezalaxe, euskara eta Europako beste hizkuntza gutxituek “mespretxuzko ideologia” berdinei aurre egin behar dioten neurrian, irtenbidea ‘erraza’ da: hizkuntza gutxituen balioa era zabalean sustatu. Helburu hori nola lortu ez da hain aise erantzuten, ordea. Nortzuk dira gehien sufritzen eta gehien sufriarazten dutenak? Gurasoak, seme-alabak, liderrak? Zeintzuk dira jarrerak aldatzen gehien laguntzen duten ekintzak? Jendaurreko ekitaldiak, on-line egitasmoak, pertsona ezagunekin mintza praktika egitea? Nola lortu liteke jendartearen samurtzea hizkuntza gutxituen biziberritzearekin nortasun kulturalaz gain, konturatzeko umeentzako onura kognitiboak bilatzen direla horrela, batik bat ikusi ondoren hizkuntza galdu duten horiek zer nolako ondoriok dituzten? Horrelako kasuetan Euskal Herriak asko du partekatzeke, bere hizkuntzaren biziberritzearen duen historia nahiko luze eta arrakastatsua izan delako; hein batean erakunde akademiko indartsuak dituen herrialde “aberats” batek galdera hau erantzun bat bilatu ahal izateko baliabide ekonomikoak eskaini dituelako.

4.2 Estandarizazioa mapuzugun eta hegoaldeko ketxueraren biziberritzea

“Estandarizazioa” esatean kultura eta lurralde bati dagokion “hizkuntza estandar” (Blommaert, 2006) bat egokitzearen prozesua kontzeptualizatzea esan nahi da (adibidez, Blommaert eta Verschueren, 1998, 2004; Berthele, 2008). Espainiako kasuan (aitzindaria europar herrialdeen artean zentzu honetan), prozesu hau Isabel erregearen gidaritzapean jazotako batasunaren ostean hasi zen, Nebrijaren gramatikaren argitalpenaren la-

**Elite
maputxearen
artean
mapuzungunari
estandarra
emateko kezka
kaltegarria izan
da
biziberritzerako,
estatus soziala
bezalako kontu
garrantzitsuago
batzuetatik
arreta
desbideratu
duelako.
Hegoaldeko
ketxueraren
kasuan ere argi
dago
estandarizazioak
elitearen arreta
berreganatu
duela.**

**Mapuzugun eta
ketxuraren
kasuan arazoa ez
da nola
estandarizatu
hizkuntza, baizik
eta indar eta
denbora gehiegi
xahutzen ari
direla larritasun
handiagoko
zeregin batzuk
alde batera utziz.**

guntzarekin eta elite kreoloek Ameriketara eramana (Evans 2009, *Speaking to other hearts and minds*). Estandarizazioak aurkaritza handia ekarri du hizkuntza aniztasunaren eta eleaniztasunaren aurka, izan Espainian edota izan Ameriketara (Del Valle eta Gabriel-Stheeman, 2002). Prozesu hau Espainiaren menderakuntzarekin bat joan da eta gaur egun bizirik dirau Espainia eta Ameriketara (Moreno Cabrera, 2010). Baina espainiarren menderakuntza ez bezala, hemen interesatzen zaiguna ez da estandarizazioaren papera hizkuntza indigenen galeran, baizik eta bere ardura horien biziberritzean. Woolardek (1998: 17) hala dio:

“Hizkuntza gutxituak salbatzeko mugimenduak sarritan [...] euren zapalkuntza edota menderakuntzara eraman dituen uste berdinen inguruan egituratuak izan dira [...], inposatutako estandarrak, goi mailako formak eta erabilerak sustatuz eta hizkuntza aldakortasuna gaitzetsiz, hizkuntzaren zilegitasuna, balioa eta osotasuna goratzeko asmoz.”

Garabideren testuetan ikusi daitekeen bezalaxe, estandarizazioak ardura garrantzitsua izan du euskararen biziberritzea gutxienez honako arrazoietan, zeintzuk bere horretan aipatuko diren (Garabide Elkarte 2010:54):

- “Euskaldunen arteko ezin ulertuak gainditzeko modua ekarri du: euskara batua dakitenek ez dute batak bestearekin jarduteko nahitaez erdarara jo beharrik.”
- “Euskara esparru guztietara zabaldu da [...]”
- “Euskarak, bizirik iraungo bazuen, ezinbestekoa zuen haztea eta zabaltzea, eta euskaldun berrien kopurua asko handitu da batuaren oinarriak ezarri zirenetik.”
- “Euskararen mugak desagertu egin dira. Euskara ez da, dagoeneko, menderik mende geroz eta txikiagoa eta geroz eta muga estuagoak dituen hizkuntza, [...]”
- “Hizkuntza eta Herria bere osotasunean ikusten hasi gara. Ez Batuaren corpusa gara, dagoeneko, soilik nor bere euskalkira eta bere herrialdera begira bizi.”
- “Eta, batez ere: euskara benetako hizkuntza izan dadin bidea jarri da. Jada ez da euskaldunek berek ere ulertzen ez duten dialekto sorta. Hizkuntzek izan ohi duten prestigioa bereganatzeko urratsa egin da. Prestigio, ez gainontzeko dialektoekiko, noski, hizkuntza menderatzaileekiko baizik.”
- “Garai hartan euskara suspertzeko abian jarri ziren ekimen gehienek —ikastolek, gau eskolek, hedabideek, literaturak...— batua ezinbestekoa zuten, hori zelako erdararekin borrokatzeko modu bakarra.

Euskara erdara eskusiboa zen esparruetara hedatzea nahi bazen, prestigioz eta zientziaz jantzi behar zen.”

Euskararen komunitate osorako ikuspegiaren arabera, beraz, estandar bat lortzeko egindako saiakerak emankorrak izan dira. Hala ere, Lagos, Espinoza eta Rojas-ek (2013) erakutsi dute batik bat elite maputxearen artean mapuzungunari estandarra emateko kezka kaltegarria izan dela biziberritzerako, estatus soziala bezalako kontu garrantzitsuago batzuetatik arreta desbideratu baitu. Hau ez litzateke hizkuntza gutxitu batek hartu beharko lukeen formak bere erabileran (era txarrean) eragin duen lehenengo aldia:

“Zeltiarrek norbere “egiaren” ikuspegia sustatu eta besteen “egi” hori gutxiesteko erabilitako energia izugarria beste helburu batzuetara bideratu izan balitz, adibidez, ikerketa, irakaskuntza eta hizkuntza eta kultura zeltiarren erabilera eremu berrietan sustatzea, jendeak ez luke biziraupenari buruz hainbeste hitz egin beharko (Kuter 1989:40; in Dorian, 1994:488).”

Tlingit hizkuntza oinarri hartuta, Dauenhauer eta Dauenhauerrek diote ortografia aldatzeko eztabaidek ondorio nagusi bat dutela: “prokraztintzeko edo momentuan dagoen estandarra irakurri eta idazteari muzin egiteko aitzakiak izatea” (1998: 87).

Hegoaldeko ketxueraren kasuan ere argi dago estandarizazioak elitearen arreta bereganatu duela (Hornberger eta Coronel-Molina, 2004:39-43), beste esparru batzuetan saiakera anitz izan diren arren. Bi kasuetan, hizkuntzen “Akademien” (*La Academia de la Lengua Mapuche* eta *La Academia Mayor de la Lengua Quechua*¹⁰) ekintzak hizkuntzaren korpusean eta haren plangintzan oinarritzen dira. “Hau izan da maputxeen intelektualitatearen ia kezka bakarra, europar jatorriko hizkuntza ideologiaren eragin izugarriaren adierazle” (Lagos, 2014:87). *Academia Mayor de la Lengua Quechua*-ren kasuan, estandarizazioa ideologia bereziki arkaiko batean oinarritzen da, inka iraganaren idealizazioan (Marr 1999; Coronel-Molina 2008; Coronel-Molina 2015) eta Luykx-en arabera (2004), ketxuerarentzako egindako hizkuntza politikek tankera bera dute Bolivian ere. Purismorako joera honek hizkuntzaren biziberritzea kaltetu dezakete (Dorian, 1994). Honen harira, Hill eta Hill-ek nahat mexikarraren kasuan honakoa behatu zuten:

“*Mexicanon* eskaintzen den hezkuntza formalik ez dagoenez malintxe herrietan, zaila da oso hitzun puristak estandar purista batean heztea. Hau horrela, hitzun gazteek ikustean euren hizkuntza ezegokia dela, espainiera soilik erabiltzea hautatu dezakete ” (1986:140-141)

**Ketxua
altiplanoan bizi
den jendearen
ehuneko handi
baten etxeko-
hizkuntza denez,
eta ketxueraz
gatzelaniaz baino
hobeto moldatzen
diren ehuneko
esanguratsu bat
dagoenez,
ketxuerak
oraindik ere
balio
instrumentala
du.**

**Ketxuaren
kasuak
biztanleria
absolutu handi
baten eta
eskualdeetan
biztanleria
erlatibo
garrantzitsuak
izatearen
abantailak ditu.**

Aldaera estandarra behar bezain ondo ez dakiten hizkuntza gutxituetako hiztunen sentimendu hau arriskutsua da edonola ere, nahuatl eta ketxuera komunitateetako purismora iritsi gabe ere (Gal, 2006, Lane, 2011).

4.2.1 Euskal lankidetzarako ondorioa: ikuspegi zabalago bat eskaini

Ez dago zalantzarik Euskal Herriak zeresan handia duela beste hizkuntza komunitate gutxituen estandarizazio prozesuak gidatzean. Biziraun nahi baldin badute, mapuzugun eta hegoaldeko ketxuera beste testu-inguru berri batzuetara zabaldu beharko dira nahita-nahiez (bai idatzizkoak, bai ahozkoak), eta horretarako estandarizazioa tresna baliotsua da. Ketxuerearen kasuan derrigorrezkoa da hizkuntzaren prestigioa areagotzea, hizkuntzaren estandarizazioarekin zerikusi zuzena du honek eta gaztelania-hiztunak diren herrialdeetan dauden ideologiaren indarrari esker sortu da egoera hau. Hala ere, mapuzugun eta ketxuraren kasuan arazoa ez da nola estandarizatu hizkuntza, baizik eta indar eta denbora gehiegi xahutzen ari direla larritasun handiagoko zeregin batzuk alde batera utziz. Grenoble eta Whaley-k azpimarratzen duten bezala (2006:160-1), epe luze hizkuntzaren biziberritzeak aurrera egin nahi badu garrantzitsua da eskuragarri dauden baliabideak zeintzuk diren jakitea, dagoen denbora eta egitasmoarekin konpromisoa duten hizkuntzalarien abileziak barne. Julia Sallabank-ek gure SOAS-eko eskoletan¹¹ esanda bezala, kanpoko hizkuntzalariek egin dezaketen ekarpen garrantzitsuena “zaplazteko bana eman edo ur baldekada hotz bana botatzea” da, elkar hartu dezaten eta estandarizazioa bezalako gaietan ahalik eta azkarren jar daitezten ados, hartara bizitza errealean hizkuntzaren suspertzea ahalbidetuko duten egitasmoak abian jartzeko aukera emanez.

4.3 Trantsizio post-materialista

Trantsizio post-materialista ez da hain ezagutua eta maila akademikoan jende gutxiagok aztertu du, beharbada duela gutxi gertatu den prozesu bati buruz ari garelako. Wilson-ek (2011) dio, Man-eko uhartea adibidetzat jarritz, Europa mailan 50. hamarkadatik hona bizitako ziurtasun ekonomikoa dela medio, baldintza hauetan hazi diren belaunaldiak “beharrak” hobesten dituztela kultur mailan, eta baita maila estetiko eta intelektualean ere”. Hizkuntza gutxituak dituzten komunitateetan, lehentasun hori hizkuntzaren biziberritzea da. Hartara, euskararen biziberritzea ziurtasun ekonomikoaren eta balio post-materialisten jokaleku honetan kokatu beharko genuke, nahiz eta ezin zaion egoera honi atxiki euskararen biziberritzearen arrakasta. Ikuspegi hau hartu izanak ez du esan nahi behar materialek hizkuntzen biziberritzea baino garrantzia handiagoa dutenik,

ezta behar materialak hizkuntz kontuez bereizi behar ditugunik ere (izan ere, guztiz aurkakoa aldarrikatzen dugu beherago).

Prozesu hau testuinguru Hegoamerikarrean kokatuz, alde batetik Txile, eta beste aldetik Peru eta Boliviaren arteko aldeak nabarmenak dira. Txile 90eko hamarkadaz geroztik arlo ekonomikoan eta egonkortasun politikoan gehien hazi den herrialde Hegoamerikarra da. Hau dela eta, balio post-materialistak zabalduen dituen herrialdeetako bat ere bada (Valenzuela, Arriagada eta Scherman, 2012), proposatu nahiko genuke egoera hau jatorrizko hizkuntza ondarearekiko jarrera baikorragoetan islatzen dela (bai maputxeen artean eta baita winken, hau da, ez maputxeen artean ere), lehenago ikusi dugun bezala (§2). Horretaz gain, antzeko ondorioetara iristen gara mapuzugunaren biziberritzearen mugimenduan dauden ideologiak aztertuz gero: hizkuntza identitate kontuengatik da baloratua (Rojas, Lagos eta Espinoza, 2016). Ketxuaren inguruko ideologiek badago aldea honetan, ketxuari balio “instrumentala” ere atxikitzen zaion heinean (Penman, 2016). Instrumentalismoa horrela azal liteke, ideologia gisa:

“hizkuntza tresna bezala ikusia da, guk estimatzen ditugun helburu eta jomugak lortzen laguntzen gaituen tresna preziatua” (Robichaud eta De Schutter 2012:124).

Kasu honetan, ketxua altiplanoan bizi den jendearen ehuneko handi baten etxeko-hizkuntza denez, eta ketxueraz gaztelaniaz baino hobeto moldatzen diren ehuneko esanguratsu bat dagoenez, ketxuerak oraindik ere balio instrumentala du. Txanponaren beste aldean, pentsa genezake identitate balio askoz baxuagoa duela, baina bestelakoa da egoera: modu zorrotzean diskriminatzen duen identitate eragile indartsua da (adibidez, Centro Guaman Poma de Ayala, 2012:45-50). Biziberritzearen analisi hau argudiatzeko, garrantzitsua da azpimarratzea mapuzugunaren aldeko jarrera baikor eta ekintzek jarraitzaile asko dituztela Txileko biztanleriaren eremu zabal batean (adib. 2015ean mapuzugun hizkuntzaren ofizialtasunaren alde Temucon ospatu ziren herri martxak). Honegatik bereizten da mapuzugunaren egoera ketxuera biziberritzeko ekintzez, azken hauek klase ertaineko erakunde txikiak abiatzen baitituzte, *Academia Mayor de la Lengua Quechua* tartean (Coronel-Molina 2015). Bien bitartean, estatus sozioekonomiko baxuagoko hiztun indigenek biziberritzearen aldeko saiakeri muzin egiten diete, adibidez, heziketa elebiduna, euren seme-alaben aukera sozioekonomikoak murriztuko dituelakoan (ikus, esaterako, Makoni eta Pennycook 2007:29).

**Zoritzarrez,
Latinoamerika,
Afrika eta Asian
jarduten ari
diren laguntza
agentzia
gehienek arreta
gutxi eskaini
diete irizpide
linguistikoei, eta
are gutxiago
hizkuntza
gutxituei buruz
ari garenean**

**Hizkuntzalariek
langileak/libera-
tuak eta
boluntarioak
kitzikatzen
dituzte hizkuntza
gutxitu horiek
hitz egiteko...
langile eta
boluntarioei
eskolak ematen
dizkiete, eta
hizkuntza
gutxituak erabili
ahal izateko
guneak sortuko
direla bermatzen
dute.**

Hau da, hortaz, Euskal Herria Hego Amerikako zati batekin lortzen duen hirugarren prozesu historikoa. Batzuek esango lukete balio aldaketa hau joera aurreikusgarria zela, baita saihestezina ere, gizakien psikologia horrelakoa baita (Maslow, 1943) edo unibertsoaren patroia funtsezko zenbait horrelakoak direlako (ikus Wilber, 2007). Hala eta guztiz ere, ez dago fenomeno honen saihestezintasuna eta jasangarritasuna eztabaidan jarri beharrik konturatzeko, gutxienez, ardura garrantzitsua izan duela euskal eta txiletar gizarteetan.

4.3.1 Euskal lankidetzarako ondorioa: garapenerako lankidetzeta

Ketxuera hiztunen gehiengoak testuinguru post-materialistetan bizi ez direla ontzat jota, ketxuaren biziberritzeak zer nolako forma hartu beharko luke? Balioen kontuetan posiblea al da lankidetzeta soila, bi aldeetako gizarteak balio ezberdinak dituztenean eta guztiz ezberdinak direnean? Gure erantzuna garapenerako lankidetzeta kontuetan hizkuntza irizpidearen integrazioan oinarritzen da (Uranga, 2013:31-32), gure ekarpen batzuk sartuz. Maputxeen kasura itzuliko gara beherago.

Ketxuaren kasuak biztanleria absolutu handi baten (Ameriketako beste edozein hizkuntza indigena baino handiagoa) eta menditsuagoak diren eskualdeetan biztanleria erlatibo garrantzitsuak izatearen abantailak ditu (§2). Txanponaren beste aldean hizkuntzaren aurka dauden hizkuntza jarrera mespretxugarri bortitzak daude. Uranga (2013) eta Henderson, Rohloff, eta Henderson-ek (2014) diote egoera horietarako biziberritze-eredu egokiak behar direla, gaur egungo ereduaren gabeziak kritikatu. Arazoa da, gutxienez hein batean, gaur egungo ereduak oso “linguizentrikoak” direla, (Spolsky, 2004:7; Spolsky, 2009:ix) ondoko zentzu honetan:

“Hizkuntza giza esperientziaren aspektu bezala ikusten dute, modu isolatuan eta gizarteko beste esparruetatik aparte garatzen den elementu bezala. Ikuspegi hau jarraitzen duten ekintza eta ondorioak, hartara, naturalki hizkuntzalaritza eta hizkuntzarekin berarekin lotutako gaietan oinarritzen dira, esaterako, ortografiaren garapena, alfabetatzea eta hizkuntza irakasteko programen diseinua.” (Henderson, Rohloff, & Henderson, 2014:76)

Linguizentrisismo hau praktikan jakintza-esparru honetako literaturan islatzen da (adib. Bradley eta Bradley 2000; Fishman 2001; Hinton eta Hale 2001; Grenoble eta Whaley 2006). Gisa horretako ereduak egokiak izan daitezke Australia eta AEB bezalako herrialdeetan. Baina Hego Amerikako talde indigenentzako porrot izugarria izango dira, larritasun handiagoak jotzen diren gai materialak (txirotasuna, indarkeria, ingurugiro ara-

zoak, etab.) lantzen ez badira behintzat. Are gehiago, ikuspegi honekin ados gaude eta aldarrikatzen dugu gai horiek, izatez, presazkoagoak direla. Baina uste dugu ez litzatekeela aukeren arteko hauturik egin beharko: alde batetik hizkuntzekin zerikusirik ez duten arazoak, eta bestalde, hizkuntzaren biziberritzea. Beste era batera esanda, irizpide eta aldagai linguistikoak alde batera uzteak beste helburu batzuekin jaiotako egitasmoak zaildu ditzake (Brenzinger, 2009; Footitt, 2016). Zoritzarrez, Latinoamerika, Afrika eta Asian jarduten ari diren laguntza agentzia gehienek arreta gutxi eskaini diete irizpide linguistikoari, eta are gutxiago hizkuntza gutxituei buruz ari garenean (Uranga, 2013; Crack, 2014).

Guatemalako Wuqu' Kawoq GKE da eredu "ez-linguizentrikoa" erabiltzen duenatariko bat, kaqchikel hizkuntza maia erabiltzen baitu osasun zerbitzua eskaintzerako orduan (Henderson, Rohloff eta Henderson, 2014). Eredu honek honako abantailak ditu:

- hizkuntza galeraren kausa funtsezkoenetan jarduten da, hau da, ez-linguistikoetan (adibidez, bazterkeria sozioekonomikoa)
- hizkuntza indigenetan hobeto mintzo direnekin komunikazioa hobetzen du, horrela lanaren kalitatea hobetuz
- hizkuntzaren prestigioa areagotzen du
- hizkuntza erabilera-esparru berrietara hedatzen du
- hizkuntzaren lexikoa eta gramatika neologismoak sartzeko egokia den egoera batera zabaltzeko aukera ematen du

Wuqu' Kawoq bezalako ekimenek biziberritzearen eta garapenerako lankidetzan zer irakatsia dutela aitortuta ere, eredu hau beste testuinguru batean aplikatu ahal daitekeen galdetzen diogu geure buruari. Nola da posible hizkuntza biziberritzea jardun izan den euskal erakunde batek, osasungintza, nekazaritza, heziketa, uren kudeaketa eta gisa bereko esparruetan abileziak lantzea, batik bat kontutan hartuta erakunde hauek oso txikiak direla Latinoamerikako beste erakundeekin alderatuta? Ezin da esparru guztietan aditua izan eta dagoeneko "hizkuntza-kontuetatik landa" ari diren hainbat erakunde eraginkor daude. Ez-linguistikoa den ekintza gutxi daude, ordea, munduan, giza elkarrekintza orok, baita eguzki-panel baten instalakuntzak behar duelako hizkuntza elkarrekintza. Zer egin daiteke hizkuntza biziberritzea eta garapen sozioekonomikoan ari diren erakundeen arteko zulo hori estaltzeko? Beste era batera esanda, nola baliatu gaitezke hobeto Euskal Herriak dituen baliabide guztiez?¹² Erantzun bat bi ezagutza arlo hauen arteko lankidetzaren litzateke: alde batetik, hizkuntzen biziberritzea, eta bestetik, garapenaren esparrua. Tummons eta abarrek (2012:12) eredu zehatz bat proposatzen dute, zeinetan

**Zeintzuk dira
desberdintasun
eta antzekotasun
hauen ondorioak
euskal
lankidetzarako,
bereziki
hizkuntza
indigenen
biziberritzea
ahalbidetuko
duen biderik
eraginkorrena
hartu dezan?**

“hizkuntzen inguruko kezak ez dira kontuan hartzen egitasmoak diseinatzerako orduan. Oso bestela, egitasmoak komunitate jakin batek hausnartu eta negoziatzen ditu, agian GKE-en laguntzarekin edo garapenerako lankidetzako beste erakunde batzuekin [...]

[Hizkuntzalariek] langileak/liberatuak eta boluntarioak kitzikatzen dituzte hizkuntza gutxitu horiek hitz egiteko, hizkuntza eta kultura kontuan hartzen duten materialak sortzen dituzte, langile eta boluntarioei eskolak ematen dizkiete, eta orokorrean egitasmo horien gauzatzean hizkuntza gutxituak erabili ahal izateko guneak sortuko direla bermatzen dute.”

Horrelako lankidetzarako kinada bat Cuscoko *Centro Guaman Poma de Ayala*n ikusi liteke, Eusko Jaurlaritzaren lankidetzaren programa bateko kidea. Zentro honek nekazaritza, osasuna eta uren kudeaketa lantzen dituen egitasmo bat dauka abian, eta horretaz gain, ketxuerarekiko sustengua bultzatzen duen politika nahiko garatua (Penman, 2016). Denborarekin eta saiatzearen saiatzeaz, lankidetzaren eredu hau beste GKE batzuetara zabal liteke, orain arte hizkuntza gaietan interesik azaldu ez duten horien artean barne.

Azaldu dugun ereduak maputxearen kasuan hainbat ondorio garrantzitsu izan ditzake, batik bat txoko batzuetan. Baina Wallmapun hizkuntza (eta orokorrean, kultura) biziberritzea lehentasuna ez dela esatera ausartuko ginateke. Biziberritzearekin hizkuntzarekiko jarrerak hobetzea esan nahi dugu oraingoan. Hizkuntza biziberritzerako orduan gehien mugatzen duen aldagaia ez da horretarako borondatea, baizik eta beste baliabide soziolinguistiko batzuk, mapuzugunean gaitasuna kasu. Hori dela eta, “linguistikoki peto-petoak” diren ekintzek hartu dute garrantzia gehiago, hizkuntza ikastaroak eta barnetegiak, besteak beste. Izan ere, Txilen gaur egun antolatzen diren ekimen gehienek norabide hori hartu dutela dirudi. Hala ere, eta aitortuz hizkuntza-gaitasuna hobetu beharra dagoela, ikusten dugu helburu hau beste bide batzuk jorratuz ere lor litekeela, euskal esperientziatik ikasi ahal izan dugun bezalaxe. Adibide famatu bat ematearren, jakin badakigu ez dugula eskola eta klase formaletan dena kontzentratu behar.

Bigarrenik, oraindik ere badaude maputxe komunitate anitz zeinetan hizkuntza biziberritzeko borondatea falta den eta gaitasun linguistikoak egon badauden (§2). Beharbada, maputxeen kasuan esanguratsuen izan daiteke biziberritze prozesua helduz joan dela gaitasun linguistikoak gutzituz galdu aurretik. Komunitate hauetan Euskal Herrian hizkuntza jarrerak lantzeko esperientziak erabili ditzakete. Halaber, egoera honek

nondik norakoak trukatzeko aukera ematen die hizkuntza biziberritu nahi duten baina hitz egiten ez duten horiei eta hizkuntza hitz egiten duten baina biziberritzean interesik ez duten horiei. Horrelako trukaketa batek batzuen ikasketa naturala (ikasgelatik kanpoko) bultza lezake eta besteen jarrerak aldatu. Baina egoera hau tentuz prestatu beharra dago eta hori egiteko kanpoko eragile neutroek, euskal GKEak kasu, garrantzia izugarria lukete. Era berean, Euskal Herriak ere badu zer partekatua hiztunen arteko polarizazio honetan, eta hori argi ikusten da euskalgintzaren barruan eragileak batzeko abiatu diren dinamiketan (Topagunea, 2015:10).

4.4 Globalizazioa

Euskal lankidetza Andetan ahalbidetu duen azkenengo prozesu historikoa globalizazioa bezala ezagutzen duguna izan da, zeinaren barruan hainbat zehaztapen azaldu behar ditugun. Lehenik eta behin, globalizazioak ahalbidetu du komunikabideen hedapenaren ondorioz hizkuntza gutxituetako komunitateek elkarren berri izan dezaten eta euren hizkuntza ordezkapena eta biziberritzearen inguruko xehetasunak jakitea. Bigarrenik, globalizazioak Europa eta Hego Amerika arteko prezio baxuko hegaldiak (baxua “benetako” gastuarekin alderatuz gero) merketu ditu, edozein motako nazioarteko lankidetza erraztuz. Hirugarrenik, hizkuntzen biziberritzea jakintza-esparru akademiko gisa eratu izana ere globalizazioari atxiki geniezaioke.

Baina lan hau osatzeko globalizaziotik gehien interesatzen zaiguna hazten doan homogeneousatzeko presioaren eta kultura indigenak birbaloretzeko tentsioa da (Niesen, 2000; de la Cadena eta Starn, 2007). Globalizazioak abiadura handian aurrera egin duen era berean, “munduko eskualde gehienetan arriskuan dauden hizkuntza komunitateen kontzientzia maila oro har igoz joan da azkenengo bi hamarkadetan” (Grinevald eta Bert 2011:59). Harveyk (2012, Urban entrepreneurialism) bi tentsioen arteko harremana aztertzen du esanez kulturen homogeneousazio horrek jatorrizko tokietan bakarrak diren fenomeno kulturalak indartzen dituela. Alde batetik, globalizazioak hizkuntza indigenak desagertzera eramaten dituen baldintzak areagotzen ditu, esaterako, independentzia ekonomikoaren murrizketa, bizimodu tradizionalen suntsiketa eta sare sozialen apurketa (adib. Crystal, 2000:68-90; Grenoble, 2011:33-35). Baina beste kasu batzuetan, globalizazioak hiztunak hizkuntzaren alde jartzen ditu, adibidez, ikusita Cuscoko ketxua izenek nolako “benetako prestigioa” duten *gringoen* begietan. Joera hau batik bat turismo kulturean beha liteke (oso fenomeno garrantzitsua Perun), zeinetan herriak euren berezitasunak saltzen hasten diren.

**Euskal Herriak,
globalizazioak
erraztuta,
hizkuntza
indigenen aldeko
espazio eta
elkarrekintzak
sortu ditzake,
mugimendu
indigena
globalaren
esparruan
gehienbat.**

4.4.1 Euskal lankidetzarako ondorioak

Hau honela, ondokoa litzateke hizkuntza ekintzaileei egin beharreko galdera: nola baliatu berbalorazio honetaz, globalizazioak hizkuntza aniztasunean dituen eragin kaltegarriak borrokatzen ditugun bitartean? Gure erantzuna, bat izatekotan, atzerritarrekin elkargune hobeak bilatu behar direla da, eta atzerritarrek bertako kulturetan duten interes hori hizkuntza indigenek duten “ongiekin” uztartu behar direla (beste “ongi” batzuez gain). Baliteke gaur egun indarrean dagoen ikuspegiaren arabera kultura indigenak ‘kositifikatzen’ eta ‘merkantilizatzen’ ari direla turismoaren aurrean diru iturri bihurtu daitezen, batik bat Peruko kasuan (Butler eta Hinch 2007; Baud eta Ypeij 2009). Joera hori hizkuntzen biziberritzerako kaltegarria dela uste dugu (beste efektu batzuez gain), baina ikerketak falta dira. Bestalde, kasu gehienetan ezinezkoa da hizkuntza eta kulturen interesa agertzen duten atzerritarrekin tratua guztiz ekiditea (aberkideak diren ez-indigenak barne), eta egoera batzuetan komenigarria izango da kanpotarrekin harremanak izatea, hauek kultura eta hizkuntzari balio gehiago ematen badiote. Hauek dira lan honetan, globalizazioak erraztuta, bi noranzko errespetuan oinarritutako eta hizkuntza indigenen biziberritzea jomuga duten elkarguneak osatu ahal izateko behatu diren oinarritzko ondorio batzuk.

5. LAN HONEN ONDORIO NAGUSIAK, HITZ GUTXITAN

Mapuzuguna eta hegoaldeko ketxuera zein egoeratan dauden azaldu diguten zertzelada batzuk ikusi ditugu. Hiru kultura-hizkuntzen egoerak aztertuta, proposatu dugu hirurek lau prozesu historiko bizi izan eta bizi dituztela, prozesu horiek norabide ezberdinak jarraitu dituzten arren. Honako galdera hau egin diogu geure buruari: zeintzuk dira desberdintasun eta antzekotasun hauen ondorioak euskal lankidetzarako, bereziki hizkuntza indigenen biziberritzea ahalbidetuko duen biderik eraginkorrena hartu dezan? Gure erantzunak honakoak izan dira:

- Euskal Herriak hizkuntzaren zokoratzeari aurre egiterako orduan zer irakatsia eta partekatua du, batik bat bere ikerketa eta aktibismo soziolinguistikoari eskerrak
- Euskal Herriak hizkuntzen biziberritzea azaltzeko ikuspegi zabalago bat eskaini dezake, “argitze ideologikoa” bermatuko duten espazioak irekiz beste esparru batzuetan, bereziki estandarizazioa bezalako mugimendu hauen atzean dauden ideologiak zalantzan jarriz eta ideologia eta diskurtso eraikitzaileagoak eskainiz
- ketxueraren kasuan, irizpide linguistikoa txertatu beharko litzateke garapenerako lankidetzan

- Euskal Herriak, globalizazioak erraztuta, hizkuntza indigenen aldeko espazio eta elkarrekintzak sortu ditzake, mugimendu indigena globalaren esparruan gehienbat.

Esparru hauetan denetan asko dago ikertzeko oraindik, lankidetzaren hau ia euskal mundura mugatzen den lankidetzaren berritzea bat baita. Hala eta guztiz ere, uste dugu euskararen antzeko egoera bizi izan duten hizkuntza-kulturek, euren hizkuntzaren biziberritze prozesu nahiko luze eta arrakastatsuak izan dituzten neurrian, antzeko ardura izan dezaketela, mugimendu galestarrek, maoriak, hawaiarrak eta quebecarrak bereziki. Hau honela, espero dugu gure ideia eta proposamenak baliagarriak izango direla ez bakarrik euskal lankidetzarako, baizik eta ikuspegi honen hedapena beste esparru batzuetarako ere zabaltzeko ere. ●

OHARRAK

1. Henderson et al. (2014) eta Hintonek (2001) diotenez, kontzeptu hau erabili dugu, orokorrean, hizkuntza galera iraultzeari (Reversing Language Shift) eta erabilera domeinuak eta funtzioak mantentzeari buruz hitz egiteko, nahiz eta bigarren hau zehazkiago deskribatu daitekeen "Hizkuntzaren mantentzea" ("maintenance", ingeleraz) kontzeptuaren bitartez. Hala ere, bien arteko aldea garrantzitsua da §5 atalean, non bereizketa hori egiten dugun.
2. "Hizkuntza maputxea". Azümcheffi ortografia erabili dugu artikulu honetan hizkuntza maputxean dauden hitzentzako; hizkuntzaren izena ere <mapudungun> moduan idatzita dago, Alfabeto Batuaren esanetan. Zehatz-mehatz [mapu u un] ahoskatzen da.
3. Artikulu honetan Mexiko eta Ertamerika eta Euskal Herriaren arteko lankidetzaren ez da aztertuko.
4. Ekuadorren hitz egiten diren aldaeretan "ketxua" izena idazteko ortografia ekuatoriarra
5. "Dokumentazio mota eta haren kalitatea" eta "hizkuntza ikasi eta irakasteko materialen eskuragarritasuna" faktoreak baztertu ditugu.
6. <http://www.garabide.eus>
7. <http://www.urtxintxa.eus>
8. <http://www.mugarikgabe.org>
9. <http://www.ehu.es/eu/web/masterpoliticaslinguisticas/aurkezpena>
10. Peruko hainbat hiritan "Academia Mayor"-aren hainbat sukurtsal daude, eta Bolivian "Academia Regional de Quechua Cochabamba" delakoa dago -ez dakigu zein den bien arteko harremana.
11. <https://www.soas.ac.uk/linguistics/research/research-clusters/documentation-and-description-of-endangered-languages.html>
12. Aotearoa (Zelanda Berria), Hawai'i, Israel eta herrialde zelten moduko tokiekin ere aukera legoke lankidetzarako, gaztelania ez partekatzeak zailago bihurtzen duen arren.

BIBLIOGRAFIA

- Adelaar, W. F. H. (2004). *Languages of the Andes*. West Nyack, NY: Cambridge University Press.
- Anderson, B. (1983). *Imagined communities: Reflections on the origin and spread of nationalism*. London & New York: Verso.
- Baud, M., & Ypeij, A. (Eds.). (2009). *Cultural tourism in Latin America: The politics of space and imagery* (96. zenbakia). Leiden & Boston: Brill.

- Bourhis, R. Y., Giles, H., & Rosenthal, D. (1981). Notes on the construction of a “subjective vitality questionnaire” for ethnolinguistic groups. *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 2(2), 145–155 orr.
- Bradley, D., & Bradley, M. (Edk.). (2000). *Language endangerment and language maintenance: An active approach*. New York: Routledge.
- Brenzinger, M. (2009). Language diversity and poverty in Africa. In W. Harbert (Ed.), *Language and poverty* (37–49 orr.). Bristol: Multilingual Matters.
- Butler, R., & Hinch, T. (Edk.). (2007). *Tourism and indigenous peoples: Issues and implications*. Amsterdam: Butterworth-Heinemann.
- Catriquir Colipan, D. (2007). Zugun - El mundo y la gente: principios culturales de la comunicación mapunche. In *Patrimonio cultural mapunche : acercamientos metodológicos e interdisciplinarios, derechos lingüísticos, culturales y sociales*. Temuco: Universidad Católica de Temuco.
- Centro Guaman Poma de Ayala. (2012). *Racismo, discriminación y exclusión en el Cusco: Tareas pendientes, retos urgentes*. Cusco: Centro Guaman Poma de Ayala.
- Cerrón-Palomino, R. (1987). *Lingüística quechua*. Cusco: Centro de Estudios Rurales Andinos Bartolomé de las Casas.
- Cerrón-Palomino, R. (1989). Language policy in Peru: A historical overview. *International Journal of the Sociology of Language*, 77. zenbakia, 11–33 orr..
- Coronel-Molina, S. (2015). *Language ideology, policy and planning in Peru*. Bristol & Buffalo: Multilingual Matters.
- Coronel-Molina, S. M. (2008). Language ideologies of the High Academy of the Quechua Language in Cuzco, Peru. *Latin American and Caribbean Ethnic Studies*, 3(3), 319–340 orr.
- Crack, A. (2014). *Do NGOs Need a Languages Policy?* (Workshop report). Reading: University of Reading. Azkenengoz ikusia: Helbidea:http://www.intrac.org/data/files/resources/789/FINAL-DO-NGOs-Need-a-Languages-Policy_Workshop-Report_Feb-2014.pdf
- Crystal, D. (2000). *Language death*. Cambridge & New York: Cambridge University Press.
- de Bot, K., & Stoessel, S. (2002). Introduction: Language change and social networks. *International Journal of the Sociology of Language*, 2002(153), 1–7 orr.
- de la Cadena, M., & Starn, O. (Edk.). (2007). *Indigenous experience today*. Oxford & New York: Berg.
- del Valle, J., & Gabriel-Stheeman, L. (Edk.). (2002). *The battle over Spanish between 1800 and 2000. Language ideologies and Hispanic intellectuals*. London: Routledge.

- Dorian, N. C. (1993). A response to Ladefoged's other view of endangered languages. *Language*, 69(3), 575–579 orr.
- Dorian, N. C. (1994). Purism vs. compromise in language revitalization and language revival. *Language in Society*, 23(4), 479–494 orr.
- Dorian, N. C. (1998). Western language ideologies and small-language prospects. In L. A. Grenoble & L. J. Whaley (Eds.), *Endangered languages: Language loss and community response* (3–21 orr). Cambridge: Cambridge University Press.
- Dwyer, A. M. (2011). Tools and techniques for endangered-language assessment and revitalization. *Vitality and Viability of Minority Languages*. Azkenengoz ikusia: 2015/09/20 Helbidea: http://www.trace.org/events/events_lecture_proceedings.html
- Evans, N. (2009). *Dying words: Endangered languages and what they have to tell us* (Kindle edition). Chichester & Malden, MA: Wiley-Blackwell.
- Fishman, J. A. (Ed.). (2001). *Can threatened languages be saved? Reversing language shift, revisited: a 21st century perspective*. Clevedon & Buffalo: Multilingual Matters.
- Footitt, H. (2016, maiatza). *The listening zones of Western intervention: language policies and practices of NGOs*. "Language and conflict: Politics of language and identity across contexts" konferentzia aurkeztua, SOAS, London.
- Freire, P. (1974). *Pedagogia do oprimido*. Rio de Janeiro: Paz e Terra.
- Garabide. (2016). Quienes somos? Azkenengoz ikusia: 2016/09/19 Helbidea: <http://www.garabide.eus/espanol/garabide/quienes-somos>
- Garabide Elkartea. (2010). *La estandarización de la lengua: La recuperación del euskera*. Gipuzkoa: Gertu.
- Garrett, P., Coupland, N., & Williams, A. (2003). *Investigating language attitudes: Social meanings of dialect, ethnicity and performance*. Cardiff: University of Wales Press.
- Grenoble, L. A. (2011). Language ecology and endangerment. In P. K. Austin & J. Sallabank (ed.), *The Cambridge handbook of endangered languages* (27–44 orr.). Cambridge & New York: Cambridge University Press.
- Grenoble, L. A., & Whaley, L. J. (2006). *Saving languages: An introduction to language revitalization*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Grinevald, C., & Bert, M. (2011). Speakers and communities. In P. K. Austin & J. Sallabank (ed.), *The Cambridge handbook of endangered languages* (45–65 orr.). Cambridge: Cambridge University Press.
- Harvey, D. (2012). *Rebel cities: From the right to the city to the urban revolution*. London & New York: Verso.
- Heggarty, P. (2006). How many people still speak Quechua? Azkenengoz ikusia: 2016/08/09 Helbidea: http://quechua.org.uk/Eng/Main/i_DANGER.HTM

- Henderson, B., Rohloff, P., & Henderson, R. (2014). More than words: Towards a development-based approach to language revitalization. *Language Documentation & Conservation*, 8. zenbakia, 75–91 orr.
- Hinton, L., & Hale, K. L. (Edk.). (2001). *The green book of language revitalization in practice*. San Diego, CA: Academic Press.
- Hornberger, N. H. (1988). Language ideology in Quechua communities of Puno, Peru. *Anthropological Linguistics*, 30(2), 214–235 orr.
- Hornberger, N. H. (2000). Bilingual education policy and practice in the Andes: ideological paradox and intercultural possibility. *Anthropology and Education Quarterly*, 31(2), 173–201 orr.
- Hornberger, N. H., & Coronel-Molina, S. M. (2004). Quechua language shift, maintenance, and revitalization in the Andes: the case for language planning. *International Journal of the Sociology of Language*, 2004(167), 9–67 orr.
- Howard, R. (2007). *Por los linderos de la lengua: Ideologías lingüísticas en los Andes*. Lima: Instituto de Estudios Peruanos.
- Instituto Nacional de Estadística. (2015). Censo de población y vivienda 2012 Bolivia: Características de la población. Azkenengoz ikusia: 2016/09/17 Helbidea: http://www.ine.gob.bo/pdf/CENSO_POBLACION.pdf
- King, K. A., & Haboud, M. (2007). Language planning and policy in Ecuador. In R. B. Baldauf & R. B. Kaplan (Edk.), *Language planning and policy in Latin America, volume 1: Ecuador, Mexico and Paraguay* (39–104 orr.). Clevedon & Buffalo: Multilingual Matters.
- King, K. A., & Hornberger, N. H. (2004). Introduction. Why a special issue about Quechua? *International Journal of the Sociology of Language*, 2004(167), 1–8.
- Kondic, A. (2016). Hacia un perfil sociolingüístico del huilliche tsesungun de la Región de Los Lagos: La vitalidad de la lengua. Azkenengoz ikusia: 2016/09/16 Helbidea: <http://www.fundacionaitue.cl/estudio-vitalidad-de-la-lengua-huilliche/>
- Konetzke, R. (1965). *Die Indianerkulturen Altamerikas und die spanisch-portugiesische Kolonialherrschaft*. Frankfurt: Taschenbuch.
- Kuter, L. (1989). A note from the editor. *Bro Nevez*, 32, 40.
- Lagos, C. (2012). El mapudungún en Santiago de Chile: Vitalidad y representaciones sociales en los mapuches urbanos. *Revista de Lingüística Teórica Y Aplicada*, 50(1), 161–184 orr.
- Lagos, C. (2014). Ideologías lingüísticas de los mapuche urbanos en torno al mapudungun: Una aproximación desde la lingüística antropológica aplicada a la promoción y revitalización de la lengua mapuche. In S. Montecino Aguirre (Ed.), *Coyunturas pasadas y presentes de los pueblos*

- originarios* (83–112 orr). Santiago de Chile: Cátedra Indígena Universidad de Chile.
- Lagos, C. (2015). ¿Se dice “los mapuche” o “los mapuches”? la revitalización de las lenguas indígenas como espacio de lucha ideológica. Tercer Congreso de las Lenguas Indígenas de Chile (Santiago) ekitaldian aurkeztua.
- Lagos, C., & Espinoza, M. (2013). La planificación lingüística de la lengua mapuche en Chile a través de la historia. *Lenguas Modernas*, 42. zenbakia, 47–66 orr.
- Lagos, C., Espinoza, M., & Rojas, D. (2013). Mapudungun according to its speakers: Mapuche intellectuals and the influence of standard language ideology. *Current Issues in Language Planning*, 14(3-4), 403–418 orr.
- Lewis, M. P., & Simmons, G. F. (2009). Assessing endangerment: expanding Fishman’s GIDS. *Romanian Review of Linguistics*.
- Lewis, M. P., Simmons, G. F., & Fennig, C. D. (2016a). Mapudungun. Azkenengoz ikusia:2016/09/16 Helbidea: <http://www.ethnologue.com/language/arn>
- Lewis, M. P., Simmons, G. F., & Fennig, C. D. (2016b). Quechua. Azkenengoz ikusia:2016/09/16 Helbidea: <http://www.ethnologue.com/language/que>
- Luykx, A. (2004). The future of Quechua and the Quechua of the future: language ideologies and language planning in Bolivia. *International Journal of the Sociology of Language*, 2004(167), 147–158 orr.
- Makoni, S., & Pennycook, A. (2007). Disinventing and reconstituting languages. In S. Makoni & A. Pennycook (Eds.), *Disinventing and reconstituting languages* (1–41 orr.). Clevedon: Multilingual Matters.
- Manley, M. S. (2008). Quechua language attitudes and maintenance in Cuzco, Peru. *Language Policy*, 7(4), 323–344 orr.
- Mannheim, B. (1989). La memoria y el olvido en la política lingüística colonial. *Lexis*, 13(1), 13–45 orr.
- Mannheim, B. (1991). *The language of the Inka since the European invasion*. Austin: University of Texas Press.
- Marr, T. (1999). Neither the state nor the grass roots: Language maintenance and the discourse of the Academia Mayor de la Lengua Quechua. *International Journal of Bilingual Education and Bilingualism*, 2(3), 181–197 orr.
- Maslow, A. H. (1943). A theory of human motivation. *Psychological Review*, 50(4), 370–396.
- McCarty, T. L. (2012). Indigenous language planning and policy in the Americas. In B. Spolsky (Ed.), *The Cambridge handbook of language policy* (544–569 orr). Cambridge: Cambridge University Press.

- Moreno Cabrera, J. C. (2010). Lengua/nacionalismo en el contexto español. Universidad Autónoma de Madrid. Azkenengoz ikusia: 2015/10/21 Helbidea: http://bretemas.blogaliza.org/files/2010/06/Texto_Juan_Carlos_Moreno_Cabrera.pdf
- Moseley, C. (Ed.). (2010). *Atlas interactivo UNESCO de las lenguas del mundo en peligro* (3rd ed.). Paris: Ediciones UNESCO. Azkenengoz ikusia: 2016/09/17 Helbidea: <http://www.unesco.org/languages-atlas/es/atlasmap.html>
- Niezen, R. (2000). *The origins of Indigenism: Human rights and the politics of identity*. Berkeley, CA: University of California Press.
- Ostler, N. (2005). *Empires of the word: a language history of the world*. London: HarperCollins.
- Parker, G. (1963). La clasificación genética de los dialectos Quechuas. *Revista Del Museo Nacional*, 32. zenbakia, 241–252 orr.
- Penman, R. (2015). *Mapuzugun revitalization efforts: Obstacles and officialization* (ikasgai batetarako lana). School of Oriental and African Studies, London.
- Penman, R. F. (2016). *Language policies of NGOs in Cusco* (Master amaierako lana). School of Oriental and African Studies, London.
- Robichaud, D., & De Schutter, H. (2012). Language is just a tool! On the instrumentalist approach to language. In B. Spolsky (Ed.), *The Cambridge handbook of language policy* (124–145 orr). Cambridge: Cambridge University Press.
- Rojas, D., Lagos, C., & Espinoza, M. (2016). Ideologías lingüísticas acerca del mapudungun en la urbe chilena: El saber tradicional y su aplicación a la revitalización lingüística. *Revista de Antropología Chilena*, 48(1), 115–125 orr.
- Sallabank, J. (2010). Language documentation and language policy. *Language Documentation and Description*, 7. zenbakia, 144–171 orr.
- Spolsky, B. (2004). *Language policy*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Spolsky, B. (2009). *Language management*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Spolsky, B. (2014). Language beliefs and the management of endangered languages. In P. K. Austin & J. Sallabank (Eds.), *Endangered languages. Beliefs and ideologies in language documentation and revitalization* (407–424 orr.). Oxford: Oxford University Press.
- Stoessel, S. (2002). Investigating the role of social networks in language maintenance and shift. *International Journal of the Sociology of Language*, 2002(153), 93–131 orr.

- Torero, A. (1964). Los dialectos quechua. *Anales Científicos de La Universidad Agraria*, 2, 446–478 orr.
- Tummons, E., Henderson, R., & Rohloff, P. (2012). Language revitalization and development: Studies from community based health care in Guatemala. LASA 2012 kongresuan aurkeztua, San Francisco, CA.
- UNESCO. (2015). A methodology for assessing language vitality and endangerment. Azkenengoz ikusia: 2015/08/09 Helbidea: <http://www.unesco.org/new/en/culture/themes/endangered-languages/language-vitality/>
- Urra, B. (2013). Propuesta para la integración del criterio lingüístico en proyectos de cooperación para el desarrollo. UNESCO Etxea. Azkenengoz ikusia: 2016/08/08 Helbidea: http://www.ehu.es/documents/3120344/3130328/lankidetzaren_hizkuntzak_cast.pdf
- Valenzuela, S., Arriagada, A., & Scherman, A. (2012). The social media basis of youth protest behavior: The case of Chile. *Journal of Communication*, 62(2), 299–314 orr.
- von Gleich, U. (1994). Language spread policy: The case of Quechua in the Andean republics of Bolivia, Ecuador, and Peru. *International Journal of the Sociology of Language*, 107, 77–103.
- Wilber, K. (2007). *A Brief History of Everything* (2. argit.). Boston, MA: Shambhala.
- Wittig, F. (2006). *La escritura en mapudungun: Alfabetos en uso y nuevos escenarios*. Azkenengoz ikusia: 2015/03/30 Helbidea: <http://www3.unisi.it/cisai/mapudungun%20escritura%20y%20alfabetos.doc>
- Woolard, K. A. (1998). Language ideology as a field of inquiry. In *Language ideologies: Practice and theory* (3–47 orr). New York: Oxford University Press.



aldizkariaren 2018ko **dossierrak**

106. ZENBAKIA

EUSKAL SOZIOLINGUISTIKAREN 2016ko

DATU ESTATISTIKOAK

~

107. ZENBAKIA

EUSKARA ERABILTZEAREN BILA, AKTIBAZIOA

~

108. ZENBAKIA

OSASUNGINTZA ETA EUSKARA

~

109. ZENBAKIA

XI. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

